



Barandiaran jaunaren etxean, begiak argi ta zorrotz,
nortasun sendoaren eta odol biziaren agerpena nabari
zaio aurpegiko jarreran.

AURKEZPENA

Zipitria ta Irastortza'tar Elbire zanari, «Andereñoen Andereño» esanez aipatu izan dugunari, 1984'go ekainillaren 9'an egin zion Donosti'n Omenaldi bat Euskerazaintza'k, eta egun artan itza eman zuanez ona orain emen OMENALDI-LIBURUA argitara agertu.

Zergatik eta zertarako, ordea?

Euskaljerri osoaren mesedetan eta euskeraz pentsatuta, irakasbide berezi baten oiñarriak jarri zituanez, Ikastolaren sortzaille dala esan bear emakume argi ta bide-urratzaille ura. Ain zuzen ere orregatik zan bidezkoa Omenaldi egoki bat eskeintzea.

Euskaljerri osoak dio zor aundia Elbire Andereñoari, eta Euskaljerri osoari dei egin zion Euskerazaintza'k, Euskeraren Erri-Akademiak.

Omenaldi bat egin geniola-ta, ez daukagu gauzak orrela beste gabe uzterik. Zor aundiegia dio Euskaljerriak, geiago oartu gabe uzteko.

Elbire Andereñoak eratu zuan irakasbide-ezibide berezi ta bitxian, zein'en altxor aberatsa ta bikaiña daukagunik, ez du ongi ezagutzen Euskaljerriak. Utsune ta zorigaitz aundia da, baiña egia.

Batez ere gaztedia da, tamalez, Elbire zanaren irakasbidea gutxienik ezagutzen duana. Bear bezala ezagutu gabe, askok eta askok muzin egin izan diote aren irakasbideari. Ongi ezagutu ezkeru, oso zailla bai-da Elbire zanaren langintza baztertzea, Euskaljerria ta euskera benetan maite dituanarentzat.

Gazteak Irakaskintzarako gertutzen dituzten Ikastetxeek —Euskaljerrian daudelarik ere!— ezagutzen al dute Elbire bera izan zala baiña zerbait geiagorik? Ezagutzen al dute sakon-sakonetik aren irakasbide-ezibidea? Nun aipatzen dute? Zer-nolako argibideak ematen dizkiete ikasleei, biarko irakasle-gai diranei?

Utsune tamalgarria ta barkagaitza dala esan bear Egia aitortzeko,

esan dezagun ala ere, Donosti'ko Seminarioko Irakaskintza-Eskolan beren ikasketak igaz arritu zituzten neskatxa ikasle bik iker-lan mardula burutu zutela, Elbire zanari buruzko gai asko bilduz. Txalotzekoa da Irakaskintza-Eskola ori ta txalotzekoak ditugu Zubizarreta Agirre'tar Mari Dolores azkoitiarra ta.

Baiña... argitaratu ez danez, zenbat lagunen eskutara iritxi zitekean? Elbire irakasle ta ezitzaille bitxiaren irakasbidea aintzakotzat artzen asi dira batzuk..., ezagutu-naia poliki-poliki pizten ari da..., ezagutzeke zokoratzeko joera ura ari da galtzen...

Egiñaal aundiak jo nai ditu EUSKERAZAINTZA'k bide ontan, Elbire bera ta aren irakasbidea ezagutu-erazteko Euskalerrriari. Ortarako zan igazko ornen aldia ta ortara dator orain «Omenaldi-Liburua» dalako au. Eta aren izena gogorazteko eratu ditu orain bigarrenkoz «Olerki-Sariketa» ta «Ipuin-Sariketa».

ZAARRA TA ASPALDIKOA?

Ez ezagutzea errurik aski ez ba'litz bezala, aurrera ere ezagutzeke jarraitzeko aitzakirik jarri izan dute zenbaitek, Irakaskintzan dabiltzan zenbaitek ipiñi ere. Eta aitzakietako bat, zaarra dala, aspaldikoa...

Bitartean, Freinet, Makarenko, Montessori, Piaget eta besteren batzuk aipatuko dituzte, iñoren irakasbiderik sakontzeko gai izan ba'dira.

Eta orra or, lau oiek beintzat zaarragoak dirala; ta beren irakasbideko aurrerepenak ere bai, gure Elbire txiki-aundiarena baiño. Lauak izan ere, joan zan eunkadan jaiok bai-dira: Freinet 1896'an, Makarenko 1888'an, Montessori 1870'ean eta Piaget 1896'an.

Gure «Andereñoen Andereñoa», berriz, 1906'an jaiotzeaz gaiñera, ajen irakasbideak aztertuta, aurrera-bidean jarri ta euskal-girotu egin zituan, era berriko irakasbidea eratuz; berak sortua ez ba'da ere, berak beretu ta euskaldunduz.

Ez da aurrerapen txikia, ez da berritasun kaxkarra, euskal-pentsakeraren eta euskal-senaren argira ta kutsuz eratu izana, berak landu zuan irakasbidea.

LIBURU ONTAKO ESKEINTZAK

Omenaldiko joan-etorri ta ospakizunak zer-nola izan ziran adierazi ondoren, egun artako itzaldiak aurkituko ditu irakurleak.

Urrengo zatian, Elbire zanaren irakasbidea, Ikastola-barrutik ikusi-

ta. Au da, irakasbidearen alderdi aberasgarri batzuk, danak ez eta gutxiagorik ere ez. Eta NOR-NORI-NORK aditz-jokaeraren asmatzaille aitortzen duten idazlan bi ere bai.

Iruharren zatia esan dezaiokegunean, Elbire bera ta aren lan batzuen berriak, azterketak, goralpenak...

Laugarrenean, goratarrez eskeiñitako olerki ta idazlanak.

Bukatzeko, berriz, Omenaldiaren inguruko giroa adierazten duten zeaztasun batzuk eta eskutitzak.

Or dute euskaltzaleok altxor aberatsa. Batez ere, ordea, Andereño ta Irakasleek, Irakaskintzan ari diran guztiek, or dute argibide bat: ezitzailleak aberastasun bikaiñak atera lezaizkiokean altxorra nun dagoan eta nolakoa dan, laburki adierazita.

Arrera ona egingo dioten itxaropenean gelditzen da EUSKERAZAINTZA. Arrera on ori, ibillian-ibillian, gure nexka-mutiko txikientzat eta ikasketan dabiltzan gaztetxoentzat izango da mesedegarri, ikasleen serbitzuan eta erraztasunerako landua bai-da Elbire'ren irakasbidea.

EUSKERAZAINTZA'k



Andereño ELBIRA ZIPITRIA bidea...

Omenaldi-egunez agerturiko idazkuna, ainbeste bider bere aurtxoekin gora ta beera ibilli zaneko bidean.

OMENALDIA, EUSKERAZAINTZA'K ANTOLATUTA

ELBIRE ANDEREÑO, EMAKUME ARRIGARRIA

Zipitria Irastorza'tar Elbire, «Andereñoen Andereñoa» esanez txalotu izan dugun emakumea, egia esan, buru argi ta zorrotzeko emakumea zan. Irakaskintzan asi zanetik, —gudaldia baiño leenagotik noski— bere bizitza osoa irakasletzan eman zuan, azken-urteetan gaixotasunak menperatu zuan arte beintzat.

Baiña ez nola-naiko irakaskintza. Gudaldiko ekaitz-erasoak mugaz iparrera uxatu zuanean, negarrez alperkerian egotea ez beste edozer egin zuan. Eta ala, irakaskintza-bide berri ta aurreratuenen billa ibilli zan. Bai aurkitu ere gauza baliagarririk aski Euskalerrirako.

Bere buru-errota berezi artan eio zituanez atzerritar jakintsuen eskeintza aurreratuak, bereala asi zan —errotak garia ta artoa irin egiten dituan eran— euskaldunen artean xeeturik ematen. Au da, euskal-buruaz pentsatu ta ausnartu ondoren, euskaldunentzat euskeraz ematen bere irakaskintza.

Ez da arritzekoa, jakiña, gudaldiaren ondorengo artaldekeria ta itsutasun izugarriak —goitik beera ezarriak noski— gogoratzean, goiz-argia bezain itxaropentsu ta intza bezain bizigarri agertzea Elbire Andereñoa bere irakaskintza ematen. Umetxoei lenengo, talde txikitan eta izkutuka: umeen bidez baita gurasoei ere urrena, jakintza-gosea ta euskal-giroa sortarazten asi zan.

Urrengo urratsa, berriz, bere inguruan beste irakasle berri batzuk gertutzea izan zan beste ekintza bat oso garrantzizkoa. Banaka ta astiro artu bearreko giroa, irakas-bidea, ber-lantzea ta buru-berritzea eskeintzen zituan Elbire Andereñoak. Eta bat baiño geiago dira, bai, emakume txiki ta burutsu aren ondoan mundu berri bat aurkitu zutela aitortzen dutenak.

Irakaskintza osoa euskeraz pentsatu ta ausnarturik ematea, ez da utsaren urrengo jolasa: Elbire artekoan izan ez duguna. Euskal-senaren eta pentsakeraren argira ikusten zituan gai guztiak, eta alaxe giroturik

eta xeeturik ematen zizkien umeei, baiña «Andereño» berriei ere bat. Uraxe zan Euskalerritik Euskalerrirako egitea bere eziketa-lana.

Alde askotatik begiratuta, bear bezala ezagutzen ez dugun altxor aberatsa bezain izkutua dala esaten ausartzen naiz. «Ira» andereñoak landuriko irakaskintza-bidea, arrobi sakon aberatsa danez, emaitza ta ondorio guztiz aberasgarriak ateratzeko aukera egokía da euskaldun eziketa-bidean.

OMENALDI-EGUNA, EUSKERAZAINTZA'K ANTOLATUTA

Ekainillaren 9'gna, egun gogoangarria izango da luzaroan. Goizeko 11'etan bost apaizek Elkar-Meza eman zuten, Santa Teresa elizan: Akeso-lo'tar Lino, Beraza'tar Manuel, Gaztañaga'tar Jesus, Labaka'tar Patxi ta Yartza'tar Franzisko. Eliza osoa jendez bete-beterik, jaieratsu ta... antziñako oroitzapen-giroan biai eginda. Egun illunago ta garai latzagotan bildu izan ziran, noski, eliza artan bertan Elbire zanaren inguru, zenbait ospakizun xume ta otoitzaldi jator egitera.

Etxebeste'tar Jose Mari, abesten eta abestiak zuzentzen .Irakurgaia ta Eskariak egiten, Yurramendi'tar Felipe ta Esnal'dar Karmele ezagunak. «Ira» zanaren ikasle izanak txistulari, unerik nagusienetan. «Emen lurrean billatu ta aurkitu ez zituan egia osoa, zuzentasuna, elkartasuna, pakea, atsedena, e.a. antxe Aitaren etxean aurki ditzala betiren betiko. Eta andik lagun dezaigula emen lurrean gabiltza bitartean, etsi gabe billa jarrai dezagun, aurkitu arte!» (Gaztañaga'k Mezatako itzaldian.)

Santa Maria elizaren atzekaldean goruntz, zenbat aldiz igo ote zan Elbire Gaztelu-gaiñera bere taldetxoaren erdian? Zenbait urtez antxe elizaren atzeko geletan eman zuan bere ikaskintza. Tarte ori oso «berea» izatea, ez da batere arrigarri. Eta ain zuzen ere igoera orrek gogoraziko du luzaroan Zipitria'tar Elbire Andereñoa.

KALE-IZENA AGERTZEA

Donosti'ko Udal-batzak aspaldi erabakirik zeukan karrika oni Elbire izena ematea. Abierako ertzean, eliza-ormari itsatsita, antxe dago kale-izen berria. Ikurriñaz estalita zegoana, Labaien'dar Ramon, alkate jaunak azaldu zuan idazkun bitxia. Alde guztietara zegoen jendetzak, bai txalo biziak jo ere!

Eta guztien aotan ez ba'zan ere, guztien buruetan galdera auxe zebillen pil-pil: «Begira ba'lego, zer esango ote luke gure «Ira» urduri biz-



Elbire zanari omenaldia 1984'go ekainillaren 9'an.

«Karmeldarren elizan elkar-meza: Beraza, Yartza, Gaztañaga, Akesolo ta Labaka jaunak ezkerretik eskubira.

korrak?».

Itz laburrak bezain jakingarriak jalki zituan Labaien jaunak. Beti irakasle ezagutu zuala, bai emen eta bai erbestean, bai umeekin eta bai nagusiagoekin. Eta beti abertzale sutsu. Azkenik, kale-izena gogoangarri ta goratarrez Elbire Andereñoari ipintzean, bere asmoz beintzat, irakasle-ezitzaille diran andereño guztien ereduari egiten ziola aitopen eta josten zizkiola txaloak.

Bestetik, Garaikoetxea, Lendakari jaun txit argiaren agurraz batera, ospakizunetara etorri eziña agertu zigun.

Euzko Jaurilaritza'k bete-betean babestu zuan omenaldia. Lendakariak gaiñera, Kultura-Sailburua dan Arregi'tar Joseba ta Izkuntza-politikarako Odazkari nagusi dan Garmendia'tar Franzisko jaunek ere bidali bai-zituzten beren agurrak eta Donosti'ratu eziñaren argibideak. Eta guztien izenean, egia esan, antxe izan zan ospakizun guztietan Ugalde'tar Martin jauna.

Gipuzkoa'ko Aldundia'ri dagokionez, an izan ziran, batetik Aizarna'tar Xabier, Batzar Nagusien Lendakaria, eta bestetik Murua'tar Imanol alduna ta Lete'tar Xabier kultura-alorreko buruetakoa.

Donosti'ko Udal-Batza ez zitekean atzean gelditu: an agertu ziran Alkateaz gaiñera, Larraina'tar Mari Pilar, Goikoetxea'tar Esteban, Izagirre'tar Markel, e.a.

AKADEMI-ALORREKO OSPAKIZUNA

Euskal-antzerkiak ikustetik ain ezaguna dugun «Antzoki Zaarra» izan zan batzar-leku jendetza alai arentzat. Agurra egiteko, berriz, zer egokiagorik, BASARRI aundiaren bertsoak baiño? Ederrak benetan gure Iñaki ospetsuaren bertso sakon aiek.

Urrena, Euskerazaintza'ren idazkariak, Gaztañaga'tar Jesus'ek artu zuan itza. Eta LATXAGA jaun irakasle ospetsuaren agurra irakurri zuan lenengo, ain zuzen ere New York uritik bidalia. Elbire Andereñoa ta Irakaskintza elkarturik azaldu zituan urrena idazkariak, emakume bitxi arek alor ontan burutu zuan langintza arrigarriaren laburpena eskeiñiz.

Elbire Andereñoa Irakaskintzaz kanpoko alorretan zer-nolakoa zan azaldu zigun Agirre'tar Maria Dolores andre argiak. Oi duan egokitasunez eman zuan gauza ta alderdi jakingarri askoren berri: buru argidun emakumea, dana garbi ta dana zuzen nai zuana, abertzale sutsua ta benetako jainkozalea. Toki artan bertan askotan txalotu izan zuten Maria

Dolores antzerki-ikusleek eta bai guk ere alakoxe mintzaldi atsegiña entzun ondoren.

Beitia'tar Kontxi andreak, Elibre zanaren biotz-alderdia azaldu zizgun. Izan ere, azal latz samarraren barnean, biotz samur eta sakona bai-zuan. Eta iru gertaera dira lekuko: Agirre'tar Joseba Andoni, lenengo Lendakaria il zaneokan, zeinzen samurkiro ta jatorki azaldu zien umetxoei ta ospatu-erazi; ori lenengo. Urrena, Gandhi aundia il zuteneko urtemuga zeinzen aundikiro ospatzen zuan. Irugarren, gaizkille aundi bat Ipar-Ameriketa'n epaitu ta il zutenekoa; au zala-ta, gaiñera, bizia gorai patzen ornen zuan aundikiro ta barru-barrutik.

Arzelus'tar Amale andrearen ordez —onek ezin izan zuanez— Mendiola'tar Miren mintzatu zan, Elbire zanarekin burutu zituzten txango ta ibillaldien berri eman ez. Euskalerria ezagutu, olerkiak eta abestiak ikasi, lagun-arteko alaitasunean zuzpertz eguneroko errigintzarako: orra Elbire'k zerabizkian elburuak.

Orain dabilta «gau-eskolak» aotan, gaur sortuak ba'lira bezala. Eta bitartean aspaldi ematen zizkien Elibre'k jende elduei «gau-eskola» izeneko saioak. Bi eratakoak eman ere: euskeraz ez zekitenei irakasteko, eta zekitenei, berriz, euskal-kultura ezagurazteko. Izagirre'tar Merkel jaunak azaldu zuan au dana, Elbire zanari esker bai-da bera ere benetako euskaldun-berri. Baiña nola idazten eta itzegiten dualako, gero, euskaldun-berri onek!

Aizarna'tar Xabier genuan beste izlaria, ain zuzen ere Batzar Nagusietako Lendakaria. Gaia? Bere ta beste askoren seme-alaben ezitzaille arduratsu ta saiatua gorai patu zigun, arritzekoa ez danez. Gelatxo batean eta gaztelu-inguruetan, noski, umeen irakasle ta ezitzaille, baiña Euskalerrri osoan barna gurasoen argitzaille: izan ere, gertaera ta toki askotako xeetasun jakingarriak azaltzen bai-zizkien «Ira» urduriak.

«VIDEO» TRESNAZKO EMANKIZUNAK

Itzaldiak entzuten oituta gaude. Jakitunen irakaspenak, irakurri ainean entzutea ere ez da gauza berria. Oraingo aurrerapen-tresnei esker, ordea, zenbait gauza entzuteaz batera, ikusi egin genitzake. Eta entzun-ikusteko saioa eskeiñi ziguten Ernani'ko URUMEA Ikastolak lenengo ta ORIXE Ikastolak urrena.

Saioak ez ziran, umetxoak jolasean ikusiz, denbora-pasako emankizun arin eta bitxiak bakarrik. Elbire Andereñoak landutako eziketa-bidea ta irakaskintza-bidea (metodoa) ikus-erazteko agerpen aukeratu batzuk ziran. Irakas-bide bat bere osoan ez dago une labur batzutan ematerik,

edonork ulertuko duanez. Adibide zeatz batzuk ziran, beraz. Baiña elkarri lotuak eta esanaiz jantziak.

Iru zutabe nagusiren gaiñean eraiki zuan Elbire zanak bere irakas-bidea: Lojika, euskera-aberria, erlijioa. Baiña iru argi, iru indar, iru bide, iru jarrera bezala ziran, eta iruak elkarturik eta elkar aberastuz, elkar-gurutzatuz erabiltzen zituan bere irakaskintzan. Era ortan gertatzen zan ain aberasgarri bai umeentzat eta bai elduentzat. Eta giro orixe zan andereño berriei kutsa tzen ziena ere, erdal-irakaskintzatik zetozenentzat giro ta mundu berrira ateak zabalduz. A zer buru-aldaketarako ate ta bideak irekitzen zizkien!

Ikusi ta entzun aal izan genuanez, irakaskintza osoa jolas biurturik ematen zien txikitxoei. Ala, jolasean ari ziralakoan, eskuak eta soiña ta burua sakonki lantzen ari ziran: oarkabean eta arrigarririo landu ere. Bai polita ta atsegiña umeentzat, baiña bai zailla ta neketsua ere Andereñoentzat!

AItxor aberatsa da Elbire zanak landuriko irakas-bidea, baiña bear bezala aztertu ta ezagutu gabe dago. Ondoren eta emaitz guztiak ezagutu aal izateko, auxe dago egin bearra: artu Ikastola bat, bearreko babes eta laguntza guztiz inguratu, bertako irakasle guztiei irakas-bide au ezagutzeko erraztasunak eman, eta txikienetik 8'gn maillara bitartean, landu dezatela irakas-bide osoa. Ea zer-nolako ondorioak lortu daitezkean orrela, bai eziketa ta gizabide aldetik eta bai irakaskintza ta jakite aldetik. Jaurlaritzak eta Aldundiak lukete itza.

Eta ondoren, ia eun maikide, lagun-arteko bazkarian, Erakundeen ordezkoak mai-buruan ziralik.

«ELBIRE ANDEREÑO» SARIKETAK

Ezitzaille bitxiaren izena ta langintza etorkizunera luzatzeko asmoz, «ELBIRE ANDEREÑO» izeneko Sariketa bi sortu ditu Euskerazaintza'k, Donosti Aurrezki-kutxa dalarik diruz babesle, bata elduentzat eta bestea gaztetxoentzat.

Olerki-sariketa da elduentzat, elduek egin bearreko olerkiak eskatzen bai-ditu Euskerazaintza'k, baiña... umeentzako olerkiak, umeek buruz ikasteko ta antzezteko egoki izango diranak. Aipaturiko eziketa-bidean oso ere oso aberasgarritzat artuak bai-ziran eta orain ere dira olerkiak.

Ipuin-sariketa da bigarrena, umetxo ta gaztetxoek beraiek idaztekoak alegia. Eta ona emen eziketa-bide onen oiñarrietako bat: erigiñez, egiñez eta ekiñez ikasten duala gaztetxoak erarik onenean. Ortara dator sariketa au.

I

AKADEMI-MAILLAKO OMENALDIA

ELBIRA ZIPITRIA

1—

*Irtan, bertso maiteok,
aurreko aldera,
entzule guztieri
poz bat ematera.
Zertarako degu gaur
emengo billera?
Elbira'ren omenez
inguratu gera.
Ongi Etorri danok
Antzoki Zarrera.*

— 3 —

*Euskeraren alde zuk
odol danak pil-pil,
iñola ezin egon
geldi eta ixil.
Erakutsi gabe zu
nola bizi trankil?
Zuk egin zenduana
gogoratzen nabil:
EUSKERARENTZAT bizi,
EUSKERARENTZAT*

2--

*Zu ezin jaso inoiz
bear dan tokira,
oraindik emen dabil
argizko dizdira.
Boga, boga, jun bear
degu urrutira,
atseden ar zazu zuk
or goian Elbira,
zure jarraitzaileak
lur ontan ba-dira.*

4—

*Denbora txar aietan,
ai!, zenbat ostiko!
baiña Elbira'k etzun
egundo etsiko:
Euskeraren bizia
zan lendabiziko,
Itz ematen dizugu,
gaiñera betiko,
zure bide jatorra
ez degu utziko.*



Omenaldi-eguna, 1984'go-VI-9'an, «Antzoki-Zarra» aretoan mai-burua:
Beitia'tar Kontxi, Izaguirre'tar Markel, Agirre'tar M.^a Dolores, Aizarna'tar Xabier, Labaien'dar Ramon, Ugalde'
tar Martin, Akesolo'tar Lino ta Gaztañaga'tar Jesus.

ASMOA

1.—ELBIRA

ZIPITRIA IRASTORTZA'tar Elbire euskeraz, baiña beti ELBIRA esanez ezagutua, Zumaia'n jaio zan 1906'go lorailaren 28'an. Oso gazterik etorri zan bere biotzeko Donosti eder ontara, eta oso gazterik gelditu zan umezurtz. Bizitza latz eta gogorra eramán ondoren, 1982'go gabonillaren 26'an utzi zuan mundu au, «Jainko ederra, on-ona eta aundia, zeruko Aita» ikustera joateko. Eta gorputz umatu ta ximur ari, berriz, gabonillaren 27'an eman genion eliz-lurra, ain zuzen ere Bermeo'tik goiko mendian dagoan Mañu azune apaiñean.

2.—OMENALDIA

Emen eta gaurko jardun-aldian, jakiña, ez dago guztia azaltzerik. Omenaldi edo goratzarre bat da. Alderdi bitxi ta jakingarri batzuk, nabarienak noski, arrotu ta egun-argitara atera nai ditugu, EUSKERAZAIN-TZA, Euskeraren erri-akademia osatzen dugun guztiok, Elbire bera ere deduzko edo oorezko euskerazain bai-genduan sorreratik.

3.—ETXEKOA

Ez da, noski, bere errian onartutako igerlerik... Eta ori gertatu zai-gu Elbire'kin ere. Obeto, zeazkiago esanda, Elbire berarekin baiño areago gertatzen da ori, aren lanari, aren irakaskintzari, aren irakas-bideari dagokienez.

Atzerrietako ezitzaille ta irakasleen liburuak ikustean, dana arriturik, aietara jotzen dugu. Eragin aundikoa izaten bai-da gugan berri-poza, tximeleten antzera loretik lorera ibiltzeko joerak menperatzen gaitu. Bitartean, altxor izkutua, altxor oso aberatsa, ez dugu bear bezala aztertu, ez dugu sakonki ezagutu, ez dugu gogotsu ikasi. «Elbira andereñoa» izena askotan entzuna dugu, entzutea badugu, baiña geiagoko sakontasunik gabe. Au da gure tamala!

4.—ATZERRIKOA GEURETZAKOTU

Atzerrietako aizeak, idazleak eta irakasleak oso ezagunak zaizkigu erdal-irakaskintzari esker. Eta auxe gertatzen zaigu askotan: atzerritar arengandik, onengandik eta bestearengandik artu zituala Elbire Andereñoak bereturik azaldu zituan gauza bereziak, eta bazterrera uzteko joera nagusitu izan zaigu oarkabeen.

Baiña... zenbat dira eguzkipean gauza berri-berriak sustraitik eta osoro asmatu ta sortu dituztenak? Batzuek besteengandik gauza onak artzea ta egiñaalean obetzea izaten da gizakion aurrerapenik berriena.

Besteenak ongi ulertu, sakondu ta egoki erabiltzea, edo aietaz baliatzen jakitea, ez da trebetasun txikiena!

Orixe egin izan dugu euskaldunok eta Euskalerrriak mendeen joanean: onik aurkitu duguna, geuretzakotu, geure ezur eta mami egiñik erabili. Eta orixe egin zuan Elbire'k ere zatirik aundienean, baiña benetan egoki ta trebetasunez, zin-ziñez maixukiro.

5.—OSOKO EZIKETA-BIDEA

Orrela, bada, Elbire Andereñoak osoko irakasbide bat, eziketa-bide bat eratu zuan ekiñaren ekiñez eta buruauste aundien emaitzez. Baiña berezitasun auek dituan irakasbide edo metodoa: Batetik, Elbire'k berak berriz bere buru-errotan eioa edo bere buru-biotzen beroan egosia. Bestetik, euskal-senaz eta euskal-lojikal sakondu ta argitua. Irugarren, kristau-sinismenaren eragin eta goi-argiz aberastua.

Gauza oso erraza da, noski, Frenet, Makarenko, Montesori, Piaget eta beste zenbait eziketalarari edo pedagogilarari ospetsuen izenak aotan erabiltzea. Baiña zeinzen zailla dan, ordea, irakasle ta ezitzaille aundi oien-gandik ikasita beraien erara ta beraien trebetasunez egitea irakaste-lana, liburuetatik gauza ratzuk irakurriz bakarrik ez bai-ditzakegu geureganatu.

Beste alor guztietako gauza bera gertatzen da irakaskintzan ere. Ez aizkoran eta ez arotzean, ez idazten eta ez margotzen, ez jolasean eta ezta oiñez ibiltzen ere ez dezakegu ikasi, azalpenak eta arauak ikasiz bakarrik, geurok ekiñean jo ta ke ez baldin ba'diardugu. Beste pedagogilarari aundien trebetasunez lan egitea oso zailla dan era berean, oso ere oso zailla da Elbire zanaren irakas-bídeaz bete-betean baliatzen jakitea. Edonork ikas ditzake xeetasunbitxi batzuk, baiña ori ez litzake irakasbidea bera.

6.—EZAGUTZERA EMAN

Eta auxe da aspaldidanik ikusi izan dudan utsune aundia: oso gutxi dirala, Elbire zanaren irakas-bidea, bere osoan eta sakontasunez lantze-ko bear dan neurrian, berenganatu dutenak eta beren ezur eta mami egin dutenak. Egia da, Elbire zanak idaztirik eta libururik ez zuala argitarata atera. Eta ain zuzen ere, utsune ori nolerebait bete nairik argitaratu genituan PDXPOLIN abesti-liburua batetik eta UMETXOAK irakur-idazketa liburua bestetik.

Ea gaurko omenaldi onen ondorenean, euskal-senaz eta euskal-lojikaz betetako irakasébide au —geure-geurea esan dezakegun au— obeto ezagutzeko egarri bizia sortzen dan, euskaldunon eta Euskalerrriaren nortasuna aberasteko bide oso egokia izango bai-da.

GAZTAÑAGA'tar JESUS'ek
Euskerazaintza'koa

Jaun-andreak:

Gure Andereño Elbira gogoangarri ari buruz, zerbait...

Emen gaudenon artean, bat baiño geiagok —obeto esan, askok—, nik neronek bezalaxe, gogoan edukiko dute oroimen sakonena Elbira Andereñoa dala-ta.

Andereño Elbira'ren kondaira idazten danean (eta dagoaneko bat edoren batek zer-edo-zer edukiko du idatzita), ederki agertuko da, danok ondo dakigunez, nolako lanak bete zituan. Nolako ikerketak azaldu ta nolako ardurak eta kezkak eduki zituan andere onek euskera ta Euza-di'ri buruz.

Nere etxe barruan ezin aaztu Itziar emazteari, beste ainbeste donosti-arri bezela, garai artan, Andereño Elbira'ren ikasle izan zala emen bertan, «Koruko Andre Maria» Ikastetxean, orain... berrogei ta amabost urte dirala.

Arrezkeroz ez zuan etsi, bein ere ez, bere elburuak lortzeko bideetan gure Elbira ospegarri izanak.

Aren itzaldiak emakumeen saillean, aren erakusketak, eta beti ez atzera begiratzen, aurrera baizik: aurrera ta goruntz.

Guda denboran emendik alde egitera beartua izan zan, eta beste aldean jarraitu zituan bere lanak. Ahdik edo emendik, beti zeduzkan arremanak eziketako gai ta bide berri guztiekin, naiz europar nai amerikar: edozein lekutakoekin.

Izkuntzetan iaio, frantzeraz irteten ziran alor ontako lanak eta be-riak azkar ezagutzen zituan, eta baita epaitu ere bere irizpide zuzen eta zorrotzaren bidez. Nik baiño obeto norbaitek aipatu du Montessori'ren ikerketak eta aurrerapenak nola sakondu zituan.

Gerra ostean, ixilka asi zanean bere bizitzatxo artako ikastolan, berak jarri zituan bide aiek gure aurren eziketetan.

Askotan guk ez genuan ondo ulertzen nondikan nora zijoazen bide aiek. Gero bai, Andereño Elbira'ren lan-araudiak eta beste xistimak eta

bere erakuste-bideak, gero (askoz geroago) ikusi genuan zuzenak zirala... Gero, ainbeste jende ta ainbeste eskola, aien atzetikan jarraituz jarri ziranean.

Or, gure etxeetan gordeko dituzte nunbait, aietako blokak eta marrazkiak eta ipuiak, abestiak eta zenbaki-lanak, kopurua ta kontuak; orduan esaten genuan, aiek, aritmetika berriak zirala, ta guretzako ulertu eziñekoak. Baiña zuzeneko bidean zebillen.

Izkuntzaren aldetik aurrean zijoan. Ez gure euskera bakarrik. Gaztelera ta frantзера ikasteko ere bideak irekitzen ari zan Elbira. Eta emen nola ez gogoratu, andereño Fenitxo'rekin?

Baiña batez ere, gure Andereñoa beti billa zebillen, aurren nortasuna sakondu ta bear bezala eratu nairik.

Kristau benetakoa, gure sinismen mamia erakusten zuan; ez bakarrik erakutsi, bete baizik. Nola erabiltzen zituan urtean zear, naiz Etorrao ta naiz Eguberri, naiz Garizuma, naiz Pazko alaia, ta Pentekostes eta Igokunde jai ederrak azpimarratzen, garai bakoitza bere kantu ta doiñu ta aurren bloketan marrazki bereziak jarri-eraziz. Ez al digu ezer gogorazten orain «Aingeru batek Maria'ri...» entzuteak?

Bestalde, ez gera aaztuko Andereño Elbira'ren izadi-zaletasunaz. Nola eramaten zituan aurrak Gaztelura batez ere, eta benetan bizí egiten zituan naiz loreak, naiz belar-zelaiak, naiz zugaitzak erakutsiz.

Udazkenean gaztaiñak zirala, udaberrian lore berriak aztea t'abar, itz asko egiten zuan: ez zan nekatzen. Gai guztientzako bazituan bere ateraldiak, bere iritziak, beti sakon eta zuzenak.

Ondo dakigu danok, nolako gatza erabiltzen zuan bere elkar-izketan gure Andereñoak: berarentzatko, griña bezain indar biziz, kutunak zituan bai euskera, bai Euzkadi ta bai bien etorkizuna; griña esan dugu ta ez nolanaikoa. Bi oiek, bere euskal-kristautasun ikuspegitikan begiratuta izan ziran beti bere bizitzaren ardatz.

Urteetan zear bere aalegiñak, bere ariketak, lan egintzak, Euskera ta Eliza uztartzeko. Adibidez, illeroko «lenengo ostiral» aiek, San Inazio elizan arratsaldeko elizkizunetan euskeraz asi ziranean...

Eta nola ez oroitu lenengo Jaunartzeak eta Sendotzak euskeraz egin naiean, eta nola ibiltzen zan aiek lortzeko gu danoi, bear ba'zan, bultza ta eragiten. Gotzai euskalduna bear zala, naiz Txina'tikan etorria, edo... beste gauza asko, antzekoak. Gaur egun, ez sinistekoak irudituko zaizkie askori.



Elbire Andereñoaren etxea, Ikastola bihurturik.
Andereñoa bera umekin batean ume egiñik.
Iturburutik ura, enborretik ezpala...

Orain dirala ogei ta lau urte inguru, milla bederatzireun eta irurogeian, Agirre Lendakari zanaren illetan Donibane'n izan zan beste euskaldun asko bezala. Eta orduan bere ikasle aur bat besarkatuz, saiatu zan beste euskaldun jator batzuk bezala, joan ziran euzkotar aien iritziak eta etorkizunerako euzkotar berrien artean, zubi iraunkorrak egiten.

Bere bizitzatxo artan zituan egunero bi txandatan gure aurrak: ez asko, ezin zituan txanda aundiak erabilli, eta gaiñera pentsatzen zuan, argi ta garbi, bear zan bezala lan egiteko, ez zirala geiago bear. Badakigu ondo, iritzi onek nolako buruausteak eta nolako ez-bearrak ekartzen zituan gurasoentzako.

Geroxeago, aren ondoan ikasita, azaltzen zijoazen beste andereñoak eta aiekin aurren taldeak ugaritzen.

Etorri ziran gero beste araudi ta lege berriak, eta aiek betetzeko, saiatu bear izan zuten gurasoek eta gurasoen elkarateek; eta aien eta Elizaren babesean Ikastola berriak sortu ta jarrai-erazi...

«ORIXE» Ikastola jaio zan gure inguru ontan. Milla bederatzireun eta irurogei ta zortzigarrenge udaran, dagonilla edo abuztuaren lenengo egunetan joan nintzan «Gobierno Civil»era, «ORIXE» Ikastolako guraso-elkaratearen lenengo lendakari nintzanez, Ikastola irekitzeko bear zuten baimen-eskabidea izenpetzera. Egun bat edo bi leenago izan zan Irun'en zoritzarreko erailketa bat, Manzanas poliziarena...

Baiña goazen berriro gure arira. Azkenean, naiko istillu, elkar-izketa, eta, bear ba'da, eztabaidak amaitu ta gero etorri zan «Orixe» Ikastolara gure Elbira Andereñoa.

Danok dakigu, aren azkeneko urteak nola izan ziran. Aren maitasuna, gu guztiontzako zan, eta aurrentzako batez ere, naiz ori agiri-agirian ez azaldu; edo-ta azal garratz edo mikatza bezala nola agertzen zuan batzutan, bere benetako mamia goxo ta maitale izan arren.

Nork ez ditu ikusi, edo eraman izan, gure Andereñoaren itzalditxo luze xamarrak, eta baita asarraldiak eta abar ere? Gaiñera, nola ez gogoratu aren erori-aldiak? Izan ere gaitzak egiten zion, bein baiño geiagotan, aserre agertzea, zer eta bere inguruan eta bere urbilllean zeuden lagun eta adiskide maiteak gaizki artzea edo bear ba'da errita bizi-bizian.

Orrela izan dira joan eta etorriak, beste ainbeste bere lagun, antziñako adiskideak...

On Jesus Aldanondo zanak naikoa zekian orri buruz. Gogoan ditugu

baita Usurbil'ko San Esteban'en egindako egonaldiak ere. Ara joaten giñanean, bagenekian zer izango zan egitaraua: ibillalditxo txiki bat egin, eta berari entzun eta berari erantzun, zerbait bere adorea altxatzeko asmotan edo naian.

Ez naiz geiago luzatuko. Andereño Elbira beti egongo da gure go-goan, eta pentsatzen dut, eta opatzen dut, gure aur eta aren ikasle izandakoen barnean ere bai, aaztugabe egotea. Ez dala galduko berak ereindako azia.

Azkenik, bere aukera izan zan bezala, Mañua'ra eramana izan zan, Bermeo'ko auzo ortako illobian atsedean artzera. Sollube azpiko bazter polit artan, ango ixillune gozoan murgildurik or daude bere gorputz txiki aren ezurrak.

Aren anima, aren gogo aundia, zeruan dago betirako, baiña baita gure euskeran eta gure Euzkadi'n ere, eta geuron biotz bakoitzean ere bai betirako.

Besterik ez. Eskerrik asko.

AIZARNA'tar XABIER
(Gipuzkoa'ko Batzar Nagusien
Lendakari jauna)

ELBIRA'REN GAU-ESKOLA

Elbira Zipitria andereñoak elduentzat antolatu ta zaindu zun gau-eskolak azterpen sakona bearko luke. An emandako ainbeste ikastaroen giroa, mamia eta ondorioak merezi duten maillan azaldu eta zabaldu daitezzen.

Elbira andereño zanari omenaldia egin bear litzaiokela-ta, gau-eskolari buruz zertxobait esateko une egoki-egokia zala, Jesus Gaztañaga'k esan, eta ona ni emen elburu orri lotua. Egia esan, beldurrez. (Andereñoak) Berari omenaldia egiten arrapatuko ba'giñu, gu guziokin asarretuko litzakela, ziur egon gaitezke. Beldur naiz, bai: Andereñoa nunbaite-tik begira ote dagon somatzen det nere baitan.

Ogei ta bi urte Elbira'ren alboan igaroz, Elbira'ren lanaren lekuko izan naizenez gero, gau-eskola artan ikusi ta ikasi nuena lerro gutxitan, aal dan neurrian beintzat, adierazten saiatuko naiz.

Zalantzarik gabe, Elbira'ren lanik ezagunen eta bereziena aurrekin egindakoa degu. Oizko irakaspideak baztatu-ta, bide berriak egin naiean, egunean-egunean aurrekin beraiekin eratutako irakaspidearen bidez egin zun lana da, bai noski, ezagunen eta bereziena.

Aurrak euskalduntzea zeukan, betidanik, elburu nagusitzat, euskaldun biurtzeko Euzkadi. Aberria, aberri euskalduna: ez zitzaion bestelakorik sartzen ez buruan ez biotzean.

Baiñan, ez dezagun elduekin egindakoa aaz, au ere garrantzitsua izan bai-zan. Lan berebizikoa ain zuzen, lan nekagarria baiñan emaitzokorra. Jakin, ongi dakigu gau-eskola artan ibillitakook, egunez ainbat jakinduri eta gogo jarri oi zitula gauez ere. Eta ez gutxiago indarra eta kemena.

Bere bizitzaren puska aundi bat eman zuan elduekin arremanetan, irakaskintzaren bitartez. Ez zun aurren munduak bere lana mugatzea nai, eta askotan esaten zigun ori. Zabalagoa zan berea. Aurrengana ez ezik elduengana ere iritxi nai zun. Barruan zeramazkin kezkek eta as-

moak, pentsamendu ta jakinduria elduen munduari eman bearra zun,

Lanerako berebiziko indar aiek eta bere iritziak jakiñerazteko gose gorri arek bultzatu zuten Elbira, euskera irakasteko gogo nagusiakin batera, gau-eskola antolatzer. Eta bere bizilekuan bertan, egunez aurrekin lan egiten zun gela artan bertan antolatu zun gau-eskola.

Baiñan, ez beste zenbait lekutan ingelera-edo pantzera-edo ikasteko akademi antzekoa. Askoz areago zan berea. Zapaldutako izkuntz-irakasle abertzale sutsu bati zegokiona zan berea, Abertzale sutsu esan det. Baita kristau sendo ta jator bati zegokiona ere.

Euskerakin batera euskal-oituraekiko zaletasuna, aberriarenganako maitasuna, erlijioa ta gizartearekiko begirunea erakusten zai-zizkigun. Leialtasuna, erriarekiko betekizuna, eta abar eta abar. Gai auetaz, zenbat eta zenbat asper-gabeko berriketa sako neta mamitsu ikastaro aietan!

Gorputzez txiki, aalmenez aundi. Apartakoa kemenez. Zeukan guztia eman ez irakasten izgun. Eta —zergatik ez esan?— garai illun aietan geroago-eta erreago eginda, latz-eratan bein baiño geiagotan.

Elduentzako ikastaro aiek garrantzi aundikoak zirala esan bearrean nago berriz ere. Ez zien ikasle asko eta asko aietatik igarotzeak ematen garrantzia ikasketei, orrenbeste ez bai-ziran izan. Ezta izen aundiko ikasle batzuk —ez gutxi— igarotzeak ere. Garrantzitsuak Euzkadi'ko euskaltzaleen artean, eta urrutiago ere, ikastaroen nolakotasuna zabaldu zalako baizik.

Etxe ura eta klase aiek euskeraz eta euskeraren alde bizi nai zutenen biltegi biurtu ziran aguro. Euskera eta areago ere nai zutenak etxe ura aukeratzen zuten gogoz. Naiz batzutan zaputz bat eta bi jaso edo jasotzeko arriskuan egon ere.

Egunero, arratsaldean aurrekin amaitu ondoren, atsedenaldira motz bat eginda elduekin asten zitzaigun. Mailla guztitako jendea bildu oi zun ormari lotutako mai inguruan: Diruz, kulturaz eta baita pentsakera politiko ezberdiña zan jendez osatutako talde txikietan.

Etxetik kanpo ikastaro gutxi eman zun. Milla bederatzireun da berrogei-ta urteetan ikastaro bat edo bi «Circulo Guipuzcoano» aretoan eman zitun, gaur nortzuen eskutan dagon gogoratu nai ez dedan «Ateneo» izeneko leku ortan ain zuzen. Auxe izan zan, bada, guda amaitu ondoren euskera irakatsi zun agiriko lenengo lekua.

Baiñan, kanpoko auetan aipagarrienak Lazkao'n eman zitunak dira.

Ango prailleei, bere benediktar kuttunei emandakoak. Zenbat igande goizetan trenea artu ta aruntz, Lazkao'runtz, euskal-aditza irakastera! Elbira'ren poz aundi ura astelenetan ango berriak guri ematean!

Lenengo urte aietan guda aurreko irakasbide klasikoak erabili zitun (Zabala-Arana, Arrigaray-Ataun ditut buruan), etxeren batetan edo liburudendakoen bazterzuloan frankisten atzaparretatik salbatu ziran alee-kin. Geroxeago, elduentzako oizko irakasbide auek ere baztatu zitun aur-alorrean, len esan dedanez, egin zun bezelaxe.

Ikasketarako adin egokiena ez da jende elduarena. Gutxiago izkuntza berri baterako, danok ongi dakigunez. Emendik zetorkion bada, Elbira'ri elduei euskera irakasteko bide berriak egiteko griña. Euskera ikasketa errezagoa, ariñagoa biurtzea zun kezka. Eta aspertu gabe ekin zion lan orri, aspertu gabe probaketa au eta bestea, aspertu gabe gurekin ain zuzen, saiotegia biurtu-ta.

Euskera irakasteko, erdera oñarriztat erabiltzea, ezin eraman zun. Borroka bizia berea, euskera erakusteko euskeraren gogo, euskeraren sena, euskeraren berekiko legeak oñarri egokitzen onar zitezen. Gramatikalarien oizko itz dotore oiek: sujeto, transitivo, intransitivo, complemento eta gramatikako beste orrelako bitxikeriak baztarrean utzi zitun irakasteko. Puntu onetan apaizengatik esaten zuna gogoan det oraindik: «Gizagajoak! Ez dute erreza nere iritziak artzea, latinez leporaño kutsatuak ditugu-ta» zion askotan Elbira'k, maitekiro noski.

Resurrección María de Azkue, Severo Altube eta Elizalde'ren iritziak zitun bere lanaren iturri, «Morfolojia Vasca», «Erderismos» eta gogoan ez dudan beste libururen bat. Sarritan esaten zigun berak ez zitula gauza berriak asmatzen, egille aiek emandakoak xeetu, erreztu ta laburtu besterik ez zula egiten. Baiñan —bakoitzari berea!—, aiena bezain txalogarria Elbira'rena. Dana dala, erreztasun orri esker, unibertsitateko ikasle izan, naiz edo administratzalle izan, naiz edo esku-langille soilla izan, euskera ikasten gogoz jarri ezker, bapo ikasten zan klase aietan.

Gaurko ikasbideetan, zorionez esan dezadan, asko erabiltzen dira NOR, NORI eta NORK aditza ematean. Gutxik dakite, ordea, Elbira'k asmatutakoak dirala. Ala ta guztiz ere, gaurko irakasleak baño aurreago zebillen gure andereñoa, euskeraz ezer ez zekitenei ikasketa errezagoa izateko. NOR, NORI eta NORK oiek beste moduz ere bataiatuak zitun: protagonista, señor K eta empresario. Aditza, gertakizun (suceso) bat bezela. Gertakizun onek nunbait gertatu bearra, ba, antzokiko aurrelekuan (escenario). Eta abar. Bi itzetan, auxe zan Elbira'ren irakasketen

oñarria.

Ezagunagoa degu euskal-aditzaren kuadro sinoptikoa (lauko laburra esatea obe) orritxo bakarrean azaldua. Aditzaren aldaketa guztiak barruan ditula: Nor, nori eta nork, aldiak eta erak edo moduak, aditzaren erroa, bat edo batzuen ikurrak eta abar.

Gogora datorkit gai ontan nere adiskide zan Antonio Valverde, Ayalde margolaria zana. Paper borobil batean, era egokiz antolatua, leku batean leiotxo baten antzera zulo bat egiña, antxe azaltzen zitzaizun bear edo nai zenun aditz-aldia. Asmaketa ari «kurpilla» jarri zion izena Valverde'k. An ikusten zan garbi euskal-aditza, ainbeste jende ikaratzun dun euskal-aditz ori, puzzle bat besterik ez dala. Puzzle arauzkoa esan nai det. Puskaz egindako zerbait, puskek naastu ta araudi bati jarraituz osatu ditekena.

Beste ikasbide aipagarriker ere jaso genun gau-eskolan. Lauko xee-xee batean deklinabide osoa. Inun ez det ikusi orrelako labur eta erreza. Beste bat, garrantzi aundikoa bera, galde-gaia. Su eta gar jartzen zan, gai onetan ainbeste oker entzun eta irakurtzean kaleetan, eliz-pulpitoetan eta euskaltzaindikoen idazkietan ere baita.

Galde-gaiak oar bat geiago merezi du. Euskaldun-berrientzat ez da galde-gaia erreza menderatzea, erderak ez bai-du orrelakorik. Esangunean galde-gaia nun dagon, ez da erreza arrapatzen. Jo ta ke saiatuazi giñun Elbira'k gu aspertu arte. Gaurko ikasleek arazo oni daukan garrantzi guzia ematea nai nuke. Areago, irakasleek, noski!

Bere eskutik sartzen giñan euskal-elertian, literatura alorrean. *Orix*e eta *Lizardi* ziran bere kuttunak. Liburu gutxi baiñan naikoa genun. Lenengo urteetan, *Xabierto* liburu ederra menderatu-ta, *Garoa* zan irakurgaia. Gero, *Euskaldunak*, *Barne-muñetan*, *Itz-lauz*, *Biotz-begietan* eta ez askoz geiago. Naikoa genun bai. Elbira'rentzat onenak ziranak, egilleen ta idaztien aldetik begiratu-ta. Ez zun bearrezkoa atzera begiratzea, esandako idazleek ongi aztertua bai-zuten euskera. Gutxiago aurrera jotzea, beretzat naaste-borraste iguingarri artara.

Bera zebillen beste mailletan arrapatutako esan-egiñak ere, bereziak noski, ekarri eta ikasgai biurtzen zitun andereñoak. Goiz eta arratsaldeko ikastolatik aurrekin sortutako esanak eta gertaerak, igandeetan baseritarrengandik jasotako esaera zoragarriak, noizean bein akademiakoekin izandako eztabaidak genitun ikasgai.

Lerro auei bukaera eman zorian, ez nintzake trankil geldituko ez nere buruarekin ez Elbira zanarekin berarekin beste gai bat ikutuko ez

ba'nu: Euskera batuarena.

Gure inguruan ematen ari dan euskera batuaren aurkakoa, erabat aurkakoa genun andereñoa, danok dakigunez. Euskeraren batasuna, ordea, beti zeukan aurrean eta askotan aztertzen zun gai au gurekin taldean. Oni buruz gogokoa zun Azkue'ren liburutxo bat «Prontuario de la Lengua Vasca» izenekoa, benetan maitagarria zeukana. Antxe ikasi genun aditzaren muiña, aditzaren batasun egokitasuna, gipuzkera oiñarri artu-ta. Euskaldun guztiontzako euskalgi bakarra, bakoitzarena baztartu gabe bear degun euskalgi laguntzallea. Azkue'k liburutxo orretan dion danarekin zetorren bat Elbira.

Ikasle batzuek, elkar-lotuz talde egiñik, berarekin jarraitu genun urte askoren zear. Amaren gonatik urrun ezin ibilli diran aurrak antzera jarraitu genun. Geurok ere taldetxoak osatzen asi giñan Elbira'gandik artu genuna gure inguruan zabaltzeko asmoz. Maria Anjeles Esnaola, Felitxu Eraso, Mañoli Aleman, Faustino Lasagabaster, Imanol Larrea eta Manuel Mari Hernandez nitun aipatu-bearreko taldekideok, betirako adiskideok.

Esandako guztiekin, andereño Elbira'ren inguruan gau-eskola artako giroa, mamia eta ondorioen berri eman nai izan det labur-labur. Azaldu ditudan xeetasun auek berak azaldu dizkiet, orain gutxi, irakaskintzarako gertutzen ari diran neskatilla gazte batzuei. Emaitz onerako ditzatela.

Aparteko emakume arek irakatsi ziguna ondorengoei irakasten jakin, dakigula. Orrela erantzungo diegu jator eta leialki Elbira'ren asmo ta naiei.

Ez dezagun, bada, Elbira Zipitria aaz. Gogoan dezagun aurren andereño, elduen irakasle, guzioen eredu arrigarri ta bitxi ura.

MARKEL IZAGIRRE
Donosti'ko Alkate-orde jauna

BURU ARGIA TA ZORROTZA

Emandako agindua bete nairik, emen nauzue Elbira zanari buruz, Elbira'tzaz zertxobait esateko asmoz. Irakasle bezela, irakasle lez azaltzeko, bere irakaskideak egokienak noski. Utzi dezadan beraz oien esku, irakaskintzakikoa.

«Urdaia ta sagardoa, urtekoak; adiskidea ta ardoa, urteetakoak» esan oi da eta orixe zan guretzat Elbira, urteetako adiskide miña. Ori dala-ta, nik aren izakera eta bizikerari dagozkionak jaulkiko dizkizuet.

Elbira, berari ain gogoko zitzaion «Ira», ezer ba'zan da, uraxe bereziki eta guztien gain kristau eta euskaldun. Ona emen ao beteko bi itz mardul: bene-benetako kristau eta euskaldun zintzo ta gartsua izan bait-zan bere bizi osoan Elbira.

Azken urteetan gaiso xamarrik ibilli ba'zan ere, amaika lan eder egin-da joan zitzaigun gure artetik. Balio aundiko irakaslea eta pedagoga galdu zitun eskualde osoak, ura il zanean. Ark utziriko uts-unea ez da erraza betetzen, gaitza baizik.

Doai eta mendu baliotsuz ornitua. Bestalde bazuen aparteko igar-mena ere, artxek ezagutu ongi, etorkizunaren berri: ark aintzina esana, andik ogeitaka urtera itzez-itze bete izan da. Ez zan askotan ark esana aintzakotzat artzen: garaian jaramon egin izan ba'genio, beste oillar batek joko zigun kukurruku.

Besteak beste bere gogo beteko zaletasuna, irakaskintza zuen. Agor-tu eziñeko etorria, berezkoa. Elbira'kin egiten zan itz-asperturik laburre-nean ere, aldioro egotziko zizun zerbait jakingarri. Berezko arrobi opa-rotsuaren jabe bait-zan.

Bear ba'da, itzezin edo idatzi baiño leen, ongi ausnartuko zuen esku arteko gaia, baiña baita ere ondorenean luze jo gabe, argi asko, esaldi laburretan, sakonki adierazi ere.

Euskera gaietan zeatza, lan-gose zintzoa. Ez zan eginbearrak erdizka

egitearen zale. Gizakiaren menduak egoki eta zuzen erabiltzeko ziralta zion eta, jendeak askotan zitzaltzat jotzen ba'zuen ere, berezkoa zuen ateraldi zorrotza. Estua zan, estuegia bear ba'da, baiña leenen-leenen bere buruakin.

Gogoan dut Donostia'n izan genuen leen euskal-meza. Igandea zan. Urteen buruan euskeraz esandako meza entzuteko jendearen zorramena! Leporaiño betea eliza. Ura gaztez, ura sasoikoz! Non dira gazte bikain aiek? Eragozpenaren ondorena nunbait. Elurtean nabaitu oi dan ixiltasuna zerion elizak. Asi da meza-emaillea Epistola irakurtzen: ANAIK... esan zuen zoriz, aulkian exerita zegoen Ira'ren zarrara ez zan izan makala. Meza bukatu orduko an doa sakristira. Entzutekoa izango zan aren itz parrastada: «Ez al dakizu Ama-Aginte, matriarkadoaren berririk? ANAIK soil-soillik... eta arrebak? Betiko leloa «emakumeak sasirako» esan eta atera.

Etorri zan zortzi-aldiko meza. Elizkideak ixilik, zai zer gertatuko ote. Epistolari apaizak: ANAI-ARREBAK: Ez zion aurreko igandean aintateko erasanik baiña... tira... meza ondorenean sakristira: «Ez al dakizu bi itz orde bakarrakin adierazi daitekera erabiltzen?» Irugarren igandean ez zan txikia izan gu eleiztarron lasaitasuna, meza-emailleari Epistolari SENIDEOK...!! entzun genionean. Orrelakotxea zan bada gure Elbira: ezin burutu izan zuen iñoiz gure euskera ederra gaizki erabiltzea, eta izakera orri esker, aunitz ikaskizun eder ikasiak gaituzue ingurukoak.

Irurogeitaka urtetan euskeraren alde, euskera eraikitzen, euskera goieneko maillara jasotzen Elbira'k egin zitun lanak, izugarriak izan ziran. Lanik aundiena euskerari iraunerazten. Orain berrogeitaka urte ez zan txantxa euskeraz itzegite utsa, eta ark antzematen zion beeraka zijoa eta beti bildur; ori dala-ta bere-bereak izan zitun nekazaria eta arrantzalea, Elbira'rekin batera oiek izan bait-ditu euskerak zutaberik sendoenak.

Elbira gaztetan txoria bezain alai zan, beti abeslari, gerora goibel biurtu ba'zan ere. Bizikera ere ez guztiz eroso-eta, elkortu egiten da bat. Gazterik umezurtz, gudatean erbesteratu bearra, senideak urrun, urte aiek ez zitun legunak izan. Ori bai, aitortu bearra dago, beti izan zitun aide, adiskide eta laguntzaille leial eta bikaiñak. Erbestean bizi bear izan zuenean ere, etxepe gozoa eta laguntza ez zitzaizkion iñoiz palta.

Guda amaitu eta Donosti'ratzean ez zan, bada, «auntzaren gauerdiko eztula» euskera erakustea, baiña berak gogotik ekin zion; ez zan kokildu, gero ta gero ermoago jarraitu zuen Ira'k.

Euskera gaizki erabiltzea arentzat mingarriena; ezin eraman gaizki esandako itzik eta aditzik; ainbat gutxiago barkatuko zion euskaldun izanik, TZA eta TSA bereizten ez zituenari. Ez zuen atzera egiten aalik eta ongi erakutsi arte.

Aparteko itzala zioten ezagun eta lagunek. Kaleetan barrena erderaz ari ziranek ez al zuten Elbira begiztatzen, danak euskeraz jo ta ke. Berekin itzegiterakoan ere jendeak arreta aundia jartzen zuen ondo itzegiten naiz gañontzean zabarkeriz jardun. Orri eskerrak urteetan ardura izanik, euskera orraztua eta ederra erabilli izan da Donostian.

Aurren arazoak, gurasoekiko betebearrak ere kezkatzen zuten. Zenbait, txikiaren aurrean jardun oi dala zer-nai esanaz eta umeak ezarian dana jasotzen duela. Ori adierazteko bere ikastolako gertakizun au esaten zuen: Bere umeak, oi bezela, ikastolan lurrean exerita abere-izenak ikasten ari ornen ziran, eta txikietako bat bere kasa jolasean, besteak zer ari ziran konturatu gabe, erdi-lotan. Gaiñentzekoak: Arkumearen ama? ARDIA; aita? AARIA; Moxalaren ama? BEORRA; aita? ZALDIA; Txekorraren ama? BEIA; aita? ZEZENA. Txiki batek: IDIA zer duk ba? Erdi lotan zegola zirudinak: OSABA... Umea beti eme.

Arazo onek ere larritu zuen garai batean: Aurrei, ez euskaldunei bakarrik, baita erdeldunei ere, Jainko senik ez zuten otoitz ariñak erakusten zitzazkiela eta lau, bost, sei urteko aurrek adimen argia izanik, edo zer ezkutuko siñes-gai bereala jasotzen zutela eta jo-ta-ke ibillia olerkari ezagunengana joanez; azkenik bi olerki baliotsu osatu zitun, unkgarriak benetan.

Andre Mariakikoa sortzeko esaten zuen: «Txikiari ez dago beste amarik aitatu edo ezartzerik, berea aipatu gabe; danik-eta ama zatarrena ere bere txikiarentzat politena; izen utsa aitatuakin arpegia zearo alaitzen zaie».

Eta bera pedagoga izanik, olerkariak eta biak orra olerki eder eta sendoak egin.

Andre Mari'rena:

*Zeruan ba dut Ama
Andre Mari ona,
Etxean beste ama
Jainkoak emana
Bien eskutik noa
ni Josu'rengana,
bien eskutik noa
Zuregana Jauna.*

Jainkoa'rena:

*Jainko ederra,
On ona eta Aundia
Zeruko Aita!
Oiuka Zure aurtxoak
GORA JAINKOA!!
Zure nauzu oso osoa!*

Besteak beste, benetan zan Elbira zana pedagoga jakintsua, argi aparta, adimenduna. Asko ikusia eta asko ikasia, oiek egotzi oi dute arrobi oparotsua. Matematikas, Zenbakisti-irakasle ere bikaiña, iaioa eta azkarra.

Iru izkuntzaren jabe izateak aparteko kultura, aparteko jakintza ezarri zion. Euskera, erdera eta pantzera zekizkin, zein baiño zein ederkiago, baiña guztien gain bere-bere euskera izan zuen.

Iñor ba'da-ta Elbira izan zan Donosti-zaIe maitalea. Donosti zaar zalea, ez zukean ark bere Donosti Zaareko txokoa ezergatik trukatu. Egia esan, Fermin Calbeton kaleko ikastola-gelatxoak, aparteko giroa, aparteko kutsua zerion. An iragan zitun bere bizitzako unerik gozoenak.

Ikastola orretan entzun nion bein, umeak ikastolan sartu zai zegola, gertubide auxe:

«Jauna: Arindu ezaidazu eskua, zigortzerakoan eta leundu laztantzerakoan.»

«Aaztu-erazi ezaizkidazu eguneroko naigabe eta kezkek, ez ditzala nabarmendu nere arpegiak, txikiak goibeldu egingo lirake-ta.»

«Jauna: Alai nazazu!»

Elbira zana, uraxe benetako kristau, euskaldun eta pedagoga!

Berak maite-maite zitun zugaitzak lez, itzala eta arnaria eskeiñi zizkigun eta zugaitzak bezelaxe,

ZUTIK BIZI
ETA
ZUTIK IL ZAN.

AGIRRE'tar M.º DOLORES
Euskerazaintza'koa erantsi

ANDEREÑO ELBIRA'RI GORAZARREA

Elbira: Ni ez naiz mintzatuko zure irakaskuntzari buruz, ori beste andereñoek azalduko bait dute, baiña bai ikastola barruan bizitako iru gertaeraz.

Ba dakit, bai, orain esango dedana, naiago izango zenukela ixillean utziko ba'nu, baiña zure nortasun sakona ondo uler dezagun, bearrezkoa iruditzen zait zure biotza nolakoa zan azaltzea. Zu emakume gogortzat zintugun, baiña zurekin batera bizitako gertaera auek, zure biotzberatasuna agertzen digute.

Goiz batetan, goizero bezela, zure etxera, zure ikastolara etorri nintzan. Kutxa eder aren gaiñean lore xorta zoragarria. Zer ote? Opariren bat? Ez, Gandi'ren eriotz urtemuga. Gaur, pelikula dala-eta, danok daki-gu nor izan zen gizon ospetsu au, baiña garai artan, egun gogoangarri au ospatzeko, zure kultura ta samurtasuneko emakumea izan bear. Eta noski, erakuspen ederrak atera zenituan gure erri gaxoari begiratzuz batez ere.

Beste egun batean, mundua otzikaratu zun beste gertakizun bat, ain zuzen: Ameriketa'n atxilotua, gaizkille bat. Gaizkille baiña egunetik egunera, makiña bat urtetan, bere eriotzaren zai egondako gizona, eriogai.

Egun artan bere ilketaren berri etorri zitzaigun. Ikastaldia asi baiño leen: «Egin dezagun otoitz gizon orren alde», eta «Aita Gurea» esan zenun. Eta ondoren, sekulan aditu ez dedan eran bizitzari egindako kantua...

Zuk, edozeiñen bizitzari zor zenion errespetua, eta oni gogor eutsi zenion eta guri txertatu ere bai.

Eta irugarrenez gertaera ederrena ta zure jatorrizko abertzaletasuna argi ta garbi adierazten duna.

Gure lenengo Lendakariaren eriotza eldu zitzaigun: «Agirre'tar Joxe Antonio il da!» Momentu batzutan, dana bukatuta ba'lego bezela gelditu

giñan. Euzkadi'ren etorkizuna ta itxaropena beragan bait zeuden.

Zure urduria oso nabari zitzaizun. Batengana jo, besteengana urrengoan. D. Nemesio'k, ikastolara ekarri zitun, egin berri-berriak zitun bertso aiek:

*«Noiz arte, Jauna, bear gaituzu
makillapean itotzen?»*

Aurrak antxe zeuden. Aurrei abestu zizkien beste iñori baño leen. Aur aietakoak ementxe zaudete orain, gaur gizon eta emakume bihurturik. Gogoan al dezue gertaera ura?

Ni, neska gazte-gaztea, nere euskal-nortasunaz erabat jabetu gabe artean, baiña benetan esango dizuet, ura ikusiz eta bizituz, erabat eta betiko egin nintzala abertzale.

«Orrelakoxea zan, Elbira, zuk gureganatu zenun euskal sena.»

Aurrek ez zuten ondo ulertzen zer gertatu zan: Beren begiak zabal-zabalik. Eta an ziñan zu ondo uler zezaten.

Aur danak zure inguruan bildurik. Eta mintzatzen asi ziñan: «Gaur, egun illuna Euzkadi'rentzat. Gidari gabe gelditu gera... ».

Ondo azaldu zenien ordurarte genun gidariaren bizitza. Otoitz biurtu zenun azalpen ura, Jaungoikoaren eskuetan uzten bai-zenun gidaritzza, D. Nemesio'k bere bertsoetan zion bezela. Alako batean, kutxatik, ikurriña zaarra, gudariak erabillitako ikurriña atera zenun. Oso gutxitan erabiltzen zenun zuk ikurriña, sakratua bai-da. Eta une ura ere sakratua, noski.

Ikurriña zabaldu, aurrei erakutsi, ikurriñaren aurrean EUZKADI'REN alde otoizka, eta azkenik ikastolako aurtxo gazteenari muxu bat eman-erazi zenion ikurriña zaarrari, an giñan danon izenean.

Au ez da gaurko kontua: 1960'garren urtean gertatua eta Diktadura bere onenak, ala obeto esateko, txarrenak egiten.

Baiña zu, IRA, ez ziñan bildur. Zure biotzak eta batez ere zure aber-tzaletasunak agintzen zizuna egiten zenun.

*

Auetxek dira, bada, ikastola-barruan bizi izan nitun gertaera nabar-menena. Beste asko ta asko ere baziran, baiña neure baitan auek utzi zizkidaten aztarna sakonak.

ZUK, ELBIRA, ANDEREÑO NAGUSIA, erria, EUSKALERRIA, zenun
barru-barruan. Alderdi ontatik ondo bete zenun, zure lagun miñak.

ORIXE aundiak, bere olerkian ziona:

*Zatozkida goi-arnas. Egizu nerekin lan
erri baten arnasa mamitu dezadan.
Geroak esan beza: «Erribat izan zan»,
Edo-ta ats emaiogun ontan iraun dezan.*

BEITIA'tar KONTXITA

GURASOEN ESKER ONA

GURASOEN ESKER ONA

Oker ez bezait inork ulertu, guraso guztien izenean eta ordeztzearen ba'nu bezela. Idazpuruan «Gurasoen esker ona» esateak ez bai-du ordezkotza egitera natorrenik adierazten.

Ni neure izenean nator, besteren iritziak neureganatzeko asmorik gabe. Baiña, ori bai, guraso geien-geienen sentipenak asmatuko nituzke gai ontan. Izan ere, besteak beste, esker ona beintzat, zein gurasok ez ote dio zor?

Besteenak utzita, beraz, neure gogorakizunak azaldu nai ditut emen.

Eta beste ezer baiño leen, esker ona azaldu nai diot Elbire zanari. Bizi zalarik ere saiatu nintzan esker oneko agertzen, arekiko adiskidetasunaren bidez. Au da, eskeintzen zidan adiskidetasunari, nik ere ala be-rean erantzunez.

Gure seme-alabekin burutu zuan lana, lan zail eta arriskuz betea ikusi-ta, garai aietako eragozpenen artean bereziki, oso pozik biltzen giñan Elbire andereñoaren inguruan. Eta ez ni bakarrik, beste asko ere bai, bakoitza bere lagunekin noski.

Gure aurrentzat maitasun aundia zuan Elbire'k. Batez ere lenengo urteetan, maitekiko ta legunki artzen zituan ^gure txikitxoak. Ez pentsa, orde, legunkeriaz eta nai zutena egiten utziz.

«Nai duanak nai duana egiten» utzi, edo lanerako gogoia etorri arte egonean egoten utzi? Orixe ez beintzat Elbire andereñoak! Gogoia sortu-eraziko zien era batera ez ba'zan bestera, baiña... egin bearko zuten lan.

Gerora, egia esan, azalez gogor xamarra agertzen zan. Alako giroan bizi ere bizi bai-zan! Ainbeste eragozpen, ainbeste naigabe, alako erasoak atzerritarren aldetik... Are mingarriagoak, berriz, abertzaleen artetik sortuak!

Ez da arritzekoa, ez, azala gogortuxe eukitzea. Baiña umeekin goxo ta biotz aundiko maitale agertzen ba'zan ere, gurasoekin gogorxeago jokatzan zuan.

Zergatik, ordea?, galde dezake norbaitek. Eta arrazoi nagusia ontan zeukan: seme-alabatxoak Ikastolara eraman euskerak ikastera, eta bitartean gurasoek —batez ere amek— beren artean gazteleraz itzegiten... Orretzek sutzen zuan benetan!

Bestalde, umeekin eta gurasoekin, oso zuzena zala guztiekin esan bear danok. Ain garbi ta zuzen jokatu nai izaten zuanez, batzuetan estu ta zorrotz xamarra gertatzea ere ez da arritzekoa. Ain samindurik zeukan, bestalde, Euskalerraren egoera naastu ta latzak!

Nere ta beste askoren esker ona, umeen eziketagatik da lenengo; baiña ez orregatik bakarrik: gurasoak euskalduntzen eta eskolatzan ere lan aundia egiten zualako ere bai. Nai genuanoi beintzat, euskera erakusten zigun taldeka. Ta aldi berean gure erria maitatzen ere irakasten zigun.

ELBIRE ANDEREÑOAREN ALAITASUNA

Idatzi ditugunak irakurri ondoren, oso illuna ta berriketarik gabea zala uste lezake bat baiño geiagok. Edonork dakianez, beti goibel eta illun egoteak leer eragiten dío edozeiñi. Orregatik, nolabaiteko solas-aldiak bear-bearrezkoak ditugu guztiok. Gure «Andereñoak» ere bai noski.

Baiña ez zan ori bakarrik. Beste norbaitek ere aipatu du itzaldi aue-tako batean, alaia zala Elbíre. Eta alaxe zan berezko alaitasunez. Gure aberriaren alde buru ta biotz ain saiatua zanez, oso mindurik zeukan Euskalerriko giro naastuak. Argi ta zorrotz salatzen zituan naasketak eta oien iturburuak, baiña osogutzik sinisten zioten. Nola ez zan, bada, bere onetatik aterako?

Berezko alaitasunak eraginda, alde askotara irteten zan Donosti'tik, eta gutxitan bera bakarrik. Zenbat aldiz joan ote giñan Astigarraga'ra? Aldi artan ango apaiz-buru edo erretore zan Zufiria'tar Luis jauna: gaxorik, baiña oraindik bizi dana bere larogei urterekin. Nolerebait senitarteko ziran maillaren batean.

Baiña ez zan orregatik. Alakoxe Meza nagusiak eta Bezperak, benetan egokiak ematen zitualako joaten zan Astigarraga'ra. Eta batez ere, lagunarte alai ta atsegiñean borobiltzen zuan eguna. Geroago ere askotan

ziran. Izan ere, angoa naizenez, antxe Astigarraga'n ezagutu nuan eta andik sortu zan gure adiskidetasuna.

Don Luis apaizaz gaiñera, bazuan beste norbait ere oso gogozko adiskide ta maisu ta izketa-lagun zuana: «TXADONZAI» izenordekoz ezaguna zan Txomin San Sebastian: sakristau, ixixtulari ta dantzaria, **bieta** koen maisua, euskal-gaietaz asko zekiana. Gizon argia ta atsegiña benetan. Aitorpen apal auxe zor nien bai apaizari ta bai Txomin aundiari.

Baserri batera joan giñanekoa ez zait aaztutzen: gaixorik zegoan bat ikustea zan gure txangoaren elburu. Ikustaldia egin ondoren, sekulako euriak genituan etxerakoan; eta mendian beera basoan zear, nola jetxi giñala uste? Jo ta ke abesten, eguraldi txarrari aurpegi alai erakutsiz. Noiz-nai sortzen zitzaizkion, izan ere, abestiak. Ainbeste ta ainbeste zekizkian!

Zenbat txango ta ibilli bizigarri egin ote zituan, bein lagun batzuekin eta urrengoan besteekin? Ereñotzu'ko San Antonio'ra, Igeldo'ra, Mañua'ra, Aralar'ko San Migel'a, «Alderdi-Egunak» ziran tokietara...

Aize-berriturik eta burua atsedenez lasaituta bukatzen zuan eguna. Ortarako, berriz, zenbat kontu ta xeibrekeria ez genituan gogoratzen eta berritzen! Zenbat parre gozo ta alai, buru-biotzen lasaigarri!

Zein abesti izendatuko nituzke adibidetzat? «Elurra mara-mara», «Ikusten duzu goizean», Etxaniz'tar «Don Nemesio» aundiaren asko... bukatzerik ez dagoan zerrenda luzea.

Gure arteko izketa-gaiak, berriz, ibillaldietan alaiago ta ariñagoak ba'ziran ere, bestelako jardunetan askoz sakonagoak izaten ziran: eziera, euskera, aberria, ildakoei otoitz egitea, sinismena... Kristautasunari dagokiona ain benetan arturik zeukanez, asko pentsaturik eta sakonduta eukitzeaz gaiñera, gartsuki ta benetan bizi zuan gora-beera guztietan. Eta giro orixe eman oi zigun guri ta sinismen-giro bera umetxoei ere.

Eskerrik asko, Andereño! Zor aundia dizut, nik beintzat —eta bestea askok ere baietz esango nuke— bai gure seme-alaba txikien onerako egin zenuan guztiagatik eta bai gurasoak argitzen egin zenuan agiñaal aundiagatik.

MENDIOLA'tar MARITXU'k

II

ELBIRE ZANAREN EZIKETA-LANA



Ernani`ko URUMEA IKASTOLA, 25`gn urtean sartzeko zorian, Elbire zana-
ren irakasbide-ezibideak oiñarriztat dauzkana, ondorio ta emaitza onak lortuz,
aurrera daramazkiana.

ZIPITRIA'TAR ELBIRE ANDEREÑOAREN IRAKASBIDEA

Elbire zanak bazuan asmorik bere irakasbidea ta lanak idatzita emateko baiña ori lortu gabe joan zitzaigun. Aren ondoan bertatik bertara ikusiz ikasteko era izan genuanok baditugu zenbait gauza gure buruetan barru-barruraino sartuak. Gure egokiera bera izan ez zutenentzat, bijoaz emen oar eta azalpen batzuk, baiña irakasbide osoa sakonki emateko asmorik gabe: *ari nagusi batzuk azalduko ditugu baizik.*

Bi oar oso berezi ta bitxiak egiten zizkigun asieratik, eta biak askotan gogorazten zizkigun gerora.

Lenengoa: Irakasbidea ta ezibidea, au da, «pedagogia osoa», ez dala liburuetatik ongi ikasten. Bene-benetan ikasteko era bakarra, nork berak ikusiz, emanez eta egiñez ikastea zala, alegia. Eta urteen buruan ikusi ta bizi izan dutan guztiak ortan ziurtatu nau. Auxe aitortu bearrean nago, beraz: arrazoi zuan, arrazoi osoa zuan Elbire Andereñoak.

Bigarrena: Bera Frantzi aldean ibilli bearrean gertatu zanez, naiko ongi ezagutzen zituan ango irakasbideak eta eziketa-gaietako aurrerape-nak. Ain zuzen ere orregatik iruditzen zitzaizkion benetan atzeratuak, Bidasoa'z ego-aldera, eskoletan zerabizkitenak. Frantzi'koen aldean, beraz, atzeratuak ziran emengo eskolak eta, jakiña, irakasleak ere bai. Orregatik esaten zigun lenengo egunetik —«malas maestras españolas» besterik ez zerate, Irakaskintza ikastetik irteten zeratenean.

Lenengoz entzun genionean, arriturik gelditu giñan eta gure arrotasuna zertxobait minduta ere bai. Baiña bereala oartzen giñan, ontan ere arrazoi osoa zuala. Entzuten eta ikusten genizkion gauzen eta jokabideen aurrean bereala jabetzen giñan benetan mundu berri bat zabaltzen zigula. Euskeraren aldetik eta euskeraz zalako batetik, baiña baita gaiñerako pentsakera ta jarduera guztietan ere.

Laburki aipatuko ditut emen, aberasgarri bezain berri gertatu zi-

tzaizkidan gauzak, ain zuzen ere Elbire'k zabaldu zigun mundu berrirako atear bezala bai-díra. Egia esan, zabalagoan eta sakonkigo aztertu bearrekoak dira; emen eta orain ordea, ari nagusien aurkezpen soil eta laburra baiño geiagorik ez dezakegu.

1.—Irakaskintza ta gai guztiak, *dana jolas biurturik* ematea umetxoei. Alakorik ez genuan ikusi ordura arte. Irakasle edo ezitzaille edo «andereño» giñanak giñala, umeen maillan jarri bakarrik ez; aal genuan neurrian ume biurtuta jokatu bear beti, dana jolas-giroan eta jolastzat ar zezaten umetxoek. Pozez zoratzen ari ori ziran umeak, baiña ez ain erraz gu, ezitzailleok, oso nekets eta nekagarri bai-da jarduera ori. Umetxoak, beraz, jolasean ari ziralakoan, ikasten ari ziran eta beren buru ta aalmen guztiak lantzen. Eta ume biurturik jokatze ori, bai ikas-gelan edo irakaskintzan eta bai jolas-aldian, dana bat egiñik; ikas-gelaren eta atariaren artean iñolako ebaketarik edo etenik egin gabe: dana bai-da eziketa, dana da irakaskintza.

2.—*Irakaskintza bizia, eragillea, etengabeko ekintzazkoa.* Ikasketara buruari bakarrik eragiteko orde, aalmen guztiak erabilliz eta aalmen guztietaz baliatuz ematen zuan irakaskintza osoa. Batetik eskuarteko gauzak erabilliz, baita buruketarako ta kalkulo-lanetarako ere: kanikak, txotxak, arkatzak, marrazkiak, eta abar, eta abar; gauza biziak ere bai, landare, ostoa, aberexka, e. a. Eta zenbait gai irakastekoan —lutelestia, adibidez— gauzak bertatik bertara ikusi-eraziz irakastea dakar irakasbide onek.

Bestetik, berriz, gauzak erabiltzeaz gaiñera, aurrak berak egille biurtuz jokatzea dakar irakasbide onek: Ipuiak, olerkiak, abestiak eta beste ainbat gai aurrak berak antzezlari egiñik alegia.

3.—Lenengo urteetan *ikas-libururik umeei eskutara ez ematea*, ortxe amar urte dituzten bitartean beintzat. Bestek egiñiko ikas-liburua eskutara ematea baiño askoz biziagoa, aberasgarriagoa ta txikientzat ezigarriagoa da, jakiña, bakoitzak bere liburua egitea, ezitzailleak lagunduta noski. Au ere guztiz arrigarri gertatu zitzaigun, baiña oso egoki loturik zijoan aurreko azalpenen ari berean.

4.—*Egizaletasuna ta zeaztasuna* gertatu zitzaizkigun mundu berrirako beste bi ate jator. Iñola ere gezurrik ez umetxoei, baiña ezta zalantzarik eta gutxi gora-beerarik ere. Arritzeko eran estu ta zorrotz neurtzen zituan gauzak gero umeei egia bakarrik agertu aal izateko. Eta egiari loturik, zeaztasuna, gauzak alde-aldera ta gutxi gora-beera irakatsi gabe. Ez zan alakoxea guk artu genuan eziketa-giroa! Baiña geroko urteetan

mesede ederrik egin dit, neuri dagokidanez, Elbire Andereñoaren ondoan alako zeaztasun-oitura artu izanak.

Irakaskintzarako iru zutabeak

Orain arte esaniko guztiari loturik eta irakaskintza osoari ezurdura edo egitura sendoa eman aal izateko, iru zutabe nagusi zituan Elbire Andereñoaren irakasbideak, eta orain ere alaxe ditu, jarraitu nai dutenentzat. Egia esan, zeazkiago ta sakonkiago aztertu ta azaltzekoak dira; bi-joaz, ordea, azalpen soil batzuk bederen.

Irakaskintza ta eziera osoa jasotzeko ekintzaren iru zutabeak, beraz, auek dira: *Lojika, Eusker ta Kristautasuna*.

1.—LOJIKA

Gauza guztietan erabiltzen zuan Elbire'k lojika, zeazki ta zorrotz erabilli ere. Egiten eta esaten zuan guztiaren zergatia, argi ta garbi erabakirik eukitzen zuan, eta garbiro ematen zuan bere jokaeraren arrazoia. Irakaskintzan ere bazuan gauza guztien zergatia. Eta gauza bera irakasten zigun bai itzez eta bai bere ekintzaz edo jarraibidez.

Eta jakiña, ikasleak ere txikitandik jartzen zituan lojikaren billa ta zergatien galdezka.

Ikus dezagun alor berezi batzuetan zer-nola erabiltzen zuan eta saktzen zuan lojika ori: Zenbaki-alorrean edo matematikan bereziki ta izkuntzan ere bai. Bi alor auetako gauza jakingarri batzuk azalduko ditugu emen.

A.—Zenbaki-alorrean edo matematikan:

Ezer ba'da-ta, auxe bai dala lojika. Ala ere, zenbat eta zenbat izan geran geure ikasketa-aldian, matematikak ulertu eziñik ibilliak. Eta alaxe eziñean ezagutu izan ditugu asko ta asko. Orregatik gertatu zitzaigun ain berria ta bitxia Elbire'ren irakasbidea matematikak irakastekoan, geurontzat ere guztiz argigarri izateraiño.

Matematiken irakasketa, bada, onela sailkatu oi zuan bere lojika osoan:

1.—Gauzak erabilliz, antzeztuz eta aurra bera egille biurtuta, gutxienez ere AMAR artekoan. Au da, AMAR zenbakia bitartekoak osotu ta era guztietara erabiltzen ikasi artekoan. Baiña AMARREKOA osotu gabe, aldi luzean.

2.—Beste urrats bat garrantzizkoa, «Andre Joxepa'ren denda» deri-

tzaion ipuiaren bidez, AMARREKOA osotzea.

3.—«Maltzurkeriak» deituriko jardukera, bederatzikoa ta beste edozein zenbaki batuketaz aixa elkartzeko erraz-bide edo laister-bidean.

4.—«Bixkiak» edo zenbaki bikiak, bi zenbaki berdiñen erabilkera, alegia.

5.—Auzo aundiak eta auzo txikiak.

6.—«Ardi igesa», adibidez 5 eta 7 batutzekoan, 6 ta 6 biurtzea egiñez.

Eta jarduketa auetan guztietan, jolas utsean dabiltzalakoan, etengabeko buru-lanean ari oi dira ikasletxoak, kenduketa-batuketak etengabean egiñez jardun ere. Benetako kenduketa-jolasa ta batuketa-jolasa dira jarduketa oiek guztiak. Ez, ordea, etengabean zenbakiak egiñez; gauzak, tresnak, jostailluak e. a. erabilliz baizik. Eta orrela gauzen erabilkera naikoa landu ondoren, orduan jo oi zuan zenbakiak berak erabiltzera.

7.—Tablak: garai batean buruz irakasten zizkiguten, zertarako ta zergatik ziranik batere ulertu gabean. Lojikaren joliaz, ordea, nola ta zergatik diran eta zertarako diran ikus-erazi bear ikasleei. Ortarako, berriz, tablak era luzean eta laburrean, goraka ta beeraka egin-erazten zizkien Elbire Andereñoak. Dana bizi-eraziz, noski, ta jolastuz: maillak igo, jetxi... txotxak eta gauzak erabilliz, e. a.

8.—Tablak egin eta erabiltzetik ateratzen dira zatiketak ere. Erderazko ikasketan ez zizkiguten ala irakatsi, baiña Elbire'k beti jarduketa guztiak elkarri lotu ta uztartuz irakasten zituan.

9.—Tablak erabiltzekoan, «zati» ta «kotan» bereziz. Adibidez, amar intxaur dauzkagu; bi pillatan zatitzen ba'ditugu intxaurrak, bi zati izango dira, bakoitza bosnakoak edo bostekoak. Ez bai-da berdin 5 zati egitea, orduan bakoitza bikoa izango bai-da. Orra or *zati ta kotan* bereiztearen garrantzia.

10.—«Zenbakerak»: Oso txikitandik aixa ikasten dute zenbakera edo gaztelerazko «bases» diralakoak erabiltzen, nekerik gabe ikasi ere. Zenbakera danik eta «bases» diranik ez dakite inola ere, baiña erraz erabiltzenerabiltzen dituzte. Jakiña ez da laguntza edo errazbide txikia ume euskadunentzat, euskerazko zenbaketa bera, ZIPITRIA'tar ELBIRE berak aurkitu zuanez: batekoa, bikoa, laukoa, seikoa, zazpikoa, e. a. besterik ez bai-dira «bases» oiek, egoki erabiltzen jakinda.

11.—Asmakilloak: Buruketa, asmakillo edo problema guztiak, bost

motatan biltzen dira. Eta auek ditugu: batuketa, kenduketa, batuketa laixterra edo biderketa, zatiketa, eta bostgarrena, zati ta kotan bereizten dituan zatiketa.

12.—Jarduketa auetan guztietan oso goiz erabiltzen zuan, oso txiki ziranetik erabili ere, gaztelerazko «incógnita», euskeraz «ez-ezaguna» esanez edo deituz eta X'en ordeaz, «zenbat?» adierazteko edo galdetzeko, beti Z erabilliz. Eta orrenbestez, —txikiak orkabeen noski— gero «algebra» erabiltzeko oiñarriak artu-erazten zizkien txikiei. Gero, berriz, dako «algebra» ikastera eldutakoan, aixa baiño aixago ulertzen eta menperatzen dute ikasleek.

B.—Izkuntza irakastekoan ere lojika

Ain zuzen ere, izkuntza dala esaten dute lojekarik gutxien duana, arauetaz eta lojikal kanpoko joerak eta oiturak artzen bai-ditu izkuntza biziak. Baiña izkuntzaren ikasketa landu-eraztekoan, bete-betean erabiltzen zuan lojika.

1.—Matematika ta izkuntzaren artean etenik gerta ez zedin, benetan ongi elkaturik irakasten zituana. Onela, asmakilloetan bereziki, galderak eta erantzunak dira ardatz: galdera-erantzun diranez asmakilloak, galdegaia ongi ta zuzen erabiltzeko bideak egiten zituana. Euskera izugarri lantzeko bide egokia gertatzen zitzaion alor au. Batez ere, euskal-joskera egokia ta zuzenekoa erabiltzen ikas-erazteko. Alor ontantxe bai sartzen zuala betirako buruan euskal-joskera, nere iritziz beintzat.

2.—Izkuntzan oiñarrizko dira idazkera ta oguzkera edo aoskera. Oiñarri oietatik asten zan lojika erabiltzen. Onela, ots bakoitzak bere makilla edo ikurra edo izkia bear duala, eta bakoitzak bakarra ta kito. Eta alderantziz, makilla edo izki bakoitzak ere, beraz, bere ots bakarra ta kito. Onixe esaten zion «ortografia racional» edo lojikal eta burutsuki eratua. Eta ez, ingeleraz eta frantzeraz bezala: izki berak, era ez-berdinetara esaten bai-dituzte.

3.—Itzegitekoan, aurrena ongi pentsarazi, zer esango ta zergatik. Areago idaztekoan. Eta lojikari lotuta, batez ere idaztekoan, ordena ta txukuntasuna beti garrantzizko gauzatat zaintzen zituana, eta alaxe irakasten.

4.—Gramatika izenik erabili gabe, era askotara erabilliz lantzen zituana gramatika-atalik geienak. Bearrik ere ez, egia esan, 9-10 urte bitartean, gramatikaren eta gramatikako atalen izenak ikasteko. Tamalez, erdal-ikastetxeetara aldatu aal izateko (eta garai aietan Batxiller ikaske-

tara), gaztelerazko zenbait gramatika-izen ikasi bearra izaten zuten; eta, beraz, irakatsi bearra ere bai, baiña bestela ez zuan orrelakorik erabilliko.

2.—EUSKERA

Bigarren zutabetzat Euskera diogunean, euskerari garrantzi izugarria ematen ziola esan bear. Gure izkuntza dalako, Euskalerraren izate-oiñarria dalako, euskeraz pentsatzea ta euskeraz itzegitea, benetan gauza aundizat arturik zeuzkanez, alaxe artzera eragiten zien guztiei, bai ikasle txiki ta bai irakasleoi. Barne-muiñeraiño sarturik zeraman zerbait bizia zan euskalzaletasuna, eta kutsutu egiten zigun inguruko guztioi. Eta alor au ere oso berria gertatzen zan guretzat, erdal-lkastegietan eskolaturik bai-geunden.

Eta euskera esatean, or sartzen dugu euskal-sena ere. Euskalerriko geuron gauzetan oiñarritua ta geuron gauzen bidez indartzen dan euskal-sena, alegia. Zeiñen egiñaal sutsuak egiten zituan euskal-sena guztien-gan pizteko!

Euskalerrria ere sarturik ikusten dugu euskera esatean. Izan ere, gure erritasunaren oiñarririk sakonena, euskera ta onen inguruko gauza guztiak zirala uste ba'zuan ere, erritasunari berari ere garrantzi aundia ematen zion. Eta ortatik Elbire Andereñoaren abertzaletasuna, benetan sutsua ta sakona gaiñera.

Euskaltzaletasuna ta euskal-sena pizteko, berriz, egiñaalean laguntzen zigun eta laguntzen zien umetxoei. Ortarako, berriz, abestiak, olerkiak, ipuiak eta elezarrak, zenbaki-alorreko asmakilloak berak, dantzak, ibillaldiak Euskalerrria ezagutaraziz, irterak, antzerkiak eta jolasak erabiltzen zituan lagungarritzat. Jolasei dagokienez, jakiña, euskerazkoak eta euskaldunak, baiña baita bestelakoak ere itzak euskeraz irakatsiz.

Irakaskintza osoa maillaz-mailla goraiño euskeraz eman aal izatea zuan elburu. Ez noski berak guztia egin zezakealakoan; oiñarriak ipiñi zituan berak, sendoki ta sakon ipiñi ere. Beste batzuek jarraitu bear aren bideari, oiñarri jator aien gaiñean irakaskintza osoa egoki eraiki aal izateko.

Ikasleentzat aberasgarri ta ezigarri dira, noski, olerkiak eta abestiak. Eta ori ongi zekian Elbire Andereñoak, baiña ortaz gaiñera, euskal-senaren zuzpergarritzat erabiltzen eta lantzen zituan euskal-olerkiak eta abestiak. Orregatik ikas-erazten zituan ikasturte bakoitzean ainbeste ta ainbeste abesti.

3.—KRISTAUTASUNA

Bera sinismen aundiko kristau zanez, oso benetan arturik zeukan kristautasuna. Baiña ez nola-nai. Irakurriz, pentsatu ta ausnartuz, eta otoitzean sakonduz, ziñez bizi zuan.

Gai au beste batek azalduko duanez, bere osoan sakontzen jardun gabe, ari nagusi batzuk aipatuko ditut emen.

Berak benetan bizi zuanez, besteei ere, eta txikiei bereziki, zin-ziñez bizi-erazten saiatzen zan. Eta ortarako, Quinet'en marrazki erraz eta argiak erabiltzeaz gaiñera, erriko girotik artzen zuan gaia, kristautasuna bizi-erazteko: erriko gertaerak, bearrak, e. a.

Onela, Euskalerrriaren larritasun eta bearretatik ateratzen zuan gai bizia guztion Aitari otoitz egiteko. Eta ontan —argi ta garbi esan bear—, Jaungoikoa gure AITA izateari ta aitatzat artzeari, garrantzi izugarria ematen zien.

Bestetik, urte-aroko ospakizun nagusiak zituan bere erlijio-saioen ardatz. Jakiña, Eguberriak edo Gabonak aundikiro ospatzea, ez da arri-garri, baiña bai —batez ere garai aietatik asita— Pazkoak Jesus'en Piztuera ain era berezian bizi-eraztea.

Xeetasun ugari alde batera utzirik, aipatu bearrekoa iruditzen zait, umeentzako otoitzak zein en ongi, zein en zeazki ta zorrotz neurtutako itzez eratu oi zituan. Orrela landuta sortuak dira, adibidez, «*Jainko ederra*» ta «*Etxean ba-det ama*» otoitzak.

Eta orrelaxe zorrozki itzak eta esaerak zeaztuz landu zuan, euskal-joskera garbian eta galde-erantzun egozkiz ornituta, «Kristau-ikasbide txikia».

MARIEZKURRENA'tar MARITXU
«Urumea Ikastola»ko Zuzendaria



ORIXE IKASTOLA... Goian izena ta beean izana...
Maillaz-mailla goruntz doaz ikasle-taldeak.
«Andereñoa»ren gerizpean eldutako irakasle-ezizailleak...

ZIPITRIA'TAR ELBIRE TA ERLIJIOA

Pedagogiari dagokionez emakume argia ta bizkorra izan zanik, ez dago iñola ere Zipitria'tar Elbire Andereñoari ukatzerik. Eta bide berriak urratu zituanik ere ez, eta ori ez gaur: orain ogeitaka urte ta geiago diralarik baizik.

Irakaskintzari dagozkion gai ta alor guztietan burutu zuan bere lan bikaiña. Orregatik esaten dugu, ain zuzen, irakasbide berezia eratu zuala. Adieraztekoan, ordea, guztia batera azaldu ez dezakegunez, beste alor eta gaiak alde batera utzirik, erlijioaren inguru egin zuan lana ta burutu zuan jokabidea aipatuko ditugu idazlan ontan.

Bere ardurapeko aurtxoei txikitandik erlijio-eziera ematekoan ere kezka ta ardura aundiak azaldu zituan. Bera zin-ziñezko kristau sinistuna zanez, kristau-eziera eman nai izan zien umetxoei, erarik egokienan eman ere.

Eta ortarako, jakiña, bi aldetara zorrozten zituan bere adimenaren begiak: batetik, kristau-sinismenaren eta bizitzaren osotasunari begiratzan zien arreta aundiz, eta bestetik, umetxoen izaerari ta ulermenari ere bai.

Ontan zeaztasun jakingarria da onako au: ikas-gelan, batez ere umetxoen ikas-gelan, Gurutzea orman zintzilik eta guztien begien aurrean eukitzearen aldeko ez zan izan. Berak bere etxean eta jende elduen gelaetan bai noski, nai zuan Gurutzea kristauen ezaugarritzat. Baiña umetxoen ikas-gelan, egunero begien aurrean ikusi bear zuten tokian, ez.

Zergatik, ordea? Bera Gurutzearen aurka zegoelako ta gutxiagorik ere ez, jakiña dagoanez. Baiña umetxoentzat, egunero begien aurrean ikusteko, gogorregia iruditzen zitzaion eta alaxe esaten zigun. Eta ala, erlijio-giroko zerbait eukitzekotan, askoz egokiagoa iruditzen zitzaion Samuel aurtxoaren irudia eukitzea. «Samueltxo otoitzean» esaten zuan, argazkia erakutsiz. Orrelaxe girotzen bai-zuan umetxoen jarrera Jaunari,

Aitari otoitz egiteko.

Iru zatitan banatzen zuan Ikastaroa ta garai bakoitzean ongi mol-
datu oi zituan ikas-erazi ta bizi-erazi bear zizkien gauzak eta lagun-
garriak.

1.--EGUBERRIAK

Eguberriak baiño leenagotik, «Etor-aroa» ospatzen zuan, Jesus'en
jaiotza ospatzeko gertuera egiñez. Ortarako, besteak beste, «Gaboneta-
ko abestiak» irakasten zizkien: abestiak ikas-eraztekoan oi zuan tre-
betasunez irakatsi ere, itzak eta esanaia ongi ulerteraziz e.a.

Oiturazko abesti xamur eta goxoetaz gaiñera, Lekuona'tar Manuel
jaunaren «JOSU AURTZOAREN BIZITZA» osoa ongi ikastera irixten zi-
ran guztiak. Baiña abestu bakarrik ez; baita antzeztu ere, zati bakoitzari
zegokionez. Eta ori ume guztien zoramenez, noski. Eta Santo Tomas
egunez antzezten zuten, otoitz-giro ta sinismen-giroan, jakiña.

Gabon-gauaz aurtxoekin etxerik-etxe abesten ibiltzen zan, jakiña
danez, umetxoen etxeetara joan eta aietan abestuz. Etxe ta sendietara
poza ta alaitasun bikaiñak eramanez burutzen zuan euskal-oitura zaarra
Donosti'ko kaleetan barna ibilliz; azken-aldian agerian, baiña leenago
izkutuka, baiña utzi gabe.

Gabon-saritzat biltzen zuten dirua, berriz, umeentzat izateko ordez,
ezigarriago ta kristauago zan zerbait lortzeko erabiltzen zuan beti. Bear
aundian zeuden norbaitzuentzat eta bestela baita espetxeetan zeudenent-
zat ere.

2.—GARIZUMA

Garizuma umeentzat ain garai ta aldi atsegiña ez danez, egoki saia-
tzen zan umeen maillan eratzen. Eta Garizuma'k berekin duan ukapen-
alderdia oso ezigarritzat erabiltzen zuan umeen mesedetan. Adibidez,
Garizuma'ko ostiralen batean gertatzen baldin ba'zan umetxoren baten
urtebetetzea, egun artan eramaten zituzten goxokiak, urrengo egunera-
ko uzten zituzten. Orrelaxe jakiñean eta naita, egun artan ikusi ta gogoia
sortu arren, jan gabe gordetzen zituzten biaramonerako. Baiña ez nola
nai: gauza adierazi ta jakiñeraziz, neketxo edo ukapen ura Jaunari es-
keintzea gauza aundia zala, alegia.

Eta Garizuma'ren bukaeran, ospakizunik aundienetakoa, Ostegun
Santu izaten zan, Jesus'en «Azken Afaria» gogoraziz. Eta oso egoki era-

biltzen zuan guztia, batez ere, urte artan Lenengo Jaunartzea egin bear zuten aurrak girotu ta gertutzeko.

Esan bearrik ez, Jesus'en Eriotzak bere lekua ta garrantzi aundia zituala. Gertakizun ori aurren biotzetan goxoki ta era egokian, baiña benetan sakon sar zedin, arreta aundiz saiatzen zan otoitzak, abestiak, irudiak eta gaiñerako lagungarriak erabilliz.

3.—PAZKOA

Jesus'en Piztuerak zerbait berezia zuan Elbire Andereñoarentzat. Gure errietan Aste Santua benetan aundikiro ospatzen oituta geunden, baiña ez ainbeste Pazkoa: aundia, baiña egun bat zan eta kito. Pazkoa ez da kristauen artean, gure errietan beintzat, zerbait aundi ta zuzper-garriztat bizi izan.

Orrela, beste guztien artean bereziki andereño batek bein baiño geiagotan esan oi digu auxe: bera geienik arritu zuan gauza, gure Ikastolara sartu zanean, Pazko garaian Jesus'en Piztuerari orrenbesteko garrantzia ematen ikustea izan zala. Zerbait adierazten du gertaera onek.

Pazko-eguna ez-ezik, pazko-aldiko jaiak ere bai, jai aundiak eta garrantzitsuak ziran Elbire andereñoarentzat. Eta garrantzi ori begietatik ere sar zedin aurtxo ta ezitzailleongan, ikas-gelak berak ere era berezian apainduta egoten ziran: orma-irudi aundi bat, Jesus piztua illobitik irteten ageri zanekoa; ori beintzat lenengo. Baiña lore zuriak ere bai apaingarri ta alaigarri.

4.—LENENGO JAUNARTZEAK

Ardura bereziz gertutzen zituan aurrak Lenengo Jaunartzea egiteko. Elizkizuna bera ere arreta guztiz eratzen zuan aurretik. Ortarako, Lazkao'ko Beneditarren lekaidetxera joan oi zan, Liturgi-gintzan apartekoak diralako. Lekaide auek zirala gai ortan nagusi, esan oi zuan askotan.

Esan bearrekoa da, noski, garai aietako Lenengo Jaunartzeak, euskeraz ziralako ta Ikastolak gertutuak. benetan izkutuko gauzak zirala, katakunbetakoen antzeko zerbait ixilla. Alaxe esaten zuan berak ere.

Oso erraza da opari, jantzi berri, bazkari ta gaiñontzeko gauzez aurrak lilluratzea. Ala gerta ez zedin bere ardurapeko aurrengan, aurrez artzen zuan ardura bizia ta ala gertutzen zituan. Beste ezertan baiño areago, Jesus artzean umeek beren gogoa ta maitasuna jar zitzaten, egi-

ñaalean saiatzen zan.

Ez da arritzekoa, beraz, argazkilariak tartean sartzen ziranean zenbait istillu izatea. Zergatik? Umeen arreta kendu egiten zutelako elizkizunean ari zutenetik, ulertzekoa danez. Eta au ere ez da gaurko gauza, orain ogeitaka urte dirala egiten zuana baizik. Oraingo zenbait elizkizun ikusita, ez da arritzekoa, itz auek esaten entzutea: «Atzeraka goaz... Folklorekeria geiegi dago gaur... »

5.—OTOITZAK ETA ABESTIAK

Irakaskintza ta eziketa beren osoan artuta, balio ta garrantzi aundiak aitortzen zizkien Elbire Andereñoak olerki ta abestiei. Eta kontu aundiz aukeratu oi zituan egokienak.

Zenbatez areago, berriz, erlijio-ezierako otoitzak eta abestiak! Otoitz egiten egoki asmatzen zuan, umeek ulertu ta biotzez jarraitzeko eran.

Oso besterik zan, ordea, buruz ikasteko abestiak aukeratzekoan. Berak zionez, ez genuan olerkari, baiña... besteen olerkiak ikutu ta umeentzat egokiago antolatzen, bazekian zerbait. Eta ez gutxi ere. Orre-gatik besteren laguntza bear izaten zuan abesti egokiak asmatzeko.

Gogoratzen naiz —eta urte asko dira—, Aizarna'tar gazteen ama, Errementeria'tar Itziar'ek Belok'era erman ginduala Elbire ta ni, ain zuzen ere Aita Iratzeder olerkari trebearengana. Aurrez adirazirik zion bere asmoa ta beneditarrak eraturik zeukan olerkia: doiñu ta guzti, gaiñera, Aita Jainkoari abesteko otoitza alegia. Gauzak ain ongi nai izaten zituan ez, oso kontentagaitza zan gure Andereñoa: ikutu batzuk egin bear izan zizkion, beraz.

Eta auxe zan abesti ain landu ura:

*Jainko ederra,
On-ona eta aundia,
Zeruko Aita:
Oiuka zure aurtxo:
Gora Jainkoa!
Zurea ni oso-oso!*

Era berean landua ta egoki eratua da bes te au, zeruko Amari esatekoa:

*Etxean ba det ama,
Jainkoak emana.*

*Zeruan beste Ama,
Andre Mari ona.
Bien eskutik noa
Zeruko Aitagana.*

MITXELENA'tar MARI KARMEN
«Orixe Ikastola»ko Zuzendaria



ESKOLA BIZIA TA ELBIRA

Orain urte batzuk dirala ezagutu nuan Elbira: lau urteko aurrekin ari zan lanean lenengo aldiz bere bizian. Ikusi egin bear zan emakume ura saltoka pasilloan bere... 60 urte edo geiagorekin, aurrak komunera eramatekoan, edo-ta aren gatza, aga bat arturik, Gaztelu'ra joaten zanean.

Aren asmamena beti lanean ari zan gauza berriak sortzen edo zaarrei beste ikutu bat ematen: zituan aurrentzat abestiak agokitzen... aurrak obserbatuz bere Pedagogi-zakua betetzen eta aberasten... begietatik mal-koak zeriozkiola ipuiñak kontatzen...

Elbira urte artan «ORIXE Ikastola»n ari zan lanean bere inguruan ainbeste urtez iraun zutenekin. Ordurako, bere etxea utzita, amarreko aur-kopuruetatik ogei, ta geiagora pasatako taldeekin ari zan lanean. Berak zionez, leen talde txikiekin erabilitako metodoak, talde aundira egokitu bear izan zituan, buruz atzeratuekin erabilliak atzeratu-gabekoentzat leenago egokitu zituan bezala.

Ainbeste urte Ikastolako lanean pasa ondoren, askotan aaztu egiten zaigu nolako Eskoletan ikasi gengan eta nola erakutsi ziguten, erakusteko edo irakasteko era beste bat bai-zan. Aaztu egiten zaigu zer izan zan Elbira zanak Eskolari aportatu edo eman ziona: ESKOLA BIZIA.

«Magisterio» edo Irakaskintza-Eskolan ainbeste aldiz entzun nuan «Eskola bizia», baiña Elbira ta berarekin lan egiten zutenak ezagutu arte, itz aiek zer esan nai zuten, ez nuan garbi jakin. Eta Elbira'k aportaketa Eskolari egin ziola esatean eta ez Ikastolari bakarrik, naita diot ori. Izan ere, irakasle batzuek, Ikastolak ezagutu ta gero erri txikietara jo zuten lanera, an «Nacional» izeneko eskoletan aur euskaldun asko zebiltzalako; eta beste irakasle berri batzuek beren lan-era aldatu egin zuten, aiena ezagutuz.

Orregatik, aaztu egin zaigulako, gogora ekarri nai nuke zer gauza berezi ikasi nituan, Ikastola artan nola lan egiten zuten ikusita.

IKAS-GELAK

Lenengo arrituta utzi ninduana, zera izan zan: gela aiek, lan-leku aiek, etxe-ikutua zuten. Ez zegoan betiko eskola-usaiñik iñon ere. Sartu ta bereala konturatzen ziñan, ikasle-mai edo «pupitreak» falta zirala; eta irakaslearen betiko mai aundia ere falta zala.

An naiko toki zegoan aurrak mugitu, abestu, dantzatu, antzerkiak egiteko..., zera, baserri-kutsuko aulki luzeak orma-ondoan bazterturik zeudelako. Eta egurrezko mai luzeak, Euskalerriko etxe zaar askotan bezala, maratillaren bidez paretetan altxaturik eta lotuta zeudelako.

Ormetan bi edo iru apal zeuden, aurrek eramandako jostailuz beteé ta. An apaletan zeuden baita liburuak ere: «Martin Txilibitu», «Kristau Ikasbidea», «Xabierto», «Itun Zarra»... Baiña ez irakaslearenak bakarririk, aur guztienak baizik.

Ez zenituan ez zorro aundiak bizkarrean artuta ikusiko aurrak. Ez, ez zenituan ala ikusiko. Ikastolan uzten zai-zituzten beren liburu ta lanabesak: arkatx, margo, goma, txorrokill... Apal batean an zeuden lorontzi batean lore frexkoak eta otartxo batean urtaroko igaliak. An apaletan zeuden baita... ain aipatuak diran Elbira'ren metodoko kanika ta kutxatillak ere. Potetxo batzuetan aleak: babarrun, arroz, txindilla edo lenteja, garbantzu... baita azukrea ere. Ondoan, pixua aurren eskueran, erabilli aal izateko. Aruntzago, tolostatzen zan zurezko metroa.

Bereala oartzen ziñan apaleko gauzak ez zeudela bitrina moduan apaingarri jarriak, gauza biziak zirala baizik, erabiltzeko jarriak. Ori ikusteak zera ekarri zidan burura: nik umetan eskolan ezagutu nuan bitrina polit ura bere sukaldetxo, ontzixta ta ez dakit zenbat gauza politekin... baiña an goian zeuden eta bitrinako atea ez zan sekulan zabaldu ni gela artan nintzan bitartean.

Gelako txoko batean an zeuden baita erratz txiki bat, pala ta autsa kentzeko zatarra ere. Maietan lan egin ondoren, aurrek beraiek garbitzen zituzten gomak-eta utzitako zikin edo ondarrak. Garbiketak, noski, bai nexkek eta bai mutillek egiten zituzten. Eta ez ori bakarrik. Ikastola artan panpiñak erabiltzen zituzten mutillek beren besoetan.

Elbira'k IRA'k, lau urteko nexka-mutillei, panpiñak besoetan zituztela jarrita, «Nere txiki, nere polit» lo eragiteko abestia kantatu-eragiten zien onela esanez: «Orrela ikasiko dezute amatxo ta aitatxo onak izaten».

Mezetan ez genuan artean au esaten: «Il eta piztu zerala, Jauna... ». Eta sermolariek sekulako garrantzia ematen zioten Ostiral Santuari...

Bitartean an ikusten nuan nik paretean Gurutzearen ondoan Piztuerako irudi bat. Ori aundien gelan. Txikien gelan, berriz, Samueltxo belauniko jarrita otoitzean ageri dan irudia. Udara oso bat pasa zuan Elbira'k berak zionez, pentsa ta pentsa, zer jarri lau urtekoen gelan, Samueltxo'ren irudiarekin topatu arte.

Orain arte esandakoekin, ikas-geien antolaketa ta moldaketa agertzea besterik ez dugu egin. Baiña, nola jokutzen zuten gela aietan eta «material» edo gai aiekin irakasleek eta aurrek?

ANDEREÑOAK ETA AURRAK

Irakasleek mairik ez zuten orrekin —eta ez orregatik bakarrik!— aurren artean eseritzen ziran, eta lurrean eseri ere; eta maietan lan egiten ari ziranean, antxe ibiltzen ziran mai-arte, aurren artean, laguntza bear zutenei laguntzen edo-ta norbait naasten ba'zan, zuzen-erazten.

Aurra, berriz, nere begietara beintzat, nortasun bereziekin agertzen ziran: irakaslearekin lasai itz egiten zuten eta etxeko berri ekartzen zuten.

Ikastolan ospatu egiten zituzten urtemugak, jaiotzak, bataioak, lenengo Jaunartzeak; eta norbait iltzen zanean, berriz, otoitz egiten zuten.

Gurasoekin nunbait izan ba'ziran, an ekartzen zuten agin-adar bat, sastrakaren bat loretan, algadoi-lorea, edo-ta arraiñen bat, guztiek elkarrekin ikusita, ikasteko.

Ipuiñak, abestiak, antzerkiak, irudiak egitea, gauza arrunta edo normala zan eguneroko lanean. Odolaren ibillaldiak agertu nai zizkiela aurrei, ba... «Gona Gorritxu»ren ipuiña kontatzen zien. «El ciclo del agua» izenean ikasi genuana agertu nai geniela aurrei? Ba... ortarako, «Ttanti, Ttanta ta Ttanto»ren ibillaldiak kontatzen genizkien.

Udazkenean egazti askok Euskalerritik alde egiten dutela, agertu bear zietela? Orduan zugaitz-zulo batean alde egin eziñik gelditu zan kukuaren ipuiña kontatzen zien. Eta an ikusi bear zenuten gure Elbira bere begietatik malkoak zeriozkiola, kukuaren negarrak egiten.

Egunero abesten zuten aurrek eta ez, gero, Gabonak naiz Maiatza ziralako bakarrik. Abestiak, erri-errikoak eta errikoiak ziran batzuk, eta besteak jolasteko asmatuak. Aien bidez lantzen zuan, gaur «Psikomotrizitatea» esanez ezagutzen duguna.

Baiña egia esateko, orrek ez ninduan geien arritu, naiz-ta gero Gaz-

telu'ra joandakoan, eta joku, dantza, jolas eta abesti aiek ikusi ta entzundakoan atzerritarrek dirua eman aurrei goxoak erosteko. Ez, orrek ez ninduan ain arrituta utzi; arritzen ninduana ta biotzean zirarra eragiten zidana, zera zan: Euzkadi itza abestietan entzutea, edo euskaldun aberzaleen ametsak agertzen zituzten abestiak entzutea. Ori zan neretzat zeero arrigarri.

Nork esan bear zidan neri, Donosti'ko aurrak entzungo nituala ao batez abesten, gure amak etxean bakarrik erabiltzeko erakutsi zizkidan itzak eta abestiak?

Irudiak, berriz, istoriren bat kontatzekoan erabiltzen zituzten, baiña baita ikusitakoa naiz ikasitakoa agertzekoan ere. Udazkenean Gaztelu'ra joaten ba'ziran gaztaiñak biltzera, gero ikas-gelara itzuli ta gaztaiñaé ñmorkotsaren irudiak egingo zituzten.

Ikas-gelatik irten eta Donostia'n barrena ibiltzen ziranean, guk Cabo, Bahía, Península, Isla ta Costa bezala ikasi genituanak, ikusiz ikasten zituzten (Elbira'ren iztegian Lurmuturra, Izkolkua, Ia-Ugarte, Ugarte ta Itsasertza). Gero ikas-gelara itzultzean, ikusi ta ikasitakoen irudiak egiten zituzten aurrek Donostia'ko lurtamua edo planoa egiñez.

Irudien bidez agertzen zituan baita egun bereziak ere: Gabonetan jaiotzarena; Agate Deunaren egunean mutillak absten beren aga ta esku-argiekin; Sansebastianetan tanborrada; urtaro berri bat asten zanean, zegokion irudia; Xabier deunaren bezperan ezkillu edo kanpaiak; Ostegun Santu eguna ospatzekoan, Azken-Afaria... Eta orrela, bukatu eziñeko zerrenda.

BESTE ALDERDI BATZUK

Eta beste gaiak nola irakasten edo agertzen ote? Matematikak, esate baterako, goxoki, sagar, gailletak janez. Gai ontan ere irudi asko erabiltzen zituan: pinpilin-pauxa, arrain, xagu, katu, antxeta, goxoki, izar... eta kanikak bere kutxatillekin. Gauza zeatz edo konkretuetatik asten zan irakasten eta gero jotzen abstraktoetara edo abstrakziora.

Gaiñera, «amarrekoa» sartzen zanerako, euskal-abesti bat egokitu zuan: «Dendan andre Joxepa, trukutzen kanikak-eta... Amarreko polit bat auen trukean eman ba'deza...» Orrela, aurrek amar bateko (unidad) zituztenean, —trukean— amarreko (decena) bat lortzen zuten andre Joxepa'gandik. Neri, egia esan, ez zidaten orrela erakutsi zer ziran amarrekoak, eunekoak, millakoak... Gure irakasleak idaztolan edo arbelean zenbaki luze bat jarri ondoren, bere makiltxoarekin ikutuz joaten zan bera

ta guk buruz esan bear izaten genuan: «unidad, decena, centena, unidad de mil, decena de mil...».

Soka-tira ere erabiltzen zuan kenketa (berak zatiketa ziona) agertzeko. Arttale'ren Pulgar Txiki) ipuiña, laisterketan edo batuketa laisterrean aprobetxatzen zuan. «Mansubi'ko bidezaiña»ren gertaera, berriz, zatiketa adierazteko.

Irudiak asko erabiltzen zituala esan dudanean, aipaturik utzi dut au: ikas-gelatik irten eta ikusiz ikasten zituztela Lutelestiako «cabo, golfo, isla, península.. ». Baiña baita ibaia ta bera itsasoratzen dan lekua ta inguruetakoa mendien izenak ere. An. begien aurrean Monpas zutela, lur-muturra ikasten zuten: gero Santa Klara ugartea, Kontxa izkolkoa... Eta aurrek buruz esaten ikasi oi zuten onela: «Zer da ugartea? —Urez inguratuta dagoen lur-zatia».

Au, jakiña, Donostia'n egin zezaketen gauza zan, Donostia'k aukera au eskeintzen bai-dio irakasleari eta «pedagoga» edo ezitzaille on arek etekin ederra ateratzen zion.

«Mañana la siguiente lección» esaten zigun irakasle erdaldunak eta antxe lerroan jarri irakaslearen maiaren inguruan (1.^a, 2.^a, 3.^a, 4.^a... la última, la que ayer no supo la lección...) eta arek galdetu ta guk buruz ikasitakoa par-par botatzen genion, iñork ez atzetik eta ez aurretik ezer argitu edo esplikatu gabe.

Eta naiz negua izan, «la siguiente lección» zalako ikasten genituan loreak, eta urrea, naiz-ta eguzkiak ondo berotu, arrazoi beragatik, tokatzen zalako «Los fenómenos atmosféricos», elurra, izotza, euria, trumoiak eta abar ikasten genituan.

Ikastola artan, berriz, giroari lotuta, urtaroari lotuta, begi aurrean zegoanari lotuta ikasten zituzten gaiak ikasle txikiek. Eta ikasi nai zituztenak eskuartean ez ba'zeuzkaten, aurrei eskatzen zizkieten gaiak. Adibidez, oial-motak ikastekoan, algodoiz, artillez, liñoiz, sedaz... egindako puskak eskatzen zizkiete. Barazkiak ikastekoan berdin: an etortzen ziran aurrak baratzen izaten diran landarez beteta.

Zen tzumenak ikasi-erazi nai zizkienean, berriz, usaingoxo, gatza, oz, piña, sagarra, egurra ta lija-puska, txintxarri ta beste gauza geiago. Orrela, latza ta leguna, gozoa ta garratza, gazia ta Beza, otza ta beroa... zena tzumen ez-berdiñen bidez ezagutzen ditugula oartarazteko eran jokatzer zuan.

Ogia egitea nola izaten dan jakiteko, bertan egiten zuten eta gero aur

batek eramaten zuan etxera, an erreta, arratsaldean Ikastolan danen artean jateko. Eta «Ttanti, Ttanta ta Ttantto»ren ipuiña kontatuz gaiñeé ra, eltze batean ura jartzen zuten irakiten, ura isasoan nola lurrintzen dan, ain zuzen berotasunaren bidez, uler zezaten aurrek.

Urtean bein egiten zuten ibillaldi luze ura ere ikasteko izaten zan: zein erritatik igarotzen ziran, zein ibai zan andik zear zijoana; an dagoan mendi ura, alako da; belar au liñoa da... Eta gero egun osoan aurrekin jolasean. Orrela zion bein Aralar'ko San Migel'en «Escuela Nacional»eta-ko taldetik begira zeudenetako nexkato batek, arrituta: «Si saben jugar mejor que nosotras».

Urrengo egunean ikas-gelara joan eta Matematikako asmakillo edo problemak egiten zituzten, an kastatu zituzten diruen kontuak ateratzeko e.a.

Aurrek ez ikastaroan zear eta ez ikastaro bukaeran, ez zuten azterketarik egiten; ezta notarik etxera eramaten ere. «Kartillak» eta «Inspección»erako betetzen zituzten. Alaz eta guztiz ere ondotoxo zekiten irakasleek nork ongien menperatzen zituan gaiak.

Gaur, orrela jokutzen duan irakasleagatik, irakasle ona ta aurrera-tua dala esaten ba'dute, zer esango ote zuten Elbira lanean orrela gerra aurretik ezagutu zutenek?

ELBIRA

Bide-urratzaille primerakoa izan zan Elbira ta aurrean zituan pertsoneri begira moldatzen zuan bere erakusteko era edo irakaskera. Badira aren lanetan, aren irakaskeran, betikoak diranak eta betiko balio izango dutenak pedagogi-maillan. Eta badira aren metodoan momentu bati erantzuten zioten erakuskerak.

Baiña metodoak-eta alde batera utzita, beste zerbait ikasi ote nuan Elbira'ren ondoan? Nik ezagutu nuanean, aren gaixotasuna naiko aurre-ra zijoan, baiña berak beste baten omenaldiari buruz zion bezala jokatu bear dugu: «Omenaldi batean alderdi onak agertu bear ditugu bakarrik eta ez alderdi txarrak». Orregatik diot berriro: ESKOLA BIZIA zer zan ikastetik aparte, zer ikasi nuan Elbira zanaren ondoan? Beste gauza auek guztiak ere bai beintzat:

- 1.—Agortu eziñeko jakin-miña ta ikas-miña.
- 2.—Ikerketan aritzeko beta.
- 3.—Inguru-izkuntzetatik artutako ipuin, abesti, joku, jolas, metodo

ta abarri euskal-ikutua ematea.

- 4.—Kritika egiteko aalmena, kapazidadea: liburuak, pedagogi-gaiak eta lagungarriak aztertzekoan... «Inspección» zalakotik bidalitako lege-aginduei aurpegi emateko aalmena, Pedagogiaren aurkakoak iruditzen ba'zitzaizkion.
- 5.—Edozeiñengandik eta edozein momentutan ikasteko erne egotea.
- 6.—Aurrean zeukan gizakiari naiz pertsona-taldeari begiratzuz bere irakasketa moldatzea.

Eta bukatzeko, auxe esan nai dut:

Bearrezkoa derizkiot iru urtean bein Seminario bat antolatzea Elbira'ri buruz Euskalerriko «Normal» eta Irakasle Ikastetxeetan, Euskalerrian irakasle izan bear dutenek Elbira Andereñoa nor izan zan jakin gabe geldi ez daitezen.

Kultura-falta, edo beintzat Euskal-kulturan gutxi jantzia joko genuke, norbaitek Lizardi, Orixe, Lauaxeta, Lekuona, Azkue, Barandiaran, Lafitte... ez dituala ezagutzen esango ba'ligu.

Jaun oien izenekin lotuta —oien aldi berekoa zalako— joan bear luke beti Elbira'ren izenak.

Eta ez dugu uste geiegizko ezer esan dugunik. Izan ere Ikastolak aipatzekoan eta Pedagogi-maillan Elbira'ren izena aaztu eziñekoa bai-da, aren eragiñari esker Ikastetxeetan erakuskera aldatu dalako Euskalerrian.

Ala zion andereño batek omenaldi-egunean: «Askok eta askok zor diote Elbira'ri beren pedagogi-jarrera, eta askok eta askok, zoritxarrez, jakin gabe nori zor dioten».

Donostia'n 1985'go urtarrillean
JAUREGI ARZELUS'tar MERTXE'k
ORIXE'ko Andereñoa
Lizentziaturaz Ornitua

EUSKERA TA IZKUNTZA-ARLOA LANTZEKO LAISTER-BIDEAK

Zipitria'tar Elbire zanaren Omenaldi-libururako argibide batzuk eskatu dizkirate, laister baiño laisterrago egiteko esanez. Izendatu didaten gaia, auxe da: izkuntza irakastekoan erabiltzen zuan lojika argi ta zeatza.

Ulertzekoa danez, alor ori bere osoan eta sakonki adierazterik ez dago arin-ariñean eta laburki mintzatuz. Baiña idazlan laburra eskatu didatenez, argibide batzuk bakarrik eskeintzen ditut emen, Elbire'k erabiltzen zuan lojika ura ezagutzera emateko bidean, adibide gutxi batzuk. Beste noizbaiterako geldituko da, beraz, ikerketa sakona burutzea.

Eta emen lau adibide azalduko ditut, zerbaiten aztarna artzeko bide edo lagungarri izango diralakoan, batez ere irakasbide au erabiltzen ikasi ez dutenentzat.

Zenbaki-arloan lojika aundia erabiltzen zuala Elbire'k, gauza oso ezaguna da; aren irakaskintzaren berri dakitenentzat bereziki. Baiña eliztia edo gramatika irakastekoan ez zuan lojika gutxiago erabiltzen.

Jarduketak egiten ari giñanean, arrigarri gertatzen zitzaigun, ain gauza berria zalako guretzat. Eta onuragarri ere gertatu zitzaigun, bai geurok ongi ulertzeko, eta bai ikasleei argi ta garbi irakasteko.

1. — IZENA TA ADITZA

Eliztia edo gramatika irakastekoan, esaldia ongi aztertzeari garrantzi aundia ematen zion. Eta esangunearen barnean, berriz, bi oiñarri bereizten zituan, zein baiño zein bearrezkoagoak, eta biak begien aurrean ipintzen zizkigun izki aundiz eta garbiro berezita:

IZENA

ADITZA

Bi auek dira, noski, izkuntza-multzoaren oiñarriak, eta auen inguru izaten dira beste osagarri guztiak, oiñarri sendoen gaiñean eraikitako etxagintza iraunkorraren antzera.

a) Izenak, bere ingurukoak, bere mugatzaileak izaten ditu: izen-lagunak edo gaztelerazko «determinantes» eta «adjetibo».

b) Izenak badu bere ordezkorik ere: bera ez dagoanean, beste bat izaten da ordezeko ta ortatik «ordeizena» esaten ziona, eta gerora «izen-orde» deitua, gaztelerazko «pronombre» alegia.

c) Aditzak ere baditu bere ingurukoak, bere mugatzaileak: aditz-lagunak edo gaztelerazko «adverbio» diralakoak.

d) Itzak beren artean eta esaldiak ere beren artean lotzeko, or ditugu bi eratako lokarriak: itz-lokarria ta esaldi-lokarria.

2. — EUSKAL-JOSKERA

Garrantzi berezia, izugarria, ematen zion joskerari, euskeraren muiña dalako, gure izkuntzaren ardatza. Eta joskera irakastekoan, galdera-erantzunak oiñarri artuta, «galdegaia» aurkitzea da zuzeneko joskeraren giltza. Ori aurkitzeko bidea, berriz, galderak zuzeneko eran egitea. Izan ere, orduan, aditzaren aurrean ondo-ondoan dijoan itza da «galdegaia». Adibidez: «Nolakoak ditu adarrak akerrak»? Jakin nai duguna edo galdetzen duguna, *nolakoak* diran jakitea da, eta orixe da galdegaia.

Erantzunari dagokionez, berriz, galderan «galdegaia» dagoan toki berean, aditzaren aurrean ondo-ondoan joan bear du erantzunak: «*Okerak ditu adarrak akerrak*».

Ikasleei argi ta garbi ulertarazi bakarrik ez, baita ikuserazi ere egi-ten zien Elbire'k begien aurreko jolasen bidez edo antzerki biurtuta. Ortarako, ikasle bi elkarri besotik elduta ipiñi oi zituan, ain zuzen, ere, «galdegaia» ta aditza beti elkarri loturik izaten dirala ikuserazteko. Beste ikasleak bikotearen inguru ibil zitezkean lasai edozein eratarata, baiña bikotea askatu gabe.

Eta ona emen adibide erraz bat edonork ulertzeko erakoa:

Akerrak okerrak ditu adarrak
Adarrak okerrak ditu akerrak
Okerrak ditu akerrak adarrak
Okerrak ditu adarrak akerrak
Akerrak adarrak okerrak ditu
Adarrak akerrak okerrak ditu

Bikote ori ongi ta zuzeneko eran uztartuta dalarik, beste itz guztiak eta geiago, era guztietara aldaturik ere, esaldiak ez du bere muiña gal-tzen, beren esanai nagusiari sendoki eusten dio baizik.

Gaur, bear ba'da, gauzarik errazena ta soillena, edozeiñi bururatzeko bezain azalpen argia irudituko zaigu. Baiña nork erabiltzen zuan, Elbire asi zan arte?

3. — EUSKAL-ADITZA

Oso zaila dalazko otsak dira euskal-aditzari dagokionez. Erraz-erraz danik ezin esango dugu ta orregatik erabilli zituan ainbeste asmatu-ezin eta buruauste gure «Ira» irakasleak. Baiña baita zerbait ona aurkitu ere irakastea ta ikastea asko errazteko. Benetako laisterbide egokia dala esan behar.

Eta, jakiña, beste irakaspen guztietan oi zuan era berean, aditza irakastekoan ere jolas eta antzerkiz baliatuta jokutzen zuan, lojika zorrotzaren argira.

Badira beste idazlan batzuk, ain zuzen, NOR-NORI-NORK irakasbi-dearen sorrera ta asmaketa bete-betean Elbire'ri aitortzen diotenak. Alderdi ori utzita, irakastekoan erabiltzen zituan lagungarriak azalduko ditut emen.

Esan dezagun, lenengo, aditzak adierazten dituan NOR (edo ZER), NORI eta NORK diralakoak, ez daudela esangunean aditzetik etenda beste izkuntzetan bezala: aditzari itsatsita baizik, aditzarekin bat eginda.

Aditzak ongi jokatu aal izateko, beren erroa aurkitzen irakatsi oi zigun. Erroa aurkitu bear au, ain zuzen, jokutzen ditugu aditzetarako da. Beste era batera esanik, jokaera trinkoa duten aditzen arazoa da. Oietatik, berriz, orain ez ditugu asko, leen geiago jokatuko bai-zituzten ziur aski.

Ain juxtu ere bokalez asten diran aditzak bakarrik dauzkagu orain era trinkoan jokatzeke. Eta arau auek irakatsi zizkigun:

Asieran A naiz E dituztenek, galdu egiten dituzte bokal oiek.

Asieran O naiz U dituztenek, galdu gabe gordetzen dituzte.

Asieran I berezkoa duten aditzek, ez dute I ori galtzen, baiña E'ren trukaketaz edo «metatesi» dalakoz sartua ba'dute, galdu egiten dute.

Azkenean I naiz N dutenek ere galdu egiten dute azken ori.

Adibidez: (E) TOR (I) (I) BIL (I)

(E) GO (N)

Beraz, TOR, BIL eta GO ditugu erroak.

Eta bein erroa aurkitu ondoren, gaiñerako berezitasun eta aldaketak adieraztekoan, aditzaren jokabidean NOR bakoitzak bere «jantzia» artzen duala esaten zigun. Ontan ere lojika aundia erabilliz, aditz-jokuetan pertsona bakoitzari dagokio bere «jantzia», eta auxe da araua: orde-izenaren lenengo izkia bera da NOR ori adierazteko aditzak artzen duan jantzia. Ala ere Ura ta Aiek bereziak dira, bientzat D bai-da jantzia. Onela adibidez:

NOR	JANTZIAK
Ni	N
I	
Ura	D (orain) Z (leen) L (gero)
Gu	G
Zu	Z
Zuek	Z (te)
Aiek	D

Eta aditz-jokaerako adibide soil bat ipintzen dugu emen:

(Jantziak) NOR	ORAIN	ERROA ZENBATEKOA
N		
—		BIL
D		
G		TOR
Z		
Z		GO (te)
D		

Eta auen antzera irakasten zituan NORK eta NORI diralakoei dagozkien «jantzi» edo adierazgarriak ere.

Besterik da, noski, aixa ta erraz erabiltzea aditz-joku guztiak. Izan ere, izketakoan, eta euskerazko ikasketarik ezaren erruz, aditz-joku gutxi erabiltzen ditugu; tamalez, gero-ta gutxiago. Orrela, oituraz erabiltzen ez ditugun aditz-jokuak, izketakoan ez zaizkigu erraz eta barra-barra ateratzen. Baiña ikastekoan, argi ta garbi ikusten ditugu, orri baten aurrean joku guztiak, bata bestearen ondoren ederki ateratzea lortzen dugu. Alakoxe lojika dute, ain zuzen.

Esan bearrik ez, ORAIN, LEEN eta GERO, aldiak irakasteko ere lagungarri bitxietaz baliatzen zala.

4. — ERDAL-ELIZTIA

Xeetasun guztiak emateko asmorik gabe, bijoaz azalpen labur batzuk bederen. Adibidez, bi gauza.

Batetik, aldiak edo denborak nola ulertu ta nola adierazi gaztele-razko aditzean? Ortarako ere jolas eta adibide asko erabilliz, onela bereizten zituan:

Pto. imperfecto = Antes

Presente = Ahora

Pto. indefinido = De pequeño, antes-antes

Futuro = Mañana

Esaldi politak eta ezagunak erabiltzen zituan adibidetzat. Ona emen bat beintzat: «Por un ventanal entra la lechuza en la catedral». Esaldi ori bera leen-aldira ta gerokora aldatuz, e. a. ikus-erazten zituan erdal-aditzaren berezitasunak. Bai betiko gogoan artzen genituala erraz askorik! Eta gure ikasleei irakasteko *ere* lagungarri bikaiñak gertatzen zaizkigu azalpen auek eta gaiñerako guztiak.

Bestetik, gaztelerazko «subjuntivo» nola ezaguterazi ikasleei? Menpeko esaldi orrek «Que» eramaten du, baiña bada bestelako «que» bat ere. Bereizteko bidean, lagungarri auxe irakatsi oi zuan: «Quiero que... sar ba'zitekean, benetan «subjuntivo» da, eta bestela ez. Eta ori bera leen-aldian eta gerokoan.

Izkuntza lantzekoan erabiltzen zuan lojika zein en argigarria zan adierazteko aiña badira adibide soil eta gutxi auek. Eta ontan amaitzen dut esker onezko nere aitorpentxo.

PEÑAGARIKANO'tar MAITE

Urumea Ikastolako Andereñoa

TXOTXAK ERABILTZEA, ELBIRE'REN IRAKASBIDEAN

TXOTXAK esatean, ortziriak adierazten ditugu. Izan ere gure errietako euskaldunek beste era batera edo beste zerbait ulertzen bai-dute TXOTXA esatean: zugaitz-adarren mutur meeak, alegia. «Sua pizteko txotxak biltzen ari da» esaten dute.

Giza-eskuz landu gabeko adartxo meeak dira, beraz, txotxak. Baiña adaxka oiek, naiz beste egur-zatiak, giza-eskuz zorroztuak edo landuak diranean, orduan beste izen bat dute: ziri. Adibidez, «sagardo-barrikari ziria sartu diogu».

Berez egokiago legoke «ortziri» esatea, gaztelerazko «palillo» diralakoak adierazteko. Baiña Ikastoletako oiturari jarraituz, TXOTXAK itza erabiliko dugu.

Ikastolan txotxak erabiltzea... Zipitria irakasleak txotxak asko ta oparo erabilli-eraztea umetxoei, zergatik eta nola ote zan?

Izan ere umeeekin irakaskintzan ari diran askok bai-dioten onelako zerbait: «Txotxekin aspertu egiten dira umeak...» «Nazkatu egiten dira txotxak erabiltzen...» «Artu txotxak lanerako esaten ba'diegu, "au nazka" erantzuten dute»...

Elbire berak eta ari ongi ikasita erabiltzen dituztenek, oso bestela ikusten dute nexka-mutikoen jokabidea.

Deus gutxi dakitelarik, ia-ia dana ikastera sartzen diran txikiei, aurrez ezer erakutsi gabe, «artu txotxak... eta egin alako» esaten ba'diegu, zer egingo dute? Zearo aspertzea ta nazkatzea, ez da arritzekoa, nola erabilli ta zer egin ez bai-dakite.

Asieratik ez dezakete edozer gauza egin txotxak bidez: ikusi egin bear dute lenengo, eta beraiek ere egiten ikasi gero. Esate baterako, zerbait borobilla egin nai ba'dute, nola asmatuko dute? Txotxak oker-

tzea ta borobil erara ipintzea ez da ain erraza asieratan. Nolabait erraztu egin bear dizkiegu, beraz, aurkitzen dituzten zailtasunak.

Oso ederki errazten zizkien lanak Elbire'k txikitxoei, gerorako utzi-rik zailtasunak. Au da, zailtasunak maillaka jarriz begien aurrean eta eskuetan.

Adibidez, izkiak egiteko erabiltzen zituan txotxak, eta oparo erabilli ere. Baiña... izkiak egiten eta idazketa ikasten ari ziranik esan gabe: jolas polit bat egiten ari ziralakoan, alegia.

Eta izkiak ez edozein eratakoak: izki nagusiak, izki aundiak, berak «etenak» esaten zienak, au da, A, E, I, O, U. Lenengo, soinketa-bidez edo eskuak erabilliz irakasten zien izki oiek egiten, aldi berean esanez. Eta zein atsegínsu egiten zituztelako, gero, guztiek batean besoen eta soin osoaren erabilketak!

Txotxak erabiltzekoan, beste zailtasun bi ere aurkitzen dituzte txikiék. Batetik, goian idatzi ditugun O ta U bezalakoak egin aal izateko, txotxak okertu edo borobillean jarri bearra. Zailtasun orri iges egiteko, zer asmatu zuan?

Borobillean egiteko ordez, bestela egitea, onela alegia: O= □, eta U egiteko berriz, antziñako euskal-idazkeraren antzera, V erabilliz, euskeraz idaztekoan bearrik ez dugunez. Orra gauza bat errazturik!

Eta beste zailtasuna, txotxak luzera berdiñekoak dirala, baiña ari- ketak egitekoan, txikiagoak ere bear zituztela. Zer egin? Elduoi erraz gogoratuko zaigu: erdibitu ta kito! Oso ederki, baiña txikiék nola asma- tu? Asmatuta ere, beti ez dira erdibitzen errazak izaten txotxak.

Orregatik, esan egin bear eta gogorazi txikiei, txotxak erdian .autsi- ta, erdibituta, lortuko dituztela oskotan bear dituzten txotx txikiagoak. Esate baterako, A egiten, txotx bi osoak eta bat txikia bear dituzte: II i, era egokian jarrita. E egiteko, oso I eta iii txiki. I erraza da. O egiteko, II tente ta ii etzanda, azpian eta gaiñean. Eta V egiteko bi aundi II.

Orrela lanbidea erraztuta, aixa egiten dituzte, eziñean ibilli bearrik gabe. Bestela, berriz, aspertzea ta nazkatzea, ez dira arritzekoak.

Urrena, izki mutu batzuk egiten ere irakasten zien. Eta aixa ikasten dute, era egokian eta maillaka irakatsi ezkerro. Izki oiek guztiak ere, txo- txen bidez egitea, atsegín gertatzeko bideak egin bear dituzte irakasleek, Elbire'k egiten zituan bezala.

Poliki-poliki ta astiro, baiña beti jarraituz, AITA, AMA itzak, bakoi-

tzak bere izena ta lagun batzuen izenak idazten ikastera, aixa eltzen dira 4-5 urte dituztenen maillan. Baiña beti ta dana jolas-giroan, jolasak egiten ari diran ustean, izkiak egitera ta itzak idaztera irixten dira: Egiñaren egiñez, baiña beren erara utzi gabe; aurrez irakasleak egiñez eta beraiei ere egiten lagunduz.

MARRAZKIAK, IPUIAK, ZENBAKIAK

Eta era berean marrazkiak egitekoan ere: guztiei batera begien aurrean erakutsiz gauzak nola egin, nolako txotxa erabili ta nun ipiñi. Izan ere, oiñarriak edo asiera-asiera, ezitzaileak erraztu bearrekoak dituzte, bestela beti eziñean gertatuko bai-dira. Etxagintzako antzera da eziketean ere: etxeak milla tankeratakoak izan daitezke lurretik gorakoan, baiña... oiñarria edo zimendua, guztiek eta beti lurpean sartua bear dute.

Zailtasunak errazteaz batera bazizun Elbire'k beste urrezko arau bat ere: umetxoak aspertzen asi zirala nabaitu orduko, ariketaz aldatu ta beste zerbait egitera jo. Lan eta jolas bakoitzean ez luzaro iraun-erazi, ariketan gogait egiten zaielako. Baiña aldatzeak ez du esan nai, erabat uztea. Egin bearreko lanak diranean, aldaketa naiz atsedeen-aldia egin ondoren, berriz ere leengoa burutu bear, ostera ere laburki, baiña gogoz eta pozik egiten duten aiñean. Orixe da, ain zuzen, zailtasunak gainditzea ta menperatzea, eta ez iges egitea.

Bein zailtasunak garaitu dituztenean, pozik ari oi dira gauza berriak ikasten, jolas berriak egiten ari ba'lira bezain alaiki ta gogoz.

Txotxak erabilliz burutzen dituzten dituzten ariketa guztiak, lurrean egin oi dituzte. Ortarako, jakiña, zurezkoa izan bear du solairuak: gutxienez ere zurezkoa, eta zerbait beroagoa ba'litz, obe oraindik.

Eta antxe lurrean belauniko, lerrotan edo errenkatan, txotxen kajatxo aldamenen dutela, ari ta ari, batzuetan izkiak eta besteetan marrazkiak egiten.

Iru urte zituztenean asi ziran txikiak, gero 5-6 urte dituztenen mailara eltzen diranean, zeinzen gauza arrigarriak egiten dituzten txotxen bidez, sinisterik ere ez dago ikusi gabe.

Idazketari dagokionez, itzak banaka aurrenetik, esaldirik osotu gabe. Baiña baita esaldi laburrak ere, naiz ipuien bat idazteko ta naiz irakasleak ozenki esan dien izkurria edo «diktado» txikia.

Marrazkiak, berriz, ikustekoak izan oi dira. Andereñoari ikusiak egiten oitu diranean, eta txotxen erabilketa menperatu dutenean, etxeak

eta zugaitzak bakarrik ez dituzte egiten: baita ipuiak berak ere marrazkiz adieraztera eldu oi dira. Eta orrelakoetan ari diranean, ezin esan asper- turik edo nazkatuta daudenik, ez bai-lituzkete alako gauza dotore apaiñak egin aal izango gogoz kontra.

Era berean, zenbaki-alorreko ariketak ere ederki egiten dituzte txotxen bidez: txotxak berak kopurutik kenduz, bilduz eta berdintasunak ipiñiz e. a. Azkenerako baita zenbakiak berak txotxez eginda ere buru- tzen dituzte zenbaki-arloko ariketak edo buruketak.

Asieratik papera ta arkatza eskuetara eman ezkerok, nola-edo-ala bete izan dituzte paperak eta paperak zenbait eskolatan. Eskuak landu baiño leen, ibilkortasun egokia lortu baiño leen, arkatza ta naiz margokia es- kuetara eman ezkerok, egiñaalean ari oi dira, baiña bai nekatu ere latz! Ortatik sortzen zaie askori gerorako kaltegarri dan nazka: idatzi bearra ren aurrean, nekeak ikaratuta, zailtasunak menpean artuta, nexka-muti- ko askok gorrotoa izaten diote idazteari.

Txotxen bidez idazten ikasi dutenek, nekerik gabe eskuentzat eta bitartean buruak landu dituztelarik, ez diote gorrotorik artzen idazketa- ri. Izan ere, ainbeste egunez jolas-giro atsegiñean egin dutenak ez bai-die naikarik barruan sartzen.

Eta, jakiña, txotxak erabilliz trebetasuna artu dutenean, urrengo urratsa edo mailla, idaztolan idaztea da; gero ingurrazti edo kuadernoe tan idaztea izango da. Baiña aurrena, txotxen antzeko izkiak egiñez, a2; da, izki nagusiz edo etenez. Jarduketa auek ongi landu dituztenean, izu- garri erraz eta pozik ikasten dute esku-izkiz ere idazten. Ikusi duanak badaki gauza auen berri, ez bai-dira ametsetako burutazio utsak.

MARIEZKURRENA'tar PURI
Urumea Ikastolako Andereñoa

GEOGRAFIA IKASTOLAN

Orain dala... 20 urte bizi izandako esperientzietaz jardutea ez da errazegia. Ikastolako oroimenak naasiak bai-ditut. Oroimen leun eta goxoak, zakar eta gogorrekin tartekatzen zaizkit.

Ala ta guztiz ere badaude oraindik bizirik ditudan ainbat oroimen, ainbat esperientzi.

Ikastola, txiki-txikia zen: Elbira'ren etxeko egon-gela. Aurrak ere ez giñan geiegi, mailla bakoitzeko 5-6, guztira 20-24. Erdiak goizez, besteak arratsalde. Ostegunetan, berriz, danak alkartzen giñan, Gaztelura joateko geienetan, beste ikustaldi edo irteera bestetan.

Ostegun goiz orietan asi zen guretzat, inguruneari urbiltzea. Txiki-txikitatik bizi bai-genituen urtaroak. Urtaro bakoitzak zuen bereiztasuna, ongi ikusirik, aztertuz eta jabetuz.

Onetarako, marrazki, olerki, ta abestí askotaz baliatzen giñan. Au dana artertzen genuen. Burura datorkit Lizardi'ren olerki bat:

Oi, lur, oi, lur!
Oi, ene lur nerea!
oi, goiz eme,
parre gogoz ernea! .. .
Arto musker,
mendi, baserri zaarrak,
ale gorriz
abaildutako sagarrak...»

Elbira'k, beti esaten zuen, geroztik ere entzuna diot, txikiei, izkuntza ederra erakutsi bear zitzaiela. Olerkari eta idazleen izkuntza ez zitzaien arrotza gertatu.

Gaztelera ikasterakoan, Juan Ramón Jimenez'en «Platero y yo» irakurtzen genuen, onetaz aparte «Cuentos, juegos y poesías» izeneko liburu bat.

Baiñan goazen inguruneari buruz zerbait esatera.

Elbira'k zuen lenengotako ardura, norberak, bere ingurunea ezagutzea zen. Au da, etxetik ikastolara egin bear genuan bidea, kaleak, azokak, plazak; gero auzoa ikasten genuan eta norberaren auzotik Donostia.

Euzkadi'ko Geografia edo Euzkadi'ko lurraldea ezagutzera ere urbiltzen giñan, oso era leun eta errezez.

Gaztelura igotzen giñan ostegun aietan, Baiona'ko itsas-ertzak eta Bizkai'ko Matxixako inguruak sumatzen genituan. Au dana noski, lainorik ez ba'zegoan. Laino edo odeiak ikusten ba'genituan, orduan, euria nola sortzen dan ikasten genuan.

Ez dut uste Elbira'k programazio itxirik erabiltzen zuanik. Ainbat eta ainbat gai, edozein unetan erabiltzen bai-zituan. Munduko gertakizun politikoeak ere, garrantzi aundia izaten zuten, emen aurkitzen bai-zuan lurralde berri baten kokaketa eta ezaugarriak irakasteko era.

Euzkadi'ko lurraldeari buruz, oso ongi gogoratzen naiz «Tinti ta Tanta» ipuia. Ipuia onen bitartez, ur-mugaren garrantzia azaldu nai zigun.

«Tinti», iparraldera, Kantauri itsasora zijoan. «Tanta» berriz, naiz eta odei berberekoa izan, egoaldera, Mediterranearen itsasora.

«Tinti»k bide motza, alai, aran orlegi ta baserriak tartekatuz, gero industriak, eta azkenik, itsasora.

«Tanta»k berriz, bide luzea, motela, ez bai-zegoan gain-beera aundirik; onetaz aparte ere, lurralde ori, legor, eta beroak. Sagarrondoak eta artoa aurkitu bearrean, garia, olibondoa ta maastiak aurkitzen zituan «Tanta»k. Etxe bizitzak ere, oso desberdiñak gertatzen zitzaizkien.

«Tinti»k ezagutzen zituanak, baserriak izaten dira, sukalde ta ikui-lua lenengo maillan, lo-gelak bigarrenean ganbareekin bukatzeko.

«Tanta»k berriz, ez zituan baserriak ikusiko. Lenengo auzoak soro zabalekin, gero, egoalderago, erri koxkorak, soro ta lur oso zabalez inguratuak.

Orrelako adibide ta ipuiekin jarduten giñan.

Ez giñan Euzkadi'ko lurretan bakarrik gelditzen. Munduko geografiara ere urbiltzen giñan.

9-10 urterekin ateratzen giñan ikastolatik. Ala ta guztiz ere larunbat illunabarretan elkar biltzen giñan euskera ta beste gai asko lantzeko.

Gogora datorkit, Geografia edo Lutelestia (Elbirak zion bezela) beti tartean genuala.

Adibidez, Gabon Gauetan, abestera ateratzen giñan, arratsalde onetan jasotako dirua iru zatitan banatzen genuan: Zati bat, ikastolak zituan bearretarako izaten zan. Beste bigarren zatia, auzoko beartsuentzako, ta irugarren zatia, atzerrira urrutira bidaltzen genuen.

Bi urtetan egindakoak ditut buruan:

Urte batean Argelia'ra bidali genuen gure diru puxketa, ikastolara joateko, umeez otz andiak izaten zituztela-eta, jersey bi erosteko aiña izan zan. Gertaera au basarnortuetako alde giroa erakusteko erabilli zuan. Egunez bero, zabaldura oso aundia danez; goizean otz aundiak egiten ditu ta gero bereala bero ikaragarria ere bai.

Beste urte batean berriz, Vietnam'era bidali genituan gure diru puxketak: Txirringak edo Bizikletak bear zirela-eta. Txirringak, gureak ez bezelakoak ziran, kurpil zabal eta txikiagoak, ango emakumeek, zama aundiak eramaten bai-zituzten beren sorbaldetan; bideak ere onegiak ez ziranez, guk erabiltzen genituan txirringak ezin genituan ara bidali; beraz, dirua izan zan berriz ere bidali genuena.

Orrelako adibide eta orrelako ipuiak erabiltzen zituan. Urte batzuk pasa dira; egia da ainbat gauza ez dirala aaztu, biziki gogoan gelditzen dirala; asieran esan dudana bezala, oroimenak asko dira, bai onak ta bai txarrak; eskerrak, gaur gauza onetaz gogoratzen gerala nagusiki. Orrela nere irakaskuntzan ere ainbat gauza erabiltzen ditut.

Asko irakatsi zigun Elbira'k. Agian, geien irakatsi ziguna, gure ingurunea ezagutu, eta maitatzea, gaiñontzekoak aaztu gabe. Besteen mundua ezagutu ta uler arazten ere pasatzen zuen ainbat denbora.

KORUKO AIZARNA REMENTERIA
Irakaskintza-Eskolan Irakasle

ELBIRE'RI AITORPENA: ARRAZOIKETA TA LAN-GOGOA

Zipitria'tar Elbire zanarekin artu-emanik ez nuan izan aurrez-aurre. Ma ere zorrik badiot eta nere aitorpena egin gabe ez nuke gelditu nai.

Beste batzuen bidez iritxi nintzan Elbire Andereñoak eratutako irakasbidea ezagutzera. Eta ontan, egia esateko, Zarautz'ko Unanue'tar Milagros eta Ernani'ko «Urumea Ikastola»ko anderekoen bitartez ikasi nituan gauzarik geienak, ango zuzendaria dan Mariezkurrena'tar Mari-txu'ren bidez batez ere.

Azterketa luze ta sakona egiteko asmorik gabe, neuri gertatu zitzaizkidan gauza batzuk adieraziko ditut. Beste munduko gauza arrigarriak ez dira, baiña zerbait adierazten dute: Elbire zanaren irakasbideak alderdi bikaiñik bazuala, alegia.

Urte osoko jarduketa edo ikasketarik ez nuan egin, ez gogo-faltaz baiña; irakasbide osoaz, nik nai bezala, jabetzeko erarik ez nuan izan, beraz. Orregatik, ikasi nuan zatiari aurkitu nizkion alde onak eta nereztat arrigarrienak jaldiko ditut emen.

Matematikak —edo orain buruketak edo zenbaki-alorra esaten dituztenak— egia esateko, beti ulertezin eta zail gertatu zitzaizkidan. Eta orra or, Elbire'gandik Ikastoletara zabaldu zan irakasbideak, neri beintzat, begiak argitu ta burua askatu. Arrituta gelditu nintzan: alakorik zitekeanik ere...

Aal izan nuan aiñean ikasita, Ikastolako txikiei alaxe irakasten asi nintzan. Jakiña, beti-ere jolas-giroa emanez, aspergarri ez gertatzeko; jolas-giroan, gogoz ar zezaten gai sakon eta bearrezko au, benetan oiñarrizkoa bai-da eziketan. Eta jolas-giroari dagokiona bera ere, arrigarri gertatu zitzaidan, alakorik ez bai-nuan ordura artean ezagutu.

Baiña arrigarriago gertatu zitzaidan beste au: dana xeetuta, baiña dana ondo arrazoituta ematen zuala irakasbide onek. Bai, zer zergatik

zan eta zergatik egiten zuten era artan... Ariketa ta gauza bakoitzaren arrazoiak argi ta garbi ematen zituan.

Ez, ordea, ez presaka ta ez era illunean. Ipuien eta jolasen bidez erraztuta baizik. Jolasean ari ziran aiñean ulertzen zuten esandakoa edo azaldutakoa. Pozik eta erraz artzen zuten gaiñera.

Alako buru-austez naastu ta nekazari oi ginduan «algebra» adibidez. Bitartean gure umetxoei oso txikitandik azaltzen genien eta aixa ulertzen zuten. Ez, noski, «algebra» zala esanez eta elduagoei zegozkien gai sakonak ipiñiz. Baiña bai aljibraren oiñarriak argi ta garbi emanaz. Eta erraz baiño errazago artzen zituzten umetxoek.

Gaztelerazko jardunetan «incógnita» esaten geniona, ulertzeke esaten genion. Euskeraz, berriz, «ez-ezaguna» esatea, itz ezaguna esatea da. Orrela, ikas-gelako aur batzuk «zenbaki» biurtzen genituan, eta aien artean batzuk ezagunak ziran; beste batzuk, ordea, «ez-ezagunak», atez kanpotik bai-zeuden. Beren arteko trukaketak egitean, orduan agertzen zan nortzuk ziran ez-ezagun aiek.

Bein taldetxo bat ari zitekean jolasean edo antzezten, beste guztiak begi-zabalik begira zirala; urrena beste taldetxoa, guztiak «egin» arte.

Erraz ulertu ta ain pozik zeudenez, txaloka asi ziran danak nere ikas-gelan. Ez da arritzekoa, gero beren ariketak pozik egiten ikustea. Eta ori ez bein bakarrik, matematika edo zenbaki-alorreko gai geiengtan beintzat baí, guztietan esatea geiegizkoa iruditu ez dadin. Geiengo esango nuke: abereak eta aien gauzak atsegin gertatzen baldin ba'zaizkie umeei, gure artean are atsegiñago zitzaien zenbaki-lana.

Auxe zan, besteak beste, Elbira'ri ta arek landuritako irakasbideari egin nai nion aitorpena. Esker onezko aitorpena noski.

Eta bein ontara ezkeru, esan dezadan beste au ere. Irakasbide au jarraituz eta giro ontan ikasturte bat edo bi egin zituzten ikasleek, naiz-ta aurrera era berean jarraitzerik izan ez, beti izaten zuten zerbait berezia: alakoxe ikutu bat. Nabari izaten zitzaien benetan. Besteek ez bezalako erraztasuna, argitasuna, zenbaki-lanetarako poza...

* >=< >=<

Emen esan ditudanak, Ikastola indar artzen ari zan garai artakoak dira: 1967-1968 urteetakoak ain zuzen. Eta orduan zerbait oso berezia zuan Ikastolak: «Elbira'ren metodoa» esaten ziotena alegia.

Gauzak arrazoiz argituta ematean —Elbire'ren irakasbidea jarrai-

tuz, noski— ikasketa-lanak pozik egiteko gogoa sortzen zitzaien geien-geienei. Eta ez da aundikeria bat esatea: irakasbidea jarraitzen zutenei galdetu besterik ez dago. Eta irakasbidea ezagutzen ez zutenak, berriz, arrituta gelditzen ziran, bat baiño geiago ikusi izan ditudanez.

Irakasbide ontaz baliatzen asi nintzanetik, askotan lasai uzten nituan nere ikasleak antxe bakarrik ikas-gelan, arbela naiz idaztola edo zalakoan lan batzuk idatzita. Lasai uzten nituan, ziur bai-nengon ixilik eta jatorki idatziko zituztela ta beren lanetan zintzoki jarraituko zute-la. Izan ere, benetako lan-gogoa sortzen bai-zan ikasleengan.

Ez da arritzekoa, gero, ikasturtearen azkenerako gai guztiak aixa ikastea ta bukatzea. Irakasbide au ezagutu baiño leen gai guztiak ikas-erazi eziñean ibiltzen nintzana, bestela gertatzen zan gero: gaiak aixa amaitu ondoren, alakoxe ikas-berritu arin bat emateko astia ateratzen genuan. Eta ez gutxi batzuekin bakarrik: ikas-gelako ia-ia guztiekin, bat edo bi kenduta. Meritua, berriz, nerea baiño areago zan irakasbidearena.

AIZPURU'tar PREXEN

ELBIRE ZIPITRIA

NOR-NORI-NORK METODUAREN SORTZAILE

Elbire Zipitria andereño eta euskal irakasle bezala ezagutu degunok badakigu zein argia eta bizia zen eskola lanetan. Bazuen alako trebetasun berezi bat ikasgaiak, zailenak izanik ere, argi eta zeatz emateko.

Guri, beneditar gazte talde bati, Lazkaon ikastaldi bat eman zigun aspaldi euskal gramatikari buruz: deklinabidea, aditza, sintaxia, etab. Arrigarria zen emakume aren erraztasuna gai oriek aztertu eta adierazteko. Ori gurekin, eta aurtxoekin, berriz, berezi berezia eta iaioa ornen zen benetan. Ondo merezia du bai omenaldi on bat ANDEREÑO isil, trebe, aitzindari eta bizkor onek.

LATXAGA'REN TESIA ETA AZTERLANA

Gure adiskide Latxagak —Jose Mari San Sebastian Zubillaga apaiak— iaz tesi bat egin eta aurkeztu zuen Parisko Sorbonne unibertsitatean, M. Molho irakaslea gidari zelarik, eta tesiaren gaia au zen: «LA REPRESENTATION DU TEMPS DANS LE VERBE BASQUE».

Tesi sakon eta interesgarri orretan, Latxagak leenengo orritik aipatzen du NOR-NORI-NORK metodoa eta bere azterlanaren ardatz eta oinarritzat artzen du.

Eta orain dator guri emen zuzenki dagokiguna. Latxagak, euskal aditzaren historia egitean, aitortzen du NOR-NORI-NORK metodo ori gauza berria eta asmaketa aundia izan dela euskal gramatikararien artean eta leenik erabili duena I. Baztarrika dugula (ikus ADITZA, Método NOR-NORI-NORK o el secreto del verbo vasco, Lazkao 1968).

Bainan ondoren Latxagaren galdera au da: Nork asmatua da metodo ori? Galdera bidezkoa noski. Erantzuna Latxagak berak ematen digu tesiaren azken aldean. Metoduaren asmatzaile edo sortzailea Elbire Zipitria andereñoa izan zen, eta ikastolako aurrei errez eta argiago eus-

kal aditza irakasteko sortu zuen, ain zuzen.

Latxagaren erantzunaren berri Aita Mauro Elizondok eman zuen DEIA egunkarian, orain urtebete (24-6-83), «EL DESCUBRIMIENTO DE ELVIRA ZIPITRIA» artikulu interesgarrian.

Elbirek Latxagari izketaldi batean azaldu zionez, euskal aditza eza- gutzen asko lagundu ornen zioten Elizalderen Morfologiak eta Orixe-rekin izan zituen elkarrizketak. Baina ikastolako aurrei aditza irakastean ezin asmatuz eta adieraziz ibiltzen ornen zen oizko terminologiarekin, alegia, «agente-paciente-recipiente» eta orrelako itz eta irudi arrotzekin. Eta onela, bearrak eraginik, sortu zituen NOR-NORI-NORK jaunak, euskal aditzaren jokoan ain parte bizia dutenak.

ZIPITRIA'REN ASMAKETAREN INGURUAN

Nik gertutik ezagutu dut Elbire andereñoa eta orregatik zerbait geiago adierazi nai nuke NOR-NORI-NORK metodoaren asmaketari edo aurkikundeari buruz, xeetasun batzuk eskainiz.

Latxaga berari aditzera eman nionez, nire liburuak (leen aipatuta-koak: ADITZA, Método NOR-NORIéNORK...) asko baino geiago zor dio Zipitriari. Andereño au, 1957-1958 urteetan edo, astean bein etortzen zitzaigun Donostiatik Lazkaora beneditar gazte talde bati euskal gramatika irakastera, eta baitipat euskal aditza. Ordurako Zipitriak NOR-NORI-NORK metodologia oso osoan eta trebeki zerabilen. Eta ikaetaldi aien fruitu izan zen nire liburua, 1968 urtean argitaratua, baina 1960-1962 aldera idatzirik neukana. Pozik aitortzen dut orain, nire liburuan NOR-NORI-NORK sistemari ematen zaion garrantzia eta beste puntu asko, Zipitriari zor dízkiodala. Orregatik ere eskaini nion berari liburua, asieran ikus dezakezunez: «Zipitriatar Elbira, andereño ta euskal irakasle bizkorrari, esker-onez. Egilleak» (ikus 5 orr.).

Latxagak bere tesian azaltzen du ere **I**. Baztarrikaren liburuak baino leenago beste bi idazlek ezagutzen zutela NOR-NORI-NORK ori, naiz eta metodu bezala ez sakondu eta ez erabili. Bata **I. Omaecheverria** da (ikus EUSKERA, Zarauz 1959). Liburu orren 16. orrian eskema bat ematen du onela:

I Pronominales pasivos NOR/ZER.

II Pronominales dativos NORI/ZERI.

III Pronominales activos NORK/ZERK.

Bestea Patxi Altuna dugu. Onek ere EUSKERA, IRE LAGUNA liburuan (Bilbo 1967), erabiltzen ditu NOR-NORI-NORK izenordeak, aditzari lotuak, baina azalpen aundirik gabe. Adibidez, ikus 211-216.222 orrietan:

Orain-aldia: NORK-NOR (ZER) : nauk...
 NORK-NORI-ZER : didak...
Leen-aldia : NORK-NOR : nindukan...
 NORK-NORI-ZER : ni(k)an...

Nire ustez, bai Omaecheverriak eta bai Altunak bazuten Zipitriaren metodoaren berri, edo zuzenean berarekin arremanak zituztelako, edo KURPILEN bidez, gauza jakina bezala aipatzen bait dituzte NOR-NORI-NORK oriek.

Eta orain zerbait esango dut KURPIL oriei buruz. Latxagak berak ere ez bait die bere tesian bear ainako garrantzirik ematen Kurpil oriei. Aipatzen ditu noski Bibliografian eta zuzen esaten du A. Valverde, Zipitriaren ikasleak, eginak zirela ikastaldietarako, baina besterik gabe.

Bi Kurpil dira inprentan argitaratuak:

1go. KURPILA —A Etorri, —B Izan (Ser)
2en. KURPILA —A Ekarki, —B Izan (Tener)

Kurpil bi auetan NOR-NORI-NORK metodologia oso osoan eta argi erabiltzen da, eta seguraski leenengo aldiz inprenta letretan. Bigarren Kurpilean NOR-NORI-NORK oriei buruz au esaten da:

Intervienen en estos verbos: NOR = QUIEN (Paciente)
 NORK = QUIEN (Agente)
 NORI = A QUIEN (Recipiente)

Eta NOR kolore gorritz dator; NORK, kolore berdez; eta NORI, kolore urdinez. Eta aditz jokoetan, izenorde oriei dagozkien letra edo elementuak kolore berdinez datoz.

Oso interesgarri litzateke KURPIL auek ze urtetan argitaratuak izan ziren zeazki jakitea. Nire iritziz, 1956-1957 aldera. Ortik atera bait daiteke Kurpilok, NOR-NORI-NORK metodologia ain garbi dakartenak, Baztarririkaren, Omaecheverriaren eta Altunaren liburuak baino leenagokoak direla, eta beroien iturri edo oinarri.

Valverde eta Zipitriaren KURPILAK baino leenagoko euskal idazleetan, NOR-NORI-NORK metodologia buruz, arrasto bila asiz gero, nik bat, ARRIGARAI-B. de ATAUNen liburua aurkitzen dut (ikus GRAMÁTICA DEL EUSKERA, San Sebastián, 1932). Aditzaren analisisa egitean

oizko itzak erabiltzen ditu: sujeto agente, objeto paciente, dativo o recipiente... Baina esaldi batean ze konplementu datozen argi ez dagonerako liburu onek bide bat ematen du:

«...háganse las tres preguntas: ¿QUIEN? (sujeto). ¿QUE? (paciente o complemento directo). ¿A QUIEN? (recipiente o caso indirecto, dativo)» (ikus 100-101 orr.).

Gero ariketetan or ageri dira galdera oriek euskaraz, adibidez: NORK egingo du? NOR maite dute gurasoak? ZER egingo du argiñak?... (ikus 108-109 orr.).

Ortik Zipitriaren NOR-NORI-NORK metodura oraindik alde aundia dago, bainan ezin ukatu arrasto bat ageri dela, asieratxo bat edo.

ONDORENGO URRATSAK

Latzagak bere tesian euskal aditzaren historia eta gramatika lanak aztertzean, bi aldi edo etapa bereizten ditu: NOR-NORI-NORK sistemaren aurrekoa eta ondorengoa. Leen azaldu dudanez, metodoaren sortzaile Elbire Zipitria izan da, eta metodoaren leen zabaltzaileak, berriz, Valverdearen Kurpilak eta Baztarrikaren liburua (1968).

Eta egia esan, metodo orrekin mogimendu berri bat sortu da: leen erderazko esakera eta itzez azaltzen zena, orain euskal molde eta itzez ematea.

I. BAZTARRIKAK onela zion liburuaren sarreran:

«Lan ontan euskal aditza bere barnetik aztertzen saiatu naiz. Bere estruktura, jokabide ta tankerak billatzen... Aditza euskal metoduz azaldu nai nizuke ta ez erdal metoduz. Aditzaren oinarri ta ardatz bezela NOR-NORI-NORK izkiak artzen ditut. Metodu oni «NOR-NORI-NORK metodu» ederki deritzaioke» (6 orr.).

NOR-NORI-NORK sistemaren ondorengo urratsak aztertzen baditugu, berealaxe konturatuko gara euskal gramatikarien artean arrera ona izan zuela eta arrakasta aundia. Emen adibide batzuk besterik ezin dezaket eman, bestela geiegi luzatuko bait nintzateke.

PATXI ALTUNA sistema orren aldeko beroa da. 1971. urtean idatzi zuen EUSKAL ADITZA, dena euskaraz, eta orri guztietan zear ageri da NOR-NORI-NORKen jokoa. Onela dio asieran bertan:

«Hiru zutabe hauen gainean eraikia duzu, esaterako, Euskal Aditza: NOR zutabea, NORI zutabea, NORK zutabea. Hiru zu-

tabe hauek: behar bezala elkarrekin tolestaturik ateratzen da Euskal Aditzaren oinarritzko eskema. Hiru zutabe hauek elkarrekin tolestatu eta lau Euskal Aditz mota sortzen da: NOR bakarra duena; NOR eta NORI dituena; NOR eta NORK batean dituena; NOR, NORI eta NORK elkarri josiak dituena» (11-13 orr.).

EUSKARA LANTZEN 1 liburuak (Donostia 1978), aditz sintagmaren elementuak aurkeztean, onela dio:

«Aditzari bereziki Jotzen zaizkion sintagma hiru dira: NOR sintagma, NORK sintagma eta NORI sintagma. Hiru sintagma hauek aditzari joko berezia ezartzen diote (23 orr.). Hiru sintagma hiru dira euskaraz aditzarekin lotura berezia dutenak, komunztadura dutenak. Hiru sintagma hauek aldarazten dute aditza...» (31 orr.).

TXILLARDEGIK asko idatzi du euskal aditzaz (ikus EUSKAL GRAMATIKA, Donostia 1979; eta EUSKALTZAINDIAREN EUSKAL ADITZ BATUA, 1979 —taulen prestatzailea eta oargilea Txillardegi bera bait dugu—). Ba oso osoan onartzen du eta erabiltzen NOR-NORI-NORK sistema bere lan guztietan. Leku batean au dio:

«Euskal aditz-multzoan egin behar den lehen-lehenengo sailketa hau da: NOR aditz saila batetik (=intransitibo/intransitif), eta NOR NORK saila bestetik (=transitibo/transitif). Bai hauei, bai haiei, datiboa gertatzekotan, NORI elementua erants dakieke.

Bidez proposatu dute batzuk, horretara, euskal aditzean hiru elementu daudela argi-eta-garbi esatea; eta hortik aurrera jotzea» (Euskal Gramatika, 202 orr.).

EUSKALTZAINDIAREN ADITZ BATUA liburuan bada gauzatxo bat berezia, NOR-NORI-NORK izenordeak eta datxezkien izkiak koloretan eta kolore ezberdinetan datozela, Valverde eta Zipitriaren bi Kurpil aietan bezala, naiz koloreak bi liburuetan berdinak ez izan.

PATXI GOENAGAK ere, GRAMATIKA BIDEETAN liburuan (Donostia 1980), bide berbera jarraitzen du. NOR, NORK eta NORI sintagma eta aditza aztertzean, begira zer dion:

«Hiru sintagma hauek aparte jarri baldin baditugu arrazoi bategatik da. Hots: hiru sintagmak komunztadura dutelako aditzarekin. Hiru sintagma hauen arauera dantzatzen du aditzak.

NOR sintagma bakarrik agertzen bada, hau izango da perpau-saren Izen Sintagma (sujetoa) eta aditza DA erakoa izango da. NOR sintagmaz aparte NORK sintagma agertzen bada, NORK sintagma hau izango da sujetoa eta NOR sintagma objetoa. Aditza, orduan, DU erakoa izango da» (114 orr.).

Beste askok *ere* bide berdinetik jo dute, ikus, PUJANA, Euskal Aditza (bizkaiera, 1970); JOXE JOAN G. de TXABARRI, Jo ta Ke (1980); GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA, Euskal Aditza (1981)...

Adibide eta azalpen labur oriek naiko direla uste dut, Zipitria ande-reñoak aditza irakasteko sortu zuen NOR-NORI-NORK giltza euskal irakasle eta gramatikalarien artean onartua izan dela egiztatzeko. Geienek metodu ori giltza baliogarri eta egokitzat daukate, ez bakarrik euskal aditza ikasleei errez azaltzeko, baita ere analisi eta ikerlan sakonak egiteko. Esan bearrik ez, Latxagak bere Sorboneko tesia noiz argitaratuko zai gelditzen garela, euskal aditzaren oinarriak eta jokoak obeto ezagutzeko gogoz.

NOR-NORI-NORK metoduari buruz eta inguruan beste zenbait puntu aztertzea merezi zuen, bai Elbire Zipitriaren eskolan eta bai geroko gramatika eta liburuetan, adibidez, NOR-NORI-NORK izenorde guztien ezaugarriak edo izkiak aditzetan; bereziki NOR HI eta NORK HIKen (mutila eta neska) ezaugarriak; NOR-NORK leenaldian eta irugarren NOR-ean (FUGA delakoa)... Baina lan auek ez dira presaka eta denak batean egitekoak. Oraingoan puntu nagusi bat aztertzen saiatu naiz, beste askoren oinarria. Eta aski da.

ISIDOR BAZTARRIKA'k

ELBIRA ZIPITRIA TA EUSKAL ADITZA

Elbira Zipitria, euskal emakume guztiz argia genuan. Euskerak eta Euskalerrriak zor aundiak ditu Elbira'rekin. Ixillik joan zitzaigun, arrokeririk gabe, baiñan berak ereindako azia, gizaldietan emaitzarik ederenetakoa bezala geldituko zaigu.

ELBIRA 'REN EMAITZA

Euskalmiña zeramakin zain bizi-bizi aietan. Begi argiak zituan eta gauzak urrundik ikusten zorrotza zan. Gaurko Euskalerrriaren abea genuan.

Danez gain aberzalea zan. Aberria ta aberzaletasuna ez zituan saltzeko. Euskaldun emakume-taldearekin biotz eta muiña agertzen zituan ekaitzaren garaian. Euskal alderdiak ondo ezagutzen zuan.

Idazlea, berriz, bikaiña genuan. Euskera nai zuan bezala erabiltzen zekian. Gauzak, esanberrak, esaten zituan. Txinpartaren antza zuten Elbira'ren idazkiek.

Ezitzallea ezin ohea zan. Euskalerrriko ikastolak berak eraiki ta sortu zituan. Elbira'ren izena ortxen geldituko zaigu betiko ikastolekin erantsia. Ezin dugu aaztu euskal ikastolak bide bat argitzen diela ludi osoko errialde txikiei. Erri aien nortasuna, ekaitzean, nola azaldu ta zabaldu erakusten digu.

Urrezko gaia erabilli zuan Elbira'k eta ba zekian urrea zer zan. Gaiñera, Euskeraren jokabidea nolakoa dan aurkitu zuan. Euskerak ikaragarriko zorrak dauzka Elbira'rekin; aditzaren giltza aurkitu zuan eta leengo garaien jokabidearen ibilketa edo itzulia begi erdian jaso zuan baita bataiatu ere izen berexiarekin.

Beste aldetik euskal esaldiaren muiña aurkitu zuan. *Galdegaia* itzaren bitartez eman zizkigun esaldiaren bideen berriak.

Ikerketa guzti oiek gizaki batengan arrigarriak dira ta izen bat urrez

jazten dute.

NOR-NORI-NORK Euskal Aditzaren Giltzarria

Aipatutako gai guzti oiek naiz neurri gabeko garrantzia euki, aditzaren gaiari bakarrik eutsi diot nere ikasaldi lanetan.

Garbi ta argi auxe esan dezakegu: Elbira'k aurkitu zuan ta bataiatu euskal aditzaren giltzarria. NOR-NORI-NORK izena Elbira'k sortu zuan.

Ementxe dator berri mingarria: niaz Elbira'k sortu gure aditzaren jokabidea, iñork ez zekian Elbira'ren lana zala ta lurperatu zutenean emakume ospetsu au, Euskalerrriak eman gabeko eskerrarekin joan zitzaigun betiko. Berri auxe naikoa da Euskalerrriko arrokeriak zapaltzeko. Iñork ez zekian aditzaren pare-gabeko giltzarri ori Elbira'k aurkitu zuala. Jabetasun ori idatzita aitortua ez dugu iñun ikusi. Ez zigun ori iñork esan.

NOR-NORI-NORK'en Jabetasuna

Lan aundiak, joan-etorri zailak egin nituan NOR-NORI-NORK orren jabetasuna jakiteko.

Nola aurkitu nuan, bada, bide ori? Nola dira, bada, gauzak? 1974'garen urtean erabaki latza artu nuan: Paris'ko Sorbona'n linguistika ikastea ta euskal aditzaren nortasuna nolakoa dan ikertzea. Paris'ko nere irakasleak, Maurice Molho jaunak, gogotik ikusi zuan nere asmoa ta begi onez artu ninduan. Nere lenengo urratsa auxe izan zan: linguistika berria ikasi ta euskal aditzari buruz idatzitako lanak aal nituan guztiak irakurri. Liburuen zerrenda ez zan makala eta Paris'ko *Bibliothèque Nationale* liburutegian ordu asko joan zitzaizkidan papez zaar eta berriekin.

Illabete askoren ondotik gauza garbia ikusten nuan: **Bi** bide nagusi zeudela euskal aditzari buruzko lanetan. Aldi luze bat dijoa idazleek euskal aditza beste izkuntzen mailletan ikusten dutela. Orduko idazleek griego ta latin neurriekin izendatu nai zituzten euskal aditzaren garaiak; eta ortxen dabiltz euskal aditzaren uztaiaren neurriak ezin asmatu.

Gero ortxen datorkigu liburu bat bide berriak irikitzen, Aita Baztarrিকা'ren «Euskal Aditza» NOR-NORI-NORK itzekin izendatua (Lazkao, 1968). Liburu onen urrats nagusiak erabat berriak ditugu ta guztiz arri-garriak: Euskal aditza ez da agertzen arrotz begiekin neurritua, euskal senak esaten duan bezala ikusia baizik. Aita Baztarrिका'ren liburu garrantzi aundikoa dugu. Giltza berria erakusten digu ta lenengo aldiz. Euskal aditza NOR-NORI-NORK giltzarrian onarritzen du erabat.

Aitortu bearra: NOR-NORI-NORK itzak aipatuak, beste bi lekutan aurkitzen ditugula, bat P. Omaetxeberria'ren «Euskera» liburuan, NOR/ZER-NORI/ZERI-NORK/ZERK itz oiek bein bakarrik idazten ditu (Zarauz, 1959); bestea Aita Patxi Altuna'ren «Euskera Ire Laguna» liburuan (1967, 221-222 orrialdetan).

Itz oiek eskutan nituala, gauza bakarra jakin nai nuan: NOR-NORI-NORK giltza nola ta nork sortu zuan.

Aita Baztarrika'rengana urbildu nintzan eta garbi esan zidan aditzaren berriak Elbira Zipitria'k eman zizkiela, Lazkao'n, 1960'garren urte inguru ortan, an zuzendutako ikasketa berexi batzuetan. Lazkao'ko lekaideek ba zekiten Zipitria'k aditza erakusteko ikasbide berria zeukala ta oso ona zala. Ortaz ondo jabetzeko Lazkao'ra deitu zuten. Zipitria'ren izena ez da agertzen Aita Baztarrika'ren liburuan. Aita Altuna'k ere nunbait Zipitria'ren bitartez jakin zituan NOR-NORI-NORK'en berriak.

Nere gogoia garbia zan: Nor degu giltza aberats onen jabea, nun dago erreken iturria? Elbira ezagutzen nuan. Askotan itz egin genuan elkarrekin baiñan bear nuenean, 1975-1978 urteen tarte ortan oso zaila zan Elbira'rekin itz egitea. Egunon eta agur bakarrik erantzuten zidan. Bere etxera bizpairu aldiz urbildu nintzan eta beti sudurraren aurrean ixten zidan atea. Elbira'ren adiskide bakarrak ezagutzen nituan. Esan nien nere jakin bearren naia ta gogoia, baita arrazoi latzak ere. Asi ziran lanean eta Elbira beti arront itxia ikusten zuten. Itzik eman gabe uzten zituan. Uste nuan erabat, berri ori jakin gabe geldituko nintzala.

Or nun ustekabea, egun batean, Tolosa'ko tren-bidera ninjoala, antxen ikusten ditut Labayen Euskaltzaindikoa ta Elbira elkarrizketan. Nai-ta-nai-ez agertu bear. Trena ez zetorren eta Elbira lasai zegoan. Ura ta ura bakarra zan nere aukera. Zulotxo bat utzi zidatenean, orduntxe galdetu nion Elbira'ri: «Aditzarekin nabil ta ba dakit NOR-NORI-NORK esaldi ori urrezko giltza dala. Nundik sortu zenuan?». Antxen eman zizkidan erantzunak. Eskutan egunkaria nuan eta antxen idatzi nituan Elbira'ren itzak. Egun ura ezin zait aaztu: 1978-10-25. Udaazkena zan eta Euskalerriko mendiak argi.

ELBIRA 'REN ARGIKETA

Nunbait Elizalde ta ORIXE'ren eliztiak erabilli zituan. Euskal aditzari buruz Orixe'rekin lanean oso lotua zegoan. Orixe'k beti neurri bezala, griego, latin eta hebreu izkuntzen gramatikak erabiltzen zituan giltzarri bezala. Aditzaren maillak arrotz neurriarekin usmatzen zituzten

orduan, artean.

Baiñan Elbira'k aurrei euskal aditza erakutsi bear. Asi zan arrotz itzak erabiltzen: Nun dago EL AGENTE? Nun dago EL PACIENTE? Nun dago EL RECIPIENTE? Aurrak parrez erantzuten zioten. EL AGENTE ertzaiñarekin naastutzen zuten. EL PACIENTE berriz ortxen nunbait gaxotegiarekin elkartzen zuten. EL RECIPIENTE beste aldetik barreñua, pitzerra edo zernai tresnarekin naasten zuten. AGENTE-PACIENTE-RECIPIENTE itzak, nunbait, ez balio euskal aurrentzat.

Galderak obeto neurtzeko ortxen asi zan esaera berriekin, orain euskeraz: Nun dago NOR jauna? Nun dago NORI? Nun dago NORK? Orrela, bare-bare, ustekabeen sortu zan NOR-NORI-NORK jauna, euskal aditzaren giltzarri ta bizkar-ezurra. Bereala ikusi zuan, errendakan, itz oiek bakoitzak toki berexia betetzen zutela. Eta ikastolan, aurrei aditza erakutsi naian sortu zan euskal aditzaren egitazko nortasuna. Ondotik garbi ikusi zuan itz oietako bakoitzak bere aldetik errenkadan nola jokatzaren zuan, eta euskal senaren jokabide jatorra ortxen azaldu zan, garbi ta argi.

Ortik aurrera ez zan euskal aditza ikasi bear beste izkuntzen neurriekin, euskeraren arauz baizik. Euskal aditzak, bere aldetik gauzak beste-lako bideetan esaten ditu, baiñan oso ondo esaten.

Gure aldetik auxe agertu nai genuke: NOR-NORI-NORK esaldia euskal aditzaren sena dala ta giltza onen nagusitza Elbira Zipitria'k daukala. Betiko, beste zorren artean, auxe izango du euskerak aundienetako bat Elbira'rekin. Elbira'ren agerketa onek esanai aundia dauka linguitikaren aldetik, baita euskal aditzaren balio aldetik ere. Urrats nagusi onen ondotik, euskal aditzaren ikasketek bide bakarra ta garbia artu bearko dute. Ez dago beste irten-biderik.

ADITZAREN IKERKETAN ONARRIA

Sorbona'n, euskal aditzaren gaia erabiltzerakoan jokabide bakarra genuan. Elbira'k aditzaren praxisaren giltza aurkitu zuan, guk Ikastetxe Nagusian praxis orren teoria egin genuan. Elbira'k aditza nola jokatzaren dan aurkitu zuan; guk, berriz, zergatik jokatzaren dan orrela esaten dugu. Orrela, bada, euskal aditzaren esanaia billatzen saiatu gera: Garaiak nola esaten dituan euskal aditzak, baita zergatik jokatzaren duan bide berexi ortik. Euskal aditzaren garaien neurketa egin dugu, euskal aditzak dion bezala. Orixe zan Paris'ko gure tesisaren gaia.

Dana dala, gure lan ori eziñezkoa izango zan Elbira'ren giltzarri ori

gabe. Elbira'ri esker, bide garbia aurkitu dugu, baita mailla berriak lortu ere.

Bi poz dauzkagu gure biotzean: bata, NOR-NORI-NORK giltzarriaren eraikillea nor dan jakitea, eta bestea, euskal aditzaren esanaia sortzea. Bigarren mailla onen mamia ezagutzeko Paris'en egindako tesisa irakurri bearko dute.

Elbira'k irikitako bidea jarraitu dugu gure ikasketan, baiñan jakintzaren maillan. Praxisaren teoria egin bearra zegoan.

AZKEN ITZA

Aditza, leen aipatu dugun bezala Elbira'ren alderdi bat da, beste asko zituan.

Elbira'ren argiketak astintzea, zorrak ordaintzea da. Lan onekin zorrak ordaindu nai dizkiot. Zorrak ordaintzeak ez digu lotsarik eman bear. Orrekin gure nortasuna obeto zuzperten da.

Gure erriak zorrak ordaintzen jakin bear luke. Mailla oneko emakumea ezin dugu itzalpean utzi. Mingarria zan neretzat au ikustea: nolako goi-maillan aipatzen zuten Sorbona'ko irakasleek emakume au, ta beste aldetik Euskalerrria itsu edo zoro egotea.

Ikastolak aditzarekin zer ikusia badu, eta ikastola Elbira'rik gabe, zer izango ote zan?

Emakume argi oni dijoazkiola nere agurra ta esker beroa. Biarko atepak irikiak izango ote zituan euskerak Elbira'rik gabe? Ortzen zegoan iturria gure artean. Zer egin genuan emakume guztiz argi onekin?

LATXAGA

New York'tik 1984'ko azaroak 2

Euskerazaintza'koa, Sorbona'tik

iru «Doktoradu» dituana

III

ELBIRE TA AREN LANAK AZTERTZEA

ELBIRA ZIPITRIA

(Itzaldi «Urumea»ko Andereñoi)

IZEN ERROMANTIKOA

Elbira Zipitria nolakoa zan esan baño leenago, esan dezagun nolakoa etzan.

Izen erromantikorik munduan baldin ba'da, EYBIRA da izen erromantiko bat. Nobeletako izena: Elbira, Ines, Leonor, Biolante (Yolanda) ...

Eta bide ortatik ba dirudi, izenaren araueran, pertsonak ere erromantiko izan bear duala...

Orra, bada: erromantiko izateak, protagonista, exhibizionista izatea esan nahi ba'du, gure Elbira «anti» amorratua izan zan; bere bururik ez agertzeagatik —esan oi dan bezela— *zelemin ta zelemon* egingo zu**keana...**

Nerekin bi aldiz asarretu zan; eta bietan batean, nere itzaldi batean, ELBIRA ZIPITRIA izena aipatu nualako izan zan...

* ❄ ❄

Etzan «exhibizionista», ez bere burua erakutsi-zalea, munduan bizi zafo. Eta ildakoan ere, orregatik bear ba'da aukeratu du bere illobi, leku urruti bat Bizkai'ko kostan.

Berriz esanda ere, izen erromantikoa zuan arren, erromantizismoa «exhibizio»-zalea izatea baldin ba'da, gure Elbira etzan erromantikoa, «ezta urrik emon bere» bizkaitarrek esaten duten bezela; konparazioa ez da oso ederra baño, *moxorro-moxorro* beti lanean aritzekoa zan baizik; bere burua agertzea benetan gorroto zuana.

Nerekin bein orretxegatik asarretu zan.

* ❄ ❄

ZIPITRIA ABIZENA

Izena ikusi degun ezker, ikustagun orain abizena, apellidua: «Zipitria».

Izenean, «erromantízismoa» ikusi degun bezela, apellidoan «aldakortasuna» ikusiko degu, batez ere; aldakuntza aundiak egin dituala, alegia bere azalean; apellido gutxik aña aldakuntza; forma asko aldatu, alegia.

Ikustagun.

* * ✖

Asieran ZUFIRITEGIA zan, ala azaltzen da Andoain'go Elizako Liburu Sakramentaletan; «Zufiritegia» ots! «Zufiritarren etxea».

«Zufiritegia»tik ZUFIRITIA sortu zan, salbo-ta, «Armentegia»tik *Armentia* sortu zan bezela.

«Zufiritia»tik ZUFRITIA sortu zan, tarteko i bat galdu-ta.

«Zufritia»tik ZUFITRIA, metatesis bat egin-da: tarteko r atzeratuta.

«Zufitria»tik ZIFITRIA, Zu'ren u ori, i biurtuta. Eta azkenik,

«Zifitría»tik ZIPITRIA, tarteko f ori, p biurtuta.

Dana, oso legezko prozesu bati jarraituz.

* * ✖

Prozesu guzti ori, Andoain'go Elizako Konfirmatuen Liburuan garbi-garbi azaltzen bait da, ezarian-ezarian, urteen buruan. ZUFIRITEGIA: ZIPITRIA.

* * ✖

Eta, berriz ere, gauzak nola diran —eta batez ere, gure Elbira nolako anti-exhibizio-zalea zan neurtzeko— prozesu kurioso ori neronek berari erakutsi nionean, ez det esango «purrustada» bat egin zidanik, bañan bai alako ez-axola-keñu otz bat egin zidala.

* * ✖

Gañerakoan prozesu guzti ontan dantzan dabillen elementua, ZUBIA dala, bere forma guztietan: *Zubi, Zu fñ, Zupi; Zubiria, Zu f iria, Zupiria: ad pontem*, antziñako Kartulario batean irakurtzen dan bezela: «Zubiri, ad pontem».

* * ✖

ELBIRA PROSELITISTA

Gerraurrean ezagutu genduan guk. Oyartzun'a etortzen zan. Gure arreba Pilar'ekin-ta egotera. Eta Arkale'ko Maria Felipa-ta juntatzen ziran —gero Monja joan zan, Madrid'era Salesa—. Eta Luxiano «Arkale» eta Dionixio Erreka'ko eta Raimundo Uranga, «Tolarietako». Igande arratsaldeetan.

Elbira Donostia'tik etzan etortzen adiskide bezela. Proselitista bezela etortzen zan. Abertzaletasuna Oyartzun'en erakustera. Proselitismo «elementala». Sabino Arana'ren neolojismoak erakutsi. «Trena» itza iñork esaten ba'zuan, *bultzi* esan bear zala, alegia; «*coche*» iñork esaten ba'zuan, *zalburdi* esan bear zala; «periodikua» iñork esaten ba'zuan, *izparringiya* esan bear zala; eta «telefonua» esaten ba'zuan, *urrutizkiña*; eta «Eliza» esaten ba'zuan, *Txadona*; eta «sakristaua» esaten ba'zuan, *Txadontzaya*. Sabin'en neolojismoetan ori.

Eta gutxi-gora-beera, ari ortan berean bait zebillen Sabino beraren bataio-izendegia; «Maria»ren ordez *Miren (Mirentxu* batez ere); eta «Antonio»ren ordez *Andoni*; eta «Manuel»en ordez, *Imanol*; eta «Dionisio»ren ordez *Dunixi* etab., etab...

• • •

Eta, aldian bein organizatzen zituzten, baita, mendira joateak ere; *Urkabe'ra eta Ayako Arrira eta Artikutza'ra*.

• • •

Olako proselitismo-saioak eratzeko oitura aundia zan orduan: Kapitaletatik erri txikietara; Andereñoak eta mutil abertzaleak Donostia'tik eta Bilbao'tik baserrietara, abertzaletasuna erakustera. Askotan, Bilbao-aldean batez ere, burrukak ere gertatzen bait ziran «maketoekin»: «gora Euzkadi»ka batzuek, eta «Viva España»ka besteak...

Oyartzun'go proselitismoak etziran orrenbesteraño iristen; paketsua-goak oi ziran, gure Elbira'ren-ta inguruan.

• • •

Olako propaganda-ibilliak, beste nunbait, leen ere, aipatu izan bait ditugu guk, Oñatibia Juanito'k eta egiñak, Zaragoza'tik Nafarroa'ko Erribera'ra, Zaragoza'n estudiantan zebiltzelarik, beren txistu ta tanbolin, joaten ziralarik, nafar-erriberatarrei abertzaletasunaren poza kutsatzera... Alako egunak eta urteak bait ziran orduko aiek! zabalkunde urte ta egunak...

Saltsa artan ezagutu genduan guk Elbira, bere Oyartzun'go propaganda-saioak egiten...

EUSKERA GARBIA

Giro ortan, ambiente ortan leporaño sartua bizi zan Elbira, Oyartzun'en azaldu zanean. Orduko Euskaltzaleen giroan sartua: 1915'gn urtetsoa zan. Tolosa'tik zetorren giroa. Euskeraren problematika-giroa. Ordu artan, Elbira'ren mailako euskaltzaleen problema, «garbitasun- problema» zan. Euskera garbi egitea.

Erdal-kutsuko itzen bat entzuten zanean, bereala entzungo zan orduan norbaiten aotik: «Gure Euskera gaxoa!» Erdera-kutsuko itzak Euskeratik baztatu bearra: ori zan orduan askorentzat «Euskeraren Problema». «Trena» etzan esan bear; *bultzia* esan bear zan; «automobilla» etzan esan bear; *berebilla* esan bear zan...

Giro ortan bizi zan Elbira, Oyartzun'en azaldu zanean; guk ezagutu genduanean.

Noblezi aundiko postura, benetan, bear ba'da gaur beste garratzagoko problema batzuek —Izkuntzaren «primum vivere»ren problemak-naiko baztartua ba'daukate ere; • bañan orduan ez.

Euskera «garbiaren» problema. Larramendi'ren urteak ezkeru, euskaltzale guztientzat problema-problema izan dana. Neri gure etxeko pasadizu bat gogora ekartzen didana: gure anai Martin gizagajoaren eta gure lengusu Postako Teodoro'ren, bioen arteko pasadizu txiki polit bat gogora ekartzen didana.

* >=< >=<

Bi lengusuak bosna urte izango zituzten. Eta jostatzen zebiltzan gure jaiot-etxe-inguruan. Eta Teodoro lengusuak, an inguruko «labaderoa» aipatu —berak «labalolia» esan bait zuan, ots! «labadoria»—; eta gure Martin txikiak: «labalolia» ezta esaten; *uttuliya* esaten da: *uttuliya*, ots! *Itturriya*...

Euskera «garbiaren» problema, bost urteko umetxoen artean ere...

•

Elbira Zipitria'k ain biziki bizi zuan problema: Sabino Arana'ren neolojismoen problema... Erdal-kutsuak Euskeratik kendu bearreko problema. *Barbarismos de lexico'en* kontrako problema..

* >=< >=<

FRUITUAK OYARTZUN'EN

Gure Elbira'ren ereintzak fruitu onak eman zituan gure Oyartzun'en.

Juanito Oñatibia mutil egin zan, mutil proselitista gotor.

Erreka'ko Dionisio, Sakristau egiña gendukan, eta *Euskal-Esnale* Aldizkarian idazten asia zegon.

Gure Pilar'ek astero-astero *Zeruko Argia'n* argitaltzen zituan bere kronikak.

Andres Etxeberría'k-eta eratzen zituzten, aldian bein, teatro-jaiak euskeraz: orduan azaldu bait zan, ain zuzen, Martin eta bi anaion «*Eun dukat*» zartzuela...

Gauza ondo bai ondo zijoan. Emakumeen Batzokia inauguratu zanean, Sala artan kantatu zan *Txanton Piperrí* —*Txanton Piperrí* euskal Opera— Nati Arizmendi'k, eta gure anai Antonio'k, eta Posta'ko Euxebio'k, eta Andres Etxeberría'k-eta kantatu bait zituzten Operako papearik nagusienak, eta Maritxu Errauzkin'ek pianua jo...

* * =>

Gure Elbira, bitarte artan, sarturik zebillen, Tolosa'ko euskaltzaleekin —Aitzol aien artean— Ikastolak sortu-bearreko problema garrantzitsuan. Arantxa Munita andoaindarra eta Pilartxo Santsinenea, txikia bañan pixkorra, eta gure Elbira aiekin, danok buru-belarri sartuak bait zebiltzan problema garrantzitsu artan. (Etzegon panderoa esku txarretan...)

* * =>

Bañan etorri zan Franko'ren gerra; eta «Adio, nere pandero berri!» Lurpean gelditu bear izan zuten, ain ederki loratuta zeuden gure Kultura-lantegi guzti aiek...

Lurpean; bañan ez illik, ez usteldurik; negu gogor batek lurperatu bai, bañan udaberri baten esperantzan ezkutuan dagon azi illezkorra bezela...

* * *

ARIERA BERRIA

Eta, ain xuxen, ordu artan asten zan gure Elbira'ren ariera berria. Ezkutuko Ikastolaen ariera.

Ezkutuan.

Donosti Zaarreko Kale ixil ta ezkutu batean... Izena ez bait zait gogoratzen... Zuek nik baño gogoanago dezute...

* * ✨

Bañan ikusi dezagun orain, bitarte artako gure Euskeraren egoera.

Itz bitan esango dizuet.

Donosti inguruko errietatik Donostia'ko Merkatura joaten ziran gure amonatxoak, Tolosa'ko Tranbean zijoazenean, ixil-ixillik joan bear. Euskeraz asten ba'ziran, edozein mukizu —eta orduan olako mukizu asko sortu zan baztarretan— edozein mukizu naikoa zan «*Hablen ustedes en cristiano*» esanez ixillerazteko; eta zerbait erantzuten ba'zitzaien, Donostia'ra iristean, Poliziari denuntziatu.

Edozein mukizu.

Or naiko muestra, ikusteko nolakoa zan orduan gure Euskeraren egoera.

* * ✨

Ola ez bait zan arritzeko, berez pesimista xamarrek ziranak —gure D. Nemesio Etxaniz bat-eta— beti lantua joaz ikustea, beti kanta bera, lantu bera: «Don Manuel: Euskera galtzen ari zaigula! galtzen ari zaigula! Ez dagola ezer egiterik». Bañan alako batean nik esan niona: «Ez dagola ezer egiterik? Nik bertsoak egiten dizkiat. Ik ere ba dakik bertsoak euskeraz egiten. Egitzak bertsoak».

Eta baita ondo ikasi ere nere mutillak nere lekzioa. Bertsoak egiteko esan ba'nion-ta-esan, asten da bertsogintzan, eta ez dakit noiz ixildu zan; egin bait zituan klase guzitakoak, *txa-txa-txa-ta* guzti: *tutti li clasi...*

* * ✨

EZKUTUKO IKASTOLAK

Gure Elbira'k etzuan, ni bezelako iñork ezer esan bearrik. Ikastola sortu zuan. Ikastola bat ezkutuan. Lurpean. Zuek dakizute, nik baño obeto, Elbira'ren ejenplu ark nolako fruitua eman zuan.

*Eman-da zabaltzazu
munduan fruitua...*

* * ✨

Elbira'k, guztiok dakizute, aparteko doايا izan zuan, pedagogi-kontuan, erakus-metodo-kontuan. Berealako batean sortu zitzaizkion ikas-

leak, bere metodo aietaz baliaturik, euskera ederki ikasteko.

Ordu artan nere belarrietara iritxi zan berria, gai ontan, Antonio Valverde batena izan zan. Maistra onaren metodo onak, ikasle ona atera zuan. Ark sortu bait zuan, Eusko-Aditzaren kurpil famatua. Eusko-Aditzaren nai zan forma, eun formaen artean, nai zanean errex arkitzeko kurpil sorgindua: Aljebra-lan arrigarria.

* * *

Garai artan, gogoan det nik izan zuala Elbira'k beste ikasle bat ere, oso nere gogoanekoa: Mari Pax Santsinenea, Pilartxo Santsinenearen illoba.

Ni nere Calahorra'ko desterrutik aldian bein etortzen nintzan Lasarte'ra, Lasarte'ko Monja Brijidaen Kapellau zan D. Antonio Abautz'en etxera. Eta ni an nengoanean, askotan etortzen zitzaidan gure Elbira, Donostia'ko bere ezkutuko ikasle txikiakin, bixitatxo bat egitera.

Eta gogoan det —etzait berealakoan aztuko— nolako pozez egiten zuten ume aiek nere obsekioan Teatro-pixka bat, Lasarte'ko Monjaen jardinean «Jesu Aurraren Bizitza»ko troxu bat edo beste, dana kanta ta dana kanta, Mari Pax txikiak eta aren lagunak. Dana kanta. Ola baitz zan, batez ere, gure Elbira'ren ikas-metodoa: ikasle bakoitzaren neurriko...

* * *

ELBIRA ZIPITRIA «KARISMATIKOA»

Munduan zerbait aundi egin dutenak, batzuek normalak izan dira, beren egitekoa bide organizatu baten barruan egin dutenak; eta besteak, ez degu esango anormalak —*anormal* itza, itz itsusia da-ta— anormalak ez baño, beren egitekoa bide normaletik kanpora egin dutenak, gure izkuntzan «karismatikoak» esaten zaienak. Beren «errealizamenak» bide korrientetik kanpora egin dituztenak. Aldian bein bakarrik zeruan azaltzen diran izarrak. Beren indar jatorrez egin zezateken lana baño geiago egin dutenak. Elizaren Historian, batez ere; bañan baita Errien Historian ere, gure Jaungoikoak ala nairik, gauza arrigarriak egin izan dituztenak. Karismatikoak.

* * *

Antziñako Testamentuan Profetak izaten ziran olako «Karismatikoak»: Erriaren bizitza normaletik kanpora Erria gidatzen zutenak. Ez Erregeren Jauregian, ez Pontifizeen Temploan bizi izaten etziranak. Ez

bait ziran izaten edozein batzuek —ori ez!— Elias bat edo Eliseo bat-eta.

Testamentu Berrian Asis'ko San Frantzisko bat, eta Loyola'ko San Ignazio bat. Eta, zergatik esan ez? oraindik orain, Eskribá Balaguer bat, eta gure artean geurok ezagutu genduan Aldabalde bat; ez agintez, ez talentuz, ezer «berezi» etziranak, eta ala ere, beren inguruan, orrenbesteko proselitismoa, orrenbeste jarraitzalle izatea logratu zutenak. Batzuek mundu zabalean San Frantzisko ta San Ignazio eta besteak zirkillu estuagoan gure Aldabalde, adibidez. Karismatikoak.

Neretzat gure Elbira ere, olako zerbait zan. Olako zerbait «zuan». Aginterik gabe, aberastasunik gabe, titulo akademiko apartekorik gabe, aparteko talenturik gabe —bañan ortarako aparteko «grazia» izanik— gauza «ez-iduri» bat egin zuana: Ikastolaen Lantegia; ez, bear ba'da, Ikastola berak sortu zualako, bañan bai, urte txar batzuetan Ikastola xuxpertu ta indartu ta «gauzatu» egin zualako; ikusmen «bisio» ori iñor gutxik bezela izan zualako; Ikastolaren labetxoko sua ia itzalian zegola, berak berpiztu zualako, iraunerazi, ezkutu-ezkutuan... *moxorro-moxorro* lan-egíñez...

Karismaduna, karismatikoia.

* * *

NOR, NORI, NORK?

Azken-aldi ontan, *NOR-NORI-NORK* deritzan formula batek eman dio izen aundi gure Elbira Zipitria'ri gure artean, euskaltzaleen artean.

Egia esan, ez dakigu formula onek zer dakarren.

Zera dakigu bakarrik: Paris'eko «Sorbona» Unibertsidadean oso go-raipatu duala, gure adiskide aundi San Sebastian'dar Jose Maria, Latxaga Jaunak bere Tesisa —Eusko Aditzari dagokion Tesisa— aldeztu duanean, gogor atentzioa deitu duala Sorbona'ko Katedratikoen artean *Nor-nori-nork'en* eman duan argitasun ta ezaguerak. Gure Latxaga'k bere Tesisaren argigarri bezela agertu ta erakutsi du: aditzari buruzko bere teorien sendogarri? argigarri? Ez dakigu gauza garbirik.

Gauzaren berri, Aita Mauro Elizondo beneditarrak eman du orain berriro, DEIA egunkariaren orrietan; bañan berak ere gauza luze ta zabal edatu gabe.

Nolanai dala, ez da gutxi, Paris'eko Unibertsidade batean atentzioa deitu izatea.

* * *

Orain arte azaldu dan gauzaren araueran, *Nor-nori-nork*, Metodo Didaktiko bat da, gure Elbira'ren Pedagojiépraktikan fruitu aundi eman izan duana. Metodo naiko berri, iru galdera oien bitartez —*nor? nori? nork?* oien bitartez— gure Berboaren zailtasuna errexten duana. «Agente» esan bearrean «nork» esanez, eta «paciente» esan bearrean «nori» esanez (?) edo «nor»... Metodo argigarri, alegia. Gauza praktiko bat... Ikasleek «agente» aditzean, «polizia» uste izaten bait zuten; eta «paciente», Gaxotegian dagona etab. etab. Metodo didaktiko okurrentea, naiz-ta, periodistaen batzuek esan duten bezela, argitu ez «el enigma del Verbo Vasco»...

Itz bitan, gure aditzaren teoria explikatzeko itz errexagoko batzuek, pedagoji-rekurtsu batzuek, A. Mauro'k ziona: metodo pedagojiko zerbait.

Eta ez goaz ezer geiago esatera. Ori gabe ere naiko aundia izan bait da gure Elbira, Euskeraren irakaskuntzan egin zuan lan guztiakgatik.

LEKUONA'tar MANUEL'ek

Garate'tar Jose Antonio, franziskotar idazle ezaguna ta GOIZ-ARGI ta «Aran-tzazu'ko Egutegia» ren sortzaillea, Elbire Andereñoaren gaztetako lagun izan-dako Lasat'ar Antonio franziskotarrarekin.



ELBIRA ZIPITRIA IRASTORZA

Andereño ospetsua gogoratuz

Prantziskotarrok badegu aitor-emaille bikain bat, Elbira Zipitria andereñoari buruz, gaztetan elkarrekin lagun aundiak izan ziranez. Anai praille orri Antonio Lasa deritza. Jaiotzez ataundarra, bizitzez oiartzundarra degu, eta, 50 urtetatik, Tolosa'ko komentuan praille, sakristaularanetan. Gaur-egun 80 urte ongi beteta dauzka.

Naiz-eta osasunez maskaldua egon, buruz argi eta oroimen oneko aurkitzen da.

Ezagutu al zendun Elbira Zipitria?, galdetzen ba'diozu, «Orixe bai! —erantzungo dizu arpegi alai-alairekin—. Neska zoragarria zan. Nolako giro gozoa sortzen zuan inguru osoan! Zeiñen ederki pasatzen zan denbora arekin!»

Anai Antonio'ri, begibista goruntz galduta, begiak dizdiz jartzen zaizkio oraindik, biotzeko oroitzapenik goxoenak gogoratuz.

1926 - ELBIRA-TALDEA

Afrika'ko gudatik itzulita, ogei ta iru urteko mutilla Anai Antonio. Ordutik ezagutzen du Elbira. Igandero bezperak bukatu, Oiartzun'en biltzen da lagun taldea. Au osatzen dutenak, ara nortzuk diran. Mutilletatik: Anastasio (Lezo'ko sakristaua), Luis (Albiztur'ko sakristaua), Dionisio (Oiartzun'go sakristaua), Antonio Lasa eta beste; nesketatik: Elbira Zipitria, Iñazi Munita, Pilartxo Lekuona, Mari Pilipa Aristizabal, Pilartxo Sansinenea, eta beste.

Taldeko aintzindari, Elbira. Sailleko izarra dirudi. Neska gazte argia, eragillea, bizi-bizia. Jai-arratsaldea pozkarioz gaiñezka igarotzeko lagunik puntakoena. Aiek ziran aiek arratsalde gozo eta eztitsuak!

«Beingo batean —oso gogoan det— Pikoeta mendi aldera joan giñan. Orduan Luken Aristizabal ere gurekin gendun, «Arkale» baserriko seme

pijoa, basarri artatik pasa bear bai-gendun. Eta batpatean antolatu zan erromeria. Bagendun soñua ere. Dantzan, nik Elbira'kin saio luzea egin nuen, baita Iñazi'kin ere. Ez da aaztutzekoa!»

(Negar-malkoak sumatzen zaizkio praille adintsuari, kontu-kontari.)

«ARGIA» ALDIZKARIA

«Ez da sinistekoa, baiña ala bearrez, gazte-talde artan, denok giñan idazlari, eta gure solasak ortik zijoazen geien bat. Asteroko ARGIA gendun gure begietako aldizkaria. Elbira'k asko eta egok i idazten zuan. «Ira» izenarekin azpi-siñatzen ditu lantxoak. Tolosa aldeko berriak Iñazik biltzen zituan eta «Arantxa» izen-ordezkoekin argitara eraman. Mutillak ere idaz-saioak egiten arduratsu ziran, norberak erriko berriak ekarriz. Albiztur'ko Luis idazle yayoa zan, bere anai Emiliano bezela. Neroni ere, Zarautz'era egin gendun txango bat zala-ta, idaz-arazi zidaten, gero argitaratzeko.»

«Denon gaiñetik idazkiak orraztu eta borobiltzeko, aldizkariaren jaun aparta, Don Bitor Garitaonaindia gendun. Idazte-arloan, gai bakkarrak Jainkoa ta Euzkadi genituan. Naiko saltxa eta solaskai izaten gendun, igande-arratsaldero, Oiartzun aldeko mendigunetan, pago ederren itzalean eserita.»

1932 - ETXEA

«Elbira «Parte Zarreko» Kalbeton kalean bizi zan. Ni nora-ezean eta ala bearrez, San Bizente elizako sakristau-laguntzaille sartu nintzan. Batetik lantegirako gogo gutxi eta bestetik nere lagun geienak sakristau ziran. Jainkoaren bideak ote? Alaxe, bein edo beste, Elbira'ren etxeraño ere eldu bear izan nuan. Bazituan bi senide. Orduan, ordea, anai batekin bizi zan, margolaria bera. Etxeko goraberak Elbira'k zeramazkin.»

«Nolako txukundadea bizitoki artan! Euskal-kutsua an-emen. Tresnak, maiak, kutzak, eserlekuak, zureri-bitxiak, zinzilikarioak, apaingarriak, den-dena euskal-usaia zeriotea. Ikusgarria benetan! Uskeria da esateko, baiña nere lansaria utsa zan, eta berdintzeko premian, antxen, bein baiño geiagotan, mokadu goxoak ere eman zizkidan Elbira'k.»

«Alako batean, argazki bat ere erakutsi zidan —iru lagun min—, esanez: «*Emen Jaunaren iru grazi-deiak: Arantxa, mojetara; Pilartxo, ezkontzara; Elbira, andereñotara*».»

1926-1936 - ANDEREÑO

Bai, guztiz gain andereñoa izateko jaioa zan. Sena berezi eta aberatsa zuan ortarako. Espirituko doaiak pil-pil gaiñezka. Ementxe bai esan litekela: Gogozko aldapan nekerik ez. Orrela bakarrik, bere bizitzako ekintzak, neur-eziñezkoak dirala, dakigu.

Aurrak maite zituan, geiago ezin-ala. Irakaskintzaren oñarria eta funtsa, aurrak sendiko amagandik zekarzkianak ziran, naiz fedean naiz euskeran. Ortik goraldtu eta eraikiko zuan aurraren eziketa bakoitza. Eguneroko zeregiña euskeraz zeramakian beti, naiz taldeka naiz bakarka. Aurren gogoak, zearo andereñoaren eskuan eta biotzean geratzen ziran. Iñor makurtu eta lilluratzeko, ez dago maitasuna bezin indar aundirik.

Elbira'ren irakasbidea, begietatik barruratzen da, ez belarrietatik. «Milla itzek baiño, irudi batek geiago balio du.» «Zer ikusi, ura ikusi.» Beraz, irudiak, marrazkiak, jolasak, antzerkitxoak, jinasi-jokoak, begitazioak, margolak, abestiak, eta gisa ontako intuizio-asmaketak erabilliko zituan, aurrak aspertzeke, pozik eta gogoz ikastolan egon zitezten. Orrela ez dute nekerik, ez larririk etxeratzeko.

Ikatz-kalekoan (Juan de Bilbao), 70 aur mutil-neska, izaten zituan, sei urte arte. Azitzean, mutillak irakasleren batengana zijoazen; neskak, berriz, beste andereñoen batengana. Aurrak, geintxoena kai-aldekoak ziran, besteak uri-auzokoak.

Garai artan euskerazko eskola-libururik ez da, Kristau-ikasbidea, Euskal-edestia eta «*Xabiartxo*» baizik. Elbira'ntzako naikoak. Gaiñontzekoa adimenetik eta biotzetik aixa sortuko du. Gaiñezka eta txinpartetan dauzka, une bakoitzean, dagozkion jakinduria eta aalmena. Alako moñoño eta poxpolin bitxiak izanda, gaiñera, aur txiki den-den aiek!

Bestalde ez dauzka aaztuta eldutako neska-mutillak. Lantegietan, serbitzuan, baserrietan, zenbat gazte eskola-pixka nai dutenak! Aientzat ere gau-eskolak eratuko ditu. Irakurtzen eta idazten jakin dezatela! Apai-zetxe edo-ta udaletxe inguruan, bilduko ditu.

Elbira andereño agurgarriak, irakaskintza, esan liteke, utsaren truk zerabilkiala. Zerbait, Mikel Muñoa jaunaren eskutik jasotzen du. Beste lan osoa, ordea, ezerez batean, aberriaren izenean, pozik eta gogoz, egunetan eta urtetan, barrenak orixe eskatzen ziolako.

1936-1944 - IPAR-ALDETIK

Anai arteko guda txar ura sortzean, Elbira'k Iparraldera jotzen du, iges.

Antonio Lasa, 33 urteko gazte sasoikoa, gudariekin dijoa. Aurretik, Lourdes'eraño iritxi, Andre Maria'ri bixitatxoa egin, eta Bilbo'ra dijoan itxasontzia artzen du. Ez du, mirariz, Aitzol jaunak zeramakian ontzia artu, urrengoa baiño. Laister Saseta-batallioian ikusiko degu, jo-ta-ke, Larendo'n errenditu arte. Bereala San Pedro Kardeñas'ko presondegian, amaika eliz-gizonen artean, espetxeratua. Geroxeago Teruel aldera daramakite, tren-bideak konpontzera. Lau urte luzeetan Oiartzun etxeratu gabe.

Eta, Elbira'ri buruz, zer? Nora-ezean, zeru-aingeru bateri egoak ebakita antzo, kemenik gabe, adorerik gabe, ikusiko ote degu? Ez, jauna, ez. Nun-nai aterpe gozoa billatzen du. Ez zeuzkan alperrik bizkar gainean, ainbeste lan eta neke Euzkadi'ren alde eramanak. Lagunak, erruz aurkituko ditu. Orduntxen ere Donibane-Lohitzune, Ezpeleta, Urrugne, Ziburu, Sara, eta beste zenbait toki politak ezagutu ditu.

Ez zan bera geldirik egotekoa. Errefuxiatuek bazituzten umeak eskola-premian. Ikastola txiki gisa, taldetxoak etxeren batean bildu, eta dotriña, euskera, euskal-kultura eta beste erakusten dizkie. Azkenengo lau urte Sara'ko «Profetenean» igarotzen ditu. Tolosa'ko Labaien'dar familikoa bailitza, pozik eta goxoki bizitzen da, aterpe kutunean, senitarteko gozamenik eztitsuen nabaritzen dualarik. Nolako mesedea ez zion egin lau urteko bizikera onetxek! Esan bezate Erramon eta Matxin Labaien anaiak, ikasle ziralarik.

Elbira'k inoiz muga, batetik bestera, pasa ote zuan urte aietan? Anai Antonio'k, baietz dio. Mendiz mendi etorri, eta Pilar'txo Sansinenea'ri lagun egin ziola «Arkale»raiño joaten, Jexux Elozegi senargaia, antxen aurkitzen zalako, «batallón trabajadores» dalako oietan. Sara'tik Etxalar aldera igarotzean, gendarmeak atrapatu zutela, eta eztabaida xeblebren bat izan zutela, azkenengoz bere burua aske ikusita.

Besteek ezetz diote, ez zala mugaz pasa. Marsella uriraño, bere aizpa bakar mojarri bixita egitera, joan ote zan, galdetu, eta orduko lagunak zalantzan ipintzen dute bixita.

1944 - DONOSTI'N BERRIZ ERE

Itzuli, eta bereala ekiten dio irakasle jardunari. «Andereño» izena izkutuan gordeta, ordea, espetxera joan nai ez ba'du. Eskola-zaingoak itzuliren bat egiten ba'zuan, zerbait erderaz mintzatu, edota arbelean idatzi, eta berriz ere aurrera euskeraz.

Geroxeago, «Orixe Ikastola» sortuko du.

Tolosa'ko Anai Antonio praille adintsuak esaten digunez, Elbira mendizale gartsua biurtu zan kanpoko lurraldetatik itzuli ezkeroz. Igan-detan bereziki, eskolako lagun-taldetxo bat berarekin zuala, egun-pasak egitea atsegin zaio. An goian, aide garbia, kutsadurik gabea, bait-du. Erasun eta Azkarate, Nafarro'ko errixketan, dakusgu; baita Bidani, Gaztelu, Jaizkibel, Arantzazu, Ernio eta beste tokitan ere.

Olako batean, trenean Donosti'tik abitu, Andoain'en jetxi, eta goizean goiz Uzturre'ko mendi-gallurra arrapatzera doa bizkorki zortzi-bat lagunekin. Loraillaren azken-igandea zalako, badakite, meza ederra eta erromeria antolako dituztela tolosarrek Izaskun'go elizatxo inguruan. Baita amabietarako eldu ere. Ordu goxoak igaro ondoren, Tolosa'ra jeisten dira, aspaldiko partez, Anai Antonio, praillez jantzita, ikustera. Mendiko erromeriak jarraipenik ez titsuena izango du komentu-barnean. Antonio'k, sakristau danez, «Loidi» ardo-aundiaren botillak aterako ditu aukeran, gozokiak ere bai, eta... ura pesta! Ezin adierazi Anai Antonio'k izandako pozaldia, gatzetako ibillerak eta erromeriak gogoratuz.

1972-1973 - GOIZ ARGI 'REN BILLERAK

«Erri-akademia», sortu eta tinkatzeko, Tolosa'n azaroaren 26'an, aurreneko urratsak eman ziran. «Goiz Argi» aldizkariak otsegin, eta berreun bat lagun alkartu ziran. Orduntxe, idazle onek Elbira Zipitria ezagutzen du, «andereñoen amona» ospetsua. Orduntxen berarekin itz-aspertu bat eduki ere.

Iru gai ikutu eta astindu giñuzen.

Lenbizi, euskera «batua» aipatuz, ale mardulak jaurti zituala, gogogogoan det! «Ainbat urte buruan, izkera ori ez da errian, ez da fami-lietan ere, ez itsatsi ez erantsi. Batuak jai dauka. Erririk gabeko euskerarik ez det nai, ez da euskera gabeko erririk ere. Etorkizun beltza sumatzen det. Izkera orrek garo-usarik, talo-kutsurik, sagardo-kerurik ez dauka. Euskera gajoak ez du bide ortatik osasunik aurkituko. I1 egingo ote zaigun Erri-muiñean kimika gaizto bat sartu nai ote da?»

Bigarren, ikastoletako irakaskintzari buruz. Beti baiño beti, euskera utsean itzegin bear da. Jardun eziketan, maiteki, aspertzeke. Gero umeari irudimenean lana eragin. Begiz ezarri ikaskaia. Ez du belarrietatik jasozten, begietatik bai. Nazaret'ko Jesus'en ejemploa ederra da ziñez. Paraboletan itzegiten du beti, irudimena astinduz.

Irugarren, liburu-gramatketan, Ixaka L. Mendizabal'ek idatzitako

«Erdel-euskal Idaztitxoa» famatu zuan, elduentzako baitipat, paregabea beretzat. Orregatik urte gutxi barru, Ixaka omentzeko, idazkitxo bat eskatu zidatenean, gorasarre gisa, «Idaztitxoa» xeatu nuan, gazte-ikasleei gomendatuz. «Joxe Urkiola» eraman zuen izenpeko, eta tolosarrak askoren arteko idaz-bilduma batean, argitaratu zuten (1979).

Andik sei illebetera, 1973'ko lorailaren azken-igandez, Azpeiti'ko Loiola'n berriro bildu giñan «Goiz Argi» eta «Agur» aldizkarikoak bat-egiñez. Orduan ere Elbira gurekin gendun. Joxe Lasak (g.b.) abots oze-
nez, biltzarrean, aldarrikatu zuan «Elbira Zipitria, ikastolen amona, lirain eta moñodun», biltzar denak euskeraren izenean txalotuz eta goral-
duz. Une artan, gu denon aintzindari gertatu zan, arrazoi guztiz.

Anai Antonio Lasa praillearentzat, agurrik beroena ere eman zidan.

Aita JOXE A. GARATE

Gaztetako Elbire, bi tolosarren erdian: ezkerretan Sansinenea`tar Pilartxo ta eskubitan Munita`tar Iñaxita, Erroma`tik Jesuitinien Buru Nagusian izana.



Altxueta mendian 1932`go-VI-26`an mendiz3le-taldean, ezkerretik asita: D. Poli, A. Jose Mari, Xebe, Errazkin, Pilartxo e.a. Azken-aurrekoa, Elbire, itzalean, «labe-zomorro» berak dionez.

ZIPITRIA, ANDRE-MARIZALEA

Zipitria andereñoa nik ez nuen bein baizik ikusi. Eta ori, bere biziko azken aldian. Nemesio Etxaniz apaizak eraman nindun aren atxera. «Goazen —esan zidan— ikustalditxoa egin bear diogu gure Zipitria zartxoari».

Eta ez dut damu izan ara joana. Eskupeko ederra neramala atera nintzan aren etxetik: Amaika orri eder, dotore iraririk, Gipuzkoa'ko beste ainbeste Andre Mari'ren goramenezko kantaekin, beren doiñu ta guzti.

Nik, kanta aietatik, Itziar'ko Amarena baizik ez nuen ezagutzen, Iruña'ko *Zeruko Argia*'k 1958'an argitaratu zuelako. Ez nuen besteen berririk. Andik geroxeago entzungo nuen Arantzazu'ko Amarena Arantzazu'ko elizan bertan. Artean ez nuen ezagutzen Itziar'ko ori baizik.

Eta orain mordoa nuen eskuetan: amaika Andre Mari-kanta, eta baikoitzetik mordoa, gaiñera. Bi eratan argitaratuak daude: tamaiñu anditan, alde batean margo askotako lauki baten barruan, Andre Maria'ren irudia, kantuaren aapaldi guztiak, eta doiñu soilla dakarrela, eta bestean, doiñua organu-laguntzarekin; eta tamaiñu txikitan, postal-tankeran, kantu soilla eta bertsoekin. Neretzat gauza berria, ikusi gabea, zan dana.

Nondik zituen Elbire'k kanta-orri eder aiek? Ni, berak irarriak zitu-lakoan atera nintzan andik. Edonola ere, bera zuten gordetzaille eta zabaltzaille. Eta oparo, esku zabalez zabaltzen eta banatzen zituen, nerekin erakutsi zuen bezala. Orra zergatik, andre andi onen omenaldirako nere aletxoa ekarteko, kanta auen berri ematea gogora etorri zaidan. Berak bere zerutik begi onez ikusiko duelakoan nago.

Kantu auek gazteleraz *Gozos* eta katalanaz *Goigs* esaten dietenakoak ditugu. Katalanek olako literatur ugaria daukate. An edozein erritako Andre Mari'k naiz santuk bere *Goigs* diralako bertsoaldia dauka. Pilla izugarria ikusi nuen bein Mallorca'ko biblioteka batean.

Euskalerrian badegu olakorik edo antzekorik, baiña ez ain ugari. Arantzazu'ko Amak eta Itziar'koak utzi dute, nik uste, aztarnarik andiena

gure literatura urritxoan. Baiña ele zaarren edo erromantzeen tankera andiagoa dute, *Gozos* edo *Poz-jarioak* diralakoena baiño.

Euskaldunok, emen ikusiko dugunez, kanta oiei izena ematean ere ez gera bat etorri. Gure sorta onetakoei, geien batez, *Goramenak* jarri diete izena. Gitxi batzuei, *Poz-jarioak* edo *Pozkarioak* ere bai. Bat daukagu, Koru'ko Amarena, bi argitaraldi izan dituen, euskera-erderazkoa eta euskera utsezkoa. Euskera-erderazkoak *Gozos* dio erderaz eta *Ormenak* euskeraz; euskera utsezkoak, *Goramenak*, beste geienak bezala.

Amaika kantaotan, bat bakarra daukagu nolabait zaarra, zaarra doiñuz eta zaarra itzez, noiz-noizkoa danik argitzen ez ba'zaigu ere. Ondarrabi'ko Amarena da. Beste guztiak berriak dira, gure egunotakoak, gure egunotako idazle eta musikalarien lana, 1954'tik ona egiñak, norbaiten edo talderen baten eskariz, dirudianez. Urte ori, 1954'koa, Andre Mari Urtea izan zala gogoan izan dezagun. Orduan piztu zan, nonbait, olako kanta berriak ateratzeko gogo.

Gipuzkoa'k Andre Mari'rik asko du, baiña Zipitriak emandako sorta onetakoak, urtez urte argitara etorri ziran bezala izendatuta, onako auek baizik ez: Arantzazu'koa, Koru'koa, Izaskun'goa, Irun'goa, Arrasate'koa, Itziar'koa, Ondarrabi'koa, Arritokieta'koa, Olatz'koa, Dorleta'koa eta Urrategi'koa. Banan banan emango dugu bakoitzaren berri.

1) Arantzazu'ko Amari Poz-Jarioak

Arantzazu'koak orrelaxe du titulua. Eresia Aita Donosti'rena dala dío, eta olerkia, Nemesio Etxaniz'ena. Eta 1954'an argitaratua da. Arantzazu'ko Andre Mari ez da Gipuzkoa'n antziñakoena. Beste bat baiño geiago dago zaarragorik; baiña Arantzazu'koak gaiña artu die gipuzkoarren biotzetan, eta Arantzazu'koa artu du Gipuzkoa'k Zaindari.

Artarako indarrrik andiena egin izan zuen arrazoia: Arantzazu'ko Amaren inguruan egin zutela gipuzkoarrek beren arteko pakea, aren Iru-diaren agertzeak ekarri ziola azkena beiñolako elkarren artean elkartu eziñari. Kanta onen itzek —Etxaniz apaizarenak— guzti ori gogoratu-ko dute:

*Elizak aukera digu
Gipuzkoa'ko Zaindari:
Argatik gaude kantari
Arantzazu'ko Amari.*

*Gure griñen arantzetan
miñez gaituzu, Maria;*

*baiña zure elorri orrek
eman du lore zuria.*

*Arantz-arteko larrosa
degu zeruko gidari.
Argatik gaude kantari
Arantzazu'ko Amari.*

*Euskalerria gorrotoz
zebillen oso galdua,
anai-arteko burrukan
odoletan kutsatua.*

*Baiña zuk eskein zenion
pakea gure erriari.
Argatik gaude kantari
Arantzazu'ko Amari.*

Olaxe, onelako kantuetan oi danez, aapaldi bakoitzaren ondoren azkenengo lelo berdiña. Gipuzkoa'ko seme-alaben arteko pakea egiñaz gaiñera, gorrotoak aldenduaz gaiñera, beste onik ere gertatu da Arantzazu'ko Amaren inguruan: sorgiñen siñiskeriari indarrak kentzea, eta fedea argitzea.

*Sorgiñen siñiskeriak
oso ziren kaltegarri;
baña Arantzazu'ko Ama
agertu zan sendogarri
indar berria emanaz
gure fede zintzoari...*

Mendez mende, gizaldiz gizaldi Arantzazu'ra erromes joan diranean artean, exin ixildu gero Gipuzkoa'k bigarren Zaindari izango duen Iñazio andia. Ezin ixildu mendi gain artatik Frantziskotarrek egin izan duten lan mesedegarria ere.

*Loiola'ko seme jator
Iñazio doatsua,
Zuregana etorri zan
Jaunagana biurtua,
ta gau osoa eskeñi
zion ortxe zeruari...*

*San Frantzisko'ren semeak
gordetzen zaituzte, Ama;
Zure bidez erakutsiz
nola jaso bizi-zama.
Benedikta or entzuten
egon oi gera ameslari...*

Eta olerkariaren oroimena Baltzategi'ko Errodrigo'k entzundako kanpai-otsa gogoratzera dijoa egan gaur ere, eta beti-kanpai-dei ori entzungo ba'litz nai luke:

*Arantzazu'ko kanpaila,
zaude beti dulundari,
zure bidez gure Ama
billa zagun dizdizari;*

*ta Ari esker, Jesus ona
dezagun betiko sari.
Argatik gaude kantari
Arantzazu'ko Amari.*

2) Koruko Andre Maria'ren Goramenak

Ola dio euskera utsezko argitaraldikoak, lenbizikoak *Omenak* zion lekuan. Euskera-erderezkoa 1954'koa da; Euskera utsezkoa, 1967'koa. Doiñua Urteaga'tar Joan musikalariarena du, eta itzak, Lekuona'tar Manuel'enak. Onek *Poz-jarioen* tankerako asiera du, eta bai aapaldi bakoi-tzaren bukaera ere:

*Ama zaitugun ezkeroztik,
zaitu gaitzatzu zerutik.
Donostiarrok Ama zaitugu,
zeruko Ama lastana.
Bear aunditan arkitzen gera;
eskean gatoz Zugana.
Zeruko Aitak zuretzat ume
egin gaitun ezkeroztik,
zaitu gaitzazu zerutik.*

Andre Mari onen nondik norakoa ere, labur bederen, gogoratzen du kantu onek:

*Itxasoetan ibilli eta
gero Koruan kokatu...
eta geroztik gure aitonak
antxen zinduzten maitatu.
Zeruko Aitak gure Uso txuri
egin zaitun ezkeroztik,
zaitu gaitzatzu zerutik.*

Azkenez, Koru'ko Amari zer eskatu? Zer eskatuko zaio egokiagorik, zeruko koruan kantari gertatzea baiño?

*Zure Koru'ko kantari alai
izan nai degu guk, Ama,
gero zeruko beste koruan
sartu gaitzatzun Zugana.
Zeruko Aitak ere orixe
opa digun ezkeroztik,
zaitu gaitzatzu zerutik.*

3) Izaskun'go Andre Maria'ren Goramenak

Andre Mari au Tolosa'ko Zaindaria da. Eresia, doiñua Mons. Mayora zanarena du, eta olerkia Luis Jauregi apaizarena. Urtea: 1957.

Irudi au ere artzai bati agertutakotzat dago eta bere gaintxotik To-

losa eta ingurua bere egalpean bezala dauka. Eta Argana dijoa tolosarren eskaria:

*Izaskun'dik irriparrez
guganontz begira zaude;
Zeruko Ama txo maite,
gutzaz errukitu zaite.*

*Uzturre'ko egalean
udaberri goi batean
artzaitxo garbi bateri
aspaldi ziñan ageri.
Georoztikan ortxe zaude
Tolosar biotzen jabe,
Zeruko Amatxo maite,
gutzaz errukitu zaite.*

*Len, sutegi ta oletan,
soro, mendi, sukaldetan
otoitz biurtua lana
igotzen zan Zuregana
ta zure atsegin-pozan
izan zan beti Tolosa;
Zeruko Amatxo maite,
gutzaz errukitu zaite.*

Tolosa berriak ez du ukatu nai izan bere Ama, eta bere Amaren Iru-dia koroaturik ikusi arte ez du onik izan:

*Tolosa berriak ere
zarrak ainbat zaitu maite;
argatik zizun buruan
«egun aundi» ospatsuan
urrezko koroia jarri
maitasun ezagungarri.
Zeruko Amatxo maite,
gutzaz errukitu zaite.*

4) Junkal'eko Andre Maria'ren goramenak

Aita Lazkano'ren Eresia darama eta Fernando Artola'ren itzak: 1958'an argitaraua. Irun'go Zaindaria omen da Junkal'eko Andre Mari au, baiña kantauak kristau guztien Ama egiten du:

*Junkal'eko Ama,
zeruko argia,
kristau guztiak Ama
zaitugu, Maria.*

Irudi au ere agertutakotzat dago. Kristu guztien Ama dana bein irundarrei laguntzeko an agertu omen zan; eta nola agertu ere:

*Goiz sentia asitzean
argia zan lertu,
odei beltzak igeska,*

*Zure agerkundeak,
Andre Done Mari,
zorion eman zion*

*eguna atertu,
Beraun-pean ziñaden
Urantzu'n agertu,
Irun'go erriari
laguntzeko gertu.*

*Irun maiteari,
zorion eta poza,
ta zenbat mirari!
Eskerrak orregatik
damaizugu Zuri.*

Askotan Santiago'rako erromesentzat «kai eta kabi» izan da Andre Mari onen elizaurrea, eta irundarrek beren Ama beltzeran au Euskalerriko zaarrenetakotzat eta ederrentzat daukate.

*Aldare orretan zaude,
Ama beltzerena,
pozik kantatzen dugu
zure goramena.
Birjin euskaldunetan
Zu zera zarrena,
zarrena ezik ere
baitare ederrena.*

Baiña kristau guztion Ama dugun ezkeru, iñork ere ez du ortik bekaitzik artzeko eskubiderik.

5) Arrate'ko Ama

Eibar'ko Zaindariaren onek Norberto Almandoz du eresiaren egille, eta bertsoena, Manuel Lekuona apaiza. Arrate'ko Amak badu leendik kantari ugari, baiña oraingoan berriak nai izan dira. Onela dijoa kantua eibartarren aotik beren Zaindariagana:

*Sortzez garbia zera-ta,
ementxe gatoz kantari,
aintza eta aintzaka Zuri,
Arrate'ko Andra Mari.*

Artzaitxo bati agertua omen da Arrate'ko Ama ere:

*Artzaitxo bati ageri
mendiko lora polita,
Erregin bat lez jarrita,
begientzat zoragarri
Arrate'ko Andra Mari.*

Baiña artzaiek bakarrik, ez; nekazariak eta olagizonek ere Bera izango dute Ama:

Artzaiak mendi goietan,

*nekazariak soloan...
ta Zuk guztiok gogoan,
Zu guztion maitalari,
Arrate'ko Andra Mari...
Burdin-lanaren gordiña
Eibar'ko ola zarretan!
Oletako beargiña
zure aintzaren kantari,
Arrate'ko Andre Mari.*

Abenduaren zortzian, Sortzez Garbiaren egunean ospatzen ornen zan leenago Arrate'ko Amaren jai-eguna, baiña euri ta edur-arrisku gutxiago-ko egunetara aldatzea lortu zuten:

*Antziñatikan Eibarrek
Anaitasun bat ezarri,
inguruetan lenengo
zure Sortze Garbiari,
Arrate'ko Andra Mari.*

*Zure «Sorrera Garbia»
neguaren biotzean;
baiña orri-erortean
Bulda batek opa guri,
Arrate'ko Andra Mari.*

Irakurlea jabetu da, noski, kanta onetan Bizkai'ko euskeraren eragiña agertu dala. Lekuona jaunak, oartzuarra izan arren, badaki norako idazten duen.

6) Itziar'ko Andre Maria'ren Goramenak

Kanta-orri onek, Itziar'ko Amaren irudipean onela dio: «*Itziar'ko Zaindaria, itxas gizonen laguntzaillea*». Ain zuzen, aspalditik kantatu izan zaio Itziar'ko Amari latinezko «Ave, Maris Stella», euskerara itzulita. Eta gaurko eresi onek ez du alderdi ori aztuko.

Doiñua Frantzisko Eskudero musikalaria ospetsuarena du, eta olerkia Nemesio Etxaniz apaizarena. Kanta-orri au, Arrate'koa bezala, 1959'an argitaratua da, baiña leen esan dugunez, «Zeruko Argia» aldizkarian agertu zan leentxeago. Itxaso ta legorrekoen Ama ta Erregiña da Itziar'ko Ama, kantako itzek diotenez. Au ere agertua ornen da, baiña ez iñongo artzaiñ mutilli, neskatilla bati baizik.

Itziar gaiñetik itxaso ta legorrekoen zaindari agertzen ornen da:

*Oñak lurrean dituzu, Ama,
baiña begiak uretan;
argatik gure mariñel onak
maite zaituzte benetan,*

*Itxaso eta legorrekoak
zure kofradi-barruan,
amaika ezkeintz egin zizuten
urte askoren buruan.*

*eta Itziar'ko eliz maitea
aurrez aurre dutenetan
txapela kendu ta asten zaizkitzu
itxasotik otoitzetan.*

*Ta Zuk, ordaiñez, ainbat erruki
ixuri dezu inguruan!
Argatik maiko gozotan gaude
zure aldare onduan.*

*Nola, alargunak, ala umezurtzak,
naiz erromes nekatuak,
elbarri, gaixo, itxas-uretan
ilzorian arkituak,
kartzeletako errukarri ta
pekatari damutuak,
zeiñen ederki sendatzen ditun
gure Ama Itziar'kuak.*

Eta onakoa du asierako agurra, eta tartean sartzen dan errepika edo leloa:

*Euskalerriko Erregin zeran
Itziar'ko Ama maite!
Gure erriaren notiñak entzun,
ta gutzat erruki zaitte!*

7) Guadalupe'ko Andre Maria'ren goramenak

Goramen auen eresia eta itzak ez dira gure egunotakoak, zaarrak baizik, egillearen izenik gabekoak. Guadalupe'ko Andre Mari «kristauen Ama gozoa» da, eta Ondarribi'ko Zaindaria, Itziar'koa bezala, «itxas gizonen laguntzaillea», kanta-orriak dionez. Asierako bertsoetan onela egi-ten zaizkio agurra eta eskaria Andre Maria'ri:

*Aingeruen Erregiña,
Zeruko Izar argia,
Kristauen Ama gozoa,
gutzat erruki zaitia.*

Urrengo bederatzi aapaldiek asierako orren doiñu bera daukate, bai-ña luzeagoak, bertso geiagokoak izaki eta bi aldiz ematen dute doiñu bera.

Beste bertso guztiak ere puntu berdiñekoak dira. Lenengoko aapal-diak onela gogoratzen du Andre Maria'ren agertzea:

*Olearso'ko mendian
agertze miragarria
kristauen probetxurako
egin zenduen, Maria.*

*Mesede aundi orregatik
pozez dago erri guztia.
Kristauen Ama gozoa,
gutzat erruki zaitia.*

Urrengo batek, Ondarrabia etsaiek esiturik zeukatela, nola Andre Maria'ren laguntzaz libre gelditu zan esaten digu:

*Esitua itandu zan
bein batez Ondarrabia,
Zugan zeukan konpianza,
Guadalupe'ko Maria.
Garaiturikan etsaiak
libratu zan gure erria.
Kristuaen Ama Gozoa,
Kristuen Ama gozoa,
gutzaz erruki zaitia.*

Mariñelen laguntzaille ta etsaien mende katepean geldituen askatzaille agertu izan da ondarrabiarren Zaindaria:

*Kaptiboak jartzen ba'du
Zugana fede guztia,
bereala puskatzen da
esku-orietako burnia.
Aitortuaz Zu zerala
beraren libratzaillia,
Kristuen Ama gozoa,
gutzat erruki zaitia.*

Beste kanta zaar bat badu Ondarrabi'ko Zaindari onek: Salbea euskerazko bertso zaarretan. Azkue'k dionez, Salbe oni *Mariñelen Salbea* esaten ornen diote, eta, nere ustez erderazko *Salve Marinera* delakoari baiño egokigo datorkio izen ori. Salbea da, beintzat, eta itsas aldeko doiñua darama.

8) Arritokieta'ko Andre Maria'ren Goramenak

Eresia Garbizu'tar Tomas'ek jarri dio: itzak, Etxaniz'tar Nemesio'k. Ala dio 1967'an irarritako orriak. Zumaiarren Zaindaria goresten dute:

*Arritokieta'n du Zumaia'k
bere Zeruko Ama maitea,
gure biotz barrengo pozkarri,
pakezko leku berdingabea.*

Leku berdingabea, Zumaia gaiñean, aldatz erdian jarria, Andre Mari onena, eta aldapan gora, aldapan beera, joan ta etorri, zenbat maitale!

*Aldatz erdian jarri zinduten
gure erriko Zaindari izateko,
Urte luzetan or egon zera,
Jaunaren aurrean gure bitarteko.*

<i>Aldapan gora datoz nekeak, aldapan gora gure biotz-miñak. Zure laguntza gurekin dala, guztiak arkitzen ditugu ariñak.</i>	<i>Aldapan beera datoz gurekin bizi-poz eta atsegin aldiak. Aietan Zutaz aztu ez gaitezen lagun bezaigu, Ama, zure argiak.</i>
--	--

Noiztik onakoak dira ama-semeen ar-emanok, zumaiarren mendian gora eta mendian beerako ibillerok?

*Noiztik zaude or, Ama laztana,
gure eskariak jasotzen zerura?
Antziñatikan eldu bai-zaigu
zure aitapena etxe ingurura.*

<i>Orreaga'ko prailleak izan ziran urtetan zure gordetzaille, laugarren Santxo'k aiei utzirik Zumai'ko Amaren giltza ta zerraille.</i>	<i>Baiña lendikan zeunden Zu, gure erria zaitzen Ama, aldaretik zumaiar denen aterpe gozo ziñala amaikagarren gizalditik.</i>
--	---

Olaxe, kanta onek leena ta oraiña, antziñako giroa eta gaurko beroa, biak batera jaso eta aurkeztu dizkigu.

9) Olatz'ko Andre Maria'renak

Zumaia'tik Azpeiti'ra goaz, Olatz'ko Amaren oiñetara. Emen ere Etxaniz'tar Nemesio dugu olerkari, baiña Olaizola'tar Jose ereslari. Orria, 1967'koa da. Olatz'en, Izarraitzpean da azpeitiarren Andre Mari Zaindaria. Olerkariak onela kantaerazi dio Azpeiti'ri:

*Olatz'en daukat nik bizi-poz,
Olatz'en daukat nik Ama.
Argatik nere larrialditan
biotzak arauntz narama.*

Eta bai gozo, bai txeratsu, bai errukior aurkitzen duela azpeitiarrak bere zeruko Ama:

*Irriparre gozoa
zure ezpaiñetan,*

*egoki tolosturak
soiñekoetan;
errukizko biotza
gure neketan
eta Jainko Semea
zure besotan!*

Irudi orren aurrean auspeztu zan, noski, ainbat aldiz Aita San Iñazio edo ta bide zaarretik bere agurra otoitz berotan bializ zion. Aren aldare aurrera eraman dituzte Azpeiti'ko ama geienek beren seme-alabak aurretan, aren magalpean jartzeko.

*Jaio ta bereala
aldare ontan
nere amak eskeiñi
nindun aurretan.
Aundi eginda gero,
beti gogotan
izan zaitugu, Ama,
gure miñetan.*

Ama orren itzalpean daude aurretikoen gorputzak azken-piztueraren zai.

*Gure aurretikoen / loa lurpean,
piztuera zai dago / zure itzalean.
Gure azken ordua / eltzen danean,
artu gu ere, Ama, / zeru betean.*

Bizian eta illean, Olatz'ko Ama, beti azpeitiarren Zaindari.

10) Urrategi'ko Andre Maria'ren Goramenak

Azpeiti'tik Azkoiti'ra, Etxaniz olerkariaren eta Pildain'dar Joakiñ'en eskutik. Goramen auek ere 1967'koak ditugu, edo beintzat urte orretan argitaratuak. Urrategi'ko Ama dute azkoitiarrek Zaindari.

*Ormolaga mendiko
Erregin maitea,
Zu zaitu Azkoiti'ak
Zeruko Atea!*

Urrategi'ko Amaren eliza an dago basamortuan sortutako zeruko ziza dirudiala Azkoiti'ko olerkariarentzat, eta Sortzez Garbiari eskiñia du Azkoiti'k, Elizak Sortze Garbia siñiskaitzat artu edo erabaki aurretik.

*Sortze Garbiko Ama maitea
gorde diguzun eliza,
badirudizu basamortuan
sortutako Zeru-Ziza!
Elizak bere erabakia
eman aurretik or ziñan,
azkoitiarren fede zintzoa
agertuz zure sorreran.
Milla ta seireun urtetan gora
amazazpigarrenan,
jasoa ornen zera gureztat
mendixka orren gainean.*

Azkoiti'k bere Ama koroaturik ikusi nai izan du, eta ori ere ez du olerkariak aipatu gabe utzi.

*Ta orain zure Erregintzari
eskein diogu koroia,
urre-dizdiraz apaindurikan
zure burua ta jargoia.*

11) Dorleta'ko Andre Maria'ren Goramenak

Emen aipatzen diran Andre Marietan, Dorleta'ko au dugu legor-barrukoena, Arrate'koarekin batean. Leintz-Gatzagatarren Zaindaria. Dorleta'koa ere esaten diote. Goramen auen itzak Luis Jauregi'k idatzi zituen eta eresia Norberto Almandoz musikalariaik.

Onela du asiera eta tartean-tartean kantatzeko bertsoa.

*Dorleta'ko Erregiña,
Amatxo Gaztelu'koa,
biotzen poz atsegiña,
gure Zaindari gozoa.*

Dorleta'ko irudian Ama-semeak, Jesus eta Maria, elkarri begira izketa goxoan ari dirala ematen du, eta ori olerkariak ez du aipatu gabe utzi:

*Ama zera-ta, ortxe daukazu
Semea belaun-gaiñean,
ta izketan zaude Semetxoakin
izketa ezti ixillean.
Zuri begira dago, maiteki*

*Zu besarkatu naiean...
Ama, gu ere seme gaituzu,
ar gaitzatzu biotzean.*

Sartíago'ra bidean, erromesen atsedeen-leku ere izan da Dorleta.
Andik igaroak dira santu aundi bi: Loiola'koa eta Borja'koa.

*Santiago'ko bide zarrean
Dorleta'ko Andre Mari:
erromesen atsedeen-kabi,
otoitz-leku maitagarri.
Mesedez eta mirari aundiz
poztu oi zenitun sarri,
ta Zu goraltzen itzultzen ziran,
bidean pozez kantari.
Ortze Frantzizko Borja santua,
Oñati'n bizi zanean
egona dezu Zuri begira
otoitz sutsu ta luzean.
Baita Iñazio Loiola'koa
Nabarrete'ko bidean,
sartu zan, noski, Dorleta'n eta,
poztu zan zure aurrean.
Geroztik, amak semetxoekin,
gazteek maite-miñetan,
gaixo, elbarri, naigabetuak,
pekatariak kezketan,
Zugana datoz uste osoaz
larritasun guztietan,
errukitsu ta miraritsua
zaitugulako Dorleta'n.*

Azken urteotan txirrindulariek ere Zaindaritzat artu dute Dorleta'ko Ama. Ezta urte asko, or utzi zuen Dorleta'ko Amarentzat bere txapeldun-maillota txirrindulari ospetsu batek: Eddy Merckx belgikarrak. Txirrindulariontzat dator onako eskari au:

*Txirrindulari gazteak ere
artu zaituzte Zaindari,
Zuri begira doaz bidean
izerditsu ta ameslari...
Dorleta'tikan entzun, Amatxo,
beren gurari ta eskari,*

*ta arrisku latz ta neke-miñetan
izan Zu ordain ta sari.*

Eta, azkenez, Euskalerrri osoarentzat grazi eske, onako aapaldi au dakar:

*Zure oiñetan sortzen ari da
Euskalerrri bat berria...
Zarrak ainbat Zu maite zaitzala,
da gure gogo bizia.
Erakar zazu zure albora,
piztu siñismen-argia,
erri guztien gainera ixuri
zure poza ta errukia.*

Eskari eder egokia, benetan, edozein alditan egiteko.

Onekin amaitzen dut omenaldi onetarako agindutako lana. Ain Andre Maria zale izan zen Zipitria onak begi onez ikusiko duelakoan nago. Bizkaia'n, Mañua'ko Karmen'go Amaren begipean nai izan zuen berak bere gorputz illarentzat azken atsedentokia. Karmel mendiko Ama orrek, euskal-mendietako Ama orrek, bere Semearekin batean, saritu dio oraingo lurrean bizi zala bieñ izan zien maitasun miñ eta zintzoa, baita Euskalerrriari eta euskerari iñoiz lausotu gabe izandako leialtasuna ere.

AKESOLO'tar LINO
EUSKERAZAINTZA'ren Lendakaria.

IKASTOLA ETA AUR EUSKALDUNEN EZIKETA (Elbira Zipitria'ren omenez)

23-IV-1975

Gaur goizeko zortzi t'erdietan, bost irakasle erdiko kalean: lau gizonetako ta emakume bat. Boston erdian, Ale.

Ale'k zortzi urte ditu. «Sakabi-berri»ko semea da.

«Sakabi-berri» nun dagoen? Zumaia, Zestua, Azpeitia, Azkoitia, Elgoibar eta Deba'ren ardatzean. Deba'ko erritik Sakabi'ra amairu kilometro badaude gutxienez.

Itziar'tik Lastur'ko bidera jo bear da. Lastur eta Endoia'ko bidegurutzean, Lastur aldera artu.

Bide-gurutze orretan dago Aldazabal baserri sendoa, Santa Kruz apaizaren gordelekua. Mendi-tarte auetan bidezabalik ez zanean, aukerako tokia zan Aldazabal bertatik liberal-gudarosteari erasotzeko. Andik bide-erdian daude esan ditudan erri oiek guztiak.

Aldazabal utzi eta berriro Lastur'ko bidea artu bear da Sakabi-berri'ra igotzeko. Lastur'era eldu baiño leen, ezkerretara jo bear Ugartemendi'ko sakonean aurrera, maldan gora Izarraitz aldera. Ango goietan, Agiro mendiaren garaiko bizkarrean, Izarraitz menditik ez ain urrutian, antxean dago Ale mutil koskorraren baserria...

* * *

—¿Qué tienes, Alejandro?, Maixuak mutillari.

—Mal aquí, Ale'k bekoki illun eta negarrez.

—Zer dek, Ale?, sartu nintzan tarteko.

—Agiñeko miña. Emen.

Ori esatearekin batera ao-sapaia erakusten zidan. Egia zan. Agiña zeukan zulatuta eta beltxaran. Ondoren:

Itziar'a nai det.

Baimena eskatu nien irakasleei mutiltxoa itziar'a eramateko. Baietz, eraman nezakeala. Izan ere, gizagajoak agiña dauka zulaturik, aurpegia zimurturik eta burua lepoan sarturik. Garaiz-aurretik xaartutako aguretxoa dirudi.

Inguruak zapaldutako aurtxoa.

* * *

Itziar'en ez zeukan familikorik iñor. Ezagunak, bai; besterik gabe.

—Ale, egia esan: emen gelditzea ala etxera joatea nai dek?

—Goazen etxera; bestela, biar ere, berdin ibilliko gera. Atzo atera zidaten agiri bat eta orain bestea daukat gaxo.

Eraman det Lastur'ko bidean. Bere baserri-ingumarietara eldu-ala, asi zait umetxoa zabaltzen, larrosa-burua beroarekin zabaltzen asten dan antzera:

Au Ugarte da, ori Trekuene, goiko ura Aittola-berri...

Bat-batean mingaiña askatu zaio. Gezurra dirudi. Au, nik, kalean zapalduta ikusitako umea izan leikeanik ere... Lumak arrotu zaizkio. Mendi-erpiña zapaldu degunerako, bere onera etorri da.

—Aizu —esan dit Aittola-berri'ra eldu geranean— an, goiko tontorrean, gurutze bat dago eta goazen ara.

Besterik gabe, ekin diot gorago, Sakabi-berri'ko bidea ezkerretara utzi ondoren.

Goiko muiñoan gelditu det automobilla.

Ez. Segí aurrera.

—Baiña, mutil, bidea emen amaitzen dek.

—Ez al dezu ikusten or bidea aurrera dijoala? Sartu ortik. Ale'k neri.

Ori ez dek bidea, ordea...

Ortik aurrera ere joaten díra, bai.

Sartu naiz basa-arteko bide erdi-urratu batean. Ura eta lokatza eta arri-artean zuloak galantak. Ondo ala gaizki (gaizki esan bearko, ondo baiño) bagoaz aurrera.

Ale, nora ekarri nauk...! Au al dek ibiltzeko bidea...?

Jode, ez du azpiak lurtean joko, ez. Zurea baiño bajoak diran kotxeak emendik ibiltzen dira beintzat eta...

Zortzi urteko ume mukizu onek, nik bildur nuena, asmatu du. Nundik, an beeran ain argirik gabea zirudienak...!

Malkorreetan aurrera goaz. Azkenik, orratio, ordeka eta zabal-gunetxo bat. Bertan gelditu naiz.

Ez, gizona. Segi aurrera, goiko gurutzearen aurrean txabola bat egiten ari dira-ta.

Obe degu emen bertan galditzea —erantzun diot—; ez bait dakit or goian zer dagoen.

Benoa, emen jetxi eta oiñez joango gera.

* = =

Au al da nik Deba'tik ekarritako mutiltxoa? Mendian-gora, burua tente, eskuak praktetako boltxikoetan, gizona dirudi.

Ogei bei dauzkagu etxean eta txalak, zazpi. Gaiñera, mando bat eta bi asto.

Ez dira gutxi.

Eta mendian zazpi larra-bei. Irixkoa bota giñun eta txala egin du batek.

Bide-ertzean larra-bei taldetxo bat eta txala amaren titietatik tiraka.

—Oiek dira gureak.

Aberatsak zerate. Zuen antzera ez da edonor bizi...

Ango piñu-sailla gurea da.

Igo gera gurutzera. Tontor-tontorrean gaude.

—Ni onera tratoreakin etortzen naiz fubolean jokatzera.

Emen fubolean...?

—Bai, or beerago. Ni emendik eta beste biak or azpitik.

Ordu t'erdi ibilli gera mendian. Umearen alaitasuna eta segurantzia arritzekoak dira. Baztar auetako jauntxoa bera da eta nere kideko egiñik dabil.

—An ikusten al dezu bidea...? Madarixa'ra joateko bidea da; baiña, zure kotxearekin ez dago joaterik. Gu etxetik tratorearekin joaten gera.

Batetik bestera ibilli gera gelditzeke. Alde egin diote agiñeko min guztiak.

—Ale, etxe-aldera jo bearko degu...

—Goazen.

Sartu gera kotxean eta ekin diogu bee-aldera zulotik zulora.

—Jodé, emen kontuz ibilli bearko dezu, bestela aldapa-beera joko degu baztarra.

Arrazoi mutikoak: beetik gora baiño okerrago goitik beera. Alaz ere, onik atera gera. Sakabi-berri baiño leenago dagoen mendi-atean gelditu gera. Ale'ren poza: antxe zeuden bi astoak eta mandoa. Baita osaba ere txillarrak ebagitzen.

—Mandoa (orrelaxe esan zidan!) laister ume-egiteko dago.

—Eta, zer ume izango du?

—..rodé, zera, bere klasekoa.

* * *

Zortzi urteko umearekin ari naiz. Aurten Komunio Txikia egin bear duan aurtxo batekin. Euskalerrri'ko biotz-muiñean jaiotako aurrarekin.

Ze maixu dituzu eskolan...?

—Nik ez daukat maixurik. Gurea señoritea da.

Ona al da...?

Bai, ona da; baiña, ni estu artzen nau.

Erriko kalean ikusitako ume zimeldua ona emen txistuka arro-arro.

Ale, etxeraiño eramango aut.

—Ez. Oiñez joango naiz; gain-beera dago.

Eskua eman diot:

Agur, Ale. Lagunak izango al gera?

—Bai.

Beste gabe alde egin dit. Bide guztian burua oldozpenez betea ekarri

det etxerakoan: Zer bizi estua daramaten gure mutiko euskaldunek erdal-eskoletan.

Areago oraindik baserritarrek garai auetako eskola-batuetan. Auzoko eskola kendu zioten Ale'ri, an urrutiko errian, aundi bat jasotzeko.

Aurrerago galdetu diot:

Noiz jeikitzen aiz, Ale?

—Goizeko zazpiretan eskolara garaiz joateko.

Eskola bederatzietan asten zaio. Arratsaldean, etxera biurtzeko, beste ainbeste.

Neguan gau-illuna. Etxerako lanak noiz egin bear ditu ume onek? Ale'ren irakasleak ez daki Ale'ren izkuntzarik; ez daki Ale'ren bizimoduaren berririk.

—Zergaitik etorri zera eskolara, agiñeko miña zeukazularik...?

Amak ez zuan nai nik eskola galtzerik.

Baserriak badu bere kultura edo jakintza. Bizitzan bertan oiñarritzen dan kultura. Milla urteren buruan bildutako kultura eta eziketa. Oiek orrela dirala, zer naaste-borraste sortuko ote da Ale'ren biotz-buruetan, liburu utsetan oiñarritutako eta berak ezagutzen ez duan izkeran emandako kulturatik...?!

* =& =&

24-IV-1975.

Atzoko ibillera gogoratuta, gaur Ale'ren berri jakin nai eta aren billa nintzan goizeko zortzi t'erdietan.

—Sakabi'ko Ale etorri al da?, galdetu diot mutiko bati.

Bai. Sakabi'koa emen zan.

Egia. Emen da. Maats-pasa ximela dirudi. Bekokia zimurrez betea. Burua beera, bular gaiñera. Eskubia praketako poltxikoan, iztarra eten-gabe igurtziz, makinak eraginda bezela.

—Zer, Ale, agiña atera...?

— Ez.

Agiñeko miñik...?

Pixkat, bai.

Goibel dago mutilla. Oiñ-azpian zapaldutako mamorroaren antzera...

—Joango al gera atzoko gurutze artara...?

Orduantxe sortu zaio ezpañetan alako negarrezko irripartxo bat. Gu, euskaldunok, aztikeri txarren batek jota gaude.

*

28-IV-1975.

Jan-gelan nere aita zanaren irudia, margoz egindako marrazkia daukagu. Ale'k neri:

—Onek zure antza daukala ematen du.

Nere aita da.

—Eta, nun dago?

—Il zan.

—Nola il zan?

—Itxasoan urte askotan bakaillautan ibilli ondoren, etxean, erioztzak eraman.

—Zergaitik il zan?

Zaarrez.

Bai, ba, zaarrak ez du bizirik; baiña, ni berria naiz.

Maiean gaude. Bazkaltzen. Nere eskubitan Sakabi-berri'ko Ale. Goiko erderazko eskolan larri ibillita, neregana etorri zait laguntza eske. Goiko E.G.B.'ko Eskolako jan-tokian, eunka ume inguruan, Ale'k bere burua bakardadean aurkitzen zuan. Ezin burutu ez jan-tokian, ez eskolan.

—Bere lan-bide ori erdira jarri daiogun umeari, esan genduan Ale'-ren amak eta nik:

—Gurera bazkaltzera etorri nai al dek?

—Bai. Nai det.

— Gaurtik gurean bazkalduko dek.

* =: =:

12-V-1975.

Arrezkero maiko degu. Lan-bidea eta bizi-bidea apurtxo bat arindu

zaizkio. Aste betean pozik ibilli da. Baiña, bigarren asterako gurera etortzeak ez dio Goiko Eskolara joateak ematen dion naigaberik kendu. Eta, utzi dio eskolara etortzeari. Aste osoan ez da emen agertu.

Gaur, astelena, goizeko zortzi t'erdietan ona emen Ale nere etxean ate joka. Ama du aldamenean.

—Zer du Ale'k, nik amari.

—Ez du iñolaz ere eskolara etorri nai.

—Baiña, Ale...

—Ni bildurtu egiten naiz... (Negarrez.)

Begira, Ale, egun gutxi falta dira kursoa amaitzeko... Egun batzuk, besterik ez... Amak Ale'ri.

—Ez det nai.

Ordu t'erdi ari gera eztabaidan. Ale'k ezetz.

Bizikletea erosiko dizut.

Ez.

Umeak indar egiten digu bere burua salbatu nairik. Ezetz eta ezetz. Aurra indarrez beartzerik ez daukagu; eskola gabe uzterik ere ez. Zer egin...?

—Ikastola'ko zuzendariari ots egingo diot, nik amari.

Elizaren babesean sortutako ikastola aldamenean daukagu. Ots egin diot zuzendariari eta etorri zaigu etxera.

—Ara zer gertatzen zaigun ume onekin... Ikastaroa amaitzeko egon arren, artuko al zenduke probarako, Ikastolako giroak umea nola artzen duan ikusteko...?

Bai, orixe, amak nai ba'du.

—Pozik ala ere.

Beste gabe joan gera Ikastolara. Bere kideko lagunengana eraman dute. Ume aien poza Ale ikusi dutenean:

—Etorri gurekin...

Etorri...

—Etorri...

Guztiak batera bear zuten Ale'rekin itz egiñ. Ordu artan, jolas-unea. Sei lagunek batera lepotik elduta eraman dute jolas-tokira. Ura umeen lagundu bearra...!

—Txuta, Alejandro...

—Ekarri baloia, Alejandro'k jo bear du-ta...

Eguerdirako etorri zaigu Ale bazkaltzera.

—Zer, Ale, ondo artu al zaitue?

—Danak dira nere lagunak!

—Bai?

—Eta señoritea ere bai.

—Ikastolan señoriteari andereño esaten zaio, Ale.

—Neri Ale esaterik ez zait gustatzen.

—Zer deitzea nai dek ,ba...?

—Alejandro.

Bazkaldu orduko jeiki da maitik.

—Nora, Alejandro?

—Mutillekin jolastera.

—Agur, agur.

Alde egin digu bere lagun berriengana. Ale bakarrik oitutako umea degu.

Anai bakarra du; bera aste guztian etxetik kanpora dabil, eskola dala eta ez dala. Etxeko beste seirak, guztiak dira zaarrak Ale'ren iritzirako. Beti bakarrik ikusi izan oi det bai kalean eta baita Goiko Eskolan ere. Gaur, berriz, lagunarteko gogo biziarekin degu. Arratsaldeko eskolatik etorri danean, zoratzen zetorren:

—Begira señoriteak zer eman didan...

Urez margotzeko kajatxoa erakutsi dit. Etxera eraman det:

—Zer, etsi al dezu... ?, amamak Ale'ri.

—Danak dira nere lagunak.

Dan-danak?

Baita señoritea ere. Begira zer eman didan.

Etxe-atarira irten eta pelotari ostikoka asi zaigu. Pozik ama eta amama. Besteak mendian dira. Poztuko dira Ale'ren berriak entzuten dituztenean...

* * *

14-V-1975.

Asteazkena gaur. Ama etorri zait goizetik, Goiko Eskolara joan eta zuzendariari gauzen berri ematera. Medikuakin ibillia dute Ale, nerbio-tatik gaizki, eta aren ageri bat maixuari erakustera.

Ale zorutzen dabil. Ume guztien artean ikusten det jolasean. Izketan ari zait:

—Gaur goizean, etxean, arrautza eta xerradia jan ditut.

Eta beste egunetan zer jaten uan ba...?

—Beraurik ere bai, edo kafea.

—Goserik ez, ala...?

Ez. Ementxe, estomagan, larria jartzen zitzaidan...

Eguerdian jan ditu jateko guztiak. Jaten amaitu baiño leen etorri zaizkio ikastolatik lau lagun baserritar, Ikastolan bertan jaten dutenak.

—Alejandro...?

Bazkaltzen ari da. Etorri danok barrura.

Mai-inguruan daude Ale'ri begira. Gozoki apur bat bagenduan eta bosten artean banatu degu. Jeiki da maitik Ale eta onela esan die:

Etorri nerekin.

Baztar batera eraman ditu bere aurrerapenak erakustera. Idazteko makina zaar batean bere izena idatzita zeukan: Alejandro Azpiazu. Sakabi Berri.

Bazkal-aurretik erakutsi diot makina erabiltzen.

«Umea eskolara ez ba'dator, berriz ere eta irugarrenez, kursoa berritu bearke du. Medikuaren agiria bear da eskolara uts egiteko.» Orrela zion Goiko Eskolako señoriteak amari bialdu dion txartelak. Orregatik

joanda ama Eskolako zuzendariengana medikuaren agiria eskuetan zuala.

—Zu, ama, bildurrez zaude, esan ornen dio aurrak amari etxetik irte-
terakoan.

—Zer nai dek, ba...?, amamak erantzun.

—Ba, zuek ere kontuan artu nola ibilli naizen egunero.

Pozik etorri da ama. Semea Ikastolarako nai zuan eta baimena eman
diote aurtengo ikastaroa emen bukatzeko. Etxeko guztiak pozik izango
dira gaur.

Eta, Ale...?

Arratsaldez Ikastolatik mendira eramán dítuzte aurrak. Ale'ri «San
Roke»ren txakurrak ortzaka egin dio eta prakatan zarratara. «San Roke»
baserria da. Santuak duan elízatxoaren ondoko baserria. Txakur «perroa»
(Ataun'en esaten zanez) baserri artako txakurra eta Ale'k konfiantza geie-
gi. Eskerrak iztarretik eldu ez diola; praketako gaitza izan da guztia.

Orain arte Ale'k etxetik etorri eta joan beti garbi eta txukun egin
du; gaur, berriz, prakak ausita eta zikiñ. Baiña, ume onek egin dituan
jolasak...!

Urtea pasa da. Ale'k orain Ikastolan bazkaltzen du; jan-ondoren,
ordea, beti egiten digu bisitatxo bat.

—Gaur «mutur-zorrotza» ikusi det, Ale'k neri.

—Zein...?

—Goiko Señoritea.

Sudurra kako eta okotza luze ditu; beraz «mutur zorrotza» deitzean,
Ale ez dabil ain oker.

—Lurrak ondo aztertzen ditu arrek...!

Itz gutxigotan ezin zitekean andre arren argazki sikolojikorik obeto
egin. Irakasleak umea tontotzat artuta zeukan; baiña, umearen begi zo-
rrotzak garbi egin zion barruko ebagia: arren orde z basurdea ikusten
zuen umeak, mutur zorrotzarekin bere gogo-inguruko lurrak aztertzen
barru guztia ondatu arte. Gurasoentzat irakasle ona zan, aurrak gogor
arzen zitulako. Gogorregi eta euskaldunentzat erruki gabea.

—Lurrak ondo aztertzen ditu arrek...!

Campion'en «Blancos y Negros» eleberria datorkit burura. Marti-

nico, euskaldun aurreraren istori beltza, ez zan Campion'ek asmatu bearririk. Erdal eskoletan aur euskalduneri ematen zitzaien tratoa, munduaren aurrean egiña zan. Eta, trato orrek guraso euskaldunari ez zion miñik ematen, erdera ikasi ezker; gurasoei miñik eman ez, baiña euskerarekiko, gorroto bizia sortu zenbaitzuen biotzetan, bai sortzen zuan.

Akats auek Elbira Zipitria'k biotzean zeuzkan josita elorri-arantzak bezela. Erremedioa, euskal-eskola zan: ikastola. Eta ikastola sortzen, aurrera eramaten eta ikastola orreri bideak edertzen eta errezten igaro zuan bere bizi osoa Zipitria'k. Goratzarre guztiak ez dira naiko izango biotzeko irakasle onentzat.

Euskerari eta euskaldun umetxoei egin dizkiezun mesedeengatik, eskerrak zuri, Elbira.

ARRINDA'tar ANES
Euskeratzaintza'koa

BI OROITZAPEN SAMUR

I.—OMENALDI MEREZIA

Lantxo bat eskatu didate Zipitria zanaren omen-libururako. Adiskide bait giñan eta pozik lanari elduko. Eta beroni asiera emateko, oraintxe bertan irakurri dudana Sirak liburuko zatiño au aldatzea deritzait egokie-na. Emen esku-lanaz irakurri dudana, baliteke andereño au, berariz beintzat, esku-lanetan aritua izan ezik ere, bere-beretzat aukeratu zuen, barruak eskatuta noski, atertu gabe gogo-lan bati lotua bizi izan zaigun ezkerro, mailla berdin samarrean jartea egoki izatea: aurtxoei gaiak euskeraz erakusten erre zuen Zipitria'k bere bizitzaldi osoa. Lan bikaiña noski baiño noskiago!

«Idazlearen atsedendiak —dio Sirak liburuak— bere jakituria geitzen du; berdin langilleak eta euleak ere, egunez bezela gauzez ere lanean diardute, bizitza eredutzat artzen aalegintzen dira eta beren lo-galdua, beren lana osatzea da... Ontzigiñak ere, lanerako jesarrita, tornuari oiñakin eragiten dio bira; guztiok beren eskuetan dute ustea ta berak lan egin ezik, uriak ez dauko etxerik, ez bizilagunik... Ala ere, ez diote sarri saririk ematen, ezta dedurik ere; baiña aintziñako egiteari eusten diote, beren esku-lanari ekiten diote» (*Sirak*, 38,24-34).

Gau ta egun lan egin zuen Zipitria'k bere aur-lantegian. Guda aurretik eta ondoren. Aurtxoak euskaldundu nairik, ez zuen iñoiz ere amor-eman. Iduriak lantzen ari izan zan; aurtxoen adimenak euskeraz eskolatzen, aurtxoen biotz-soloak euskal eraz landu ta mamitzen. Errementariak burni-lana dagi, ingude ondoan jesarrita, ekin eta ekin; labearen beroak aragia legortu oi dio; baiña ez da nekatzen, bi begiak lan-tresnetan mailluaren ots artean bere zeregiña beteten saiatzen da. «Aren lo-galdua, lana txukuntzea.» Ez ote zuen olaxe egin gure andereño langille porrokatuak?

Olako langille gabe, euskera galdua litzateke. Euskera, ordea, euskal nortasunaren ezaugarri ta zentzurik eder, bikain, sakonena dugu. Berau

galzorian ikusiz, ez ote guk lanik egingo? Azken-arnasetan dagoen izkuntzari, ez ote diogu laguntzarik emango? Egiña dago —ez maltzur irri egin— Euskalerrriarena, bere arima duen euskera galdu ezker. Ez bedi olakorik gerta.

Or Elbira Zipitria eredu; langille trebe, bere arazoaz arduratzen zaizu, ez du ezeren nekerik, ez beldurrik, ortik-andik datozkion zemaiek ere ez diote izurik sartzen. Egunez egun, urtez urte lan ikaragarria burutzen. Frutu bikaiña, egiazki, ekiñaren ekiñez eskuratu oi dana.

Ez diote, baiña, erri-batzarretan, ez auzitegietan toki nabarmenik eskeintzen, ez omenaldirik egiten: orrelakoak ez dute, antza, dedu ta oorerik merezi. Ori gorabera Zipitria lanari josia bizi izan da, eta pozik, bide-egalean iñork agurtu gabe poliki asko dagoen lore musu-gorriaren pareko.

Gizaldi onen leen-egunetatik, Arana'ren eragiñez ziurki, abertzaleen artean batez ere, eskoletan euskeraz erakutsi bearra sentitzen zan, baita apurka apurka Ikastola giroa sortarazi ere. Euskal-indarra kementzen zutenek orixe opa zuten: Arana, Eleizalde, Azkue, Kirikiño, F. Belaustegi-goitia, Landeta ta besteak ortan aalegindu zitzaizkigun, Bizkaia'n lenda-bizi ta Gipuzkoa'n gero. Emakume Abertzale-Batzak poliki ezarri zion sua egiteko oni.

Bazkide zan Zipitria ere, eta ez zan iñolaz ere geldi egotekoa: zuen kemen guztia jarri zigun arazo orretan. Aurrak ziran bere amets, aurrak eskolatu, euskal nortasunaren jabe ta duin biurtu. Ortan ez zan egundo ere aspertu, lan orrek ez zion iñoiz iguiñik eman. Txalogarri dugu, beraz, emakume eredugarri au. Asko zor diogula esanik, ez diot gezurrik, ez geiegikeririk, eta omen-idazti au zor orren ordaingarri pitiña besterik ez dugu. Maiz oi dugun bezela, ez dezagun or bide ertzean laga aren oroitzapena. Lanerako ispillu eder izan bear bai-du guretzat.

Izakeraz ta jenioz piper xamarra zitzaigun arren, lagun-adiskide asko zituen: ezagutzeak lotzen dltu biotzak. Euskalerrri osoan euki ere lagun eta adiskideak. Tarteko izan nai nuen aren gorpuari lur-ematean, an Mungia ta Bermeo bitartean, Sollube ertzean datzan Mañu erritxo bakar-tean. Baiña eziña izan nuen. Ala ere, ba-dakit, laguntza galanta izan zala an andereño begikoaren eortze-eguerdian.

II.—IKUSTALDI BAT

Aipaturiko adiskideotatik bat Gotzon Garitaonaindia izan zan, Mañu erritxoko arima-zaiña. Nik ere adiskide ta euskal idazle-lagun nuen, ainbat lan osatu bait-zituen «Karmel» eta «Agur» en. Eta aldikada baten,

ia astero, Donostia'ra joan oi giñan, andik deituta, euskal deklinabidea ta aditza ta gaiñerakoak ikusi ta aztertzen. Gotzon apaiz ona zanez, berarekin ninduen geienetan. Anbrosio Zatarain euskaltzale aundiaren etxean biltzen giñan usi ta naiera berdiñak jotako taldetxo bat.

Olako egun batez, bazkaldu ondoren, Zipitria ikustera eraman ninduen Gotzon'ek. Donostia zaarrean bizi zan Zipitria. Lau ta erdiak doi-doi ziran. Atea jo ta barrura giñanean, zer zan ura! Ni beintzat arri eginda gelditu nintzan, zukurruturik. Berak iriki zigun atea ta aurrez-aurre areto txiki bat geneukan; ume-taldea erdian, amabost bat guztiz. Ikusi aal duzu iñoiz kabirik, txori-kumaz betea, ama janariarekin etortzean, denak ao-zabalik? Olaxe zeuden aurtxo aiek, andereñoak esaten ziena adituz agian: musu-gorri, begi-ñabar, zolaren gaiñ apatz. Gu ikustean bizkor zutitu ziran.

Leen-agurrak egin ostean, alkar-izketa goxoa izan genduan. Pozik zeuden andereñoa ta aurtxoak. Andereñoaren keiñu batez aurrak laster eratu ziran berriro ere kukubillo: an ez zeukaten aulkirik jartzeko. Nor-tzuk giñan galdetu ziguten, nundik etorri giñan, euskera maite genduan... zer ez? Nik ez nuen ordurarte Zipitria ezagutzen; ark bai ní ezagutzen ninduen, beiñola 1953'rantza Donostia'n eman nuen itzaldi baten ikusita. Arrez gero lagunak izan giñan beti.

Iru ordularen gutxienez eman genitun bertan, elkar-izketa goxoan. Ikasle txikien ariketak eder izango zitzaizkigula-ta, saio xarmanta asmatu zigun, berak galdetu ta aurrek erantzun, ikasten zituzten gai guztietatik zenbait gauza jakingarri irauli ziran. Txikiak ziralarik, argi ta garbi erantzuten zuten, irakurri berdin. Nolako euskera polita gairik zaillene-tan ere, beren maillan jakiña, dotore azaltzeko eran!

Kantuaren bidez erakusten zuen geienbat. Denak soiñeko berdiñetan, zelaian escrita, bizi-bizi ta eskertsu abesten zuten. Aita Donosti izan zan erabat, kantua, dantzea ta ritmua —dantza ritmikua— Ikastoletan sartu zituna. Saski-Naski Poxpolin'ek argitaraturiko «Jolas-Abestia» liburuak mesede ikaragarria egin zuen garai aretan. Izan ere, era askotxo dira aurtxoak ezi, azi ta eskolatzeko, baiña biotzak dadarazten ditun abestien bitartez egoki ta ondoen. Aita Donosti'k *onela*: «Euskal kantu ta dantzak, ona ardatz artistiku bi, gure Ikastoletako irakaskintza inguruan biratu bear dutenak.»

Azkenez, denak zutik, kantu-saio bat eman ziguten aurtxoek, «Itxasoan laiño dago», «Din-dan bolera», «Lenengotxu ori», «Goazen mendirik mendi» ta olakoak abestuz.

Lilluratuta irten giñan ikastola jator aretatik. Eusko jolas ederrez eskolatzen zituen Zipitria'k bere umetxoak. Euskera utsez mintzaten ziran, euskera utsez alaitu, euskera utsez gure erria maitatzen ikasi.

III.—ILLETAK

Gutxien uste gendularik Gotzon il zitzaigun. Gaitz nabarmen batek eramane zigun gure artetik. Urdulitz, Bizkai'ko erri txanbeliñean, gure adiskide onaren errian bertan izan ziran illetak. Elizea geiago artzeko gauza ez zala, alkar-meza biozkorra eskeiñi genion Gotzon'i. Gazte ta zaar, eztarri ozen abesturik, guztion azken-omenaldia egin genion berak bizi-bizi maite zuen elizan. An agertu zan ederki lagun zintzo batek nola-ko pena uzten duen biotzean! Bai meza-garaian, itzaldian batez ere, eta bai gorpua iltegitira eramatekoan, ez zeukan an mintzatzeko gogorik. Ixilla zan mintzo eder!

An zan Zipitria, **M. D.** Agirre lagun zuela. Kanposanturako bidean elkartu giñan irurok. Itzik gabe lendabizi, gero eguzkia laiño artetik legez, gure arpegiak ager-azten. Iñork ez zuen errez barne-sentipenik azaltzen. Illobian, bakoitzak lur-pixkat bota genduen zenaren, adiskide onaren gorpu gaiñ, «egin bedi Jaunak naia» esanik.

Apaizak azken-otoitzak bukatu zituanean, trumilka an bildu zan jendea, eme-eme, aldunduten asi zan. Gu an gelditu giñan oindio, mendiari jositako arria iduri. Ezin laga toki ura. Azkenik jatsi giñan bidera, iltegi azpiko bidera. Txori batek kantatzen zuen tristerik sagar-adar-gaiñean.

Etixerakoan, ez aiek ez nik, ezin urrutiratu izan gendun aren oroitzen samurra. Kotxean sartu orduko, gorantza begira, esan eizu «Gure Aita» bat eskatu zidan Zipitria'k.

Aita ONAINDIA
Euskerazaintza'koa

IRA'REN OROIMENEZ

Zipitria'tar Elbire... aren nortasun zabala ezagaturik, nundik eldu, bere bizitza eta lanen berri zerbait adierazteko?

Zumaia'n jaioa baiña oso gazterik Donosti'n bizi izan zan. Beti Donosti Zaarrear, bere aiton-amonen etxean. Ni oroitzen naizenetik, guda aurretik, bi lengusu eta illobakin. Leen esan dedanez, bere nortasun eta lan zabala ikusita, ez nuke esango zein alderdi litzaken garrantzitsuena.

Ala ere itz gutxitan ondo xamar azaldu daitekela uste det aren izaeraren sustraia. Euzkadi zuan bere maitasuna, baiña ez nolanaiko Euzkadi, Euzkadi askatuta, JAUNGOIKOA eta LEGE ZAARREAN oiñarrituta; au izan zan bere bizitzaren oiñarri eta elburua. Ikusten dezuten bezela ,itz gutxitan batu daitezke bere biziera ta bere lan guztia.

Itz gutxi dira, bai, baiña nolako, zenbateraiñoko esanaia duten adieraztea, ez da ez ain erreza eta ez ain motxa. Zerbait sakontzen aaleginduko naiz ala ere.

Irakaskintza-ikasketak egin, eta 1927 edo 28'an, euskal ikastolan lanean asi, Juan de Bilbao karrikan, Muñoa'tarren ikastolan edo ikastole-tako batean, nexka txikiekin noski. Irakaskintza izan zan, bere barrengo zaletasun eta elburu nagusienetakoa bizi guztian.

Ikastola maillan «bere aurrak», alaxe ziran-da bere ikastolan edo ikastetxean ikasi zuten guztiak; makiña bat aldiz entzuna diot «nere aurrak» aoa beteta esaten, biotz-biotzez. «Bere aurrentzat», bada, irakasbide aurreratuenak artuz, eta berak landu ta bere erara jarritz... emen gaur oraindik oso aurrerakoitzat jotzen diran irakasbideak, orain 30 urte gutxienez dirala, erabili zituan.

Baiña pixka bat bidea galduta nabil; lenengo bere ikastetxea aipatu det, au noski, 1936gna arte izan zen, guda baiño leen. Gero Euskalerriko ipar aldean iru edo lau urte egin ondoren, etxeratu zanean, laxter asi zan berriz ere irakaskintzan. Orduan, jakiña, euskal ikastolak debekatuak

ziran, baiña bere etxean, irakaskintza berezia (clase particular) eran ekin zion.

Irakas-bide au ere antolatu egin bear zan, eta bai egin ere. Legearen debekuz, amar aur baiño geiago ezin zituan artu era ontan. Ortaz, goizean 10 aur eta arratsaldean beste amarreko taldea izaten zituan, bost urtetatik amar urterañoakoak. Goizetan 10, bi taldetan: batean zortzi urtetatik bederatzi arte, bestean zazpitik zortzi artekoak; eta arratsaldean bostetik sei arte eta seitik zazpira. Bukatutakoan «bachiller elemental» egitera erdal-ikastetxeetara joateko eran eskolatzen zituan. Erderaz ere gertutzeko, azken urte t'erdian ele bietara izaten zan irakaskintza.

Erdel eskoletara ondo gertuta joateko, lana ondo eratuta egin bear zuala argi dago; erdel eskoletan 5 edo 6 orduan egiten zana, era ontan bi orduan egin bear bai-zan. Besteen maillan izan bear zuten gutxienez, bestela euskeragatik atzeratuta zeudela esango bai-zuten. Aurrentzat berentzat eta euskerarentzat oso kaltegarria izango zala ori, esan bearrik ez da. Ira'k gertutako aurrek ez zuten, ez, ortarako biderik ematen, ondo baiño obeto ikasiak joaten bai-ziran.

Orain arte aipatu ditudan lanetaz gaiñera, irakasleak ere gertutu zituan, lan artan jarraitzeko. Baita elduen taldeak ere, makiña bat talde izan zituan; batzuk euskera ikasten, besteak euskera lantzen, besteei euskera jakintza (cultura) irakasten zien... era guztietara.

Irakaskintza-gai au bukatu baiño leen, bere asmo eder bat, aurrera eramaterik izan ez zuan asmoa, azaldu bearra aurkitzen det. Berak esana —ta ez det uste guri bakarrik esango zigunik— baiña iñoiz ez det iñor ontaz ezer itz egiten entzun, ezta irakurri ere. Ona bada.

Asmo au azaldu baiño leen, zerbait adierazi bearra da. Leen aipatu dedanez, ikastolan zerabilkian irakas-bidea (metodoa) berea zan, berak landu eta tajutua, baiña irakasbide au etzun idatzia. Aurrek erabiltzen zituzten ingurraztietan besterik ez zan azaltzen. Askotan esan oi zioten idatzi egin bear zukeala gero besteentzat geldi zedin; baiña lanean ari zalarik, ez zezakela egin, erantzuten zun. Au egiteko asmoa zun bada.

Ontaz itzegin zigunean, iru edo lau urte gelditzen zitzaizkion lan uzte (jubilación) garaira irixteko. Ikastaro artan, lau urteko aurrekin jardun zan lanean, «Orixe ikastolan», jakiña. Urrengo ikastaroetan aur talde berarekin jarraitu nai zuan «bachiller» arteko irakasketak bukatu arte. Leengoaz gaiñera, urte aietan artutako oar-ikasía (experiencia) idatziz jartzen asi. Ikasketa auek bukatzerako, lan-uztea izango zuan ezkerok, ikastolan bertan, idazkaritza-gelan edo, egindako lan guzia bildu eta one-

la bere irakas-bidea idatzita utzi.

Ikastolan ari zala gaiñera, bertako andereñoek edozertarako laguntza bear ezkeru, naiz norbaitek uts egin ezkeru, bera an izango zan laguntzeko. Beti, guztiok nai genuana, oraingo eta gerorako bere irakas-bidea idatzirik uzteko asmoa zuan bada ikusten dezutenez.

Baiña orduan, ikastolan izan ziran aldaketak eta legea bete-bearrak, gertakera tamalgarri batzuk bide zirala-ta, asmo auek guztiak bertan beera gelditu ziran. Jaungoikoak daki, euzko irakaskintzak, Euzkadi'k beraz, onekin izan duan galera! Ira'k gaiñera, gertaera auen ondoren, kirioak (nervios) zirala-bide, etzun burua jaso. Ordu ezkeru ez zan bere onera etorri.

Beste lan bat ere ez det aipatu. Euzko eliztia (gramática) era berezian tajutu zuan Ira'k. Ordurarte baziran noski, baiña erdel gramatikan oiñarrituta. Ira'k berriz, erdera alde batera utzirik egin zuan eliztia. Leen, adibidez, aditza, erderazko (transitivo) eta (intransitivo) erabilliz irakasten genuan. Ira'k, «Nor» «Nork» «Nor-nori-nork» e.a. erabilliz.

Orain, tamalez, naiz eta era ontara irakasten duten, Ira'k irakatsitako itzak, eta berak ikasbide au erabilli aurretik sortuak ziran itz jator asko aaztu eta mordollokeri izugarriak sartzen dituzte. Irakas-bidea erabilli bearrean «metodoa» adibidez, «erlatiboa» e.a., Ira'ri omenaldirik ederrena, berak irakaskintzarako erakutsi zigun bidea litzakela derizkiot; omenaldi kaxkarra izango da bestela, gaur asko goratu arren, aren irakaskintza utzi, aaztu eta beste bideak artzea.

Onela, Ira'ren irakaskintzari buruz ari ezkeru, orri asko bete ditza-kegu oraindik, ia bukatu eziñeko gaia genuke.

Zein aldetatik ekingo nioke orain? Idazle aldetik? Bere nortasunaz? Zer esana ugari banuke edozein aukeratuta ere.

Abertzale... bere lan guztia, bai irakaskintzan, baita edozein arlotan ere, abertzaletasunak eragiñik bete zuala. Bere bidea, gure Sabin'ek jarri eta guda arteko abertzale, Alderdi'ko abertzaleek —orduan gaienak-jarraitu zuten bidea, Euzkadi J.E.L.'pean. Orra bada bere oiñarria, bere elburua: JAUNGOIKOA ETA LEGE ZARRA. Orain Sabin'en jarraitzaille askok, Euzkadi eta JAUNGOIKOA bereizgarri dituzte; Ira'rentzat eta bera bezela, SABIN'en bidea jarraitu nai degun askorentzat ez dira orrela. Ori ez baita iñoiz ere «atzeratua» izango; muiña ezin baita aldatu oraingotasuna aitzaki dala.

Abertzaletasunean, zenbat gazte eta ain gazte ez ziranak ezi ote zi-

tun Ira'k... Nik al dakit...!

Garai bateko «ixilpeko lanean» ere etzan atzean gelditzekoa, ez! Besteak beste, «Emakume Abertzaleak» bildu, eta aal zanean jarri ginduan, bere zainpean ekiñean jarri ere. Orduko lan aundienetakoa espetxeetan ziranentzat, jakiak, jantziak, bear ziran guztiak bialtzeko, dirua naíz gaiak biltzea izaten zan; orduan askoz gauza geiagorik ezin zan egin, zori txarrez.

Espetxeak aitatuta, bere nortasuna, bere izaeraren zerbait agertzen duan gertaera bat datorkit burura. Gure aita, beste askorekin, Burgos'ko espetxean genuan; bera ikustera joan giñan batean, Ira gurekin etorri zan. An, espetxean nor genuan galdetu ziguten eta Ira'ri galdetu ziotenean au erantzun zuan:

«Nik, iñor ez, eta guztiak».

Au zuan Ira'k, bere maitasun guztiaren bilduma: Jaungoikoa, Euzkadi eta euzkotar guztiak. Batez ere, Euzkadi'ren alde beren bizia eskeiñi zutenak.

Gero, garairik txarren ura igaro ondoren, bere ikastolan izan zituan aurrak. Auek beti, ao-betez «nere aurrak», makiña bat bider entzun nion. «Bere aurrei» gertatzen zitzioen guztia, ona ba'zan pozgarria eta bestela benetan samingarria zan beretzat.

Orain omenaldi au eskeintzea, oso bidezkoa dala derizkiot ondo irabazia zun-eta. Baiña, nere ustez, bere azken urteetan baztertu samarra utzi ote genuan, arra det nere barruan.

Omenaldi ontan zer-ikusia duten guztiei, eskaera au egingo lieke Elbira'k: erabilliko duten euskera, EUSKERA JATORRA izan dadilla, bai idazkera aldetik, joskera... eta abar. Ez Ira ainbeste samindu zuan euskera-modua noski, au omenaldia izan bearrean, iseka izango litzake-ta, nere ustez. Irakaskintzan eta jokabide guztietan, lojika erabiltzen zuan beti gidari, eta lojika ta zergatien argira aukeratu bai-zuan Arana-Goiri'ren bíde garbi ta errezari bete-betean jarraitzea, alegia.

ARTZELUS'tar AMALE'k

MILLESKER ELBIRA

Donostia'ko Ikatz kalea, lagun pilla, mantala, abestiak, mai txikiak, bataioa, Gaztelu'ko bidexkak, ez dakit nun zegoan Lourdes'ko Ama Birjiña, eta ANDEREÑO. Orra nere gogoan ditudanak. Egindako ametsa bezala gordeta gelditzen diran irudiak.

Iru edo lau urte nituan, ikastolara eraman nindutenean, esan bezala Muñoatarrek Ikatz kalean zeukaten aurtxoentzako ikastolara.

Antxe ezagutu nuan Elbira andereñoa. Gezurra dirudi aurtxo baten buruan zeinzen garbi gelditzen diran, gertatutako gauza batzuk. Ba da urte pilla Elbira andereñoa ezagutu genduala; ale ere, gure artetik «Jau-nak eraman zuanean», berdin-berdin aurkitzen zan gure begi aurrean: bere betiko orrazkera, kapusaia..., aldaketarik egin gabekoa zirudin. Neretzat, andereño Elbira'k irudi bakarra izan du beti.

Oraingo ikasle gutxik daramate guk jazten genduan aaztu eziñeko mantala. «Xubiri-Xubin» jolasteko, elkarri mantaletik eldu, eta orra «tren» luzea egiña. Mukizapia gordetzeko poltxikoa ere, bertan. Garaian garaikoa.

Abestiak ere ez ditut baztartzeko. Gero euskal-abesti asko ikasiak ditut, baiña lenengo aiek, ormaña utzi digute. «Elurra tellatuan», «Joxe Migel», «Basetxeko Amona», e.a. Musika maitatzeko lenengo azia, Elbira'k ereindakoa.

Jolasteko, mai inguruan, lau lagun jarri eta batere jostaillurik gabe, antxe sortzen genduan Donostia'ko Kaia. Batek, sei librako ogia inguratzeko eran jarriko zituan besoak. Orra kaia egiña. Besteak, bi eskutxoak elkartu, «paxientxiz» betetzeko jarriko zituan erara, eta ara itxasontzia. Urrengoak, ukalondoa mai gañean kokatu, besoa gora aldera jarriaz, eskua aataren burua egingo ba'lu bezala, eta egiña zegoan ontziak bete ta ustutzeko bear genduan grua. Kaiean sartu, ontzia bete, Tuuu luzea jo, itxasora tu eta urrengo kaira iritxi bitarte, an zenituan lau nexka-mutillak «Xanti-Andia» biurturik.

Bataioa egiten genduanean, an azalduko zan bateon batek ekarritako panpiña. Andereñoak izendatuko zituan, guraso, aita pontekoak, apaiza eta bear ziran guztiak. «Mikel'en semea jaio da» abestuz, an egingo genduan «zelemoni» osoa. Bikoteak osatu, panpiñari kaskarretik beera, ur-zurrusta botako zion «apaiz Jaunak» eta ara, dotriña batere irakurri gabe, ikasiko genduan bataioa zer zan, zertarako eta nola egiten zan. Orrelako gai sakonak, jolasean ikasi alajaña!

Antzerkia ere lantzen genduan. Txikitatik nabari izan dut antzerkirako zaletasuna, baña nork piztu zuan gure barman?

Txiki-txikitan atera ornen ninduten (ez bai-daukat gogoan) «Poxpoliñetan» olerki bat esatera. Asi, poliki xamar, gero poto egin, zotin batzuk egin ondoren aurrera jarraitu, eta aurrerantzean antzerki-lanetan jarduna nauzute. Talde polita osatzen genduan, argazkiek adierazten dutenez: mukizu pillla antzerkia egiteko prestatuak.

Mota ez berdiñetako lanak egin-arazten zizkigun Elbira'k. Eta lana egiten, jolas-bidez erakustea, ez da asmaketa makala.

Gutxi gora-beera oietzek dira gogoan ditudanak. Elbira andereñoa beti gidari, ikasketan, jolasean, Gaztelu'ko ibillaldietan e.a.

Geroztik, izketaldi luzeak egiñak gera elkarrekin. Izango zuan beti zer esana, eta eldutako gaia, aztertu ta sakontzeko gogoia. Bere asarrealdiak ere ez zituan gordetzen. Plasta-plasta danak esango zizkizun. Ez genduan beti irri-parrez elkar agurtu. Baiña aren esanak utziko zizun barruan kezka edo jakin-miña. Emakume jatorra, abertzalea, bere bidean zuzen jarraituko zuana eta beti... ANDEREÑOIA.

Bere ikasle izan giñanetik berrogei urte luze igaro arren, Elbira'k beti «andereñoa» izaten jarraitzen zuan, beti zerbait argitzeko prest eta okerrak zuzentzeko gertu. Bere kezka nagusiak, Aberria ta euskera.

Nere bizi guztian izan ditudan abesteko griña eta Antzerki zaletasunak, Elbira'ren eskutik jaso nituala aitortu bearra daukat. Barman izango nituan griña oriek, baiña orren gaztetandik piztu zituana, Elbira andereñoa, noski.

Griña oriek dirala-ta, euskera, antzerkia ta abesteari esker igaro ditudan une gozoak, ez dira eskerrak emanda ordaintzen.

Benetako andereñoa zu, Elbira. Jaso ezazu nere esker ona.

ETXEBESTE'tar JOXEMARI
«Antzerti»ren Zuzendaria

ELBIRA ZIPITRIA, ANDEREÑO MAITAGARRIARI

Ura zan andereñoa ura! Makal zugaitzaren irudia zuzen, arte gogorra bezala trinko, gorosti ezearen antzera zimel... Orrela zan Elbira nik eza-gutu nuanean. Txomin Agirre Badiola'k barkatuko dit apizketa edo «plagio» au. Berak «Garoa»n idatzi zuan ori, ni;k IRA zeazteko artu nai dut, eta zeazketa orixe iruditzen zait egokiena.

Milla bederatzireun eta berrogei ta bian itzuli giñan erbestetik Ego-Euzkadi'ra. Nekian euskera, aaztu egin zitzaidan atzerrian: mutil koskor nintzan eta eskola ta prantzes-giroan igaro nituan sei urte. Bazekiten euskeraz gure gurasoek, baiña bost anai-arreboi aaztu egin zitzaigun euskera; eta... Franco'k nai bezela, gure etxean orduan erderaz egiten gengan.

Zailla zan garai artan Euzkadi'n euskera ikastea. Asi nintzan, neu bakarrik «Arrigarai» gramatika-bidez euskera ikasten, gauero. Naiko lana neukan egunean, gosea kentzeko; eta gaiñera EAJ-PNV'ren talde izkutu batekin nenbillen abertzale asko bezela Euzkadi'ren alde lanean eta poliziagandik igesten.

Eta gauean beti euskera ikasten, goizaldeko iru edo lauak arte. Ogei bat gau ikasten eta gero utzi. Kezkatu, nazkatu, aspertu... Andikan bi illabetera, berriro asi ta berriro utzi. Olaxe, asten eta uzten ibilli nintzan urte batzuetan. Azkenean, itxaropena galdu nuan. Euskera debekatua zegoan neretzat. Ikastea, eziña zan euskotar batentzako! Ezin ikasi nere asaben izkuntza...!

Asmo txar eta illun auekin nenbillenean, norbaitek au esan zidan: «Joan zaitetz Elbira Zipitria'rengana. Oso euskaltzale ona da». Eta ni Elbira'rengana joan nintzan. Eta Elbira ikusi nuanean, bereala konturatu nintzan, gizakume arrunt baten aurrean ez nengoala, oso bereziaren aurrean baizik. Aren begiak, itxura, izketa, gogoia, dana ez-berdiña zan arengan, dana berezia.

Nere buruari ala esan nion: «Onekin ez ba'duzu ikasten, iñorekin ez

duzu euskera ikasiko». Eta ala izan zan.

Lanak bukatu ta gero, oso berandu beti, azken-orduan, astean iru aldiz ninjoan arengana. Ematen zigun klasea —beste lagun geiago zijoazen nerekin— ez zan Euskera bakarrik, beste gai auek danak baik: aberriaren aldeko lanak, arriskutsuak ere bai. Klasea ta «konspirazioa» bukatu ta gero, ník nere andre gaiaren billa joan bear nuan eta arek, Elbira'k, ikusketa batzuk egin bear zituan. Baiña iñoiz ez genuan egiten gure asmoa. Nere andregaia «plantatuta» gelditzen zan askotan eta Elbira'ren «bisitak» ere bai.

Beste bi orduz gelditzen giñan Elbira ta biok, aren atarian izketan, lenengo ta azken-agurra esaten genuan bitartean. Funtsezkoa zan klasea, baiño geiago elkarrizketa. Politika, filosofia, erlijioa ta batez ere euskera ta Euskadi'ren auziak aztertu bear genituan...

Berezitasun asko zituan Elbira'k. Oso urrutira ikusten zuan. Oraina epaitzen asirik, etorkizuna asmatzen zuan. Aren epaiketa beti egokia zan eta... etorkizunak beti arrazoi ematen zion. Jende geienok okertzen geranez —eta batzuk asko—, asmatze ori ez zioten barkatzen Elbira'ri. «Intransigente» ta «integrista» zala esaten zuten eta fama ori egotzi zioten.

Ondo ezagutu nuan eta... bai, zintzoa zala esan dezaket. Abertzale, euskaltzale leiatsua, apala bezain argitsua; lojika aundiz estaltzen zuan bere xamartasuna.

Nik sarritan nere erriko, Otxagabi'ko abesti zaar batzuk abesten nizkion. «Konplejoa» neukan, erdalkeriaz beteak ziralako. Baiña Elbira'k beti aurkitzen zituan erdalkerien azpian, euskal-izakeraren ezaugarriak; eta neskatxa bat bezala alaitzen zan, begiak dirdiratzuz neri esateko: «Begiratu, Pello, jende aiek zeñen ondo erabiltzen zuten euskera!» Eta ala irakasten eta erakusten zidan erdi-estalita zegoan benetako euskera utsa.

Berandu joan nintzan arengana. la ogei ta amar urte nituan. Ez neukan, beraz, erraztasun aundia izkuntzak ikasteko, baiña arekin ikasi nuan. Illabete pare bat igaro ta gero —sei ordu astean!—, onela esan zidan: «Zuk idatzi bear duzu euskal-aditza oso-osorik. Era guztiak, «flexio» guztiak. Aditza nola erabilli bear dugun, esakera guztiak esateko: orixe dana adierazi bear duzu zure lantxo ortan. Ori izango da metodo labur bat euskera ikasteko. Zuk egin bear duzu ori. Ni nekatua nago ta... naikoa daukat klaseekin».

Eta nik zer erantzun? Auxe, jakiña: «Ez naiz ausartzen». Baiña arek

orduan: «Zuk egin dezakezu ta egin bear duzu».

Asi nintzan, bada, lana egiten, gauetan noski, eta astebeteren bu-ruan bukatuta neukan. Ikusi zuan Elbira'k eta ala esan zidan: «Ondo dago. Orain zabaldu ezazu lagun, adiskide ta ezagun artean».

Multikopista izkutu batez irureun ale egin zizkidan adiskide batek eta eskuz-esku zabaldu nituan aleak. Ale bat bidali nion baita Koldo Mitxelena'ri ere, bere iritzia jakiteko. Mitxelena'k biurtu zidan lantxoa, oarpen batekin, zoriona emanetz eta oso egokia zala euskaldun-berrien-tzat, esanez. Eta ni euskaldun-berria nintzan!

Zer esan nai du orrek? Ni ikasle «espeziala» ez izan arren, ura zala irakasle aparta. Gauza geiago ere esan ditzaket, Elbira «disziplina» edo gai askotan oso berezia zala adierazteko, baiña geiegi luzatuko litzake idazki au.

Bi urte pasa ta gero ala esan zidan: «Zuk «kondizio» onak dituzu irakasle izateko. Nik irakatsiko dizut». Ezetz esan nion nik. Lan geiegi neukala... bizitza zaila zegoala neretzat... nere sendiari lagundu bear niola... Eta gaiñera, «klandestinidade» edo izkutuko politika-ekintzan sartuta nenbillela, nere zaletasuna zala ori ta bearrezkoa zala neretzat.

Bere iritzia utzi gabe, onela esan zidan: «Zuk artu bear duzu era-bakia. Zure sendiari irakasteko, badakizu naikoa. Eta orain zuk bakarrik lantzen jarraituz, menperatuko duzu euskera. Nik astia neuk bear dut, neu ta besteak irakasle trebetzeko».

Andik aurrera ez zidan klaserik eman nai izan. Atsekabe aundia artu nuan nik, poza artu zuan nere andregaiak —orain nere emaztea danak— eta nik ulertu nuan Elbira'ren jo-muga, oiñaze bizia artu arren.

Gero sarritan, kale-erdian elkarrekin topo egitean, bi orduz gel-ditzen zan nerekin izketan; neguan euria, aizea ta otza, eta udaran beroa jasaten, baiña antxe jarraituz. Presaka nenbillen beti, baiña Elbira topatutakoan, lan guztiak atzeratzen ziran: nereak eta arenak ere bai. Baiña zeinzen poz sakona ematen zidaten txolarte aiek!

Azkenean, gaixotu egin zan Elbira. Eta sendagilleak esan zionez, ez zitzaion komeni euskera ta aberriaren gora-beerak aztertzea, bere bu-rua larritzen zualako ta ori kaltegarri bai-zitzaion. Orregatik, beti le-nengo itzak auek zituan gerora: «Sendagilleak esana dut, gai auek ez aztertzeke, odol-bizia egiten didatelako ta ori kaltegarri zaidalako».

Baiña... aixa igarotzen ziran bi ordu gai oietaz itzegiten. Bazekian berak txarra zala bere osasunerako, baiña... aberria, euskera ta ume-

txoak, oietzek ziran bere betiko leloak. Erdi-illa zegoan, baiña ala ere beti eginkizuna egiten. Olaxe il arteraiño.

Onelakoa zan Elbira neretzako, eta geienentzat ere baietz uste dut. Orain dagoan leku eder, zoragarritikan, badakit zer pentsatzen duan: lantxo au, idatzi au, oso txarra dala. Onela pentsatuko du: «Zuk ori obeto egin bear zenuan, obeto egin dezakezulako». Marra gorri asko jarriko —ala... ipiñiko, Elbira?— zituan lantxo ontan. Baiña berak bazekian, ordea, lan batzuk buruz eta beste batzuk biotzez egiten ditugula.

«—Zuk badakizu, Elbira, biotz-biotzez idatzita daukadala aitorten au. Oore aundia egingo dizute luma ospetsuek, zuk merezi duzuna. Apala, txiroa da nerea, baiña auxe aitortu nai dut; zure ikasle guztiengan, zure adiskideengan, astingaitza dan aztarrena utzi duzula. Bai: abertzale, euskaltzale, emakume, umezale, kristau, jakintsu... aundia izan orren, apala ta ixilla izan ziñalako.

Abeslari errikoiazen itzez abestuko dizut: «Agur, IRA maitea, agur sekulako. Il zera zu betiko, ludi ontarako, baiña egunen batean elkar ikusteko, Jaunari eskatzen diot, zeruan artzeko».

Eskerrik asko, Elbira, zure bizitzagatik, guri eman zenigulako. Gure biotzetan zaitugu, Elbira maitagarria. Goian zaude. Agur, egun aundira arte.

DEL VALLE BEORLEGI'tar PELLO'k

EMAKUME YAUKALA

Emakume yaukalik iñoiz iñun izan ba'da, ona emen gure Errian jayo, bizi ta il zan Zipitria'tar Elbire, andereño zintzoenetakoa. Beraren omenez idazti berezi bat egin nai dutela-ta, bertarako lantxo bat egitea eskatu didate. Ezin onelako eskariari uko egin, eta ene itzak oso motelak izanarren, emen doaz arenganako adei onez idatzita: lantxo au egiteko ene gogo guztia jarrita, ondo maite izan bai-nuan andereño ura, baita barne-barnetik betetsi ere.

Ongi gogoratzen dut Elbire, IRA, nun, noiz eta nola ezagutu nuan. Bein Donostia'n nengoalarik, Tolosa'ko nire adiskide on-ona ta euzkal-tzale jator, sutsu ta jakintsua dan Labayen'dar Andoni Mirena jaunak arengana eramán ninduan, ain zuzen elkar ezagutu genezan.

Elkarrekin joan giñan Kalbeton kalean Elbire bizi zan etxera; ta an aurkitu genuan emakumea gela txiki batean eta zortzi edo amar aurrek inguratua. Ikustekoa zan gela ura: an etzegoan mairik, aulkirik ere ez aurrak eseritzeko, lurrean zegozen guztiak eta orrela artzen zizutzen beren irakaslearen ikaskintzak; baiña pozik zeudela ume aiek, garbiro ageri zan, ain zuzen ere euzkeraz azita, euzkeraz zuzenduta.

Adoretsu ta gogoz ari zan gure IRA umetxo ayekin, berenganako ama-maitasuna arretaz erabiltzen eta leyaz beterik, naiz euzkera bera ta naiz euzkeraren bidez beste gayak ayei irakasten. Eta bazekian, egokitasuna sortzen zanean, bere aurrekin egurastea egiteko joaten, naiz toki bereziren batera eramaten, beti berak nai zuan bidetik umeak zuzenduz.

Eta orrela, gelatxo artan, eta Elbire'rengan batez ere, izan zuten gaurko ikastolek beren asiera, baita beren iturburua ere. Badakigu leen, guda sortu baiño leenago, beste euzkal-ikastola batzuk jarrita izan zizirala, esate baterako, Donostia'n Muñoa'renak eta Bizkaya'n ango Aldundiak eratu zituan auzo-ikastolak. Baiña ordukoa giro ona orrelako lanetan ari izateko, gudak gubanako indartu ta geitu zuan gorrotoa bizi-

-bizirik zegoalako, eta orrengatik gure irakasleak bere lan ederra erdi-izkutuka egin bear izan zuan.

Ain gogotsu bai-zan, bildurrik ez arengan, bere eginkizuna aal zuan bezain ongi betetzeko. Ura bai-zan emakumea, ura! Zintzoa, euzkaltzalea, abertzalea... eta benetan zorrotza, bai berarenganako ta bai guztienganako ere. Sakon begiratzen eta azterkatzen zuan arek bere lanari ta bai euzkerari ta Euzkadi'ri zegokien guztia, oso barnetik eta azaletik ikusteko nayeon urduri, beti guztia bear zan bidetik, bide onenetik eramateko xedeaz.

Etzuan arek erraz onartzen lekoretik zetorkiona, eta Arana Goiri'tar Sabin'ek bezala, bere adimen zoliaz guztia erkatzen zuan ongi, onartu baiño leenago. Eta edozein gai barnetik azterkatzen zuan berak zeatzez.

Elkar ezagutu genuan egunetik gozatu aal izan nuan aren adiskidetasun ona, bera il arte; noizean bein bere berriak bidaltzen zizkidan, beti zerabillan euzkera ederrean idatzita, eta batzuetan elkar ikusten genuan, batik-bat KARDABERAZ'en bilkuretan.

Argi ikusten zuan Elbire'k aurren irakaskintza nola ongi bete aal izango zukean berak, ongi ta euzkaldun bezala azitzeko, eta ondorioz, aberriarentzat ere uzta egoki ta naroki gerokoan jaso aal izateko. Oietzek ziran aren elburu bikaiñak, eta orrela izan zedin, bere lan eta gogobero guztiak zerabilzkian adorez beterik beti. Bera izan zala euzkal-irakaskintzan artezkari yaukala, ben-benetako euzkal-irakaskintzale egokienetakoa, nola ez ikusi ta aitortu?

Eta ikastola berriak zabaltzen asi ziranean, lenengo andereñoak arengana zijoazen aren irakasteko era ta bideak berengantzeko gogoz. Ala zalarik, Elbire'k, gerorako azpegi zabala ta egokia idekitzen asten zala ikusi zuan, bere norabideak bertan edatzeko. Alaxe begiratzen zuan bere lana, bere kezka ta artegatasun guztien ondorio ederra Euzkadi'n barna zabaltzeko, ondo abiatzean eta bere biotza onela atsegiñez betetzeko bidean.

Baiña, zoritxarrez, ain ondo asi ziran lenengo ikastolak, beste bideetan barna ibiltzen asi ziran: Elbire'ren iritzirako, aurrentzat, euzkera ta Euzkadi'rentzat oso kaltegarriak izango ziran bide ez-egokiak artuz. Eta orduan asi zan Elbire'rentzat bere azken-urteetan zear berarentzat izango zan atsekabe aundiena. Aalegiñak egin zituan gogor auzia bideratzeko yoranez beterik, ondorio egokiak izan ez zituztenak ordea; eta bere egiñaal guztiak alperrik egiñak izan zirala ikusi zuanean, bere biotz erdian urradura aundia gertatu zitzaion, urrengoko bere bizi oso-

rako iraun izan ziona.

Gutziz naigabeturik asi zan bidekatze ura jasaten eta, laister, Euskaltzaindia'k 1968'garrenean Arantzazu'n egin zuan batzar deitoragarri ura, eta gabi bategaz emandako tanpa izugarriaren antzeko bat buruan artu bear izan zuan gure irakasle yaukalak.

Zentzunik gabeko izan zan bilkura artatik sortu ziran bide berriak indar aundia artzen asi ziranean, Elbire'k Euzkadi'n zear edatzen asi zan ondamendi aundia nolakoa izango zan, argi ta garbi oartu aal izan zuan, guztiz naigabeturik geratzeraiño, gero ta geroago ere.

Alakotz, aren biziaren azken-urteetan zearo ondatuta ikusi bear izan zuan bere burua. Oso luzaroan bere baitan burututako amets eder guztiak oso erainduta, guztiz apurtuta begiratzean, ez da erraz antzemateko, aren gogo argian jasan zuan oiñaze bizia. Eta orrelaxe, gero ta geyago, il arte, euzkaltzaleek egin zuten bidekatze ikaragarri ura ulertu eziñez.

Bai, Elbire'k bere biziaren azken-aldiak oso itun eta mingoztuta izan zituan: bere bizi guztiko lan, antsi ta yoran guztiak, zearo ezezturik eta zapalduta bezala ikusi bear izan zituan, tamalez, zorigabekoak!, eta samintasunez beterik bizia amaitu bear. Goian bedi, euzkal-irakasle yaukala izan zan Zipitria'tar Elbire andereñoa.

Leen esan dugunez, bera izan zan gaurko euzkal-ikastolen iturburu oparotsua. Orrengatik, ukatu eziña dan zio ori dala-ta, bidezko ta bearezkoa bezala ikusten dugu, gutxienez ikastola guztietan aren argazki bat jartzea, guztiak —irakasle ta ikasle—, beren asiera norengan gertatu zan jakin dezaten, gogorapen ori izateko, aren ongienik irabazi bai-zuan.

Badakigu orrelakoren bat egin aal izateko, egokia ukan bear izango genukean euzkal-giroa ez dagoalako, asmo ori, onartzeko zaila izango dala, eta beste giro obe baten alde buru-belarri lan egin bear dugula gaurko giroa guztiz erdera-zalea dala garbi agertzen bai-zaigu, eta beti bezala Euzkadi'n erabiltzen dan erdera, nai ta ezin, euzkeraren aurkako dalarik, argi dago giro ori bere osotasun eta sakontasunean zearo aldatu bear dugula, ben-benetan euzkaltzalea izan dadin.

Naiz-eta askoren aldetik beren euzkaltasuna agerrerazteko deadarka ari izan, izena ez dala beti izana, ongi gogoratu bear dugu, eta orrengatik ezin naikoa izan gauzei ta egiten danari izen arranditsua ematea. Barneko mamia da sendotu ta tinkotu bear duguna.

Orixe zegien beti gure Elbire'k, Erriaren aldeko lan egokia burutu

nayean, eta orrela guztiontzako eredu beiñena bezala agertzean. Orren-
gatik, oraingo omenaldi onen ondorio onena, auxe da edo izan daiteke:
lera txar guztiak bein betiko zapaldu ondoren, guztiok euzkeraren alde
ta Euzkadi'ren alde elkarren leyan eta elkarrenganako adeitasunez yar-
dutea, iñorenganako arbuyorik onartu gabe. Orrela izan aal izango
ba'litz...

URRESTARAZU'tar ANDONI, «Umandi»

Euskerazaintza'koa

EUSKERAREKIKO ALEGIÑAK

Etsai aundiak izan ditu gure Euskalerra zaarrak bere bizitza luzean. Nabarmenago dakusgu etsaigo ori ortxe Errege Katolikoek agindu egunetatik batez ere. Bi laterri indartsuk inguratuta, otso diruditela sarri, eragozpenduak bizi izan gaituzute gure askatasuna eta gure izkuntza gorde aal izateko.

Aurrez bururatu ta antolatutako ekintza bati jarraiki, euskal-nortasuna galdu-erazi ziguten lenengo. Emendik aurrera, bakoitza gure bidetik ginjoazen, aldamenekoari jaramonik egin gabe, egur-adarrak uralde batean oi bezela. Nabaitzen genuan galbidea, baiña ez genekian nola zuzendu okerra. Au da, miña artzen genuan, deadar egiten genuan, baiñan urak indarrean zijoazen erreka bidetik. Ez genuan adorerik, «euskera gaixoa!» esateko besterik.

Au era bat zan. Eta era ontakoa zan nere aitona Xanti. Bere lantegia, bere ola, Enperadore Kalean zuan. Burni-zotzak sutan goritu, mallukatu eta iltzeak egitea zan aren bizibidea. Oso gaztetatik karlista-gudara joan zan, bere Lege Zaarrak eta Euskalerra aldazteko zalakoan joan ere. Euskeraz mintzatzen zan beti: miña artzen zuan, mukitzu batzuk ate aurrean jartzen zitzaizkionean, bera malluketan ari zanean, mukiak baiño itsusiegoko erdera barra-barra zerabilkitenean.

Alde ortik! —esaten zien, asarre bizian. «Noiz entzun da erdera gure Enperadore Kalean!» — oiukatzen zuan.

Ume mukitzuek bertan jarraitzen zuten, erderaz arika. Orduan, asarre bizian, burni-zotz gorituak eskuan artuta, jarraitzeko keiñu egiten zien, erderaz zekizkian itz bakarretan zigortzeko desapio egiñaz:

« ¡Si cojo el sable que tengo en Pamplona!» . Itz lilluragarriak!

Ezagutzen zuten, eta orduantxe ikaratzten ziran itz asmakaitz oien aurrean, beldurrez. Baiña aitonaren asarrea or gelditzen zan.

Aro edo aldi au zearo aldatu zan Arana Goiri'k esnatu ginduean,

abertzaletasunaz euzko-nortasun ez-ezaguna ta paregabea piztu-eraziz. Eta aro onek, beste era berri bat ekarri zigun gure izkuntzaren alde lan egiteko: ikastolak.

Ogeitazortzigarren urtean-edo zabaldu zan lenengo ikastola Tolosa'n, Gorriti Enparantza'n, bost aurrekin. Andik urte gutxitara, aurrak ugaritu ziranean, Laskurain kalera aldatu zuten. Tolosar andereñoak laister jarri ziran artu-emanetan Elbira'rekin. Nik, orduan, ez nuan ezagutzen, baiña ordurako abertzaletasunean murgilduak giñalarik maiz entzuten genuan aren abizena. Guda ondoren ezagutu nuan ta berarekin mintzatu. Nere aitona zanaren berezitasun batzuk bazituan emazteki onek cre: Euskera maitalea, trebea, giartsua ta sutsua. Onetzaz gaiñera ikasia zan, eta ikasi baten aspertu-eziñeko saiatzea zuan: Euskera erakustea, auxe zan bere era bereziena.

Badago oraindik beste era bat ere, eta ez dakit ez ote dan garrantzitsuena. Askotan norik bere buruatzaz jardutea ez da biziro ongi ikusia izaten. Ez naiz geldituko, onuzkeroz, berau aipatu gabe.

Ixtoriak ixtori, artu emaztea ta seme zaarrena —artean oñez ez zekiana— eta Valencia alderuntz joan nintzan. Geroago izango nituan beste bi aur tolosar.

Nere aldetik egin nuan lenengo gauza ara joanik, balentziar gramatika erosteia izan zan. Onuntz datozenek ez dute onelakorik egiten, noski; bestela amaiturik zirakean euskal-gramatikak. Koskortzen asi ziranean, onelatsu itzegin nien: «Kalean nai dezuten izkuntza itzegin, baiña etxeko izkuntza, euskera izango degu».

Onela, bada, gure seme-alabek iru izkuntza ikasi zituzten: euskera, etxean itzegiten genuana; erdera, eskolan itzegin ta irakasten ziena; eta balentziera, kalean lagunen artean itzegiten zutena. Euzkadi'n gertatzen ez dana gertatzen da an: guztiek itzegiten dutela balentziera ta nai duanak errez ikasi dezakeala. Gaur egun, gure seme-alabek oraindik ere iru izkuntza oien jabe dituzute.

Eta orain ere gure sendiak ortan jarraitzen du. Nere billobek naiz-eta Iruña'n jaio ta bizi, eta aita napar erdelduna izan, ongi egiten dute euskeraz beren 11/12 urteekin.

Nolatan diote, ordea: «Ori oso zailla da! Guk ezin degu ori egin».

Emen ez da miraririk: Saiatuta etsi gabe. Beti ortara adi egon etxean. Aalegindu! Txapeldun izan nai duan kiroltzale baten antzera, ekiñaz, saia-keraz aspertzeko. Iñoiz aaztu gaberik, gaur-gaurkoz ere etxea dala euskal

eskolarik onena. Sendi barruan mallukatu bear dala euskera, gure aitona zaarrak iltzea mallukatzen zuan bezala.

Elbira bezalakoek obekiago egingo dute gero beren lan onuragarria.

UXOLA
Euskeratzaintza koa



Elbiro zanaren gorputzari azlseu 'agurra, viaiiua'ko illerrian, 1982'go Gaboniliaren 27`an, adiskide-talde rñña itKaropenezko otoitzez iaguntzaille. Objeta frantziskotarra, Gaztafiaga, Alcndiola`tar Í liren...atzean !Roberto L. Ltxezarreta.

ATSEDENA IZAN BEGI

Eriotzearen barria beti izaten jaku samiña, baiña ba-dira samintasun au geitzen edo gitxitzen daben zertzeladak. Esaterako, gaztearen naiz gogorkeriaren ondoren lez naiz lankide izan danaren eriotzeak, samintasuna geitu egiten dau; eta sasoi onean eta baketsu, etxeoek ondo begiratuta, joaten diranetak gugan bakea ta itxaropena sortzen dituez.

Bigarren era onetakoa gutzat Zipitria'tar Elbira'ren eriotzea: Sasoi onekoa ta baketsua.

BERMEO 'KO MAÑU'RA

Olako albiste itxaropentsuaz batera, beste jakingarri batek emon euskun zer-pentsau: Elbira'ren gorputza Bermeo'ko Mañu'ra ekarriko eben illobiratzeko.

Baiña zergaitik Mañu'ra? Zergaitik itzi eutsen bere senideai azken-gurari au?

Ba-genkian Elbira andereiñoa Mañu'ko abade izan zan Garitaonandia'tar Gotzon idazlearen adiskide izan zana. Orregaitik ete zan azken-gurari ori? Orrelan izan ba'litz, oker-ulertze bat izan zeitekean. Gotzon abade jator eta euskaldun zintzoaren gorputz illa ez eben Mañu'ko illozian ezarri, bere jaioterria zan Bizkai'ko Urdaliz'en baiño.

Orregaitik, bere senideak &du ziranean, lenengo itauna auxe egin geuntsoen: Nondik sortu ete jakon gurari ori andereiño jator eta jakitun oneri.

Erantzun zeatz egokia: Ez. Beste bat zan Zipitria'ren zioa Sollubegaiñean illobiratzca eskatzeko.

EUSKALERRIKO AMAMA

Bizkaia'n zear TRA'k egin ebazan ibillaldi askoren artean bat, Biz-

kai'ko amama zaarra ikusteko egin eban.

Gotzon bizi zan etxe beratan bizi zan, ain zuzen, «Euskalerra'ko Amama» esaten eutsoen Mendizabal eta Imatz'tar Eskola: 106 urteko andra euskaldun jatorra. Eta 106 urteko andra euskaldun onegaz izan ebazan alkar-izketa luze ta gozoak gauza asko gogoratu eutsoezan El-bira andereiñolari, gure kondaira jakingarriaren zati on bat, gizaldi oso bat, bururatu eutsoan. Orrexegaitik artu eban erabagi orí.

TALDE AUNDIA

1982'ko abenduaren 27'an, eguerdi-inguruan, Sollube-gaiñeko Mañu auzoan giza-talde aundia: Mañu'ko baserritarrak, Bermeo'ko Udal-Batzaren ordezeko eta Jakintza-Batzordeko udalkide bertaratuak, Bermeo'ko beste adiskide ta euskalzale asko, eleizearen aurreko zelaian batuta egozan eta eurakaz batera Bizkai guztitik etorritako adiskideak eta lankideak, batez be Bilbo'koak. Eta Gipuzkoa'tik berebilletan etorritako senide, ikasle ta adiskide asko.

Mañu'ko eleizatxua bete-bete egin zan.

Altaran, Mañu'ko txanburu dan Obieta'tar Jose Antonio Frantzisko'tarra eta bere ondoan Gipuzkoa'ko guztien izenean, Gaztañaga'tar Jesus, bere adiskide ta lankide izandako abadea. Aíta Obieta'k egin eban itzaldi labur eta gozoa euskalzaletasunerako deia egiñez. Eta azkenean Gaztañaga'ren berbalditxu egokia.

Aundikeri barik, apal, otoitz eta anaitasun usaiñaz inguratua izan zan illetea.

ILLERRIRA

Illetearen eleizako ekiñaldia amaitu ondoren, eleizpetik igaro eta illerrirantza abiatu giñan. Eleizpean bertan, Gotzon'en omenezko idazkia daukan oroitarri gogoangarria irakurri genduan.

Gero, maillaka neurki batzuk gora igon ondoren, illerri apalaren atea aurrez eta ate-buruan beste idazki gogoangarri bat.

Eta barruan euskal-illarri asko ta politikak, benetako illerri euskalduna, agertu jakun. Axe zan IRA'k beretzat aukeratu eban azkeneko egoitza. Antxe egoan orain amabost urte gure artetik joan zan Bizkai'ko Amamaren illobia. Eta antxe gertatu eben Elbira'rentzat atseden-lekua. Oraindiño gaiñeko illarria ta idazkia egin barik dagoz. Gallastegi'tar Lander Etxegiña dago arduratuta gomutaki ori gertatzeko eta egun gi-

txi barru ipiñiko dauala uste. dogu, eta IRA'k be Amamaren antzeko gomutakia izango dau, bere gorputz illa illobiratuta dagoan toki auke-ratu aretan.

Azken-otoitza eta azken-agurra egiñez, amaitu zan illetea.

BAKEA TA LANA

Ostean, adiskideak agurtzea ta alkar-izketa samurrak, dana bake-gi-ro pozgarrian.

Geienen agotik olako esaldiak entzuten genduzan: IRA'k jarraibidea emon dausku bakean eta alkartuta lan egiteko, batez be euskerearen eta Euskalerriaren aldezko ekiñaldietan.

Ez zan Elbira gogorkerizko jokabideen lagun, ez zan euskaldunen arteko naste ta setakerien gogoko. «Noiz amaituko dira gure artean zatiketak eta burrukak?» esaten eban.

Eta lan orretan gogotsu ekiteko berbea emon ebenak be izan ziran an egun gogoangarri aretan, batez be euskal-jakintzaren aldeko lan bakesua egiteko berbea emon ebenak.

Eta ekiñaldi itxaropentsu au amaitu ondoren, sarritan entzuten dogun «Zoaze Jaunaren bakean» esaldia gogoan genduala, bakoitza bere lanera.

Atsedena izan begi bakean, gure lankide ta adiskide Zipitria'tar Elbira andereiñoak.

OLAZAR'tar MARTIN'ek
Euskeratzaintza'koa

IV

ESKEIÑITAKO LANAK

IZAR BATERI

*Aingeru baten magalean
aur-amesak izan zituan,
itsasoak laztandutako
eguna joaten dan orduan
eta izartxoek krisailluak
piztuten dirala zeruan.
Kaioen musuak,
itsasoko aparrak,
Zumaia'ko ondarrak
Bizi ta gartsuak.
Txikia ta apala zan soñez,
erri-maitasunez aundia,
itzaletan izan genduan
gabeko artizar gidaria
gure artean sakabanatuz
irakaskintzaren azia.
Joan da isillean
bizitza bidetik,
joan da gugandik
dei baten jarraian.
Aditu eban biotz-barnean
euskeraren oiu larria;
eriotz-didar etsia zan,
oñaze baten aldarria,
suntsitu nai ez duanaren
erri baten bizi-egarria.
Euskera maitea,
erriko lilia,
Errauskiñe aantzia,
au bai naigabea...!*

*Erein ebazan eskuzabal
itxaropen-amets argiak
piztu zituan umeekan
euskal joran garbi-garbiak,
eta ekaitza sortu zanean
gogoetan dizdir biziak.
Argi-izpi illuntzean
goizaldean izarra,
euskaltasun garra
beti biotzean.
Gipuzkoa'n jaio zan pitxia
Bizkaia'n datza zeru-begira,
isillik joan zan mundutik
eriotz-aindiko aberrira,
baiña gure oroitzean beti
bizi izango da gure Elbira.
Gipuzkoa'n biia
Bizkaia'n izarra,
au gure nigarra
Elbire maitia...!
Agur eta laster arte
andereiño argi ta azkarra,
gurekin izango al da beti
zure ereduaren indarra,
onik atara dagekegun
gure mintzaira maite zaarra...!
Larri dot biotza,
begiak negarrez,
bioatzu oñazez
ai! baten oroitza.*

ZUBIRI'tar IÑAKI
Euskerazaintza'koa

ZIPITRIA-TAR ELBIRE ANDEREÑO

*Itsasoarekin artu-eman aundiko
Donosti ederraren zerupea
daukat gogoan, biotzeraturiko
ainbat ikuspegiren kai aldean,
ta, arrantzu emai z gatzituriko
uriaren portutar ibilbidea.
Bertan, arrantzu ta merkat-ontziak
zumatzeta ustutzezko lanetan;
bertan, igaranezko begirariak,
lilluratuta beingo ikusietan;
kai zoli ta uso egaztariak
ere bertan, aideko urratsetan.
Etsaiz inguratuak geundenean,
orduan, orduan... Zaurituriko
Euskalerraren bizi izatea
ain loturik ta, oinperaturiko
euskerearen egoera, gurutzea
ain mingarri ta gogorra zanean...
Orduan, an... Negar-malkoturiko
frankokerizko gau-aldi luzean.
Euskerea ain zapaldua zegoenean*

*aurrez-aurre, Gaztelupe aldean,
euskal mintzo gozoz goraturiko
urrez topo egin nuen goizean...
Pozez txundituta gelditu nintzen!
Galdetu nik ta, batek, ain ederrik,
argi ta garbi mintzatzen zirean
aurrak, izkuntza odol berriturik,
esan zidan: «Elbire Zipitriaren
ikastolakoak zireala ain zuzen».
Bizi izatezko gogo ta asmoz,
euzko alorreko mendu berriak
ziran bai, udaberriz arnaatuak,
geroko ernai, euskal iturriak,
iraun-elburuz beti-betirakoz
Elbire'k biotz onez landatuak.
Erakusbide eder orren bidez
nire biotzean kanpaiak oskatu
ta, bira-birakatu ziran alai,
Elbire andereñoaren omenez
ta, biotz osoz eskaini nizkan bai,
maitasunezko ainbat loraburu.*

MUNIATEGI'tar SABIN

ZIPITRIA'TAR ELBIRA NERE GOGAMENEAN

Nere andereñoa edo irakaslea izan zan,
Sara erri politean orain dala... urte asko.
Orduan (denbora artan) zazpi-bat urte nituan
bear ba'da... zortzi,
eta «Prefetena»ko goiko gela bakarti ta ixil artan,
joaten ziran ordu, aste ta illabeteak...
Txikientzat oso zan andereño ona ta...
nere anaiarentzat eta neretzat ala bear.
Izadi-zale purrukatua zan eta askotan
joaten giñan mendi ta basoetara...
ikusi ta ikastera...
Gure eskuetan erortzen ziran lore... arraitxo ta mitxirrikak,
oiek ziran libururik onenak...
Eskolakoak baiño gozoagoak...
Geroztik urte asko joan dira...
gauza asko gertatu dira onerako ta txarrerako...
Euskalerrriak aldaketa izugarria egin du...
ez betí gure gustokoa...
baiña ala ta guztiz ere...
gure Sara'ko ibillaldi lilluragarriak Patarran barrena...
Santa Barbara'ra... erre kara... basora...
beti dauzkat gogoan.
Elbira'rekin igaroa igaro bai...
baiña ez da aaztu bear.
Igaroaren lezioa ondo ikasten ba'dugu...
ondo betetzen ba'dugu... gure etorkizuna zorionsua izango da.
Ori askotan etorri zait burura
Kastilla'ko eremu ixil... aundi tristeetan.
Ala izan dedilla... Elbira'k bezala joka dezagun ondo,
zintzo... umil... pake-pakean FEDEAREKIN,
indarkeria ta arrokeria alde batera utzita.

LABAIEN'dar MATXIN



Elbire Andereñoa ta Barandiaran jauna, biak txikian oso aundi.

Sinismenez, euskalzaletasunez, erri-maitasunez biak txit gizaundi. Leen-alditik artu, oraingoan oretu, gerorako girotu, elkar-lanaren frutu.

MIELMARI ERROMESA

Joan dan Dagonillaren azken-egunetan, Aralar'go Mikel aingeruaren santutegian mintzatu nintzan azkenekoz Elbira zanarekin.

Berak maite zuan esaunda bat aipatu zidan eta esanerazi.

Esaunda ori gaur ere Zipitria (Elbira), andereño gogoragarriari eskaintzen diot. Nik gure amagandik, orain dela larogei urte, ikasi nuana. Ona emen, Ataungo izkeran idatzia:

«Munduan beste asko bezela, etxe bateen senar-emazte bi bizi ementzien.

Egun batez eskeko batek atea jo ementzien eta errezatzen asi.

Etxekoandrea irten, azpiko ate zabaldu eta sari ⁺xo bat eman.

Eskekoak ema ementziotzan eskerrak eta galde au eiñ:

—*Zue aurpegie zerbait belun eta triste iruitzen zat: atsekabetue al zaare?*

—*Bai, zerbait bai. Senar emazteak bakarrik gaare, biok urteetan aurrea, eta umeik ez. Ume 'at bagenduke benepain, gero ogei urtekin il bear baluree!* —erantzun etxekoandreek.

—*Nik Jainkoori eingo diot eskaera oi eta zuuk seme 'at izengo zuia* —eskekook esan, eta juun ementzan.

Andi urtea baño leen etxe artako andre-gizonak seme eder bat izen ementzoeen, eta bien barruun zoragarritzko alaitasune sortu ementzizaieen.

Been seme maite orrekin pozez bizi ementzien urteetan.

Ogeigarren urtera iixten ai baitzan Mielmari. Bee aitte-amaak arekin izketan ai zieneen, iñoiz bat-batean ixildu eta triste jartzen ziela igarri motillek. Eta bein baita galdetuuree gurasoai ea zeati ain goibelduik

jartzentzien.

Amak eantzun, esanez: *Mundu ontara etorria zera eskeko baten errezoen bidez eta beak esan zigun sortuko zen aurre ogeiurtean biziko zala; orreati laster ilko ote zean gogoetak goibeltzen gaittu.*

—*Oi ala bada* —esan ementzion Mielmarik— *Jerusalen'go Kristoren obiko elizaa jauteko baimena eman zaieazuia: badakit nundi-noa ibili, leku aietaa iixteko.*

Guasook bildur ementzien ibilaldi luze oi oso neketsue izengo ote zan; gañera gurasook, zaartzaroon sartuuk, ezin beari lagundu. Alaaree, ezin uka been seme maiteari, oneko ain gogoko zoon *sarie*. *Eta al* zoen ondoona soiñekoz eta diruz jantzitta, Jerusalena bideen jarri ementzoon, agurtuuz eta been near-malkoz seme maite aren eskuuk buztiiz.

Abiittu ementzan bada, gure erromes gaztea. Zijoala, eskale 'at irten emenzitzaion.

Zeukeneti zerbait ema ementzion eskaleei. Onek galde: *noa zoatza, gazte?*

—*Jerusalen'a* —eantzun erromesak.

—*Ibilaldi luzea!* —besteak. Eta bere zorroti iru sagar mardul atarata, esan ementzion: *Ar itzazu sagar oek; bidean zu bezela erromes dijootzenak ikusiko dituzu eta oietako bat laguntzat artzea egoki izengo zaitzu, oinbeste bidean bakarrik ibiltzea ez da batere atsegiñ. Nor dan Jaun ona, sagar oon bidez ezautuko dezu. Laun bat eitten dezuneen, eskiñi bear diozu sagar ootako bat esanez: «zati zazu biontzat». Baldin, zati-tzean, irteten bazaiotza bi puska ezberdiñek eta zuri zati aundiena ematen, erromes oi dezu Jaun ona eta beakin juun zaizkie; ez ordea, **puska** txikiena ematen badizu.*

Oi esanda, eskaleek aldein ementzion.

Mielmari gaztea bazijoon beiz ee, juun da juun.

Erromes jantzitako gizon bat ikusi ementzoon eta beaakin bat egin.

Noa zoatz, gazte? —galde ein ementzion gizon arek.

—*Jerusalen'a.*

—*Alkarrekin juun geizke, niiree ara noa-ta.*

- *Otsomazu, beraz.*

Biik abiitu ementzien. Bero eitten baitzoon, Mielmarik sagar bat

eskeiñi ementzion launeeri, esanez ebai zezala mesedez bientzat.

Launek ebai ementzoon sagarra bi puska ezberdiñetan eta gazteei esan: *urteetan goiti nabil ni, zu beiz gaztea zea; barka zaieazu beraz nik puska aundiña jaten badet nee eztarri leor au bustitzen eta ozkirotze ote deaan*. Puska txikie Mielmariiri eman.

Erromes gazteek ikusi zoon baa, beste erromesa etzala laun ona eta laster, ortaako egokiera izan zooneen, aldein ementzoon areandi.

Bazijoon Mielmari bee bideen, juun da juun. Eta ikusi ementzoon beste gizon bat. Onekin ee bat eiñ.

Bigarren onek ee galde: *Noa zoatz, gazte?*

—*Jerusalen'a* —eantzun Mielmarik.

Elkarrekin juun geizke urduun, niiree ara noa-ta.

Zijoatzelaik, Mielmarik eman ementzion sagarra bigarren laun onii-ree. Eta lenengook eiñtzion joku bera eiñ onek ee.

Gure erromes gazteek aldein bigarren launeandi ee.

Bazijoon berriro bakarrik, juun da juun.

Arkitu ementzoon beste gizon bat ee, Jerusalem'a erromes zijoona, eta alkarrekin abiittu ementzien.

Mielmarik eskiñi ementzion ariiree sagarra (azkenekoa), ebai zezala biintzat eskatuuz.

Irugarren laun onek ee ebai ementzoon sagarra, bipuska eiñez: bat aundie eta bestea txikie. Eta esan Mielmariiri:

—*Zu gaztea zea eta bearbada ibillaldi luzeetan oittu gabea; ni berriz zaartua, baiño asko ibilia: orreati zuk jan bear dezu sagar-puska aundiña.*

Urduun Mielmari oroittu ementzan eskaleak beai esan zionazaz eta ezautu, irugarren gizon au zala laun ona eta, oso pozik, beaakin seittu ementzoon.

Biik emenzijoatzen, juun da juun, eunez ibili eta gauez eliz-inguru-etako kanposantuutan lo eiñez.

Gau bateen, kanposantuan lo zeerela, lapur batzuuk etoi emenzi-tzaieen, ezpataz eta makilaz joka, bi erromesak elbarritu eta oori zituen diruuk kendu.

Eune zaaldu zooneen, erromes zaarra juun ementzan gazteen billa eta an, baztar batean, ilda arkittu ementzoon.

Erromes zaar, laun onak, bee baittan ementzion:

—*Mielmari gaixoa, Kristoon obiko elizaa etortzeko itzemana ziñan; juungo zea bai.*

Eta gaztearen soiñe bizkarzorroan sartu eta lepagañeen zoola, abiittu Jerusalem-bidean.

Eune juun da eune etoi, erromes zaarra, bee laun gazteen soiñe bizkarren zoola, iitxi ementzan noizpaitt Kristoon obiko elizaa eta an erre-zook eiñ. Baitta looree, gorputz-ille ondoon zoola.

Goizaldeen asi ementzan jeitzen. Baita arekin batea Mielmariree, lotati esnatzen balitz bezela, jeiki ementzan.

Arrittuta biik. Erromes zaarrak urduun esan ementzion gazteei kanposantu bateen gauzez gertatue eta nola, illik zeona, ekai zoon Jerusalem'go eliza artaa, biziik itzeman zoon ilda gero ee bete zezan. Eta oiuka esan ementzion:

—*Kristok, bea piztu zan toki ontan bertan zuuree piztu zaitu, Mielmari!*

Au entzuteen, Mielmari oartu ementzan bea iI zuten cuneen bete zittuula ogei urte eta bea sortu baiño leenau amak eta eskekook esan zoenena burutu zala.

Bi erromesak pozez eiñ ementzittuen ango elizkizunek, Mielmariñ aitteamaan alde errezatuuz.

Gero itzulbidean jarri ementzien.

Bittarteen Mielmariñ guasook, been seme maitea agertzen ez-ta, beantetsiik, ilda izengo ote zan bildurrez, illen elizkizunek beari egittea emenzijoozten.

Eta ara nun, eun batez, uste gabe, bi erromes ageri: bat been seme maitea. Ue poza eta atsegiñe! Zeruun zeerela emen ziduriñ.

Erromes zaar eta lagun onak adierazi ementzien bideko gertaera eta mirariik, eta, bee lekura juun bear zoola-ta, aldeñ ementzoon.

Senar-emazteek, been semeekin, zorioneen luzaro bizi izen ementzien.

Oi ala bazan sartu deilla kalabazan eta irten deilla Bitorii'ko plazan.»

BARANDIARAN'go JOXEMIEL
Ataun'en 1984'go garagarrillaren 7an



Barandiaran jaunaren etxean, begiak beti argi, zorrotz ere bai bes-
teak eta gauzak ezagutzeko, aldi berean dizdiratsu, zeukan argia za-
baltzeko.

ROUSSEAU ETA ALTUNA

Mende bikaiña izan zan Euskalerrian XVIII'gn mendea, yakintzen arloan beintzat.

Baziran orduan Azkoiti'n iru zaldun ospetsu: Altuna'tar Iñaki Imanol, Egia'tar Jokin Mirena, eta Munibe'tar Xabier Mirena, Peñaforida'ko Kontea, azkeneko au. «Azkoiti'ko Zalduntxo» «Los Caballeritos de Azkoitia» ipiñi zien izentzat irurei Isla Aita iñakitarrak; eta iruen artean osatzen zuten taldeari, «El Triunvirato de Azcoitia»: «Azkoiti'ko Irukotea».

Zaldun aietako bat artu nai nuke gaur, nere jolas-aldi onen gaitzat: Altuna'tar Iñaki Imanol, Rousseau'ren adiskide miña.

Agian ez duzute guztiok jakingo Rousseau Euskalerrira etorri naiean ibilli zala. Eta, ez, gure erriari ikustalditxo bat egiteko bakarrik, ez; betirako emen bizitzeko asmotan baizik.

Badakit galde kilikagarriak sortu zaizkizuela gogoan Rousseau'ren etorrera orren berri entzutean: Bi auetxek bai beintzat:

—«Nolakoa izango ote zan gaurko Euskalerra au, Rousseau emen bizi izan ba'litz, eta bere idaztiak eman argitaratu, eta bere erakusketak emen zabaldu ba'litu?»

—Edota, nolakoa izango ote zan Rousseau bera, eman eusko-giro kristauean bizi izan ba'litz?»

Erantzunik ez duten galderak; ez bait-zan, azkenean, onera etorri! Eta, ez berak nai izan ez zualako; etorbidea moztu zitzaiolako baizik. Zorroak loturik zeuzkan bidera irteteko eta pozik so-egiten zuan Euskalerrari begira. Eriotzak galerazi zion bere asmo kutun aiek mamitu aal izatea: adiskidearen eriotzak.

NOR ZAN ALTUNA?

Azkoitiarra zan adiskide ori: Imanol Altuna, Rousseau'k izan zuan

lagunik jatorrena, zintzoena ta maiteena.

Eraspen aundia zion Rousseau'k Altuna'ri, eta baita bildurra ere, laister ikusiko dugunez. Ez zan beintzat Jean Jacques Rousseau, naiz XVIII'gn mendeko idazlerik iaioena bera izan, Altuna'rekin gai sakonak eztabaidatzen astera ausartu ere egiten. Itzal aundiko gizona zan noski azkoitiar ura.

Ala ta guztiz, ezer ez dakigu Imanol Altuna'ri buruz. Soilki, Azkoiti'n' jaio zala 1722'an eta Azkoiti'n il zala 1762'an. Gazterik joan zitzaigun, 40 urte besterik ez zituala.

Lau gizonek emanak ditugu Altuna'ri buruz dakizkigun albiste guztiak. Auexek dituzu lau gizon oiek: Menendez Pelayo, Munibe, Isla, eta RRousseau bera.

Dirudianez gizon aundia bait zan Altuna'tar Imanol azkoitiarra, egoiki iruditu zait lau gizon oiek damaizkiguten albisteak zure begien aurrean ipintzea, Zipitria'tar Elbire andereño maitagarriaren omenez.

Benetako euskotarra izan genduan Elbire; euskaldun eta euskerazale garaienetakoa, Euskerazaintza'ko euskerazain deduzkoa, «Nork, Nori, Nor» aditz-erakuskeraren asmatzaillea... ta, beste edozer gauzaren gaindik, kristau zintzo bikaiña!

Atsegin artuko zuan, bai noski, Elbire Andereño yaukalkak, euskaldun bati buruz Argikuntza-aroko oldozlerik ospetsuen eta idazlerik goxoenak idatzi zuana irakurri aal izan ba'lu. Batez ere, erlijio-gaietan ain baldarki ibilli zan oldozle ospetsu eta idazle goxo arek, euskotar aren kristautasunari buruz dioskuna entzun aal izan ba'lu.

Elbire'ren oroia gogoan dudala, aurkezten dizuet Altuna'ri buruzko lan koxkor au. Elbire gogoan duzutela irakurri eidazute zuek ere, eta bere oroipenak sortu beza zuengan Euskerarekiko maitasun sendoa.

* =I= =I=

Lau gizonek itzegiten digute, Altuna'z, lentxeago esan dudan lez: Rousseau, Menendez Pelayo, Isla eta Munibe'k. Asi gaitezen Rousseau'k esaten digunetik.

Altuna'ri buruzko izketarik luzeenak, «Aitorpenak» edo «Les Confessions» deritzan liburuan damaizkigu Rousseau'k. Ikus aren itzak, euskeraz aurrena, eta prantzeraz gero.

Benezi'n, urte baten luzaroan jasan zituan ezbearretaz itzezin ondo-

rean, onela mintzatzen zaigu Rousseau:

«Bizkaitar bat ezagutu nuan Benezin; De Carrio nere adiskidearen adiskide zan, eta gizon zintzo guztiena izateko duin; jakintza eta onbide guztietarako gai jaiotako gizaseme gazte maitagarria. Ertiarekiko zaletasuna lortzearen, Itali-zear ibillaldi bat egin berria-zan, eta zuzenean bere aberrira itzultzekotan zegoan, geiago zer ikasirik ez zualaren ustean.»

J'avois fait connoissance á Venise avec un Biscaien, ami de mon ami de Carrio, et digne de l'être de tout homme de bien. Cet aimable jeune homme, né pour tous les talents et pour toutes les vertus, venoit de faire le tour de l'Italie pour prendre le goût des beaux-arts; et, n'imaginant rien de plus á acquérir, il vouloit s'en retourner en droiture dans sa patrie.

«Jakintzetarako eratua zala bere izakera esan nion nik, eta ertia ez zala beretzako atsedeen-aldi baizik. Eta jakintzetarako zaletasuna esnakerazteko Paris'era joanda, *an sei illabetez bizitzeko aukua* eman nion. Aintzat artu nindun; eta joan zan Paris'era. An zegoan, nere zai egon ere, aruntz iritxi nintzanean. Bere bizitokia, aundiegi gertatzen zitzaioke-ta, erdia eskeiñi zidan. Baita nik artu ere.»

Je lui dis que les arts n'étoient que le délassement d'un génie comme le sien, fait pour cultiver les sciences; et je lui conseillai, pour en prendre le goût, un voyage et six mois de séjour á Paris. Il me crut et fut á Paris. Il y étoit et m'attendoit quand j'y arrivai. Son logement étoit trop grand pour fui; il m'en offrit la moitié; je l'acceptai.

«Buru-belarri jakintza goikoenetan sarturik aurkitu nuan. Ez zuan gai ulerteziñik. Azkartasun arrigarriz, oro irentsi ta oro egiten zuan bere.

Bai benetan eskertu ninduala, bera oartzeko, jakin-bearrak samin-durik zeukan bere adimenari, orrelako jakia eskeiñi niolako! A, nolako jakiturizko eta onbidezko altxorrak aurkitu nituan nik gogo bikain argan! Berealaxe igarri nuan ura zala falta zitzaidan laguna, eta elkarren adiskide miñak egin giñan.

Je le trouvoit dans la ferveur des hautes connoissances. Rien n'étoit au-dessus de sa portée; il dévorait et digérait tout avec une prodigieuse rapidité. Comme il me remercia d'avoir procuré cet aliment á son esprit, que le besoin de savoir tourmentoit sans qu'il s'en doutât lui-même! quels trésors de lumières et de vertus je trouvai dans cette ame forte! Je sentis que c'étoit l'ami qu'il me falloit: nous deinmes intimes.

«Ez giñan gauza berdiñen zaleak. Sarri sortzen ziran eztabaidak. Setatsua biok..., ez giñan beiñere ezertan aburu batera etortzen. Ala ta guztiz, bata bestearengandik ezin aldendu! Batak bestea zirikatzen betil, baiña biotatik iñork ere ez zuan naiko bestea izaeraz aldatzea.

Nos goûts n'étoient pas les mêmes; nous disputions toujours. Tous deux opiniâtres, nous n'étions jamais d'accord sur rien. Avec cela nous ne pouvions nous quitter; et, tout en nous contrariant sans cesse, aucun des deux n'eût voulu que l'autre fact autrement.

«Bere aintzarako gutxiegi, baiña Españi'k bakarrik sortzen dituan oituraz-kanpoko gizon oietako bat zan Iñaki Imanol Altuna. Bere sorterrian ain ugariak diran griña zakarrik ez zan beragan. Apentzazko burutapenek ez zuten aren adimenean sarrerarik; ezta aren biotzean apentzazko asmoek ere. Esker geiegi zion bere buruari apentza-zale izateko. Ez dala irainketaz gogoia urduritu lezaiokean gizakumerik, esan oi zuan odol otzez mintzatuz. Askotan entzun izan diot ori.»

Ignatio Emanuel de Altuna étoit un de ces hommes rares que l'Espagne seule produit, et dont elle produit trop peu pour sa gloire. Il n'avoit pas ces violentes passions nationales communes dans son pays; l'idée de la vengeance ne pouvoit pas plus entrer dans son esprit que le désir dans son coeur. Il étoit trop fier pour être vindicatif, et je l'ai souvent odi dire avec beaucoup de sang-froid qu'un mortel ne pouvoit pas ofenser son ame.

«Emakumeekin, beraxkeririk gabe, adiguritsua zan, eta ume politak bait liran jostatu oi zan aiekin. Bere adiskideen maitaleekin txantxetan ibiltzen ba zekian, baiña nik ez diot sekulan maitalerik ikusi; ezta bat izateko gogorik ere. Biotza kixkaltzen zion zinzotasunaren galdak, ez zien griñetako sukarrei piztu aal izaterik uzten.

Il étoit galant sans être tendre. Il jouoit avec les femmes comme avez de jolis enfants. Il se plaisoit avec les maitresses de ses amis; mais je ne lui en ai jamais vu aucune, ni aucun désir d'en avoir. Les flammes de la vertu dont son coeur étoit dévoré ne permirent jamais á celles de ses sens de naitre.

«Ibillaldi oien ondorean, ezkondu egin zan; gazterik il da; utzi ditu umeak; eta ziur nago —nere izateaz bezain ziur—, bere emaztea izan dala maitasunaren atsegiñak sentiarazi dizkion aurreneko emakumea; eta barkarra!

Kanpotik, edozein españiar bezain eraspentsua zan; barrendik orde, aingeru baten antzekoa zan aren gogo-bizitza!

Neroni izan ezik, ez dut inoiz beste bat, ura bezain gizon zabalik eza gutu. Erljio-gaietan besteek nola pentsetzen zuten ez zuan sekulan galdetu. Adiskide bat judu, ala protestalari, turkitar, iraultzalari ala jainkogabea izan, ez zitzaion ajolik, adiskide ori gizon zintzoa ba'zan.

Garrantzirik gabeko arazoetan, setatsua zan, bereari eutsia; baiña erlijio eta moralitateari dagozkionetan, bere baitara biltzen zan eta ixilitzen zitzaigun, auxe bakarrik esanaz: «soilki nere buruaz dut erantzunbearra».

Aprés ses voyages, il s'est marié; il est mort jeune: zl a laissé des enfants; et je suis persuadé, comme de mon existence, que sa femme est la première et la seule qui lui ait fait connoître les plaisirs de l'amour. A l'extérieur il étoit dévot comme un Espagnol, mais en dedans c'étoit la piété d'un ange. Hors moi, je n'ai vu que lui seul de tolérant depuis que j'existe. Il ne s'est jamais informé d'aucun homme comment il pensoit en matière de religion. Que son ami fût juif, protestant, Turc, bigot, athée, peu lui importoit, pourvu qu'il fût honnête homme. Obstiné, tétu pour des opinions indifférentes, des qu'il s'agissoit de religion, même de morale, il se recueilloit, se taisoit, ou disoit simplement: Je ne luis chargé que de moi.

«Sinistu ezin genezakean gauza da, baiña orrelako gogo garaitsu ura xeetasunik txikerrenekiko maitasunarekin elkartua zegoan. Aurretik eratu ta erabakitzen zituan egun bakoitzaren aldiak, orduz ordu, ordulaurdenez-ordulaurden, eta baita minutuz-minutu ere.

Zeazki betetzen zuan gero eraketa ori: lerro bat irakurtzen ari zala jotzen ba'zion orduak, lerro ori amaitu gabe itxiko zuan liburua.

Orrela ebakitako asti oietan baziran gai au ikasteko edo beste ori aztertzekeo aldi bereziak, baita oldozketarako ere; jolaserako, elizaren oititzerako, Locke'rentzako, arrosarioa esateko, adiskideak ikustatzeko, erestirako, margoketarako... Ez esan eraketa ori naasi-eraziko zion atsegin, tentaketa, ala gozaldirik. Soilki eginkizun astun batek lortu zeza kean ori.»

Il est incroyable qu'on puisse associer autant d'élévation d'ame avec un esprit de détail porté jusqu'a la minutie. Il par tageoit et fixoit d'avance l'emploi de sa journée par heures,

quarts d'heure et minutes, et suivoit cette distribution avec un tel scrupule, que si l'heure eût sonné tandis qu'il lisoit sa phrase, il eût fermé le livre sans achever. De toutes ces mesures de temps ainsi rompues, il y en avoit pour telle étude, il y en avoit pour telle autre; il y en avoit pour la réflexion, pour la conversation, pour l'office, pour Locke, pour le rosaire, pour les visites, pour la musique, pour la peinture; et il n'y avoit ni plaisir, ni tentation, ni complaisance, qui pût intervertir cet ordre; un devoir á remplir seul l'auroit pu.

«Nik ere nere ariketa bere egitarau artara antolatatu nezan, asti-zatiketa aiek irakurtzen zizkidanean, parrez asten nitzan, eta, txunditurik negarrez azkenean amaitu».

«Ez zizun inor neka-eraziko; ezin zuan neka-erazalerik jasan ere. Gogorki eraso oi zien, adeitasunaren aitzakiz, neka-eraztera zetorkion gutzietei. Leíatsua zan; ez ordea zitala. Askotan ikusi izan dut asarre; beñere ez, zipoztua.»

Quand il me faisoit la liste de ses distributions, afin que je m'y conformasse, je commençois par rire et je finissois par pleurer d'admiration. Jamais il ne génoit personne ni ne supportoit la gene; il brusquoit les gens qui par politesse vouloient la gêner. Il étoit emporté sans être boudeur. Je l'ai vu souvent en colère, mais je ne l'ai jamais vu fláché.

«Aren aldarte baíño gauza alaiagorik, ezer ez!; olgetan bazekian eta atsegin zitzaion olgeta. *Iaioa zan ortan, epigrametarako doai bizia bait zuan.*

Norbaitek zirikatzen zuanean, zaratalari biurtzen zitzaigun eta izketaren bidez gure zantpatzaille. Urrutitik entzuten zan aren abotsa. Baíña oiuka ari zala ere, irriparrez ikusiko zenduan, ta asarreenik zirudianean ere, etorriko zitzaion gogora danok algaraz ipiñiko ginduan ziri atseginen bat.»

Rien n'étoit si gai que son humeur: il entendoit raillerie et il aimoit á railler; il y brilloit même, et il avoit le talent de l'épigramme. Quand on l'animoit, il étoit bruyant et tapageur en paroles, sa voix s'entendoit de loin; mais, tandis qu'il crioit, on le voyoit sourire, et tout á travers ses emportements il lui venoit quelque mot plaisant qui faisoit éclater tout le monde.

«Bere itxura ez zan españiar batena; ezta bere jitea ere. Zuria zuan

larrua, gorrixkak masaillak; gaztaiñ argiak, ia oraillak, uleak. Aundia eta ondo tajutua, alako gogoarentzat bizitoki egoki izn zedin, alako gorputza!»

11 n'avoit pas plus le teint espagnol que le flogme. 11 avoit la peau blanche, les joues colorées, les cheveux d'un châtain presque blond. 11 étoit grand et bien fait. Son corps fut formé pour loger son ame.

«Biotz eta adimen zuurreko gizon ura, gizakumeen ezagule ura, adiskide izan nuan' Ori da nere buruaren alde adiskide ez ditudanei esan nai diedana.»

«Elkarrekin bizitzea erabaki genduan; ain ederki elkartzen bait gñan biok! Urte batzuetarako Azkoiti'ra joatekotan gelditu nintzan, an, bere sorterrian, berekin bizitzeko. Asmo auen zeaztasun guztiak ondo josiak gelditu ziran bera joan zan egunaren bezperan, ondoen eratutako egitamueterako ere, gizakumeak bere eskuetan ez dauzkan aiek izan ezik.

Ce sage de coeur ainsi que de tete se connoissoit en hommes et fut mon ami .C'est toute ma réponse á quinconque ne l'est pas. Nous nous liâmes si bien, que nos limes le projet de passer nos jours ensemble. Je devois, dans quelques années, aller á Ascoytia pour vivre avec lui dans sa terre. Toutes les parties de ce projet furent arrangées entre nous la veille de son départ. 11 n'y manqua que ce qui ne dépend pas des hommes dans les projets les mieux concertés.

«Ondorengo gertakizunek, nere ezbearrek, bere ezkontzak, eta bere eriotzak azkenik, betirako berezi gaituzte.

Badirudi gaiztoen burutapen beltzak bakarrik irteten dirala aurre-ra. Bete gabe gelditzen dira, beintzat ia beti, zintzoen asmo garbiak.»

Les événements postérieurs, mes désastres, son mariage, sa mort enfin, nous ont séparés pour toujours.

On diroit qu'il n'y a que les noires complots des méchants qui réussissent; les projets innocents des bons n'ont presque jamais d'accomplissement (1).

* >=< >=<

Beste bein ere aipatu zuan Rousseau'k Altuna: Wares'eko Baronesa-ri egin zion eskutitz batean. Ez dut uste aipamen ori ezaguna danik. Agian liburu ontantxe agertuko da aurreneko aldiz Altuna'n egindako aipamen lez. Ara bere mamia:

«Ni, aski ongi nabil osasunez, Paris'era etorri nintzan ezker. Ez zait gaizki etorri, zu bezala ni ere sendagille eta botikarioekin tratu gutxi izatearen zale izango bai-nitzake gaixotasunean. Ala ta guztiz, ez zait falta izan zurearen antzeko istillurik, berekin artu nauan adiskidea gaixo egon bait-da bularretik negu ontan. Nere uste guztien aurka, ondo irten da beintzat. Españiarra da eta aitonen semea, adiskide on eta zabal au; ontasun askoren jabea; bere etxean babes artzeko eske eta eske ari zait, an elkarrekin bizi guztiz filosofian ari gaitzen.

Quant á moi, je me suis toujours assez bien porté depuis mon arrivée á Paris; et bien m'en a pris, car j'aurois été, aussi bien que vous, un malade de mauvais rapport pour les chirurgiens et les apothicaires. Au reste, je n'ai pas été exempt des mêmes embarras que vous, puisque l'ami chez lequel je suis logé a été attaqué cet hiver d'une maladie de poitrine dont il s'est enfin tiré contre toute espérance de ma part. Ce bon et généreux ami est un gentilhomme espagnol, assez á son aise, qui me presse d'accepter un asile dans sa maison, pour y philosopher ensemble le reste de nos jours.

«Bada beragana lotzen nauan zaletasunen («goúts») eta sentimenen kidetasun («conformité») bat; ez diot itzari bere zentzurik eman nai, —eta zuri uzten dizut zergaitik ez igartzeko lana—.»

Quelque conformité de goúts et de sentiments qui me lie á lui, je ne le prends point au mot, et je vous laisse á deviner pourquoi.

Azkeneko lerro auen esanaia oso illun utzi zigun Rousseau'k.

— Altuna'k eta berak zaletasun eta sentipen berdiñak dituztela dío.

— Berdintasun, edo obeto esateko, kidetasun orrek Rousseau Altuna'rekin lotzen duala.

— Kidetasun («Conformité») itz orri ez diola berez duan baliorik ematen. Ez duala itza-itz artzen (ne le prends poit au mot).

— Eta zergaitik ez duan orrela artzen asmatzea, Andrearen kontura uzten duala.

Zer adierazi nai ote zion Baronesari?

Warens'eko Baronesa, bere maitale lizuna zuan Rousseau'k 22 bi urte bete zituanetik. Baronesak 29 urte zituan orduan, eta berak eskeiñi zion bere gorputza. Sei urte leenago, apaiz batek bidalita joan zitzaion

Rousseau, babes eske, bere etxera.

Ez zan Rousseau izan arek izan zuan maitale bakarra. Ez orixe.

Eta bitartean, oso gazterik protestalaritza utzita katoliko egin zan Andre arrigarri ura, protestalariak katoliko egiten saiatzen zan, naiz be-
ra ain era enasean bizi.

Zer esan naí ote zion Rousseau'k orain azkeneko bere itz aiekin?

* >=< >=<

Eta, zalantzarik gabe, Altuna zeukan gogoan Rousseau'k beste lerro
auetan ere, 1747'an Warens'eko Baronesari idatzitako eskutitz batean:

«Comme je nai nulle relation d la cour de l'infant, fe ne saurois que vous exhorter á vous servir des connoissances qui vos amis peuvent vous procurer de ce côté-lá: je puis avoir quelque facilité du plus du côté de la cour d'Espagne ayant plusieurs amis qui pourroient nous servir de ce côté. Jai, entre outres, ici M. le marquis de Turrieta, qui est assez ami de mon ami, peut-etre un peu le mien: je me propose á son départ pour Madrid oil il doit retourner ce printemps, de lui remettre un mémoire relatif a votre pension» (1. c. 150 or.).

Euskeraz:

«Infantearen gortean ez dut ezagunik-eta, zure adiskideek bertan izan dezaketen ezaupideetaz baliatzeko esan besterik ez dezaizuket egin. Españi'ko errege-etxearekin zerbait egiteko erreztasun obean aurkitzen naiz, lagunduko diguten adiskideak asko bait• ditugu an; eta beste batzuen artean, emen bait daukat Turrieta'ko markesa, nere adiskidearen adiskidea, eta agian baita nerea ere. Madrid'en bear du udaberri ontan, eta aruntzarakoan zuk eskatzen duzun sariari buruzko eskari bat berari bidaltzeko asmotan nago.»

Gutun au, Baronesaren beste bati egindako erantzuna da. Beti diruz estu zebillen andre arek, sari bat lortzeko eskaria egin zuan Paris'ko erre-geetxera, eta laguntza eskatuz idatzi zion Rousseau'ri.

«Nere adiskidearen adiskide dan Turrieta'ko marquesa» aipatzen du Rousseau'k. «Nere ADISKIDE» ori, Altuna da, zalantzarik gabe. Are geia-go Turrita'ko marquesa (Turrieta = Iturrieta) euskotarra zan ezkeru.

Eskutitz orren bukaeran, Altuna gogoratzen digu ostera Rousseau'k, Baronesari Frantzi'ko erre-giaaren eztaiak azaltzen dizkionean:

«Je puis en deux mots vous donner une idée de la cour soit par le nombre soit par la magnificence, en vous disant, premièrement, qu'il y avoit quinze mille masques au bal masqué qui s'est donné à Versailles, et qui la richesse des habits au bal paré, au ballet et aux grands appartements étoit telle que mon espagnol, saisi d'un enthousiasme poétique de son pays s'écria que madame la dauphine étoit un soleil dont la présence avoit liquéfié tout l'or du royaume, dont s'étoit fait un fleuve immense au milieu duquel nageoit toute la cour (l. c. 151 or.).»

Euskeraz:

«Errege jauregiaren itxura, jende kopuruari eta apaintasunari dagozkienetan, bi itzetan emateko, zomorro-jaiean amabost milla zomorro bildu zirala esango dizut lendabizi, eta dantza apaïneko jantzien apaintasuna, dantza-antzerkikoa eta gela nagusietakoa berdiñik gabea zala. Emaztegaia eguzki bat zala zion nere españiarrak, bere lurraldekoek oi duten olertiégarrak jota, erreñuko urre guztia urtu zuan eguzkia zala, eta urre-urtze ortatiko ugaldean igeri zebillela gorte guzia.»

«Nere españiar» ori lentxeagoko «nere adiskidea» bera da: Altuna noski.

MENENDEZ PELAIO'REN AITORPEN ARIÑAK

Arritzekoa da, baiña Menendez Pelayo'k ez zuan Rousseau'ren «Aitorpenetako» orri-saill au ezagutu. Ez bait-zukean, bestela, Azkoiti'ko Zalduntxoetaz mintzatzean darabilkian izkerak barka-biderik izango.

Arritzekoa, oro bazekian gizon yakintsu arek Rousseau'ren «Aitorpenak» ez ezagutu izatea!

Egia da, «Historia de los Heterodoxos Españoles» idatzi zuanean, izugarri gaztea zala artean: 23 urteko mutilla!, eta arrigarria dala, naiz ain gaztea izan liburu mardul ortan agertzen digun yakintza oparoa..., baiña geroago ere, gero ikusiko duzutenez berriro mintzatu zan Azkoiti'ko Zalduntxoetaz, baiña ez zuan bere izkera zipotzik era osoan aldatu.

Euskalerriari opaltzen diona izango du eskierki (bestalde ain eder, bikain, eta naroa dan «Historia de los Heterodoxos Españoles» orrek) atalik aulena eta baldarrena. Edozein yakintza-gizoni eskatu dezaiokegun araztasunik eta zeaztasunik gabe idatzia bait-dago.

Altuna ez du aipatu besterik egiten. Bere bi adiskideekin batera aipatzen du. Eta, auek, «Lurraldearen Adiskideen Elkarte»rekin eta Berga-

ra'ko Seminarioa'rekin batera aipatzen dizkigu. Guztiak batean; naasirik, iraduz bezala, bearrezkoak diran bereizketak egin gabe, auzi auetarako ain garrantzizkoa dan baretasunik artzeke.

Eta gero, zuurtasunik gabe zurrunbillo batean naaspildu zituan Zal-dun,, Elkarte, Seminario eta jende aiek danak, kristautasunaren etsaitzat agertzen dizkigu.

Martzelino Menendez Pelayo'ren geziak, zuzenean, Xabier Munibe Peñaflorida'ko Kontearen aurka dijoaz. Ezin ikusi du gizon au. Eta au gaitzestean, gaitzesturik uzten ditu aren bi lagunak ere: Imanol Altuna eta Jokin Egia Narros'ko Markesa («Historia de los Heterodoxos Españoles», Santander, 1947, V, 260'garren orrialdetik aurrera).

Ona, Altuna aipatzen duan esaldia:

«Estableció (Peñaflorida), en su casa de Azcoitia una Academia de ciencias naturales y un Gabinete, al cual concurrían varios clérigos y dos caballeros del pueblo, Don Joaquín de Egía y Don Manuel Altuna, a quienes y al conde llamaba el P. Isla EL TRIUNVIRATO DE AZCOITIA.»

Gero Lurraldearen Adiskideen Elkarteaz mintzatzen danean, auxe diosku:

«Entre aquellos patriotas daba el tono Peñaflorida, cuyas ideas ya conocemos...» (L. C. 266 or.)

Itz oien bidez, leen Peñaflorida'ko Kontearen pentsaera agerturik utzi duala esan naí digu, baiña ez digu egiarik esaten. Leen, bein bakarrik mintzatu bait-da Konteaz, 263'garren orrialdean, eta soil-soilki auxe bakarrik esanez: Kontea «gizon ariña» zala «buruz»; eta «arroxko xamarr». Eta ori ere ez erlijioari buruzko gauzetan; «fisikaren arloan» baizik!

Geroxeago, (265'garren orrialdean), apaiz ez-jakiñek berci ez dagozkien Gauzetan muturra sartzeko izaten duten ausardia salatatzeko, Azkoi-ti'ko Irukoteak idatzitako lerroak aurkeztu ondorean, auxe dio:

«Con estas laicas y anticlericales animosidades, que sin ton ni son mezclaban aquellos caballeros con sus lecturas de la física del abate Nollet, y sus experimentos en la máquina neumática, no es de extrañar que recibiesen con entusiasmo la nueva de la expulsión de los jesuitas y trataran de aprovecharla para ir secularizando la enseñanza.»

Ez du Menendez Pelayo'k arrazoirik:

— Zalduntxo aiek ez ziran «anticlerikalak» ots, eliz-jendearen etsaiak. Ain zuzen Euskalerriko apaizek pozik artu zituzten Zaldun aien ariketak, eta, auek, Zaldunak, apaiz aien lagun zintzoak izan ziran.

— Ez ziran «laizistak» ere; ez ziran «apaizik gabe» lan egiten asteko zaleak. Lurraldearen Adiskideen Elkartean, ugari sartu ziran euskaldun apaizak, eta gogorik onenarekin egin zuten bertan lan.

— Ez zuten zaldun aiek erakusketa sekularizatzeko asmorik, ots, erakuskintza ez-apaizen eskuetan bakarrik ipintzeko asmorik. Bergara'ko Seminarioan, erretore apaiza izan zan; eta ikasleen kristau eziketa ederki eraturik zegoan ikastetxe arten.

— Iñakitarren erbesteratzea pozik artu zuten edo ez, ez dakigu. Dana dala Menendez Pelayo'k kontuan euki bear zuan gauza da, onako auxe, Azkoiti'ko Zaldunak aien etsaiak zirala esan baiño leen: Españietan iñakitarren etsaiak zirala iñakitarrak berak ez gaiñeko fraile guztiak; eta baita gotzaiak ere. Arrigarriak dira —eta lotsagarriak—, gotzaiak orduan idatzi zituzten gutun pastoralak. Agian, gure Zaldun auek ez ziran iñakitarren etsaiak. Iñaki Deunari opaldu zion beintza Peñaforida'ko Konteak sortu-berria zuan Elkartea.

— Bergara'ko Seminarioa iñakitarren ikastetxean ipiñia izateak ez du ezer esan nai. Utsik zegoan ikastetxe ura, iñakitarrak 1767'an atzerriatuak izan ziran ezkerok. Ba zeramazkian urte batzuk utsik. Ia amar urte utsik. Erriari on egiteko, utsik zegoan etxe batez baliatu besterik ez zuten egin Zaldunek, an 1776'ean Seminarioa ezarri zutenean, Prailleek berek ere, beste toki batzuetan egin zuten gauza bera.

Azkoiti'ko iru zaldunetan, bear ba'da Egia'tar Jokin Narros'ko Markesa zan otzena erlijio gaietan. Baiña egitan kristau bera ere. Ba-dakigu Voltaire eta beste «filosofoen» liburuak irakurtzeko Erroma'ra eskatu zuala baimena. Eta baita Peñaforida'ko Konteak ere, irakasleentzat Bergara'ko Seminarioko liburutegian Frantzi'ko Entziklopedia jartzeko. Eta Erroma'tik baimena etorri zitzaion arte, Bergara'ko Donekepa'ren Parroko-etxean euki zituan Entziklopediaren ale guztiak.

Zillegi al da gizon auei kristau ez ziralaren iraiña aurpegira botatzea? Kristautzat euki zituan erriko jendeak, Kristautzat euki zituzten apaizek; kristau bezela il ziran danak, eta ala izan ziran obiratuak ere.

Ulert-eziña da Marzelino Menendez Pelayo santanderdarrak Euzkadi'ri izan zion gorrotoa. Euzkadi, España ez izateak ematen zion miña; eta Euzkadi'k España izan nai ezak.

«Cuando vencidas nuestras armas en la guerra con la república francesa en 1794, llegaron los revolucionarios hasta el Ebro, pequeña y débil fue la resistencia que en el camino encontraron» (1. c. 266 or.).

Ez da egia, Don Martzelino. Zuk diozun «pequeña y débil resistencia» ori baiño askoz latzagoa da, —zurretzat—, Euskalerrian orduan gertatu zana: Napparroa'k eta Araba'k ez zioten Frantzi'ko Errepublikari gudarik egin; Bizkaia'k, bai; baiña frantziarrak garaille irteten zirala Bizkaia'k ikusi zuanean., España'ko Erregeari eta Madrid'ko Jaurilaritzari ezer esan gabe, Frantzia'rekin pakeak egin zituan eta frantziarren buruzagia, Monco jenerala, Jaurle izendatu. Makurragoa izan zan oraindik —zurretzat—, Gipuzkoa'ren jokaera: Gipuzkoa'k Getari'ko Batzar Orokorrean España'rekingo elkarteak autsita, Frantzia'rekin elkartzea erabaki bait-zuan.

Ori zeneukan zuk gogoan, Don Martzelino, España-gurtzaille orrek, Azkoiti'ko zaldunak eta orduango beste euskaldun «argituak» ain era zakarrean orbandu zenituan.

Ta Zaldun aien «antiklerikalismoa» egiztatzeko aurkezten duzun «Los Aldeanos Críticos»tik artu duzun zatia, garai artako gaztelerazko libururik atseñinetako baten zati polit bat besterik ez da. Ikus:

«Ya sabe vuestra merced que esto de teólogo en España es lo mismo que hombre universal... Si un caballero tiene que entrar en alguna dependencia política, primero lo ha de tratar con el teólogo; si un comerciante quiere hacer compañía con otro o hacer algún asiento con el Rey, ha de ser después de haberlo consultado con el teólogo; si hay que formar alguna representación al soberano, lo ha de firmar el teólogo; si es cosa de extender un testamento, venga el teólogo... Mire vuestra merced ahora qué papel haremos nosotros que, como ellos dicen, no somos más que unos pobres CORBATAS, y qué otro fruto sacaremos sino el que nos trate el vulgo de HEREJES y ATEISTAS» (1. c. 264 or.).

Egia diote Zaldunek. Gaur ere zenbat aldiz egon bear izaten dugu apaizok gure jendeak ekartzen dizkigun milla motatako arazoak abegi goxoz entzuten! Ez gaitu orrek asarretzen. gure eginkizuna jendeari laé^suntzea dalako; eta jendea gugana edozertarako etortze orrek, jendeak gugan duan uste ona adierazten dualako.

* * *

Igaro gaitezen oster, Don Martzelino'ri agur eginda, Jean Jacques Rousseau'rengana, eta agertu dezagun, euskeraz eta frantzera, Altuna'ri idatzi zion gutun arrigarria: 1748'go Ekainillaren 30'ekoa da. Paris'tik idatzia ta onela dio:

«Bizitzan itxaropen bakarra izan dudun guraria oroitu didazu. Ez duzu nolanaiko estualdian ipiñi nere barrena!

Iñoiz baiño bearragoa zitzaidan asmo ura mami biurtzea, bai garraztasunak jotako nere biotz doakabearen atsegiñerako, eta baita nere gaitasunak eskatzen didaten atsedenerako ere.

Baiña naiz edozein gauza gerta, nik ez dut zorionik nere adiskidea itxurak egiteaz atzipetzearen truke iñoiz erosiko.»

A quelle rude épreuve mettez-vous ma vertu, en me rappelant sans cesse un projet qui faisoit ¡'espoir de ma vie! J'aurois besoin plus que jamais de son exécution pour la consolation de mon pauvre coeur accablé d'amertume, et pour le repos que demanderoient mes infirmités; mais, quoi qu'il en puisse arriver, je n'achèterai pas une félicité par un lâche déguisement envers mon ami.

«Gai bati buruz nere sentimentuak nolakoak diran badakizu: Aldaeziñak dira. Oarmenetik eta egiztapen ugarietatik sortuak bait-dira. Ez dugu, bada, edozein oldozkera ontzat artzeko, oiek beste biderik.»

«Izan ere, nere adimenaren aalmenen gaindik dauden gauza asko erakusten dizkit sinismenak, baiña ala ta guztiz, adimena da, bereiziki, nere burua sinismenera makurtzen didana.»

Vous connaissez mes sentiments sur un certain point; ils sont invariables, car il sont fondés sur l'évidence et sur la démonstration, qui sont, quelque doctrine que l'on embrasse, les seules armes que l'on ait pour l'établir. En efeit, quoique ma foi m'apprenne bien des choses qui sont au-dessus de ma raison, c'est, premièrement, ma raison qui m'a forcé de me soumettre á ma foi.

«Ez gaitezen, ordea, eztabaida auetan naasi. Zu mintza zindezke; ni, ez. Abantail aundeigia, zurea.

Zuk, onginaia eraginda bai noski, nere egoera ontatik atera nai nauzu; nik ordea, bearrezkoa dudala uste dut zu zurean uztea, barren-pakerako ona duzulako; eta, era berean, geroko zorionerako egokia; uste

onez ba'zaude, beintzat; eta *kristautasunaren agindu jainkotiar gurenak betetzen ba'dituzu.*»

Mais n'entrons point dans ces discussions. Vous pouvez parler, et je ne le puis pas: cela met trop d'avantage de votre côté. D'ailleurs vous cherchez, par zèle, à me tirer de mon état, et je me fais un devoir de vous laisser dans le vôtre, comme avantageux pour la paix de votre esprit, et également bon pour votre félicité future, si vous y êtes de bonne foi, et si vous vous conduisez selon les divins et sublimes préceptes du christianisme.

«Dana dala, badakuskezu, gure artean, gai au jorratzea debekaturik dagoala.

Batez ere, aurkeztu dituzun egi arrunt oiek sarri aztertuak dituala sinistu aal izateko aiña uste on zure adiskide onen bioz-adimenei ez eiezu beintzat ukatu.»

Eta naiz nere jarduera beste era batekoa izan, sinista eidazu nere pentsaera, zintzotasunean, zurea baiño makurragoa ez dala, eta Jainkoarentzat zure ori bezain atsegiña ere badala.

Vous voyez donc que, de toute manière, la dispute sur ce point-là est interdite entre nous. Du reste, ayez assez bonne opinion du coeur et de l'esprit de votre ami pour croire qu'il a réfléchi plus d'une fois sur les lieux communs que vous lui alléguiez, et que sa morale de principes, si ce n'est celle de sa conduite, n'est pas inférieure à la vôtre, ni moins agréable à Dieu.

«Aldakaitza nauzu beraz gai ontan. Samiñik ikaragarrienak eta erioztaren urbiltasunak, nere Egillearen altzoan zurekin batera jardetsi-begira nagon betiko zorionaren itxaropena sendotu eta gozatu besterik ez didate egiten.»

Je suis donc invariable sur ce point. Les plus affreuses douleurs, ni les approches de la mort, n'ont rien qui ne m'affermisse, rien qui ne me console, dans l'espérance d'un bonheur éternel que j'espère partager avec vous dans le sein de mon Créateur.

Arrigarria benetan eta pozgarria: Menendez Pelayo'tar Martzelino'k sinisgabetzat zeukan Zaldun ura bera, Jean Jacques Rousseau sinispenerako irabazi naiean zebillen! Egin ote zuan sekulan beste orrenbeste Don Martzelino'k berak?

Zoritxarrez, ez dugu ezagutzen Altuna'k Rousseau'ri aurretik egin zion eskutitza. Egin zuan Altuna'k baiña idazti ura, eta seguruaski baita bat baiño geiago ere, Rousseau'renak argi adierazten bait-du erantzun bat dala; eta idatzia dagoan erak, Rousseau'k gutun bakar bati ez-baiña, Altuna'ren ariketa luze bati erantzuten diola ere, ikustarazten bait-digu.

Rousseau'k bildur dio Altuna'ri. Arek aurkezten dizkion arrazoieta ez du mintzatu nai. Arekin teologiaz eta filosofiaz eztabaidan sartzera, ez da ausartzen Argikuntzako filosofilaririk ospetsuena! Gaur-egun arteko politika liberalaren asmatzaille izan zan gizona! Ez zan noski Altuna nolanaiko mutilla!

Altuna'ren eskutitz ura ezagutzen ez dugulako, ez dakigu ziur Rousseau'k bere «asmoak» gutunaren asieran aipatzen dituanean, zer asmoz mintzatzen dan. Badirudi, ala ere, «asmo» aiek erlijioarekin zer ikusirik izan zutela.

Rousseau'ren eskutitz au ez zan beste bere eskutitzekin batean aurkitu. Apaiz oratoritar batzuen etxean aurkitu zuten, Rousseau beraren oartxo idatzi batekin batera. (Oratoritarrak, Frantzi'n Berulle Kardenalak sortutako «apaiz elkartu» batzuk dira. Berulle'k, Itali'n Donefelipe Neri'k egin zuana bera Frantzi'n bir-eratu besterik ez zuan egin.)

Onela dio Rousseau'k Oratoritarrei «Emile» bere liburua eskeintzerakoan, 1762'go orrillaren 29'an idatzitako oartxo artan:

«J. J. Rousseau prie messieurs de l'Oratoire de Montmorency de vouloir bien accorder á ses derniers écrits une place dans leur bibliothèque. Comme accepter le livre d'un auteur n'est point adopter ses principes, il a cru pouvoir, sans témérité, leur demander cette faveur.»

Euskeraz: «Montmorenzi'ko Oratorio'ko Jaunei beren liburutokian bere azkeneko liburuei toki bat egiteko, arren, eskatzen die J. J. Rousseau'k. Liburu bat jasotzea ez da egillearen gogobideak jasotzea. Orregaitik uste izan dut, an, ausardikeririk gabe eskatu nezakean mesedea nuala».

Altuna'ri idatzitako gutuna Oratorio'ra nola joan zanik ez dakigu. Agian, Rousseau'k berak apaiz oratoritar bati gutunaren aldaki bat eman ziolako?

Izan da edestilari bat —bat bakarra—, gutun ori Rousseau'k idatzia ez dala esan duana: Pierre Paul Plan. Bi arrazoi ematen ditu ori esateko:

- Beste orrelako gutun bat Warens andreari idatzi ziola Rousseau'k.
- Rousseau'k ori idatzi zuanean Altuna ezin zitekeala Azkoiti'ra iritxia izan.

Baiña:

— Warens Andreari eskutitz bat idatzi izateak ez du esan nai Altuna'ri beste bat idatzi ez zionik. Ezta gutun bien gaia antzekoa izateak ere. Dirudianez gai ortaz bertaz mintzatu zitzaion Rousseau oratoritar bati ere.

(Beste gauza bat ere esan nai nuke punttu oni buruz: Rousseau'k ez ziola Warens'eko Baronesari orrela gutunik idatzi. Kristautasuna gai zuten gutunak idatzi zituan: oso gutxi; bat edo beste; baiña bat ere ez Altuna'ri idatzi zionaren antzekorik. Ez zan arritzekoa izango Warens Andreari orrelako bat idatzca, Andre ura Rousseau gaztetan katoliko biurtzen saiatua bait-zan. Baiña ez zion idatzi.)

— Eta ordurado Altuna Azkoiti'n ez cgotea ere ez da ezertarako arrazoa. Bideko edozein uritatik, Bordele'tík adibidez, idatzi zezaiokean Altuna'k, eta Rousseau'k Azkoiti'ra erantzun, bere adiskideak etxera iritxi ondorean gutuna artu zezan.

Baiña Altuna Azkoiti'n zegoan. 1748'go Ekainillaren 30'ekoa da gutuna. Egun ortan Altuna Azkoiti'n zala dokumentuen bidez ziur dakigu. Urkijo'k utzi du ori argi eta garbi.

Gaiñera, nork idatzi zezakean gutun ura? Altuna ez zan munduan ezaguna. Ez zuan osperik, norbaitek arentzat Rousseau'ren izenean, sasi-gutun bat idazteko.

Bere ondorengo batek, edo bere adiskide batek egin ote zuan litxerkeri ori aren kristautasuna orban oroz garbitzeko? Ez luke zentzurik. Altuna'ren kristautasuna ez bait-zuan Menendez Pelayo etorri arte, iñork zalantzan ipiñi. Ta Rousseau'ren gutun au, Menendez Pelayo'k «Historia de los Heterodoxos Españoles» idatzi baiño leenago aurkitua da.

* * *

Nondik atera ote zuan Monsieur Plan'ek, Rousseau'k Warens'eko Baronesari beste orrelako gutun bat idatzi ziolaren ustea? Orain aurkeztuko dudan zati ontatik?:

P. S. Vous devez avoir reçu ma réponse par rapport ú M. de Lautrec (1). O ma chère maman! Tairne mieux etre auprès de

D., et etre employé aux plus rudes travaux de la terre, que de posséder la plus grande fortune dans tout autre cas; il est inutile de penser que je puisse vivre autrement; il y a long-temps que je vous l'ai dit, et je le sens encore plus ardemment que jamais. Pourvu que j'aie cet avantage, dans quelque état que je sois, tout m'est indifférent. Quand on pense comme moi, je vois qu'il n'est pas difficile d'éluder les raisons importantes que vous ne voulez pas me dire. Au nom de Dieu, rangez les choses de sorte que je ne meure pas de désespoir. J'approuve tout; je me sommets á tout, excepté ce seul article, auquel je me sens hors d'état de consentir, dussé-je etre la proie du plus misérable sort. Ah! ma chère maman, n'êtes-vous donc plus ma chère maman?, ai-je vécu quelques mois de trop?

Vous savez qu'il y a un cas où j'accepterois la chose dans toute la joie de mon coeur, mais ce cas est unique. Vous m'entendez (l. c. 88 or.).

Euskeraz:

«Lautrec'eko M.-ri buruz, nere erantzuna jaso duzu noski. O nere amatxo maitea! D.'ren alboan, eta munduko lanik gogorrenetara loturik egon naiago nuke beste edozein era batera aberastasunik aundienaren jabe izan baiño!

Alparrrikako gauza da ni beste era batera bizi nindekeala pentsatzen egotea. Aspalditxo esana dizut ori, eta iñoiz baiño tinkoago otan nago orain ere.

Oro berdin zait, abantail onekin, edozein egoeran. Nik pentsatzen dedan bezela pentsatu ezker, ez dakust zailla, esan nai ez dizkidazun arrazoi garrantzitsu oietatik iges-egitea.

Jainkoaren izenean! Eratu itzazu gauzak itxaropena galtzera erori ez nadin eran.

Oro dut onartzen, orora naiz menderatzen, atal soil orri izan ezik. Ez bait-naiz ortarako gauza, zoririk gaiztoenera ez jaustearen truke ere! A nere amatxo maitea! Ez al zera zu nere amatxo maitea? Illabete batzuek geitxoegi bizitu al naiz?

Badakizu badala, gauza bat, biotz osoz onartzera beartuko nindukean baldintza soil bakarti bat. Ulertzen nauzu.»

Rousseau'ren «Lan Guztien» argitarazailleak, oar batean auxe diosku: «Italia'tik itzultzerakoan, 1737'an, Rousseau"ren ardura artuko zua-

la agindu zion Warens andreari M. Lautrec Orleans'ko gudari-taldearen koronelak».

Rousseau'ren lerro auek Montpellier'tik 1737'an Warens andreari idatzi zion gutun bateko «Post Schiptum» dira. Oso zentzu illunekoak baiki, baiña erlijiozko gaiekin zer ikusirik ez dutenak.

— Gutun osoaren gaia, dirua da. Gutun onena, eta baita Rousseau'k bere maitaleari idatzi zizkion beste askorena ere, batzuetan arek oneri eta beste batzuetan onek arri, maiz laguntzen bait-zioten elkarri diruz.

— Lautrec Koronelaren eginkizuna ere, Rousseau'ri diruz laguntzea izango zan eskierki.

— Larri ikusten zuan noski bere burua Rousseau'k, gauzak ondo eratzeko eskatzen bait-dio maitaleari («rangez les choses»), itxaro-faltaz ill ez dedin («de sorte que ne meure pas de désespoir»).

— Rousseau'k ain bildur aundia dion zio («cas») edo atal («article») ura zer zan ez dakigu; baiña, agian, bizitza-aldatzea zan: alderrai-bizitze arlote ura, Rousseau'ri ain atsegin zitzaion biziera zabar ura, aldatzeko eskatu zion, dirudianez, maitaleak.

— Bai ornen zuan Rousseau'k ori ere onartzera eramango zuan baldintza bat, eta maitaleak bai ornen zekian baldintz ori zer zan. Jakin ga-be gelditu bearke dugu guk.

— A! Oartuko ziñan nosik. Rousseau'k, bere maitaleari, «amatxo» esaten dio. Ala esan zion beti. Eta maitaleak Rousseau'ri, «Petit», «Txiki». Orrela esan bait-zioten elkarri, aurreneko aldiz —Rousseau amasei urteko mutiko zala—, elkar ikusi zutenean.

* * *

Gaur ez du iñork Rousseau'k Altuna'ri idatzitako gutun ura benetan Rousseau'rena ez danik pentsatu ere egiten.

Benetakotzat jotzen zuan Menendez Pelayo'k berak ere. Aipatu dugun liburu orren 267'garren orrialdearen oiñean Rousseau'ren gutun onen aldaki bat bait dakusgu. Oar au darama azkenean:

«Copia de letra de D. Carmelo Echegaray, que Menéndez Pelayo conservaba en su ejemplar de HETERODOXOS como documento que hubiera tenido en cuenta cuando hubiera llegado a tratar de este punto en la edición de sus obras completas» (I. c. 268 or.).

Izan zuan Menendez Pelayo'k gutun ori argitara-emateko eta aztertze-ko adiontasuna 1896'ean, Marchena Apaizari buruzko bere idazlana bigarren aldiz argitaratu zuanean. Baiña ez zuan orrelakorik egin. Soilki oar au ipiñi zuan bertan:

«Que Marchena residiera algún tiempo, o como alumno, o como profesor en el famoso Seminario de Vergara, centro principal del enciclopedismo en las Provincias Vascongadas, parece que indirectamente resulta de algunos pasajes de sus obras poéticas» (1. c. «Estudios y Discursos de Crítica Histórica y Literaria». IV, 119 or.).

¡«Centro principal del enciclopedismo»! Ikusi dugu nolako arretaz ibilli zan Peñaforida'ko Kontea, liburu arentzat Erroma'tik baimena lortzeko, eta nola gorde zituan liburuak baimen ura lortu arte.

Ta onela jarraitzen du gure Don Martzelino ospetsuak:

«Que éste (entzikopedikoa) fuera el espíritu de algunos socios y profesores y no el dominante en la Sociedad y el Instituto que formó, puede creerse sin esfuerzo; pero que la difusión de la nueva doctrina en Vergara haya de reducirse a los nombres de Peñaforida y Samaniego, tampoco puede admitirse en vista de tantos indicios que corroboran la tradición en esta parte.»

Ori al da edestia era zintzoan idaztea?

Samaniego'k inkisizioarekin istilluak izan zituan, baiña kristau ona zan pentsaeran, naiz buru-ariñ samarra izan. Peñaforida berriz, lenen mailleko kristaua izan genduan, Altuna'ren kidekoa.

Bere izena berriro loitzeko, «tradizio» bat aipatzen du Don Martzelino'k aoz-aozko albiste bat. Baiña ez du albiste ori ikertzeko ezertxo ere egiten. Besterik gabe, egizkotzat artzen du. Ez digu albiste orren mami-rik ematen; ezta ere ez digu esaten nondik jasoan duan, albiste orren iturria, garbia dan ala ez ikusi aal dezagun.

Ta ori... Edesti eta Elertiari buruzko Ikerketa lan batean! Ala ta guztiz, Don Martzelino da españiarrek izan duten ikerlaririk bikaiñeneta-ko bat. Euzkadi'ri zion gorrotto maltzurak itxutu zuan auzi ontan.

Rousseau'ren gutunaren berri ez emateko, ez ote zuan 1896'an gutun ori ezagutzen?

Ikusi dezagun orain Altuna dala-ta Peñafiorida'ko Konteak eta Franzisko Isla inakitarrak esaten digutena.

Aita Isla, inakitarra, Argikuntzakoan Españi'k izan zuan idazlerik onetakoa da. Ez zuan Españi'k XVIII mendean egiazko idazle aundirik izan. Bearbada, aundiena eta onena, Samaniego arabarra izan zuan, baiña alperrena ere bai; eta, orregaitik, ez zizkigun eman zezezkean zitu guztiak.

Gero, gainarakoen artean, Iriarte ipuilaria aztu gabe, Isla inakitarra izenen zan onetakoa eta atsegiñenetakoa.

Argitaratu-berria zuan Isla'k «Fray Gerundio de Campazas» eleberria; liburu ortan, iru ataletan, «benefiziatu» baten aoz, oso era zakarrean zigortzen zuan, orduan «argituentzat» ain gustoko jakintza zan fisika berria.

Azkoiti'ko Irukotea, berriz, fisika berriaren maitale sutsu izanda, ara non erasotzen dion Isla Aitari «*Los Aldeanos Críticos*» esan oi zaion liburuxka pizkor parregarri baten bidez. Liburuaren izen osoa au duzu: «*Los Aldeanos Críticos, o Cartas Críticas sobre lo que se verá, dadas luz por Don Roque Antonio de Cogollor que las dedica al Príncipe de los Peripatéticos Don Aristóteles de Estagira*. Impreso en Evora, año 1758». (Irakurri nai ba'duzu, ara non aurkitu dezakezun, naiz aski baldarki argitaratua: «Biblioteca de Autores Españoles. Madrid 1850, XV, pág. 367-386.)

Miñ artu zuan Isla'k. Eta naiz liburua gaitzizen batez argitaratua izan, «Don Roque Antonio de Cogollor», jakin zuan nortzuk ziran egilleak, eta Peñafiorida'ko Konteari idatzi zion asarre. Onela asten du bere eskutitza:

«Acabo de recibir el papel titulado «Los Aldeanos Críticos» con que, me consta, me regalan vuestra señoría y los señores D. Joaquín de Eguía y D. Manuel de Altuna. Mil gracias señores, mil gracias. Es muy propio de caballeros tirar el beneficio y esconder la mano. Muy grande es el que he recibido de ese noble y aplicado triunvirato.»

Orra or, lenengo aldiz, Isla'ren luman, «Triunvirato de Azkoitia» esaria; ain ospetsu ginen dan esaria!

Amaitzeko, fisika ikasten saiatu ondorean, «azkenean Azkoiti'ko Akademian deduzko akademikide izateko eskea egingo duala» esaten die Aita inakitarrak Irukotekoei.

Izengoiti baten bidez ziñatzen du Isla'k 1759'ko Ilbeltzaren 13'ko bere eskutitz au: «Don Francisco Lobón de Salazar». (Eskutitza, eta urrengoak, «Los Aldeanos Críticos»en ondorean aurkituko dituzu, aipatu dizugun «Bibl. de Autores Esp. Liburu-Sortan.)

Berealaxe erantzun zion Peñaforida'ko Konteak. Eskutitz ortan, Altuna'k ez duala liburuaren idazketan eskurik sartu esaten digu: ez noski gai ez dalako, liburuaren egille lez agertzen dan Don Roque Antonio de Cogollor berak baiño kritika sakonago eta txukunago bat egin ornen lezake ba! Baiña ez ornen dago eginkizun ortan asteko jite onean. Entzun kontearen itzak:

«Lo que es de D. Manuel Altuna no lo creeré por más que vuestra merced me lo afirme con dos mil «me consta»; no porque este caballero no sea capaz de una crítica mucho más sólida y delicada que la de Don Roque Antonio Cogollor, sino porque sé ciertamente no está de humor de divertirse en estas cosas.»

Eta «Agur» esanez amaitzen du gutuna: «Y, con esto, agur».

Altuna'k eginkizun auetan sartzeko jiterik ez zuala esatearekin, zer adierazi nai ote digu Konteak? Bere erritar ura, ordurako gaizkirik zegoala?

Gutunak ez digu noiz idatzia izan zanik esaten, baiña 1759 artako otsaillean idatzia izan zan. Altuna 1762'an il zan. Makur ote genduan 1759'garren urtea ezkerro?

Urrengo illean, Epaillean, erantzun zion Konteari Isla Aita'k, eta eskutitz artan bazekiala Altuna'k idazti ura «irakurri eta ontzat ez artu» besterik ez zuala egin, diosku. Ona bere itzak:

«Ya me parece estar bastante instruido en que D. Manuel de Altuna no tuvo más parte en la obra que haberla leído y no haberla aprobado.»

Isla'k ez zuan, itxuraz, Altuna'ren oldozkerarik bear bezela ezagutzen. Azkoiti'ko Akademian astelenetan matematikaz, mintzatzen ziran; asteartetan, fisikaz; asteazkena, edestirako izaten zan; ostegun-igandetan, musika ta eresia, izaten ziran nagusi, eta ostiral-larunbatak, garai artako gauzak aztertzeke gordetzen zituzten Azkoiti'ko Zaldunek.

Ta garai artako gauza, eta ots aundikoa bait-zan, Isla Aita iñakitarren «Fray Gerundio de Campazas» eleberria, irakurri eta jorratu zu-

ten sakonki akademilariek liburu ori beren Akademian. Eta beste danak aiña, edo bear ba'da geiago, asarretu zan Altuna, liburu ortan fisikari buruz Benefiziadu baten aoz Isla'k jaurti zituan txolinkeriak entzutean.

Ala erantzuten dio Peñafiorida'ko Konteak Isla'ren bigarren gutunari:

«No sé qué «instrucción particular» puede tener para creerlo así. Lo cierto es que con este caballero (Altuna'rekin) concurrí a la lectura de la «Historia de Fray Gerundio», y tengo muy presente que ninguno se mostró más indignado que él contra el Beneficiado; con que no puedo persuadirme a que no haya él aprobado la obra de los Aldeanos, a no ser por haberle parecido poco eficaz y demasiadamente modesta.»

Gutun ori erantzutean esaten die lenengo aldiz Isla Aitak «Azkoiti'ko Zalduntxo», Azkoiti'ko iru adiskide aiei, «Los Caballeritos de Azcoitia». Gerontzean orixe izan da zaldun aien izena edestia-zear: «Azkoiti'ko Zalduntxoak». Ikus izen orren doña Isla'ren izketan bertan:

«Me acompaña también el Padre Petrisco con quien varias veces se ha hecho en nuestras conversaciones larga y honorífica mención de los «caballeritos de Azcoitia», celebrando mucho su nobilísima aplicación y aplaudiendo poco a los que hablan de ella con desdén o con menos aprecio» (loco citato, pág. 389).

Asarre zegoan Isla, eta asarre idazten dio Konteari, onek adarra jotzen ziola uste zualako.

Asarre zeuden azkoitiarrak ere, «zalduntxo» deitu zielako iñakitar asarretuak. Argi dagerkigu asarre bikoitz ori, Kontearen erantzunean:

«Pues, ¿en qué está el desprecio? ¿Es acaso en llamarle santo eclesiástico? Nadie le dirá tal cosa; y si algún escrupuloso dice que a lo menos ya que no sea desprecio es un sí es no es falta de aprecio, vaya por aquello de «los caballeros de Azcoitia» con que tildaba vuestra reverencia a unos hombres como zamarros, que el que menos es padre de tres hijos.»

Gero, amaitzeko, «tengo yo la culpa de que D. Manuel de Altuna no hubiera desaprobado la obra de los Aldeanos», esaten dio azkenean.

Bai Konteak, bai Aita Iñakitarrek, idatzi zuten beste eskutitz bana, elkarrekin pakeak egíñez, baiña, Menendez Pelayo'ren uztez, bekaizkeri tantta bat gelditu ornen zan Isla'ren barruan: «Les quedó envidioso» (l. c.).

Ez da arritzekoa. Azkoitiarren liburua Isla'rena bezain ona bai baita! Ai, luzexeagoa izan ba'litz! Baiña, zoritxarrez, euskaldunok idatzizaleak ez izaki!

Auxe da, gaurkoz beintzat, Altuna'z dakigun guztia. Ortaz gaiñera ezer gutxi: 1757'an Gipuzkoa'k Etxeberria'tar Xabier Iñaki'ren «*Geometría Práctica Necesaria para Agrimensores*» argitaratzeko aren eta aren adiskide Egia'ren iritzia eskatu zuala. Eta deus geiagorik ez.

Altuna eta Rousseau Jainkoari dagozkion gauzetaz mintzatu zirala, badakigu. Ori adierazten bait digu jinebratarrak azkoitiarrari idatzitako gutunak.

Mintzatu ote ziran bi adiskide aiek erkala edo demokraziaz ere?

Rousseau oso-osoan demokrazi-zalea izan zan. Are geiago: Bera dugu demokrazi liberalaren sortzaillea.

Rousseau'ren demokrazia eta Euskalerriko demokrazia ez dira berdiñak. Rousseau'ren demokrazi liberalak, geiengoaren baimen utsean ipintzen du zintzotasun ororen oiñarria. Geiengoak esaten duana, ona da: arek ukatzen duana, gaiztoa. Ez da ontasuna ala gaiztasuna ezagutzeko beste neurririk aren idatzietan.

Eusko-demokraziarentzat, Izadi-Legea da zintzotasunaren oiñarria. Lege arekin batera datorrena bakarrik da ona; ta Lege aren aurka dagoan oro, gaiztoa da, naiz geiengorik aundienak onartua izan.

Garrantzi aundiko zioa da ori; bai orixe!

Baiña zio ori une batez bazterrean uzten ba'dugu, egizko erkalzale izan genduan Rousseau. Bere zaletasun ortan, zer ikusirik bait ote zuan, —Altuna bitarteko zala— eusko demokraziak?

Badakit zer esango didazuten:

—Ez dugu Rousseau'ren demokrazi-zaletasunaren sustraia billatzeko eusko-demokrazira jo bearrik. Suiza beti izan da demokrazi-zale. Rousseau Jinebra'koa zan. Naikoa da ori Rousseau demokrazi-zale zergaitik izan zan ulertu aal izateko.

—Ez; ez da naikoa, erantzungo dizuet. Suiza demokrazia zan orduan. Eta Rousseau Jinebra'koa zan. Baiña Jinebra ez zan orduan Suiza eta are gutxiago zan demokrazia.

Jinebra atzo oraindik, 1814'an elkartu zan Suiza'rekin. Ordurarte, XI'gn mendea ezkerro Laterri iare izan zan, eta gotzaia zuan, ain zuzen,

laterri-buru Calvin iritxi zan arte. Erdi-aroan, gaiñera, Saboia'ko Duka-terriarekin artueman geiago erabilli oi zuan Jinebra'k Suíza'ko Kantoiekin baiño.

Rousseau jaio zanean, ez zan Demokrazi, Jinebra'ko Uri-Latteria. Calvin bertako nagusi egin zan ezker, Diktadura zan ango jaurkera: aristokrazizko diktadura. Teokrazizko diktadura gogorra. Kalbindarrek osatutako Kontzeju bat zan Jinebra'ko Jaurlaritz.

Argi-argi aitortzen dut Rousseau'ren demokraziaren oiñarritzat eusko-demokrazia ipintzeko arrazoirik ez dala. Ezta bat bakarrik ere. Orre-gaitik, galde utsa besterik ez da nik egiten dudana.

Mintzatu ote zitzaien Altuna Euskalerrri'ko Lege Zaarraz? Gure Lege Zaarraren ezaguerak eraman ote zuan Rousseau demokrazia maitatzera? Altuna'ri zion adiskidetasunaz landa, gure erriaren bizitzeko era obeto ezagutu nai izateak bultzatzen ote zuan Rousseau gure erri ontara ain gogo beroz etorri nai izateko?

Ez da ain zoroa nere galdera. Oroi zazute Wentworth Webster'ek In-glanderrri'ko demokraziaren sustraia, gure demokrazia izan zala diola! (Ikus «Euskaltzaindia, El Batua y la Muerte del Euskera», 92 or.).

LATIEGI'tar BIXENTE
Euskeratzaintza'koa

(1) Rousseau: «Oeuvres». Paris, 1826, bigarren argitalpena; 124'garren orrialdetik aurrera. Manterola'k, itz oiek erderaz argitaratu zituan: «Euskal-Erria», V, 1881 (Orrilla-Dagonilla), 117-118 orrialdeetan.

(1) En revenant d'Italie, en 1737, M. de Lautrec, colonel du régiment d'Orléans, avoit promis á madame de Warens de s'intéresser á Rousseau.

BASAJAUNA'REN AMETSA

Ipuia

Erri asko izan dira, gure mundu txar ontan, «indarra nagusi» oju egin eta auzoko naiz urrutiko lurralde ta jendeak menderatzen aalegindu diranak.

Oien artean, ez ziran atzera gelditu, orain iru-lau milla urteko Grezi eta ErromaTarrak.

Gudari trebeenak, ondo ezi eta ordainduak, gudalburu ikasi ta auserditsuenak aurretik zituztela, ludiaren lau alderdietara atera oi ziran, «zeruak» agindutako eginkizun on bat burutzera dijoazenen antzo.

Gure auzoko Espaiñi'arren lurraldeetara ere orrelaxe urbildu ziran, eta bai laster jabetu ere geientxuenaz. Ez bakarrik lurraldeaz jabetu, bai-ta euren bizi-legea ezarri ere manderatutako jendeari; ots, euren izkera, eziketa, jakintza eta abar, eurak nai eta aal zuten guztia bertan errotuta gelditzeraño, gizaldi eta gizaldietarako.

* >: >:

Auxe bera egin nai izan zuten erromatarrak gure Euskalerrian. Bai lortu ere zati batean. Naparroa ta Araba'ko lurraldeak, geienbat aien eskuetan gelditu ziran.

Gipuzkoa eta Bizkai'ra ere sartzeko asmotan asi ziranean, ordea, kukuak, eurek uste ez zuten tokitik egin zien «ku-ku».

Euskaldunak pizti gogorren entzutea zeukatela-ta, eurak menderatzeko lain indar, gizon, izkillu ta tresna, beren ustez, bildu gabe ez ziran gelditu Erroma'tarrak. Eta bereala asi ziran, gure ibar eta mendiak azpiratzeko indarka: Jo mendarte ertsietatik, eman aran zabaletatik, eraso bizkar eta mendi-gaillurretatik. Baiña, alde guztietan, erantzun berdiña jaso zuten euskal gudarien aldetik: jipoia. Bein eta berriz ere, atzera egin bear, eta ori, aal izan zutenak.

Nola, ordea, Erroma ospetsuaren gudariak, euren asmoak lortu gabe, amur eman?

Ez.

Zeuzkaten indar guztiak bildu, eta Ernio-mendia bein betiko menderatzea erabaki zuten, Erroma'k orrela nai zuala-ta. Uste zuten mendi uraxe zala, Euskal-errian sartu eta gure lurralde guztia eskuratzeko ate zabala.

Ez erabaki bakarrik, baita ekin ere, ustetsu, euren lanari, garaipena laster irixteko asmotan.

Baña, ez ziran igaro Ernio'ko aitzetatik aurrera, ez aien asmoak, eta, gutxiago oraindik, aien guda-gizonak. Antxe, zipriztindu ez baña, erreka biurtu zan ErromaTar gazte ederren odol beroa. Orduan gorritu ornen zan Ernio'ko aitza, aien odolaren amorruak ango belar guztien erroak igartu zitualako.

Orduan sinistu ornen zuten Erroma'tarrak «Euskaldunen lepezamarak ez zuala inoiz ikasiko Erroma'tarren uztarria eramaten». Ez sinistu bakarrik, orrela aitortu ere egin bear izan zuten.

Egi orí aintzat artu eta tamalez aitortu ondoren, bizirik gelditu ziran gudari eta gudalburuak, naiz trebe eta ikasiak, naiz izkillu eta tresnaz ondo jantziak, atzera egin zuten betiko.

Lartaun Oiartzuarra eta bere mutillak izan ziran, Erroma'tarren gangorra eratxi zutenak. Aueri eskerrak, ez zan gelditu Bizkai eta Gipuzkua'ko lur-azalean, Erroma'tarren oiñatzik.

Orrela idatzí aal izan zuan, mendi gañean bertan, olerkari zaarrak:

*«Ernio-mendi, Ernio-mendi,
Euskal-mendietan zaarrena,
Goguan al duk Erromateko
Gure Lartaun'en izena?»*

Bañan, Erroma'tarrak ez ziran gudari, gudalburu eta guda-tresnakin soilki ateratzen, erriak zapaldu eta lurraldeak berenganatzera.

Ba-zuten beste gudalozte bat, oso bereizia, guda-gizonak irixten ez ziran tokietan ere, nola sartu asmatzen zuana.

Zer gudalozte?

Zera! Euren zenba-ezin ala sasi-jainko eta jainkotxoek taldea.

Izan ere, gizona gizonarekin indarrak neurtzen asterakoan, ez daki inork zer gerta daiteken. Orregatik ona da beti jainko-laguntza gaiñetik eukitzea, norbere indarrak uts-emanda ere.

Ori aintzat arturik nunbait, Erromatarrak ere euren jainkoen itza-lean ibilli oi ziran. Jupiter nagusia buru zutela, ez zituzten etxean utziko euren Neptun, itxasoetako nagusla, Pluton lurraren erraietako manatzallea, Herkules bulartsua, eta beste milla jainkotxo, batzuek lan zailletarako besteak eginkizun errezagoen laguntzalle. Bai-ta, opor eta jai-aldietan, nai-aña solas eta jolas eskuratzeko gai ziranak ere. Ontarako zituzten, batez ere, euren Bako, Benus, Afrodite, Apolo eta abar. Auen itzalian jarri ezker, zernai piztikeri, lizunker, ordikeri, danak biurtzen ziran zeruko, danak on, danak zillegi.

Gudalozte bereizi oneri esker, utzi zuten Erroma'tarrak euren kutsua, gure baso eta mendietan.

Indarra, edertasun-itxura, jakinduria eta lasaikeri mota guztiak, jainkotxo oien babesean, eraman zituzten Erroma'tarrak, eurak sartu edo alderatzen ziran lurraldeetara, eta bai gure errira ere.

Emen sartu eta bertako «maitagarri» asko lilluratu ornen zituzten, auekin alkartu eta entzutetsu diran «jentil» gizaundiak sortu.

«Jentil» auek izan zirala, diote, Euskalerrian agertzen diran zenbait arrilan ospetsu, ots oinbideak, urbideak, eta bai-ta gure mendietako baselitz batzuek ere, egin zituzten langilleak. Gizaundi aiek, gau baten, egindako zubiak ortxe daude oraindik zankolaka, gure ibarretako zenbait ibai gañetan.

Jakinduriaz gañera, ikustekoa ornen zan aien indarra. Erroma'ko Eliza añako arkaitz-tontorrek, aballan jarri eta, pilota bezin errez, jaurtitzen ornen zituzten, Aizgorri'tik Jaizkibel'eraño.

Eta orra nola! Indarra alde batetik, jakinduria, eder-itxura, eta lasaikeria laguntzalle, jainkotxo aiek egin ziran gure basoetako zati bazuen jaun da jabe, ots gure «basajaun».

Era ontan, Eusko-jendeek euren buruen jabetasunetik asko galdu zuten. Jentillen baimenik gabe, ezin ibilli ere euren baso-zelaietan. Aukarik ezin egin, igesi ere zailr Bide bakarra gelditzen zitzaien, aiengana-ko mempetasuna garaitzeko, ots, euren buruak zaitu, eta beti gurtu izan zuten Goiko Urtzi'ri otoitz egin. Au izan bait-zuten euskotarrak curen betiko Jainko jator eta bakarra, izaki guztien egille eta jabetzat aitortua.

Ez dago esan bearrik, jainkotxo auek oso arroak zirala. Nola ez ba? Erroma'tar garaipentsuen jainko izanik?

Egun batez, Euskal-erriko basajaunen nagusia, bikain, eder eta lerdena, eguzkia eta ipar aizea artzen zegoen, Jaizkibel gallurreko arkaitz baten gañean, erdi-etzanda.

Ontan, aspaldi bere atzetik zebillen maitagarri eder bat, tximistariak pitzatutako bi pago-erdiren tartetik, begira-begira zegokion, luza-ro, noizik bein barru-barrutiko zinkurin luzeak egiñaz. Antxe zegoen, basajaun ederrak noiz bera ikusiko zai, arek jaurtitako loraren bat noiz entzungo.

Alako baten, basajaunak erdi-bira egin zuan, etzanda zegoen tokian bertan eta maitagarri eder bat, pago-artetik begira zeukala, oartu zan, Baña berriz lengo aldera biurtu zan, ura aintzakotzat artu ez naian bezela.

Bai igarri ere maitagarriak egin zitzaion aintzat-eza, eta une baten ixillik egon ondoren, onela eraso zion basajaunari: Ez al nazu ikusi nai? Ez al didazu ezer esan bear? Ez al naiz ba polita eta maitagarria?

Basajaunak, burua erdizka arengana itzuli eta onela erantzun zion maitagarriari:

—Ba!... Millaka dauzkat nik zu baño politago ta maitagarriagoak an Grezi eta Erroma aldian!...

Orrela mintzatu zitzaion, ez gure basoetako maitagarri ura benetan eder eta zoragarria ere iruditu ez zitzaiolako, baizik-eta, berez arroa izanik basajaun ura, berezko zitzaiolako orrela mintzo bearra.

Aa!, baña gure maitagarria ez zegoen berriketarako. Biziro iraindu eta mindua gelditu zan, itz aiekin. Euskalerriko maitagarrien erregiña ez zegoen gisa artako destañak entzuteko: Grezi'n eta Erroma'n bera baño eder eta maitagarriagoak alajaña!... Igarriko-iok!

Pago artetik urten, eta bere edertasun guztia agirian jarririk, mardikapen au jaurti zion basajaun arroari: «Itxusi arraio» biurtuko al aiz ba, ortxe bertan, i eta ire odoleko guztia, sekula betikorun!

Oiartzun'go plazan entzun ornen zan, Jaizkibel'go maitagarri guztiak batean erantzun zuten «Ameeen!» luzia.

Bapatean, eta antxe bertan, basajaun arroa, eder, lerdan eta bikaiña, artza baño itxusiago eginda gelditu ornen zan, eta orrela iraun berak eta bere endako guztiak, geroko gizaldi askotan, arik eta, euskal-

mendietatik, zearo galdu ziran arte.

* :- :-

Basajaunak bere burua gisa ortan ikusi zuanean, ille-adats luzea azten utzi zuan, erreka-xiorrean somatu zuan bere aurpegiaren izugarria nolabait ere ezkutatzearren. Diotenez, begi bat soilki, bekokiaren erdian zuala, gelditu zan; sudurra zapal; abo aundi eta kokotz-motz. Belarriak, biak ille-adatsaren azpian zearo ezkutaturik zeramazkilako, ez daki iñork, nola gelditu zitzaizkion. Aundi eta lodi, ziur-aski!...

Nola agertu itxura artan, ez gizonen aurrean bakarrik, baizik-eta eta batez ere, eguzkitik begira zeukan, Jupiter, jaingo Erroma'tarraren aurrean?

Ez zegoen beste aterabiderik: Egunez, leize-zuloetan bizi, eta gauez bakarrik basora urten.

Aaa!, bañan, ordainduko zuan norbaitek, egin zioten txarkeria! Egunak, bai, erri-jende eta maitagarrientzat bearako zuan izan; bañan gaua, ja, jail, gaua beretzat eta bere endakoentzat bakarrik, eta ai! bere atzaparretan erortzen zana!; eguzkia sartuta gero edo jaiki aurretik, etxetik at ausartzen zana... Aren errukarri!

Illun-abarrean, leizetik irtetzeaz bat, deadar izugarri bat egiñ oi zuan, «Gaua gauekoarentzat» oju egiñez, eta bereala asten zan, bere gaue-roko ibillia egiten, basorik baso, mendirik mendi, aalik-eta, egun sentiruntz, leize-zuloan berriz ezkututzen zan arte.

* :- :-

Basajaunaren ibilli ortako arrapakiñik kuttunena, neskatxak izan oi ziran. Maitagarrien antzekoak izanik, aiengan bere apena artzeko egokienak ziralako nunbait. Asko erori zirala, diote, aren atzaparretan, gauez, etxetik ata geixko ibiltzen ziralako.

Ikazkiñak ere errez jausten ornen ziran, txondorra zala ta ez zala, ikaz-lana, illunabarrean geiegi luzatzen zutelako. Auen artean, ba-omen zan bat, Olentzero deitua, egun baten oso larri ibillia. Berez zurruteroa zalako ez baña, izardiak gaizki artzen, eta lanak izaten zitualako, sarri, ardoari neurria artzen.

Orixe bera gertatu zitzaion illunabar batean, eta, al zuan bezela, bere txabolara zijoala, basajaunaren oiñotsa somatu bere ondoren. Basajauna ikusi... ez ornen zuan ikusi bere begiz, bañan bai, aren arnasotsaren beroa bere bizkarrean nabaitu. Eskerrak basajaunak lepezama-

rretik eltzera zijoan une berean, bere burua etxeko atean barrena, jaurti zuala, bere moskor da guzti.

—«Eroriko aiz baí oraindik, moskor arraio ori! Eskerrak etxe barrena, egunezkoarena dala». Itz auek esanda, alde egin ornen zuan andik basajaun izugarriak.

Egun artatik aurrera, eme ibiltzen zan Olentzero, illuntzean garaiz etxerutzen, eta zatoaren tripotxa ez geiegi zanpatzen.

*

Basajaunak, bere buruaren zoritxaraz oartzen zan bakoitzean, amorro bizia somatzen zuan errai barruetan.

Baña, nola irten, gañean zeraman, madarikapen artatik?

Alperrikoa zan maitagarriari, berak egindako iraiñaren barkapena eskatzea. Ez zion emango.

Bestaldetik, bere aundi-uste eta arrokeriak ez zion uzten, iñoren aurrean burua makurtzen. Naiago zoritxarrean iraun, amur eman baño. Orregatik dago susmurra, basajaun aiek ez ote ziran, gero, inpernuko deabru berberak. Aiek ere orrela bait-dira: naiago inpernuan egon, Jainkoari barkapena eskatu baño.

Amurrazio aietako baten, bere aita Jupiter'i deadarka asi zitzaion, biziro asarre:

Nun ago i? —deitzen zion—. Zer egiten dek, gu orrela ikusita? Ez al duk gutaz kupitu bear? Ez al duk gure ardurarik? Gu, jendeak iruzurtzeko bakarrik al gaituk? Guda-gizonak iritxi ezin dtuzten garaipenak, iretzat eta Erroma'tarrentzat lortzeko? Eta au al dek, lortu degun guztiaren ordaña? Betiko madarikatuta gelditu bearra? Joan adi ba, nai dekan tokira! Ez diat eta ez diagu geiago ire bearrik? Ikusten niok gañera, emen, basoko jende onek gurtzen duan Urtzi ori, i baño askoz aundiago, obea indartsuagoa dala. Oien odolekoak bagiña, oraintxe bertan, i zapuztu eta Urtzi ori gure jainkotzat artuko genikek. Madarikatua i, gezurti alena!

* ❄ ❄

Egun-senti bat zan —dio Olentzero'k bere idaztian—.

Txondorrera joateko gertatzen ari ornen zan, ondo gosalduta gero, berak oi zuan legez. Abarkak lotzen ari zala, marmar oi-ez bat somatu, ez oso urruti, berak ondo ezagutzen zuan, basajaunaren leize-aldetik, aizeak zekarrela. Zer ote zan jakin nai, eta leio xirrixto bat iriki ondoren,

ezkerreko begiz bakarrik —baezpada-re— begira jarri ornen zan.

Zer ikusiko? eta, naiz oraindik egun-sentiko illunabarra izan, artzak bezelako pizti-sail ikaragarri bat nabaritu ornen zuan, basajaun nagusiaren leize aurrean. Alako baten, ixil-unca, eta bereala, norbait izketan asi. Basajaun nagusia besterik ezin izan ziteken, onela asi bait zan: «Anai basajaunak! Zer dala-ta deitu zaituztedala, galdetuko didazute noski?»

—Ez dakit —dio Olentzero'k— orru ala marru izan zan, pizti aiek eman zuten erantzuna.

Bañan basajaun nagusiak onela jarraitu zuan:

«Oso berri negargarri bat eman bearrean arkitzen nauk zueri, zera, gureak egin duela. Orain arte, gure zoritxar du guzti, gauaren jabe izan gaituk; emendik aurrera, gauezkoa ere kendu egiten digutela jakin diat, ots, egunaren jabe bakarrik ziran gizaki oiek gauezko aginpidea ere eureganatu egiten dutela... Orregatik gureak egin duela.»

Une ontan, azpiarmoni ikaragarria eta uluak ere entzun zituan Olentzero'k leio-xirristotik... Gero.

—«Bai —jarraitu zuan basajaun nagusiak—, Urtzi'ko jauna gurtzen duten oiek, euretako bat jaingo izatera eldu dituk. Gaur euki dedan ametsak garbi eman zidak gertatu guztiaren berri. Zeru goian, gure jaingo eguzkia baño askoz goorago, maitagarri bat ikusi diat, baño ez gure arteko maitagarri auetakoa. Auek tximu itxusiak dituk aren ondoan. Ez dik oraindik iñork ikusi ura bezin sorkari eder eta maitagarri-rik. Gure eguzki jauna baño milla bider argi dizdiratsuagoz inguratuta ikusi diat. Illargi amandrea ere, bere oñetan zegoen, etzanda apal-apalik. Eta bapatean, sekula ikusi ez dedan bezelako aur zoragarri bat agertu dek aren besoetan. Maitagarriak berak egiña, Urtzi'ko jaunak sotarazi ta gero. Beraz Urtzi beraren semea dek, bañan gizakia. Gero tximista eta trumoi tartetik, onoko itz auek entzun dizkiat: «Au da nere seme mai-tea, oneri ematen diot nere aginpide guztia, zeru ta lurrean.»

Gauzak orrela, gizona zkoa neurri ontako aginpidez jabeturik, guk zer egin? Gaua eta eguna, biak gizakienak dirala, gu nora joan? Garai batean bezela, eder eta bikaiñak ba'giña, ibilliko giñuzteken euren artean, jendeak atzipetzen eta abar, baño zoritxarrez, itxusiak gaituk, eta orrela iraun bear, sekula betikorun.

Beraz, erabaki au artu bearrean arkitu nauk. Entzun:

Emendik laster, ba-ziok or amildegi egoki bat. Danok batean, iñor-

txo atzera gelditzeke, ortik beera, Kantauri itxasora, geure buruak jaurti ditzagula. Orrela, mundu argi onetatik iges egiñaz, itxasoaren erraien illunpeak artu gaitzala betiko. Nork zekik, itxasoaren sabelean, zori obeagoren bat ez ote degun aurkituko. Or izango dek gure Neptun indartsua ere, eta bearba'da eukiko dik gure alde zerbait egiteko, aalmen pixka bat.

Beste gabe, goazemazute danok esandako amiltegi ortara.»

Ogei milla deabruk ez zuten aterako basajaun-sail arek atera zuan zalaparta. Danak amiltegi aurrean gelditu eta... «bat, bi, iru, lauuu»!!! —entzun zuan Olentzerok, txabola barrendik— eta bereala, izugarrizko plastada, Kantauri'ko itxas bizkarrean... Eman zioten astindua, Ingalaterra'ko itxas-bazterreraño eldu zala, diote, eta bien tarteko ur guztia irakiten jarri.

Eta kitto! An gelditu ziran betiko, euskal mendietako basajaun guztiak.

Ura Olentzero'n poza!

Txabolatik irten eta jaurti zuan irrintziaren luzea, garbi entzun ornen zuten Urbia'ko artzaiek.

Soñean zeuzkan lan-erropak kendu, jai-egunetako brusa beltza, prak berri, galtzerdi eta abarkak jantzi, eta aintxintxiketan, kalera bidea artu zuan.

Zertara ordea, txondorra utzi-ta, kalera, aste-egun buru-zurian?

Orrela zioten, arri-biur, bere lagun eta auzokoak, jausika —txondorrak txondor—; mendian beera ikusi zutenean.

Zertara?

Ez dakizute asko!

Ba..., leio-xirristotik basajaunari entzundako amets-albistea erri guztian zabaltzera. Arek esan bait-zion, iñork uste gabe.

JESUS JAIO ZALA!!!

BERGARETXE'tar JON JOSEBA
Oiartzun'en

IZPARRINGIETAKOAK

Elgetan 1972`go epaillaren 25`ean AGUR`ekoen batzarrean izlari, «Abeletxe» ta Agirre`tar M. Dolores`en artean zutik, Elbire Andereñoa.



Elgetan egun berean, guda-aurreko ídazteak:
Basarri, Elbire, Tene Mujika ta Basarri`ren emaztea. Atzean, Labaien, Miner eta «Abeletxe».

OMENALDIA DALA-TA IDATZITAKOAK

Bai Omenaldi-egun berean, baiña bai aurrez eta bai ondoren, irratiek eta egunkariak naiko ongi eman dute ospakizunaren berri.

Gure BASARRI aundiak eta Aizarna'tar Xanti'k ederki adierazi zuten alde zurretik zer-nola izango zan Omenaldia; aldi berean, Zipitria'tar Elbire zanaren nortasuna azaltzen ere ez ziran motel ibilli; azkenik, oparo eman zuten ospakizunaren laburpena ondorenean. Au dana, «Diario Vasco» egunkarian, noski.

Ez zuan gaizki jokatu «Deia» egunkariak ere, Atxaga'ren eta M. J. Azurza'ren idazlanak argitaratu bai-zituan, ekainillaren 9'gna baiño leen, egun berean eta ondoren.

Irratiek ere ongi egin zuten zabalkundea, zenbait elkar-izketa alde guztietara barreiatuz. Bidezko gauza zan, noski. Izan ere, «Andereñoen Andereño» deitura opa izan diogun emakumeari, ezitzaille arrigarriari aixa zor bai-zitzaion ori guztia ta geiago.

Ez da egokiera txarra izan, egia esan, Ikastolen sortzaillearen nortasuna ezagutzera emateko. Zerbaitetik asi bear genuan eta orra asiera emanik. Jarraitzea dagokigu euskaltzaleoi.

Bai Bipitria'tar Elbire bera ta bai omenaldia, luzeen eta zabalenik azaldu dituana —arritzekoa ere ez da!— «Goiz-Argi» aldizkaria izan da, guk dakigunez beintzat. Orregatik, «Omenaldi-Liburua» dalako ontara aldatu dugu oso-osorik asi-ta-buka erri-euskeraz idatzita dagoanez. Bizkaia'n ZER'ek ere Olazar'en «ATSEDEN IZAN BEGI» idazlana; au ere osorik dakargu liburura.

Beste guztiek idatzi dituztenak beren osoan liburu ontara aldatzea, luzeegi gerta daiteke. Bestalde, gazteleraz idatzita daude erdiak eta guk euskera utsean opa diogu liburua Elbire euskaltzale sutsuari. Ulertzekoa da noski.

ARREGI'TAR PAKITA'REN AITORPENAK

Arregi'tar Pakita'k «Egin» egunkarian ekainillaren 8'an idazlan egokia idatzi zuan. Eta zenbait aitorten benetan arrigarriak eta eskertze-koak egin zituala esan bear. Emen ipiñi ditugu berezien eta jakingarrienak.

Eziketa-gaietan edo pedagogian, eta beste geiagoren artean, «lore xar-manta» eta «bitxierna agian» izan zala Elbira, «emakume aipagarri» ura. Maiz eztabaidatua, baiña aparteko emakumea ta «zor dion goratzarrea» opa dio.

«Anitz dira Elbira'gan miresten ditugun alderdiak»; guztien gaiñetik, «eskolamaistra izateak eta langintza berari eman zion edukiak jotzen du gure irakasle-barrena».

Zergatik, ordea? Langintza ori, «trebe, egoki, begizorrotzez, argitasunez jantzirik» eskeiñi zielako irakasleei, eta gaiñera, *maistraki lana nola egin agertu zigulako*», aitortzen du Pakita irakasleak.

«Elbiraren alderdi nagusienei goratzarre aipamena egiteko» eta arek «utzitako ezaba ezineko arrastoak gogoratzeke», orri asko bear lituzkeala dio. Oraingoan beste zerbaitetara mugatu ditu bere lerroak.

Ikerketa sakonak egitera ez dator, berak dionez: «Ez diskurtso pedagogikoaren legepean egiteko, sentimentuzko eskerronez darien ale batzuk agertzekeo baizik. Eta areago oraindik, noizbait guregandik bestelakorik jaso bazuen ere —gaztaroaren arrandiak eragindako lotsagabekeriren bat—, urte batzu pasa ondoren...» aitorten bat opa dio.

Pestalozzi suizar eziketari ospetsua gogorazten ornen dio Elbira'k. Eta bi aldetatik ori: erriaganako maitasuna batetik, irakasbidearen argitasuna bestetik.

Erri-kezkak etengabeen irauten ziola Elbira'ri, aitortzen du Arregi andereñoak; eta epe luzerako ikuspegitik, erri-ikuspegi zabaletik begira ari izan zuala bere lana. Euskalerrri osoaren jasokunderako zuzpergarri izan bear zuan eskola, benetan erri-eskola jatorra izan zedin, oiñarriak ipintzen ari zan, etika ta psikologia euskarrizat ipiñita noski.

Euskalerrri osorako euskal-eskola, bearrezkoa zala, eta erarik oneneko nola izan zitekean, Elbira'k asmatu ta gazteei txertaturiko asmo ta gogetak ornen ziran. Ez da aitorten makala.

Baiña osotasun-ikuspegi ortaz gaiñera, jokabide zeatzak ere eskeintzen zizkien irakaskintzarako gertutzen ari ziranei. Onela dio Arregi'k:

«Elbira'ren lana arakatuz, zenbait metodo eta tresnei buruzko jabetze batetara ere irits gaitzke». Onela, kultura ez dala gauzak etenik eta zatika ikastea bakarrik: orra beste gauza bat, ikus-erazi ta bizi-erazi ziena Elbira'k bere ingurukoei.

Kultura, beraz, Barandiaran'ek irakasten duan era berean, Elbira' rentzat ere «gogo-lantzea» zala esan bear. Ortatik ateratzen du aipaturiko Pakita andereñoak, onako ondorio au: Ikas-gelarako edo eziketa-gaitzat ez zituala liburuetakoa gauzak bakarrik artzen; edozeiñen gertaerak ere bai, aserreak, ez-bearrak, urtemugak edo urte-betetzeak, eriotzak, jaiotzak, erriko gertaera txikiak eta munduko gertaera aundiak: bakoitza aztertzen zuan, beraz, guztien aurrean eta... ezigarritzat.

Ikastola ta eziketa-giroan ezagunak diran Esnal'dar Karmele, Etxeberria'tar Feli ta Mendizabal'dar Arantxa izendatzen ditu aipaturiko idazlanak eta iruon aitortpenak dakarzuki Elbira'ren irakasbidea goraltzera.

«Argitasuna zen Elbira'ren ikas-gelako ezaugarri bat... Biguin baiña firme erakusten zizkien alderdirik zailenak»... Ez dira doai txarrak eziketarako! Berak argi ikusi lenengo, eta gero umetxoei argi ta garbi ikus-erazi... Ori zan Elbira.

Izkuntza ta matematika ziran, noski, besteak beste, erarik berezian irakasten zituanak. Eta alaxe aitortzen dute Pakita'k berak eta onek aipaturiko iruek. Geiago aitortzen dute: *«Zenbakiaren irakaskuntzan zenbait alderdi oso bereziak baditu, Arantxa Mendizabal'ek dioenez, didaktika berriak oraindik gainditu gabekoak»*. Bada zer bait aitortzea, alajai-fletan.

Azkenik, onela dio idazlanak: *«Elbira andreak eskola-gaiak baterakoi zentzuan erabiltzen zituen»*. Eta, jakiña, gai guztiak era egokian korapillatzekoan, izkuntza egoki erabilli ta lantzeaz baliatzen zala benetan maixukiro.

20-5-84

Xavier DIHARCE IRATZEDER
Jesus GAZTAÑAGA'ri

Jaun agurgarria:

ZIPITRIA IRASTORZA oso guti ezagutu dut; bainan haren eskutitz bakotxari, nere erantzuna biali diot beti.

Hartaz ez dut deus erraitekorik.

Norbaitek egiten badu, haatik, lan bat edo liburu bat, hemen dauzkat haren 89 eskutitzak.

Zuentzat on balin badire, emanen diozkat Aita Lino-ri eskuetan.

Euskararen alde, zuen adiskide,

Izenpea,
Xavier Diharce, IRATZEDER

Gasteizen, 1984ko Ekainaren 11 an.

EUSKERAZAINZA-ren Idazkaria
DONOSTIA

Agur adiskideok,

Zipitria-tar Elbire Andereñoari atzo zuen eskutik Euskalerriak eskeini dion omenaldian elkarrekin izango ginen esperantzarik es nuen galdu azken ordurarte. Baina ezinbesteko beste zerreginek okertuarazi zizkidaten nere asmoak. Dena dela, nere ordezkotza ezin hobea izan zenutela esan dezaket.

Hala ta guztiz, nere aldetik, bihotz-bihotzez eskertu nahi dizuet, Zipitria Andereñoari egin diozuten omena. Horrenbeste ta gehiago zor diogu hamai-ka andereñooren Andereño íaio, langile, zintzo, jakintsu eta aspergaitzari, euskaldun, euskalzale eta abertzaleok oro.

Ea beste batean hutsegin beharrean gertatzen ez naizen! Bitartean, agur adiskideok, agur t'erdi eta jarrai euskararen -eta beraz, gure Euskalerría-ren- aldeko lanari.

Besarkada banaz,
Carlos Garaikoetxea

Paris, le 3 de noviembre 1985.

Muy señor nuestro,

Por indicación de Latxaga, le enviamos, en forma de carta, nuestro homenaje a Elvira Zipitria. Le rogamos publique nuestra carta en francés para que se vea que la personalidad de la homenajeadá merece una atención internaciól.

Suyos affmos.

Maurice MOLHO - Jean-Claude CHEVALIER

* ✎ ✎

Cher Monsieur Gaztañaga,

Nous avons appris que vous prépariez un Hommage á Elvira Zipitria.

Nous n'avons connu cette dame que par ce que nous a rapporté de son enseignement notre élève et ami Juan Latxaga.

Nous ne sommes que deux linguistes, bascalagues d'occasion, ignorants de la pratique du basque. Mais il nous a paru qu'Elvira Zipitria méritait que nous nous associions á ceux qui rendent hommage á sa mémoire.

Elle a su montrer qu'une pratique pédagogique lucide pouvait conduire, mieux que bien des analyses savantes, aux principes organisateurs du systéme linguistique basque.

Il n'est pas exclu que des recherches théoriques ultérieures fassent apparaître l'inexactitude partielle de certaines des «recettes» pédagogiques qu'elle mettait en oeuvre. Il n'en demeure pas moins que, s'il en était ainsi, ces inexactitudes n'auraient jamais été que des «erreurs á bonne pente» : de ces erreurs qui ont la vertu d'obliger á poser les problèmes en termes adéquats et qui, de ce fait, sont bien plus féconds que nombre de vérités ponctuelles et restreintes. Ainsi de **la fuga del NORK** qui a eu certes son efficacité pédagogique, et qui en tout état de cause a su conjurer, par le déplacement qu'elle suppose (**fuga**), l'erreur qu'im-

plique l'idée de marqueurs ergatifs tantôt finaux, tantôt initiaux. L'hypothèse de la **fuga** permettait, en fait, d'apercevoir qu'une propriété du basque est que le marqueur initial de son verbe ou de son auxiliaire est, dans des conditions parfaitement définies, indifférent au statut que, **dans l'expérience**, s'attribue l'être désigné par ce même marqueur. Bref, le dynamisme postulé dans le terme **fuga**, inventé par Elvira Zipitria, nous délivrait du statisme des descriptions savantes et des obstacles **qu'il a** si longtemps suscités.

Quand elle n'aurait rendu possible que ce progrès, elle aurait droit à l'**Hommage** qui lui est aujourd'hui offert.

Croyez, cher Monsieur Gaztañaga, á notre entier dévouement.

JEAN-CLAUDE CHEVALIER et MAURICE MOLHO
(Université de Paris-Sorbonne)

AURKEZPENA

ARKIBIDEA

ORRIA

Aurkezpena	Euskerazaintzak	3
Omenaldia Euskerazaintza'k antolatua	Garmendia Esnaola	7
I - AKADEMI-MAILLAKO OMENALDIA		13
Elbira Zipitria	"Basarri"	15
Asmoa	Gaztañaga'tar Jesus'ek	17
Aizarna'tar Xabier'en itzak		21
Elbira'ren Gau-Eskola	Markel Izagirre	25
Buru argia ta zorrotza	Agirre'tar M. Dolores	31
Andereño Elbira'ri Gorazarrea	Beitia'tar Kontxita	35
Gurasoen ezker ona	Mendiola'tar Maritxu'k	39
II - ELBIRE ZANAREN EZIKETA-LANA		43
Zipitria'tar Elbire andereñoaren irakasbidea	Mariezkurrena'tar Maritxu	45
Zipitria'tar Elbire ta Erlijioa	Mitxelena'tar Mari Karmen	53
Eskola biziz ta Elbira	Jauregi Arzelus'tar Mertxe'k	59
Euskera ta izkuntza-arloa lantzeko laister-bideak	Peñagarikano'tar Maite	67
Txotxak erabiltzea, Elbiren Irakasbidean	Mariezkurrena'tar Puri	73
Geografia ikastolan	Koruko Aizarnarementeria	77
Elbire'ri aitortpena arrazoiketa ta lan-gogoa	Aizpuru'tar Prexen	81
Elbire Zipitria nor-nori-nork metoduaren sortzaille	Ixidore Baztarrika'k	85
Elbira Zipitria ta euskal aditza	Latzaga	91
III - ELBIRE TA AREN LANAK AZTERTZEA		97
Elbira Zipitria Irastorza (Itzaldi Urumea'ko andereñoei)	Lekuona'tar Manuel'ek	99
Elbira Zipitria Irastorza (Andereño ospetsua gogoratzu)	Aita Joxe A. Garate	109
Zipitria, andre-marizalea	Akesolo'tar Lino	115
Ikastola eta aur euskaldunen eziketa (Elbira Zipitria'ren Omenez)	Arrinda'tar Anes	129
Bi Oroitzapen samur	Aita Onaindia	141
Ira'ren Oroimenez	Artzelus'tar Amale'k	145
Mill-esker Elbira	Etxebeste'tar Joxe Mari	149
Elbira Zipitria, andereño maitagarriari	Del Valle Beorlegi'tar Pello'k	151
Emakume Yaukala	Urrestarazu'tar Andoni "Umandi"	155
Euskerarekiko Alegiñak	Uxola	159
Atsedena izan begi	Olazar'tar Martin'ek	163
IV - ESKEIÑITAKO LANAK		167
Izar bateri	Zubiri'tar Iñaki	169
Zipitria'tar Elbire Andereñoa	Muniategi'tar Xabin	171
Zipitria'tar Elbire nere gogomenean	Labaien'dar Matxin	173
Mielmari Erromesa	Barandiaran'go Joxe Miel	175
Rousseau eta Altuna	Latiegi'tar Bixente	179
Basajaunaren ametsa (Ipuia)	Bergaretxe'tar Jon Joseba	205
Izparringietakoak		213
Sorbona'ko eskutizak		220